

EAEko NEKAZARITZA ETA BASOZAINTZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA

PLAN TERRITORIAL SECTORIAL AGROFORESTAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO



Behin betiko onarpena
Aprobación definitiva
2014

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



Diputación Foral de Gipuzkoa
Gipuzkoako Foru Aldundia

E dokumentua. INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA

INGURUMEN-IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA, 2011KO UZTAILA... 3

**1. ADDENDA. LAPEAN EGINDAKO ALDAKETEN INGURUMEN-ANALISIA.
2011KO ABENDUA..... 219**

2. ADDENDA. INGURUMEN-ALDERDIAK AINTZAT HARTZEA. 2012KO URRIA 221

Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena, 2011ko uztaila

Aurkibidea

INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA, 2011KO UZTAILA

.....	3
1. NBALAPAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK.....	4
2. NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA ANTOLATZEKO LAPAK BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIN DITUEN ELKARREKINTZAK	33
3. NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA ANTOLATZEKO LAPAREN ERAGINPEKO ESPARRUAREN INGURUMENENKO ANALISIA, DIAGNOSIA ETA BALORAZIOA	56

1. NBALAParen helburu estrategikoak

Atal honetan Planaren helburu estrategikoak eta helburu horiek lortzeko aukerak deskribatu nahi dira.

1.1. Jardun-esparrua eta denbora-irismena

1.1.1. NBALAParen aplikazio-eremua

Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak garatzen eta zehazten ditu ingurune fisikoaren antolamenduari buruzko kapituluko "5.2. Ingurune Fisikoaren Elementu eta Prozesuei buruzko Artezpide Orokorrak" eta "6.8. Ingurune Fisikoa Antolatzeko Kategoriak" izeneko atalei dagozkien Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako irizpideak, hainbat epigrafe bereziki garatu arren natura-ingurunearen alde zehatzei buruzko bestelako LAPetan.

Arloei dagokienez, Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAPak nekazaritza- eta basogintza-erabilerak arautzen ditu bereziki; dena den, kautelak ezar ditzake nekazaritza- eta basogintza-balio handiagoa duten lurren biziraupena arriskuan jar dezaketen bestelako erabileretarako.

Oro har, LAP honen antolamendu-esparruak EAE osoa hartzen du, lehendik dauden hiriguneak kanpo utzita; hala, hirigunetzat jotzen dira dokumentu hau behin betiko onartzen den unean udal-planeamendu orokorrean hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen direnak.

Era berean, NBALAParen antolamendu-esparrutik kanpo geratzen dira tresna hau ingurumeneko edo lurraldeko plangintzarekin koordinatzearen ondoriozko beste zona batzuk: Parke naturalak eta babestutako biotopoak (deklaratutakoak edo tramitazioan daudenak), Urdaibaiko Biosfera Erreserba, zona hezeetako II. multzoko hezeguneak, babes bereziko zonak, ingurumen-hobekuntzakoak eta Itsasertza Antolatzeko LAPeko hiri-hondartzak.

EAEko lurzoru urbanizaezina arautzeko oinarri gisa, ingurune fisikoaren definizio bat eta haren berezko elementu arautzaile eta alderdien kontraste bat egin da, honela egituratuta:

- 1) Erabilera eta jardueren definizioa: LAAetan proposatutako eskema erabilita, zona guztietan kontuan izateko erabilera eta jardueren definizio bat egin da.
- 2) Antolamendu-kategoriak: lurzoru urbanizaezina horietan banatzen da, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen ondorioz.

- 3) Gainjarritako baldintzatzaileak: antolamendu-kategorietan jarduera jakin batzuk nola gara daitezkeen mugatzen du, kasu bakoitzean dagoen arrisku motaren arabera eta ingurune fisikoaren elementuak tratatzeko irizpideei eta artezpideei eta LAAetan ezarritako esparruetako jardueren arautzeari jarraituz.

1.1.2. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAParen indarraldia

LAParen indarraldia mugagabetzat jotzen da, hori aztertu arte. Nolanahi ere, lau urtean behin Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Landa Garapeneko Sailburuordetzak memoria bat prestatzea aurreikusi da. Planaren betetze-maila baloratuko da hor, eta lurralde-antolamenduan eta hirigintza-planeamenduan zer eragin duen. Eta hala badagokio, detektatzen diren desegokitasunak ekiditeko zer neurri hartuko diren definituko da, halaber. Memoria hori Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordean aurkeztuko da, haren berri izan dezan.

1.2. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAParen helburuak

Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAPak txosten oinarrizko, globalizatzaile eta dinamikoa izan behar du; batetik, nekazaritza- eta basogintza-erabilerak antolatzera bideratutako jarduerak planifikatu eta kudeatu behar ditu, lurraldearen planeamendu orokorreko esparru batean; bestetik, nekazaritza-sektorearen interesak defendatu behar ditu bestelako erabileren aurrean.

Planteatutako helburu nagusiak hauek dira:

- Nekazaritza-lurra definitzea eta babestea, nekazaritza- eta basogintza-jarduera orekatu baterako ezinbesteko baliabide gisa.
- Egungo landa-egoera zehaztea: Nekazaritza-jarduerak, ustiategi produktiboenak, lehentasunezkoak, uzte-arrisku handienekoak, mehatxu handienak... non dauden jakitea sustatzea.
- Plangintza landa-irizpideetatik planteatzen duen lurralde-antolamendu bat bultzatzea. Ildo horretan, LAAetako Ingurune Fisikoaren Artezpidetik abiatuz, antolamenduak kontuan izan behar ditu nekazaritzako eta basogintzako premiak eta ikuspegiak. Hala, hainbat erronka planteatzen dira:
 1. Nekazaritza- eta basogintza-jarduerak ingurumenaren kontserbazioa bermatuko duten funtsezko faktoreen artean finkatzea.
 2. Kantitateari eta kalitateari dagokienez, nekazaritzako eta basogintzako jarduerak bideragarritasun-baldintzetan garatzeko behar diren azalerak ziurtatzea.
 3. Landako eragile eta populazioak antolamendu- eta babes-politiketan inplikatzeko.

4. Landakoaren zeregina berriz ere definitzea, industriondoko fasean sortutako esparru sozioekonomikoaren ikuspegitik: herri-erabilera, bizikalitatea, etab.

5. Lurraldearen sare-garapena sustatzea, erradialaren kaltetan.

- Jardun-tresna baliozko eta aplikagarriak planteatzea, arloa eta haren inguruneak nekazaritzakoak eta basogintzakoak ez diren erabileretatik (batik bat bizitegi- edo industria-azpiegitura eta -erabileretatik) babestuko dituztenak, eta elkargune-zonetan planeamenduen arteko koordinazioa ziurtatzen dutenak.
- Landako eta Basogintzarako Plan Estrategikoak, Lurraldea Antolatzeko Artezpideak eta aurretiko antzeko dokumentuetan lurraldea antolatzeko eta planifikatzeko bildutako artezpideak eta irizpideak biltzea.
- Udal-planeamenduak lurzoru urbanizaezinean egindako zonifikazioan irizpideak eta kontzeptuak iradokizun gisa bateratzea, LAAetan proposatutako lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioaren garapen bat eginik LAPean.
- Nekazaritzaren babesa ingurumenekoarekin bateratzea.
- LAP honen emaitzen hedapena segurtatzea, lurraldea kudeatzeko eta planeamenduko bestelako dokumentuetan kontuan har dadin. Nekazaritza- eta basogintza-politika gainerako arlo-politikak biltzen dituen lurralde-esparru batean sartzeko tresna honek eskaintzen duen aukera baliatzea.

Planak arloko ingurumen-politikako oinarrizko printzipio batzuk hartzen ditu bere gain. Aurreko helburu guztien artean, argi identifikatzen dira **ingurumen-helburu** gisa hauek:

- Nekazaritza- eta basogintza-jarduerak ingurumenaren kontserbazioa bermatuko duten funtsezko faktoreen artean finkatzea.
- Nekazaritzaren babesa ingurumenekoarekin bateratzea.

Helburu hauek planaren politika-esparrua ezartzen dute eta, horrela, argi ematen du egoeraren analisia eta diagnosia egiteko, ingurumeneko arazo eta gaien irismena erakusten baitu, eta planak horietaz arduratu behar du garapena modu iraunkorrean kudeatzeko.

1.3. Aukeren analisia

NBALAParen hasiera 90eko hamarkadaren amaierakoa da, duela 10 urtetik gorakoa, eta historia luze horrek baldintzatu du aukera ugari kontuan izatea LAParen edukiak eta irismena definitzean; izan ere, faktore ugari eragindako aldaketa-prozesu etengabe gisa soilik uler daitezke horiek.

Ingurumen-iraunkortasuneko txosten honen 4. atalean gero garatuko den bezala, LAP prestatzeko prozesuan "aukera" gisa uler daitezke LAParen fase guztietan orain arte aurkeztutako dokumentuak –lurralde-ereduari buruz dagozkion

proposamenekin batera-. Aurrerapena, hasierako onespena, behin-behineko onespena eta behin betiko onartzeko dokumentua.

Fase horiek guztiek ekarpen batzuk dituzte aurrekoen aldean, eta ingurumenean izan ditzaketen ondorioengatik, hauek nabarmen daitezke:

- Aurrerapena (2001eko iraila):
 - o Lurzoru urbanizaezin guztia hartzen duen lurralde-ereduaren proposamena.
 - o Erabileren araubide loteslea oro har.
 - o Eduki zabalak natura-inguruneari buruz: espazio babestuak sartzea, etab. (Nekazaritza eta basogintza eta natura-ingurunea antolatzeko LAP).
 - o Kategoriak proposatzea LAAak garatuz.
 - o Gainjarritako baldintzatzaileen proposamena LAAen osagarri.
 - o Erabilera identifikatzea/banatzea LAAak garatuz, arloa hobeto islatzeko.
- Hasierako onespena (2005eko urtarrila):
 - o Natura-inguruneari buruzko edukiak murriztea (NBALAP), baina hala ere gainjarritako baldintzatzaile berriei (ING, higadura, paisaia) eutsi egiten zaie.
 - o Baso-kudeaketa iraunkorrari buruzko kontzeptuak sartzea (arloaren testuingurua).
 - o NBALAPetik babestutako beste zona batzuk ateratzea.
 - o Erabileren araubide loteslea oro har, baina aurrerapenarekiko aldaketekin.
- Behin-behineko onespena (2010eko azaroa):
 - o LAPetik beste zona babestu batzuk ateratzea: hezeguneetakoak, etab.
 - o Kategoriak aldatzea.
 - o Erabilera-araubidea berraztertzea. Aldaketak matrizean, ñabarduretan eta LAParen lotespen-mailan.
 - o Natura 2000ri buruzko arau-erreferentziak sartzea.
 - o Kartografia berraztertzea, Arabako Mendia gainkategoriaaren azalera neurri handi batean handituta, eta lekututako ia guztiak ezabatuta.
 - o Basogintza-sektoreari buruzko edukiak gehitzea: Mendiei buruzko Legea, erabilera publikoko mendiak, Baso Baliabideak Antolatzeko

Planak (BBAP). Horrela oreka bat lortzen da nekazaritzako eta mendiko zonen artean.

- o Argitzea LAP beste LZP eta LAP batzuekin nola koordinatu behar den eta nola egokitu behar den udal-planeamendua.
- Behin betiko onespenerari buruzko dokumentua (2012ko ekaina): praktikan eutsi egiten zaio LAParen behin-behineko onespenerari, aldaketa bat soilik egin da dokumentuaren egiturari eta ezabatu egin dira (1) aplikatzeko den beste araudi batean jasotakoa errepikatzen duten edukiak, ez delako beharrezkoa NBALAPean berriz jasotzea; eta (2) NBALAPak proposatzen zituen txosten batzuk, nahiz eta hori ez den tresna egokia hori egiteko. Era berean, natura-ingurunea zaintzeari buruzko eduki batzuk zabaldu egin dira. Dokumentuaren aldaketa ez-garrantzitsuak direla pentsatzen da, NBALAParen helburuak eta lurralde-ereduaren proposamen orokorra ez direlako aldatu.

IITaren 4. atalean xeheago jasotzen da dokumentuak prestatzeko jarraitutako prozesua, eta kontuan izan dira honelako ingurumen-irizpideak ere:

- Nekazaritzako lurzorua eta natura-baliabideen (eta bereziki nekazaritza-kategoria eta basogintza-kategorietako balio naturaleko zonen) zaintza modu bateragarrian babestea.
- NBALAPean indarrean diren ingurumen-araudia eta -plangintza behar bezala kontuan izatea.
- Nekazaritza-lurzorua baliagarri bilakatzea ingurumen-zerbitzuen balizko beste hornitzaile gisa.
- Erabilera-gatazka handiagoa dagoen lurzoruetan lan egiten ari dela norberaren gain hartzea, lurzoru horien babesa azpimarratuta, natura-intereseko elementuetan kalterik sortu gabe. Azken horiek, aitzitik, intereseko elementu gisa bilakatu dira baliagarri nekazaritza- eta basogintza-matrizearen barruan.

Erabakitze-prozesuak NBALAParen egungo proposamenera eraman du, hori behin betiko onartzeko aurkezten den dokumentuan jaso da eta "aukeratatzat" jotzen da. Euskal landa-espazio pluriaktibo eta multifuntzional baten bideragarritasuna segurtatuko duen lurralde-eredu bat bultzatu nahi da hor, eta lurralde-gaiei buruzko erabakitze-prozesuetan eredu hori sartzeko bide bat zabaltzea ere ezarri nahi da. Euskal administrazioek ingurumenaren, biodibertsitatearen zaintzaren eta klima-aldaketaren arloetan beren gain hartutako konpromisoekin koherentea den antolamendu-eredu baten proposamenean ere aurrera egin nahi du.

Oro har, NBALAPak izaera sektorialagoa hartu duela esan daiteke (garatu behar dituen eskumenen ondorioz), baina neurri handiagoan inplikatu da EAEko natura-baliabideen zaintza indartzen duen proposamen batean ere, bai LAParen helburu-

zonetan (nekazaritza- eta basogintza-arlorako balio handieneko lurzoruetan), bai lurzoru urbanizaezinaren gainerakoan.

“0 aukera” edo “ez esku hartzeko” aukera bat (hots, NBALAPik ez badago aplikatzekoa litzatekeena) egoteari dagokionez, aukera hori benetan ez dagoela pentsatzen da: LAParen aurrerapenera buruzko dokumentua argitaratu zenetik, udalerriek hark proposatutako kartografia eta erabilera-araubidea erabili dituzte beren lurralde-planeamendua eraikitzeko. Ondorioz, orain ezin da “0 agertoki” batez hitz egin (LAPik gabe).

Nolanahi ere, eta egungo egoera ikusita, ondoriozta daiteke NBALAPean proposatutako neurriak behin betiko onartzen ez badira, landa-eremuko eta hirigintza-antolamenduko joerak egungo joerari jarraituko diola. Horrek berekin dakar nekazaritza- eta basogintza-lurzoru hoberenak sakrifikatzea hirigintzako eta azpiegituretako interesen mesedetan, nekazaritza-arloaren gaineko ondorioen analisi egokirik gabe. LAParen ekarpen nagusietako bat nekazaritza Arloko Afektazioaren Ebaluazio Protokoloa da, erabakiak hartzea erraztera eta aukerak hautatzera bideratua, nekazaritza-arloko eraginak kontuan izanda, ingurumenekoez gain.

1.4. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAParen proposamen edo helburu operatiboak

1.4.1. Funtsezko proposamen edo helburu operatiboak

Lehenago azaldutako helburu orokorren arabera, NBALAParen ondorioz sortzen diren helburu operatibo nagusiak edo proposamenak, dokumentu osoan zehar islatzen direnak (batzuetan ez dira modu esplizituan adierazten baina), hauek dira:

- Nekazaritza-lurra definitzea eta babestea, natura-ingurunea eta paisaia zaintzeari estu lotutako baliabide gisa (larreak, heskaiak, etab. mantentzeko lagungarri delako).
- Nekazaritza Arloko Afektazioaren Ebaluazio Protokolo bat (AAEP) sortzea eta planak eta proiektuak tramitatzeko prozesuan inkardinatzea; horrela, nekazaritza-lurzoruko eta ustiapenetako afektazioa kontuan hartuko da aukeren analisia egitean, eta inpaktu handiagoa duten soluzioak saihestuko dira. Plan eta proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudiak aipatzen du horien prozeduretan nekazaritza-ingurunekeo afektazioaren ebaluazioa egiteko premia, baina ez du garatzen nola heldu ebaluazio horri, eta NBALAParen bidez konpondu nahi da hori, geroko araudi-garapen bat izan dezakeen hasierako hurbilketa baten bidez.
- EAEko landa-ingurunearen egoeraren diagnosi bat egitea. Hor nabarmentzen da zer zeregin garrantzitsu duen natura-, paisaia- eta kultura-ondareak haren espektatiba ekonomikoen barruan, nekazaritza-jardueraren euskarri gisa duen

interesaz gain. Nekazaritza-sektorearen indargune eta ahulgune handienak kontuan izatea ingurumenaren ikuspegitik. Lehenengoan artean nabarmentzen dira natura-baliabideen erabilgarritasun handia, Babestutako Natura Guneen Sarearen hazkundera, baso-azalerari eustea eta basoak egiaztatzeke neurriak abian jartzea. Aitzitik, oraindik ebazteke daude nekazaritza-jarduera desegokien, jarduera uztearen eta abarren ondoriozko ingurumen-arazoak.

- Nekazaritza Administrazioek aldizkako plangintzako dokumentu estrategikoak (Euskal Landa Plan Estrategikoak) idaztea. Indarrean dago EAeko Landa Garapeneren Plana 2007-2013, eta hor iraunkortasunaren aldeko apustua egiten da nekazaritza-baliabideen kudeaketan eta barnean hartzen ditu egitura-politikan eta landa-garapenean garatu beharreko jardunak. LAPak bere gain hartzen ditu dokumentu horretan nabarmendutako nekazaritza- eta ingurumen-laguntzak nekazaritza-garapena eta ingurumen-kontserbazioa bateratzeko.
- Euskal Basogintza Planaren (1994-2030) helburuak bere gain hartzea: horien artean agertzen da *“zuhaiztutako mendien dibertsitatea eta iraunkortasuna bermatzea, basoak eta ekologia- eta paisaia-segizioa mugatuta, antolatuta eta artikulatuta”*.
- Natura Baliabideak Antolatzeke Planen (NBAP) barruti hierarkikorik handiena bere gain hartzea Babestutako Natura Guneen plangintzan. Hortaz, tresna horietan eskuordetzen ditu natura-ingurunearen babes eta nekazaritza- eta basogintza-erabileren antolamendua gaur egun NBAP idatzi bat duten espazioetan (Urdaibaiko Biosfera Erreserban, parke naturaletan, biotopo babestuetan...). Espazio horiek NBALAParen antolamendu-esparrutik kanpokotzat jotzen dira.
- Oro har, lurzoru urbanizaezin guztiaren antolamendu xehatua egiten da LAAen lurralde-eredua egokituta. Antolamendu hori antolamendu-matrize batean oinarritzen da eta bideratuta dago batik bat nekazaritza-lurzorua baliabide ez-berriztagarri gisa babestera, baina balio handieneko kategoriak zaintzea ere azpimarratzen du haien natura-interesengatik.

Ildo horretan, lehen zatiketa handi bat proposatzen da lurraldean: “mendia” eta “landazabala”.

Lehenengoaren barruan daude goi-zonak. Hor biltzen dira natura-ondarearen aztarna ugariak, basogintza- eta abeltzaintza-erabilerak dituztenak, eta erabilera sekundario edo tertziarioengatik lurzoru urbanizatzeko mehatxua unean unekoa izaten da hor. Hala ere, natura- eta paisaia-balio handieneko gune gehienak hor daudela ulertzen da eta, beraz, hor definituko dituzte udalerriek egoki deritzoten Babes Bereziako Ereduak, LAAen aginduari jarraituz.

Aitzitik, eta isurialde kantauriarrean garrantzi bereziarekin, “landazabaleko” zonan biltzen dira haran-hondoak eta mendi-hegalen behealdea. Lurzoruagatik lehia borroka latza da hor hirigune, bide, ibai-sare, labore eta abarren artean...

Hain zuzen, zona horietan da beharrezkoa ekosistema naturalak zaintzea eta babestea, horiek presio urbanizatzaileen aurrean duten ahultasun handiagatik.

- LAAen antolamendu-kategoriak banatu egiten dira, egungo erabilerek eta lurraldearen erabilera-ahalmenak unitate homogeneoetan bat egiteko.
- Bereziki, balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintzako guneen kartografia egiten da, nekazaritza-jardueraren bideragarritasunerako funtsezko kontserbazio-gune gisa. Horrekin LAAen hutsuneak bete nahi dira *“nekazaritza-ustiapenerako egungo edo balizko egokitasunagatik babestu egin behar diren lurzoruen definizioari”* dagokionez.
- LAAen babes bereziko kategoria ez da berariaz mugatzen NBALAPean, zona horiek LZPek eta udal-planeamenduak identifikatu behar dituztela jotzen baita. Baina LAPak *“Natura Intereseko Guneak”* (neurri batean LAAetatik datorrena), *“Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak”*, *“Korridore ekologikoak”* eta *“Gutxi aldatutako paisaia duten guneak”* gainjarritako baldintzatzaileak gehitzen ditu kategoria hori definitzeko oinarri gisa, eta gainera udal-planeamenduak babes bereziko gisa izendatzeko, zonek zer ezaugarri izan behar dituzten biltzen du –LAAei jarraituz–.
- Natura 2000 Sarearen zati izateko proposatu diren guneak *“Natura-intereseko guneak”* gainjarritako baldintzatzailearen barruan daude. Hor, LAPak onartzen eta adierazten du aplikatzekoa dela 92/43/EE Zuzentarauak ezarritako prebentzio-erregimena eta, gune horiek kontserbazio bereziko zona deklaraturakoan eta/edo dagozkien kontserbazio-neurriak dituztenean, tresna horiek arduratuko direla horiek antolatzeaz eta kudeatzeaz.
- Nekazaritza- eta basogintza-erabilera eta -jardueren definizioa arretaz berraztertzen eta xehatzen da, horien ingurumen-inpaktua ahalik eta zehaztasun handienaz kontrolatzeko.
- Araudian *“basogintza-erabileretarako ñabardurak”* ezartzen dira jarduera batzuek gune jakin batzuetan duten ingurumen-inpaktua minimizatzeko, batik bat nekazaritza- eta basogintza-jarduerari lotutako eraikin eta azpiegituren kasuan.
- Bestetik, nekazaritza- eta basogintza-erabilerak ezartzeko irizpide orokorrak ezartzen dira, parte hartzen duten erakunde publiko guztiak orientatzera bideratuak, nekazaritza-jardueraren ondoriozko ingurumen-inpaktuak minimizatzeko.
- NBALAPak LAAetan proposatutako natura-intereseko guneen kartografia bat egiten du, baina Natura 2000 Sareari, parke naturalei, babestutako biotopoei, onura publikoko mendiei, zona hezeak eta itsasertza antolatzeko LAPek babestutako guneei eta abarrei buruzko beste informazio batzuen ere bai. Kartografia hori funtsezkoa da natura-ingurunea zaintzeko lurralde-

antolamenduko tresnetan eta, modu bateratuan eskaintzean, errazagoa da hori erabiltzea.

- Baldintzatzailatzat jotzen dira akuiferoen urrakortasuna eta higadura. Azken kasu horretarako, kartografia nahi den eskalan egiteko aukera ematen duen eredu bat egiten da, eta horrekin batera doazen artezpideak erabiltzen dira zona horietako basogintza- eta abeltzaintza-jarduerekin sor daitezkeen ingurumen-arriskuak neurri handi batean arintzeko.
- Korridore ekologikoen sarea gainjarritako baldintzatzailatzat jotzea. Ingurumen-izaerako proposamen bat da hau, natura-ingurunearen kontserbazioa Babestutako Natura Guneen Saretik kanpoko zonetara estrapolatu nahi dituen, eta proposamen horren artezpideen helburua da gunen horien arteko lotura areagotzea.
- Paisaia-balio handieneko zonak gainjarritako baldintzatzailatzat jotzea.
- Lurzorua kudeatzeko tresnak ezartzea, nekazaritza-sektorearen interesak lurraldeko jardun eta proiektuen aurrean babesten eta defendatzen dituztenak: Landa Lurra Kudeatzeko Erakundeak eta planak aplikatzearen eta obrak edo jarduerak egitearen ondorioz nekazaritza-sektorean sortutako afektazioaren ebaluazioa (IIEaren barruan sartua).
- Honelako zona babestuen LAPak erauztea: parke naturalak, babestutako biotopoak, Urdaibaiko Biosfera Erreserba, zona hezeetako (II. multzoa) eta babes bereziko zonetako LAPak antolatutako hezeguneak, ingurumen-hobekuntzakoak eta Itsasertza Antolatzeko LAPEko hiri-hondartzak.

LAParen proposamen nagusia da LAAk garatu eta lurralde-eredu bat bultzatzea, baina horien aldean aldaketa batzuk egiten ditu. Proposamenen xedea hau da:

- Lurraren erabilerak eta jarduerak.
- Antolamendu-kategoriak.
- Gainjarritako baldintzatzailleak.

	Deskribapena	NBALAParen ekarpen nagusiak LAAei dagokienez
Lurraren erabilerak eta jarduerak	Lurzoru urbanizaezinean izan daitezkeen uneko eta balizko erabilera-proposamena.	<ul style="list-style-type: none"> - "Kontserbazioa" erabilera bereizi gisa ezabatzen da, ez delako berez erabileratzat jotzen, baizik aurreikusitako gainerako erabilerak baldintzatzat dituen helburu gisa. - "Negutegiak" erabilera "Nekazaritza" erabileraren barruan integratzen da. - "Landa bideak eta pistak" erabilera bereizi berria gehitzen da.
Antolamendu-kategoriak	Lurraldea sektore homogeneoetan zonifikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - "Babes berezia" kategorian kontuan ez izatea, LZPri eta udal-planeamenduari dagokiela ulertzen delako. - "Erabilera zehatzik gabeko" kategorian kontuan ez izatea, ulertzen delako lurralde guztiek dutela neurri handiagoan edo txikiagoan nekazaritza- eta basogintza-erabilera bat. - "Basoa", "Baso-Mendi meatsa", "Larre menditarrak" eta "Larre menditarrak-Haitzak" kategoriak Mendia gainkategorian

		elkartzea, Eusko Jaurlaritzaren LA Zuzendaritzaren artezpideei jarraituz.
Gainjarritako baldintzatzaileak	Antolamendu-kategoriei gainjartzen zaizkie, eta jarduera jakin batzuk garatzeko modua murrizten da.	<ul style="list-style-type: none"> - "Babestutako Natura Guneak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba" gainjarritako baldintzatzailea (GB) ez da GBtzat jotzen berez, espazio horiek araubide propioa dutelako eta, hortaz, NBALAParen antolamendutik ateratzen dira. - LAAetako "Gune urperagarriak" GB ez dago zuzenean NBALAPan, baizik horretarako EAEko Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatzeko LApean ezartzen duenaren mende dago. - Gainjarritako baldintzatzaile berriak: LAAek ezarritakoei (akuifero eta gune higagarrien kutsadurarekiko gune urrakorrak) hauek gehitzen zaizkie, LAPak proposatuta: <ul style="list-style-type: none"> o Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak o Natura-intereseko guneak (N2000 eta Ramsar barne) o Korridore ekologikoak o Gutxi aldatutako paisaia duten guneak

NBALAParen beste ekarpen batzuk, bereziki ingurumen-eragina izan dezaketenak, biltzen dira nekazaritzako eta basogintzako LAParen helburuen atalean, beste plan eta programa batzuekiko elkarrekintzan (bereziki LAPak ingurumeneko eta arloko beste tresna batzuekin duen erlazioan) eta IIT honetako aukeren gogoetan eta azkenean hautatutako irtenbidearen justifikazioan.

Bestetik, ingurumen-inplikazio bat izan dezaketen helburuak eta proposamenak gero biltzen eta aztertzen dira, inpaktuen identifikazioaren eta balorazioaren atalean.

1.4.2. Ingurumeneko proposamenak edo helburu operatiboak

NBALAPko dokumentuak prestatzeko egindako analisisian eta lurralde-diagnosian inspiratuta, LAP hau ingurumeneko helburu operatibo hauekin formulatu da:

- o Nekazaritza-lurra babestea natura-ingurunearen zaintzari estu lotutako baliabide gisa.
- o Natura Baliabideak Antolatzeko Planen (NBAP) barruti hierarkikorik handiena bere gain hartzea Babestutako Natura Guneen plangintzan, eta NBALAParen antolamendu-esparrutik kanpokotzat jotzea.
- o LAAen babes bereziko guneetarako natura-baliabidean antolatzeko plan bat egitea komeni den erabakitzea.
- o Modu bateratuan eskaintzea LAAetan proposatutako natura-intereseko guneen kartografia eta hauei buruzko beste informazio batzuk: Natura 2000 Sarea, parke naturalak, babestutako biotopoak, onura publikoko mendiak, etab.
- o Gainjarritako baldintzatzailetzat jotzea hauek: Natura 2000 Sarea eta haren kudeaketa-planak, akuiferoen urrakortasuna, higadura, korridore ekologikoen sarea eta paisaia.

- Indarrean den udal-planeamenduak hartu behar dituen oinarritzko arauak ezartzea LAPera egokitzeko, ekarpen guztien lotespen-mailak argituta.
- Planak bere aplikazio-eremuan proposatutako antolamendua indarrean den beste legeria batek ezarritako erabilera-araubidearekin bateratzea: jabari hidrauliko publikoa eta itsasoko eta lurrekoa eta babeseko zortasun-zonak, etab.
- Plana LAParen antolamendu-esparruko lurraldearen, ingurumenaren edo antolamendu naturalaren planeamenduko gainerako tresnekin koordinatzea.

1.4.3. Erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizea

Aurreko bi ataletan jasotako funtsezko eta ingurumeneko helburu operatiboak lortzeko, LAPak antolamendu-kategorietan aplikatzekoak diren arau berezi batzuk proposatzen ditu, erabilerak eta jarduerak arautzeko matrize batean laburtzen direnak.

Matrize horretan lurraldean garatzen diren erabilera potentzialak (ilaretan) adierazten dira, horiek antolamendu-kategorietan (zutabeetan) ezartzea arautzeko.

Gelaxka bakoitzean erabilerak arautzen dira, proposatutako karakterizazioaren arabera, sinbologia honi jarraituz:

"1. Faboratua: Faboratutako erabilera, zona batean nagusi dena eta ikuspegi funtzional eta fisikotik karakterizatzen duena da.

2. Onargarria

3. Debekatua

a. Letra honekin adierazitako kasuetan, plan edo proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedurek berariaz hartuko dituzte kontuan ebaluazio horretan nekazaritza- eta basogintza-jardueraren gaineko afektazioa eta neurri zuzentzaileen aplikazioa AAEPean jasotako baldintzetan (D dokumentua, NBALAParen I. eranskina).

Gainera, balio estrategiko handiko azpikategorian aurreikusitako proiektu edo administrazio-baimenen kasuan, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko 17/2008 Legeak 16. artikuluan ezartzen duen bezala, nekazaritza-arloko foru-organo eskudunak txostena egitea eskatuko da, behin betiko onartu aurretik. Hura ikusita, EHLABak azken txostena egingo du eta loteslea izango da hirigintza-planeamenduko figuretarako.

3a horiek nahi ez den erabilera dira, baina onargarria LZPek bermatzen badituzte, edo aurreko prozeduran oinarrituta onargarria dela ziurtatzen bada".

ERABILERAK	ANTOLAMENDU KATEGORIAK							INGURUMEN HOBEKUNTZA	AZALEKO UREN BABESA
	NEKAZARITZA ETA ABELTZAINNTZA ETA LANDAZABALA		MENDIA						
	Estrategik oa	Trantsiziok o paisaia	Basogintza-Mendi meatsa	Basogintza	Larre menditarra k	Larre menditarra- Haitzak			
INGURUMEN BABESA									
Ingurumen-hobekuntza	2	2	1	2	2	2	1*	1	
AISIA ETA ENTRETENIMENDUA									
Aisia estentsiboa	2	2	2	2	2	2	2	-	
Aisia intentsiboa	2a	2a	2a	2a	2a	3	2a	-	
Ehiza- eta arrantza-jarduerak	2	2	2	2	2	2	2	2	
LEHEN MAILAKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDUA									
Nekazaritza-jarduerak	1	1*	2*	2a*	3	3	3	2*	
Nekazaritza-ustiapenera lotutako eraikinak	3a*	2a*	3a*	3a*	3	3	3	3	
Abeltzaintza-jarduerak	2	2	2*	2*	1*	2*	2*	2*	
Abeltzaintza-ustiapenera lotutako eraikinak	3a*	2a*	3a*	3a*	3a*	3	3	3	
Basogintza-jarduerak	2a*	2*	1*	1*	2*	2*	1*	2*	
Basogintza-ustiapenera lotutako eraikinak	3a	2a	3a	3a	3	3	3	3	
Nekazaritza-industriak	3a	2a	3a	3a	3	3	3	3	
Ateratze-jarduerak	-	-	-	-	-	-	-	-	
AZPIEGITURAK									
Garraio-bideak ¹	-	-	-	-	-	-	-	-	
Landa-bideak eta pistak	2a	2a	2a	2a	2a*	3	2a	-	
Aireko linea elektrikoak	2a	2a	2a	2a	3a	3	2a	-	
Lurpeko lineak	2a	2a	2a	2a	3a	3a	2a	-	
A motako zerbitzuen inst. teknikoak	3a	2a	2a	3a	3	3	3	-	
B motako zerbitzuen inst. teknikoak	2a	2a	2a	2a	2a	3a	2a	-	
Hondakin solidoen obra-hondakindegia eta zabortegeak	3a	3a	3a	3a	3	3	3a	-	
ERAIKUNTZA ERABILERAK									
Lehendik diren nukleoetan babestutako	3a	2a	2a	3a	3a	3	2a	-	

hazk.								
Lehendik diren nukleoetan babestu gabeko hazk.	3a	3a	3a	3a	3	3	3a	-
Onura publiko eta giz. inter. eraikinak	3a	3a	3a	3a	3a	3	3a	-
Ustiategiari loturiko bizitegi bakana	2a*	2a*	3a	3a	3a	3	3	3
Ustiategiari lotu gabeko bizitegi bakana	3	3	3	3	3	3	3	-
Instalazio arriskutsuak	3a	3a	3a	3a	3a	3	3a	-

* = Nekazaritza- eta basogintza-erabilera hauek ñabardurak dituzte LAP honetan edo foru-antolamenduak zehaztu behar ditu
- : Bestelako planeamendu-dokumentuekin arautu beharreko erabilerak

Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak kasuan, eragin guztiek basogintza-administrazio eskudunaren txosten lotesle bat beharko dute

Natura 2000 Sarean sartutako zonen kasuan, horietan onar daitezkeen erabilerek habitatei buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren 3. eta 4. ataletan ezarritako ebaluazioak jarraitu behar dituzte. Zuzentaru hori antolamendu juridiko espainolera eraman zuen 42/2007 Legeak, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoak:

6.3. **Tokiko kudeaketarekin harreman zuzena** izan gabe edo horretarako beharrezkoa izan gabe, **leku horietan eragin nabarmena izan dezakeen** – bakarrik **edo beste plan eta proiektu batzuekin elkartuta**– edozein plan edo proiektu toki horren eraginen **ebaluazio egoki** baten mende egongo da, leku horren kontserbaziorako helburuak kontuan izanda. Lekuko eraginen ebaluazioaren ondorioak ikusirik eta 4. atalean xedatutakoari lotuta, eskumena duten agintari nazionalak plan edo proiektu horrekin ados daudela adieraziko dute, planak edo proiektuak leku horren integritatean **kalterik eragingo ez duela** ziurtatu ondoren **soilik**, eta, bidezkoa bada, jendaurrean jarri ostean

6.4. Lekuaren gaineko ondorioen ebaluazioak ondorio negatiboak adierazi arren, eta ordezeko hautabiderik ezean, interes publikoko garrantzi handiko arrazoiengatik –arrazoi sozialengatik edo ekonomikoengatik barne– plana edo proiektua gauzatu beharko bada, Natura 2000 sarearen koherentzia orokorra babesten dela bermatzeko beharrezko neurri konpentsatzaile guztiak hartu beharko ditu Europar Batasuneko Estatuak. Estatu horrek hartutako neurri konpentsatzaileen berri eman beharko dio Batzordeari. Leku horrek habitat natural bat eta/edo lehentasunezko espezieren bat bada, giza osasunarekin eta segurtasun publikoarekin lotutako arrazoiak soilik alega daitezke, edo ingurumenerako funtsezko garrantzia duten ondorioei buruzkoak, edo, aurrez Batzordeari kontsultatuta, interes publikoko edo lehen mailako premiazko beste arrazoi batzuk.

² Lurralde Antolamenduaren Legearen laugarren xedapen gehigarriari jarraituz, EAeko Errepideen Plan Orokorra onartzeko, Lurraldearen Zatiko Planak eta Lurraldearen Arloko Planak egokitu egin beharko dira. Halaber, EAeko lurralde-antolamenduko artezpideetan, 13. kapituluko 5.2 atalean hau adierazten da: Errepide-arloko politika sektoriala lurraldean txertatzeko, lurralde-arloko planen izaera izango dute Eusko Jaurilaritzaren Herrilan eta Garraio Sailak idazten duen errepideen plan orokorraren bertsioek eta foru-aldundiek bere lurralde historikoei buruz prestatzen dituzten errepide-planek.

Matrizearen proposamenak azpimarratzen du kategoria hauetan baimendutako erabilerak gehiago murriztea: Balio Estrategiko Handia (NBALAParen helburu-zona balio handieneko nekazaritza-lurzoruak babesteko); Basogintza-Mendi meatsa, Basogintza, Larre menditarrak, Larre menditarrak-Haitzak (balio natural bereziko nekazaritza-lurzoruak babesteko NBALAParen helburu-zona) eta Ingurumen Hobekuntza (zona degradatuen ingurumena berreskuratzea ez eragozteko).

Horrela, LAParen helburua nekazaritza-balioko lurzoria babestea da, baina araubideak koherentea eta bateragarria izan nahi du EAEko natura-baliabideen babesarekin, LAParen helburuei jarraituz, bai funtsezkoek, bai ingurumenekoei.

1.5. Beste plan batzuen artezpideen integrazioa

NBALAParen justifikazioari buruzko kapituluaren dokumentu hori oinarrizko bi esparrutan integratzen da: testuinguru sektorialean eta legegintzako testuinguruan, eta LAParen proposamen nagusia osatzen dute: lurralde-eredua, oro har.

LAParen eta sektoreko, ingurumeneko eta lurraldeko beste plan batzuen integrazioa modu xehean analizatzen da IIT honen 2. atalean, eta atal horretan garatutakoaren laburpen bat jaso da hemen. Ez da zehatza, baina LAParen edukiek markatzen dituzten oinarrizko tresnak nabarmendu nahi ditu.

Testuinguru sektorialaren barruan, LAPak landako eta basogintzako plangintza estrategikoko dokumentuen artezpideak eta irizpideak hartzen ditu bere gain, hala nola:

- EAEko Landa Garapenerako Planak (PDRS 2000-2006 eta PDR 2007-2013): LGP horietan eta landa-garapenerako eskualdeko planetan aurreikusitako nekazaritza- eta ingurumen-neurrietan arreta berezia jarri da, eta neurri horiek oinarrizkoak izango dira LAParen helburuak eta natura-baliabideen ingurumen-babesa bateratzeko.
- Euskal Basogintza Plana 1994-2030: NBALAPean basogintza-arloan proposatzen diren artezpideak eta jardunak basogintza-plan honen barruan daude eta beren helburuak garatzen dituzte, batik bat I.a ("Zuhaiztutako mendien dibertsitatea eta iraunkortasuna bermatzea, basoak eta ekologia- nahiz paisaia-segizioa mugatuta, antolatuta eta artikulatuta") eta V.a ("Basogintza-jarduera landako eta hiriko gizartearekin lotzea, ingurumen- eta basogintza-kultura sortzeko"). Era berean, nazioarteko zenbait hitzarmenetan jasotako basogintza-kudeaketa iraunkorreko irizpideak geure egin ditugu.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailaren Ekintza Politikoaren Esparru Orokorra (2002-2005).
- Abenduaren 23ko 17/2008 Legea, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoa.
- 10/98 Legea, EAEko Landa Garapenerari buruzkoa.

- 43/2003 Legea, Mendiei buruzkoa.
- Baso Baliabideak Antolatzeko Planak (BBAP).
- Mendiei buruzko Foru Arauak.

Era berean, NBALAPak dokumentu hauen irizpideak bere gain hartzen eta integratzen ditu:

- 92/43/EE Zuzentaraua, Habitategi buruzkoa.
- Abenduaren 13ko 42/2007 Legea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- 3/1998 Lege Orokorra, EAEko Ingurumena Babestekoa.
- Ekainaren 30eko 16/1994 Legea, EAEko Natura Babestekoa.
- Garapen Iraunkorrari buruzko EAEko Ingurumen Estrategia 2002-2020.
- II. Ingurumen Esparru Programa 2007-2010.
- III. Ingurumen Esparru Programa 2011-2014.
- 4/90 Legea, EAEko Lurralde Antolamenduari buruzkoa.
- Ekainaren 30eko 2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- Lurralde Antolamenduko Artezpideak.
- Lurraldearen Zatikako Planak.
- Lurraldearen Arloko Planak.
- Urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentaraua (Uraren Esparru Zuzentaraua).
- Uztailaren 28ko 22/1988 Legea, Kosteak buruzkoa.
- Ekainaren 21eko 1/2006 Legea, Urarena.
- etab.

1.6. Inpaktuen identifikazioa

NBALAPak sortzen dituen inpaktuek, IIT honen 5. atalean sortutakoek, 3 maila dituzte:

- Helburuak
- Proposatutako lurralde-eredua
- Nekazaritza- eta basogintza-erabilerak

1.6.1. LAParen helburuen inpaktuen analisia.

NBALAPak erreferentziako ingurumen-dokumentuen (Garapen Iraunkorrari buruzko EAEko Ingurumen Estrategia, I, II eta III eta IEP) konpromisoak lortzen nola lagun

dezakeen analizatzen da, eta helburu horien artean, hala badagokio, zein egon daitekeen arriskuan plana garatzeagatik.

1.6.2. LAPak proposatutako lurralde-ereduaren inpaktuen analisisa.

LAParen proposamen nagusia analizatzea du helburu, hots, EAEn lurraldean kokatzen diren antolamendu-kategoria eta gainjarritako baldintzatzaile batzuk definitzea, ingurumen-aldagai ia guztietan afektazioa izan dezaketenak, bereziki lurzorua baliabidera eta horretan oinarritzen diren natura-baliabideetara lotutakoak: biodibertsitatea, ura eta paisaia.

Horrela, LAPak aldagai hauei dagokienez proposatutako kategorizazioaren eta zonifikazioaren inpaktu potentziala kontrastatzen da:

- Babestutako natura-guneak: parke naturalak, babestutako biotopoak, Natura 2000 Sarea, Urdaibaiko Biosfera Erreserba, Txingudi, hezeguneak, etab. barne.
- Landaredia eta habitatak, bereziki garrantzi komunitarioko lehentasunezko habitatak.
- Flora- eta fauna-espezieak, espezie mehatxatuei, garrantzi komunitariokoei eta indarrean diren kudeaketa-planak dituztenei arreta berezia eskainita.
- Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak.
- Jabari hidrauliko publikoa eta zortasun-zonak.
- Itsasoko eta lehorreko jabari publikoa eta zortasun-zonak.
- Akuiferoen kutsadurarekiko sentikorrek diren zonak.
- Korridore ekologikoen sarea.
- Paisaia bereziak eta apartak.
- Arrisku naturalak (uholde-arriskua, higadura) dituzten guneak.

1.6.3. Nekazaritza- eta basogintza-erabileren inpaktuen analisisa.

NBALAPak ez ditu definitzen nekazaritza- eta basogintza-jarduerak garatzeko modua eta mugak, berariazko bere tresnek (dekretuek, foru-arauek, etab.) arautzen dituztenak. Nolanahi ere, eta **NBALAPak lurzorua egungo erabileren aldaketak inoiz sustatzen ez dituen arren**, IIT honek interesgarritzat jo du sektoreko ingurumen-ondorio edo -arazoen aurretzako identifikazio bati heltzea.

Horietako asko sektoreko jardueren ohiko arazo gisa aurkezten dira, eta batzuek lurralde-osagai argi bat dute: aldaketak paisaian, higadura-arriskua, etab.

Horrela, arlo-politikako arazo gisa nabarmentzen diren alderdietara hasierako hurbilketa bat egin nahi da, eta IIT honetatik –edo, hala badagokio, LAPetik bertatik– hura garatzeko gomendio batzuk.

Ingurumen-arazoak identifikatzeko sarrera bikoitzeko matrize bat erabili da; zutabeetan eraginpeko ingurunearen faktore nagusiak deskribatu dira eta ilaretan, plangintza egin beharreko sektorearen jarduerak. Matrize horretan kausazko erlazio bat gertatzen da eta horren ondorioa (positiboa edo negatiboa) abiapuntua da sektoreko ingurumen-dinamikak eta sektoreko ingurumen-sistema osatzen dituzten kate kausal konplexuenak identifikatzeko.

Lurzoruaren erabilerak eta afektazioa izan dezaketen jarduera garrantzitsuak lehen mailako baliabideen aprobetxamenduetan daude batik bat, eta horien barruan, inpaktuak identifikatzeko matrize honetan azaltzen direnetan.

Matrizean edukirik gabe agertzen diren erabilerek eta aprobetxamenduek garrantzi gutxiko inpaktuak edo inpaktu hutsalak sortzen dituztela jo da. Inpaktuak identifikatzean lehentasunak koherentziaz ezarri behar dira plangintzaren oinarrizko izaerarekin, eta ez dute lotuta egon behar geroko baldintzatzaileekin, hala nola proiektuak diseinatzeko fasean.

		AFEKTAZIOA IZAN DEZAKETEN INGURUNEO ELEMENTUAK							
		LURZORUA	URA	FLORA ETA LANDAREDIA	FAUNA	N2000 SAREA	PAISAIA	KLIMA ALDAKETA	ONDAREA
Nekazaritza	Ureztaketetarako ura ateratzea		-			-			
	Landare-estaldura mantentzea	+		+			+	+	
	Ongarritzea eta pestizidak		-	-	-	-		-	
	Fruta-arbolen landaketa, mozketa eta inausketa						+	+	
	Produktu fitosanitarioen erabilera		-	-	-			-	
	Luberritzeak	-		-			-		-
	Drainadurak edo lehorketa		-	-	-	-	-		
	Tresna eta produktuen bilketa eta kontserbazioa		-						
	Nekazaritza-produktuen lehorte, ateratze eta sailkatzea								
	Ureztatze-nekazaritzarako lan eta instalazioak (ureztatze-putzuak barne)	-	-	-	-		-		-
Terrazak: zapaldak eraikitzea, horiek	+					-		-	

	AFEKTAZIOA IZAN DEZAKETEN INGURUNeko ELEMENTUAK							
	LURZORUA	URA	FLORA ETA LANDAREDIA	FAUNA	N2000 SAREA	PAISAIA	KLIMA ALDAKETA	ONDAREA
higatze-prozesuak saihesteko edo minimizatzeko egiten badira eta landaredia naturalak estalitako zonetan eraginik ez badute.								
Nekazaritza-produktuak biltzeko hondartzak								
Barazki, marmelada eta konfitura-kontserben ekoizpena		-						-
Sagardoa egiteko dolareak eta ardoa eta txakolina ekoizteko upeltegiak.		-						
Ustiategiko produktuen transformazioa eta zuzeneko salmenta.								
Ustiategian bertan ekoiztutako nekazaritza-produktuen dastatzea.								
Lurraldeko ohiko produktuen artisautza-tailerrak								

		AFEKTAZIOA IZAN DEZAKETEN INGURUNeko ELEMENTUAK						
		LURZORUA	URA	FLORA ETA LANDAREDIA	FAUNA	N2000 SAREA	PAISAIA	KLIMA ALDAKETA
	Nekazaritza-turismoa							
	Aisia, gozarena eta naturaren eta landa-ingurunearen hedapenarekin loturiko jarduerak				EE			
	Energia berriztagarria ekoizteko azpiegiturak, batik bat autohornikuntzarako						+	-
	Ustiategiarekin loturiko etxebizitza							
	Negutegiak		-				-	
	Basogintza, nekazaritza eta dekorazio-landare eta lore-ekoizpenak egiteko hazitegiak							
	Boilurgintza							
	Perretxiko-lantzea							
	Zizare-lantzea							
	Abeltzaintza	Belar-sastrakak garbitzea			-	-	-	
Produktu fitosanitarioak aplikatzea			-	-				
Lurra goldatzea eta belardiko espezieak				-	EE			

	AFEKTAZIOA IZAN DEZAKETEN INGURUNeko ELEMENTUAK							
	LURZORUA	URA	FLORA ETA LANDAREDIA	FAUNA	N2000 SAREA	PAISAIA	KLIMA ALDAKETA	ONDAREA
ereitea								
Ongarritzeak		-	-					
Bilketak eta eskuzko edo mekanizazio bidezko moztea								
Siloratzeak								
Ukuiluak								
Jetzitegiak eta esnea kontserbatzeko lokalak								
Simaurtegiak eta txiza-putzuak	-	-	-					
Tresna eta produktuen biltegiak								
Pentsu eta bazken siloak								
Aterpeak eta bordak						-		
Itxiturak eta hesiak				-		-		
Askak eta horien hartzeak	-	-	EE			-		-
Janontziak						-		
Osasun- eta erabilera-instalazioak						-		
Gaztagintza eta gainerako esnekigintza		-						
Haragi-produktu, hestebete eta		-						

		AFEKTAZIOA IZAN DEZAKETEN INGURUNeko ELEMENTUAK							
		LURZORUA	URA	FLORA ETA LANDARE DIA	FAUNA	N2000 SAREA	PAISAIA	KLIMA ALDAKETA	ONDAREA
	eratorritako bestelako produktuen ekoizpena								
	Eztiaren eta bestelako erle- produktuen ontziratzea								
	Ustiatetikiko produktuen transformazioa eta zuzeneko salmenta								
	Lurraldeko ohiko produktuen artisautza-tailerrak								
	Nekazaritza-turismoa								
	Aisia, gozamina eta naturaren eta landa- ingurunearen hedapenarekin loturiko jarduerak						-		
	Energia berriztagarria ekoizteko azpiegiturak, batik bat autohornikuntzarako						-	+	
	Erlategiak								
	Abeltzaintza-ustiatetikiko alternatiboak								
	Abeletxe zinegetikoak				-				

		AFEKTAZIOA IZAN DEZAKETEN INGURUNeko ELEMENTUAK							
		LURZORUA	URA	FLORA ETA LANDAREDIA	FAUNA	N2000 SAREA	PAISAIA	KLIMA ALDAKETA	ONDAREA
	Arrain-haztegiak		-						
Basogintza	Basoaren finkatze-aldia	-						+	-
	Basoa kudeatzeko eta hobetzeko aldia							+	
	Basoko produktuak ateratzeko edo erauzteko aldia	-		-			-	-	
	Tresna, makinaria eta produktuen bilketa.								
	Baso-bideak eta alboetako instalazioak: mugak, ur-bideak				-	-	-		-
	Zura prozesatzeko eta pilatzeko parke edo biltegiak						-		
	Suteak zaintzeko instalazioak			+		+			
	Suaren kontrako eremu eta gerrikoak			-		+	-		
	Ur-guneak								
	Itxitura eta hesiak				-				
	Basogintza-etxeak								
	Perretxikoak biltzeko zonak mugatzea								
Ne ka	Lehen transformazioko		-					-	

		AFEKTAZIOA IZAN DEZAKETEN INGURUNeko ELEMENTUAK							
		LURZORUA	URA	FLORA ETA LANDAREDIA	FAUNA	N2000 SAREA	PAISAIA	KLIMA ALDAKETA	ONDAREA
	nekazaritza- elikagaien industriak								
	Lehen transformazioko baso-industriak:		-				-	-	
	Bigarren transformazioko nekazaritza- eta basogintza-elikagaien industriak		-					-	

(+) : Inpaktu positiboa, (-): inpaktu negatiboa, N.S. Inpaktu ez-esanguratsua. Gelaxka zuria: ez da inpakturik sortzen.

1.7. Gauzatzeko faseak

NBALAParen tramitazioak, hemendik aurrera, hau eskatzen du:

- Ingurumen Inpaktuaren Behin Betiko Txostena (IIBT) eskatzea ingurumen-
organoari (Ingurumen Sailburuordetzari).
- IIBT egitea (epea: 2 hil)
- Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordetik igarotzea
- NBALAP behin betiko onestea

Behin betiko onetsitakoan jarriko da LAP indarrean. Baina, benetan, hasi da gauzatzen, arrazoi hauengatik:

- Udalek erabiliak dituztelako LAParen aurretiazko bertsioak beren lurzoru urbanizaezina egituratzeko. Nolanahi ere, lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnek LAParen araudia eta kartografia erabili beharko dituzte, horiek lotesleak diren heinean, planak berak definitzen duen bezala.
- Garatuak direlako LAParen lehen faseetan jasotako aurreikuspenak: nekazaritza- eta elikagaigintza-politikari buruzko lege bat onartzea, landa-ingurunea kudeatzeko erakundeak sortzea (lurzoru-bankuak), etab.

NBALAPak ez du garapen-planeamenduko berezko tresnarik eta, hortaz, LZPak eta HAPOak beren zehaztapenei egokitzeko moduaren mende daude gauzatze-faseak. LAP "garatzeko" tresna bakartzat jo daiteke Nekazaritza Arloko Afektazioaren Ebaluazio Protokoloa (AAEP), eta LAPak hasierako proposamen baten zirriborroa egin du harentzat, arauz nola garatuko den definitu gabe dagoena (LAPak ez du eperik jartzen garapen horretarako).

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek eta horien errebisioek eta aldaketek, lurralde-arloko plana indarrean jartzean hasierako onspena eman ez bada, horretan jasotako zehaztapenetara egokitu beharko dute, EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritako prozedurari jarraituz.

Udal-planeamenduko dokumentuen kasuan, LAP indarrean jartzean onetsita badaude, dokumentu horiek LAPean xedatutakora egokitu beharko dira lurzoru urbanizaezineko erabileren kalifikazioari eta araubideari dagokienez, LAPak berak ezartzen duen lotespen-mailaren arabera.

Behin betiko onartu gabeko LZPek ere balio estrategiko handiko lurzoruari eta onura publikoko mendiei eta mendi babesleei buruzko NBALAParen edukiak jaso beharko dituzte, eta tramitazioan zehar bete beharko da hori.

1.8. Informazio-hutsuneak.

NBALAP idazteko unean, ahalegin handia egin behar izan zen arloko informazioa eta legeria biltzeko. Era berean, EAE osoaren argazki-interpretazio bat egin zen 1:25.000 eskalan antolamendu-kategorien kartografia egiteko. Nekazaritzako eta basogintzako produktibitate-ereduak ere funtsezkoak izan ziren proposatutako antolamenduaren irudikapen kartografikoa egitean.

LAParen lehen faseetan detektatutako informazio-hutsune batzuk tramitazioan zehar bete dira: korridore ekologikoen sarea, etab.

Beste informazio batzuk LAParen tramitazioan eguneratu dira, bai testuan (arau-erreferentziak), bai kartografian:

- Hiri-lurzoria eta lurzoru urbanizagarria, segidan onartutako Udalplanen arabera.
- Babestutako natura-guneak.
- etab.

Bestetik, LAP EAEn eskalan egindako plan bat denez, dagoen informazioa – ingurumenari buruzkoa barne– nahiko egokia da, eta Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien web-orrien bidez (www.ingurumena.net eta www.geoeuskadi.net) erraz eskura daiteke. Eskuragarri ez zegoen oinarritzko informazioa lortzeko, bereziki dokumentuaren hasierako faseetan, LAPak berak sortu du ereduak sortuta (higadurari, paisaiari, loturari eta abarri buruzkoa, LAParen eranskinetan jaso den bezala), eta horietako batzuk informazio eguneratuarekin osaturik daude.

LAP eta IIT hau idazteko detektatutako arazo edo informazio-hutsune nagusia LZP erabilgarrien informazioa izan da, horietan guztietan bereziki “gune babestuak” izeneko heterogeneotasunari dagokionez; hori dela bide, zaila izan da horiek LAPean kontuan izatea, eta oraindik konpontzeke dago alderdi hori. LZP horiek xehetasun-maila desberdinez eraikitzen dituzte garapen berrien lehentasunezko guneak eta horrek ere zaildu egiten du LAParen barruan tratamendu homogeen bat egitea.

1.9. Parte-hartze publikoa²

NBALAParen aurrerapenaren dokumentua prestatzeko lantalde tekniko bat eratu zen, hiru foru-aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako nekazaritzako, abeltzaintzako eta mendietako adituek osatua.

Dokumentuaren tramitazioari ekiteko, 2001eko irailaren 18an, Nekazaritza eta Arrantza Sailak **Administrazioko erakunde interesdunei**, hots, Udalei, lurralde-antolamenduan inplikaturako hiru aldundietako sailei eta Eusko Jaurlaritzako beste

² IIT honen I. eranskinean jendaurrean jartzeko faseen emaitzak (LAPean egindako aldaketak) hartu dira barnean.

sail batzuei, sindikatuari eta EAEko nekazaritza- eta basogintza-arloko gainerako erakundeei, "Nekazaritza eta basogintza eta natura-ingurunea antolatzeko lurraldearen arloko planaren aurrerapena" igorri zien, bi hileko epean (gero hirura zabaldu zen) egoki zeritzoten alegazioak, iradokizunak, aukerak edo proposamenak formula zitzaten, EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko Legearen 13.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Lurraldeko administrazio interesdunei informazioa emateko fase horretan, 35 alegazio jaso ziren Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailean, honela banatuta:

Administrazioak: 29

Udalak: 22

Arabako LH: 4

Bizkaiko LH: 6

Gipuzkoako LH: 12

Foru-aldundiak: 2

Arabako Foru Aldundia: 1

Bizkaiko Foru Aldundia: 1

Eusko Jaurlaritza: 3

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila (Uren Zuzendaritza, Lurralde Antolamendurako Zuzendaritza eta Biodibertsitaterako Zuzendaritza)

Administrazio-batzarrak: 2

Bestelakoak: 6

Arabako Kontzeju Elkarteak: 1

Debagoieneko Mankomunitatea: 1

ENBA nekazaritza-sindikatuak: 1

Talde kontserbazionistak: 2

Partikularrak: 1

Alegazio horiei erantzuna eman zien eta bere egin zituen, horretarako egindako txostenean zehazten den bezala. Hortik aurrera, NBALAParen beste dokumentu bat idatzi zen eta **Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordean** aurkeztu zen 2003ko uztailean, eta hasierako onespenerako aldeko txosten bat lortu zen aldi berean.

Ezarritako prozedurari jarraituz, 2005eko urtarrilaren 10eko Aginduaren bidez NBALAPari hasierako onspena eman ondoren, dokumentua jendaurrean jarri eta

entzunaldia egin zen. Guztira 45 alegazio egin ziren epe barruan (eta beste bat epez kanpo), erakunde hauetatik:

Lurraldeko Herri Administrazioak:

1. Herrilan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.
2. Uren Zuzendaritza. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Eusko Jaurlaritza.
3. Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Eusko Jaurlaritza.
4. Herrizaingo Saila. Eusko Jaurlaritza.
5. Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
6. Nekazaritza Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
7. Hirigintza eta Udal Harremanen Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
8. Nekazaritza Saila. Arabako Foru Aldundia.
9. Hirigintza eta Ingurumen Saila. Arabako Foru Aldundia.
10. Kultura, Gazteria eta Kirol Saila. Arabako Foru Aldundia.
11. Debagoieneko Mankomunitatea.
12. Vitoria-Gasteizko Udala.
13. Donemiliagako Udala.
14. Gobiarrango Udala.
15. Amurrioko Udala eta Lezamako eta Larrinbeko Kontzejuak.
16. Legutianoko Udala.
17. Tolosako Udala.
18. Altzagako Udala.
19. Azpeitiko Udala.
20. Oñatiko Udala.
21. Elgetako Udala.
22. Bergarako Udala.
23. Zarauzko Udala.
24. Irungo Udala.
25. Eskoriatzako Udala.
26. Areatzako Udala.
27. Zallako Udala.
28. Portugaleteko Udala.
29. Balmasedako Udala.
30. Etxebarriko Udala.
31. Iurretako Udala.
32. Derioko Udala.

33. Sopuertako Udala.
34. Erandioko Udala.
35. Ortuellako Udala.
36. Loiuko Udala.
37. Hondarribiko Udala.
38. Donostiako Udala.
39. Ezkio-Itsasoko Udala.
40. Ibarako Udala.
41. Lezoko Udala (epezu kanpo).

Erakundeak eta partikularrak:

1. EHNE – Euskal Herriko Nekazarien Elkarte
2. ENBA – Euskal Nekazarien Batasuna
3. Bizkaiko Espeleologia Federazioa.
4. Gipuzkoako Baso Elkarte – Asociación de propietarios forestales de Gipuzkoa.
5. Javier Loidi jn. doktorea, Landareen Biologia eta Ekologia, UPV/EHU.

Aipatutako alegazio guztiak eta aurkeztutako dokumentazioa plana idazten ari zen taldeak eta horren jarraipen-batzordeak³ analizatu zituzten, eta banakako erantzuna eman zitzaizkien. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren kasuan, haren ekarpena ez zen alegazio hutsa izan; gero zenbait proposamen eta ekarpen egin ditu, eta kontuan izan dira dokumentua prestatzean.

Halaber, LAP idatzi duen taldeak eta horren jarraipen-batzordeak egindako bileretan, alegazio-idazki horietan aipatu ez ziren alderdi batzuk azaldu ziren. Alderdi horietako batzuk kontuan izan dira planaren behin-behineko onespenerako, dagokion aginduan jaso den bezala.

³ Jarraipen-batzordeak edo NBALAParen idazketaren zuzendaritza-batzordeak LAP idazteko lanak koordinatu nahi ditu Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru-aldundian artean 1998ko martxoan sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren bidez. Batzorde hori ondorengoek osatzen dute: “*Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailko bi kideak, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako Nekazaritza Sailetako bina kideak*”.

2. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAPak beste plan edo programa batzuekin dituen elkarrekintzak

Fase honetan beste plan edo programa batzuekin dagoen erlazio hierarkikoa eta zeharkakoa identifikatu nahi dira. Horrek sinergiak sortzea eta ingurumeneko aurkako metatze-ondorioak ugaritzea sor dezake.

2.1. Hierarkikoki goragokoak diren beste plan batzuen artezpideak eta irizpideak

EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko Legeari jarraituz, NBALAPak **LAAen Ingurune Fisikoari buruzko Artezpidea** jaso behar du, eta hierarkikoki **Lurraldearen Zatiko Planak** baino beheragokoa da. Hots, dokumentuen artean kontraesanik bada, LAP aldatu egin behar da LZParen edukiak bere egiteko.

2.1.1. Lurralde Antolamenduko artezpideak

IIT honen 1.4 atalean (NBALAParen proposamenak) analizatu da plan honek nola ezartzen edo garatzen duen LAAen ingurune fisikoari buruzko artezpidea, LZPak eta LAPak egituratzeko oinarria ezartzen duena.

Zehazki, NBALAParen lurralde-eredua (antolamendu-kategorien proposamena eta gainjarritako baldintzatzaileak, erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizea...) LAAen irizpide eta helburu hauek lortzeko egituratu da:

- *Lurraldearen puntu guztietan bertako balio ekologikoak, paisaia-arlokoak, produktiboak, zientifikoak eta kulturalak kontserbatzen direla bermatzea.* Nekazaritza-balio handieneko lurzorua babesteko proposamena lurraldearen balio produktiboak eta paisaia-arlokoak kontserbatzea da, gainerako balioen babesarekin koordinatuta.
- *Hartze-gaitasunarekin bateraezinak diren jarduerengatik degradatuta dauden ingurumen naturaleko elementuak eta prozesuak hobetzea, leheneratzea eta birgaitzea.* Berez ez da LAParen helburua, baina xede horretarako aurkezten da Ingurumen Hobekuntza izeneko kategoriarako erabilerak zonifikatzeko eta arautzeko proposamen bat, udalak haien zona degradatuak leheneratzera bideratu behar dituenak. EAEko korridore ekologikoen sarea LAPean kontuan izatea ere ildo horretan ari da.
- *Hutsik edo behar beste aprobetxatu gabe dauden natura-baliabideak baliagarri bilakatzeko ekintza-ildoak ezartzea:* erabilera horretarako ezaugarri optimoak dituzten zonen nekazaritza-aprobetxamendua azpimarratu da. Ondorioz, LAAen "Erabilera zehatzik gabeko" kategoria ezabatu egin da, haren lurzoru urbanizaezineko edozein zonak izan dezakeelako nekazaritza-aprobetxamendu bat.

- *Landa-ingurunea garatzen laguntzea, natura-baliabideen antolamendu egoki bat eginik eta horien aprobetxamendu iraunkorra antolaturik, tartean diren eragileen adostasunarekin eta parte-hartzearekin (...).* Lurzoru urbanizaezin osoa zonifikatzeko eta arautzeko proposamena lagungarria da lurraldearen tratamendu integrala egiteko. Bestetik, LAParen helburu nagusia da lehen sektoreari eusteko eta hura indartzeko lagungarri izatea, landa-ingurunearen garapenerako funtsezko elementu gisa, eta nekazaritzako eta basogintzako beste politika eta araudi batzuen (Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko Legearen, Mendiei buruzko Legearen, foru-arauen, eta abarren) laguntzaz lortu behar du hori. LAParen jarraipen-batzorde bat sortzeak eta hori jendaurrean jartzeko eta entzunaldia egiteko aldiek tartean diren eragileen arteko parte-hartzea errazten du eta, ondorioz, adostasuna.

Bestetik, LAAek berek jasotzen dute basogintza antolatzeko LAP bat prestatzeko premia, Euskal Landa Plan Estrategikoari (ELPE) jarraituz (5.2.a3 artzpidia), eta LAPean, LZPea eta udal-planeamenduan kontuan izatea (*nekazaritza-lurraren "izaera ugalezina, urritasuna eta lehen mailako jardueretarako duen garrantzia"* dela-eta) lurzoruaren ahalmen agrologikoa eta ahultasuna, hiri-garapeneko prozesuetatik kendu behar direnak mugatuta (5.2.a5 eta a6 artzpidiak). NBALAPak bi alderdi horiek konbinatu nahi ditu.

Kontuan izan daiteke *"LAAen aldaketa horien berraztertzearen ondorioz"* dokumentua, gaur egun tramitazioan dagoena, eta *"-indarrean diren LAAen-ereduaren alderdi hauek indartu nahi dituen: lurraldearen kalitatea, funtsezko iraunkortasun-faktore gisa egiten duen ekarpen aktiboa eta berrikuntza oinarrizko oreka- eta lehiakortasun-elementu gisa bultzatzeko eskaintzen dituen aukeren aprobetxamendua"*.

Lurralde-eredua berraztertzeke proposamenean nabarmentzekoak dira paisaiaren eraldaketa sakonaren eta natura-baliabideen kudeaketaren ondorio garrantzitsuak, lehen mailako sektoreak garrantzi ekonomikoa pixkanaka galtzea ekarri dutenak. Lehentasunezko helburu gisa finkatu da horretarako gaitasuna duten leku guztietan lehen mailako sektoreko jardueri eustea, kalitateko ekoizpen ekologikoen premia ere azpimarratuta, eta landa-espazioek lurraldearen kalitate orokorrean (modu bisual eta funtzionalean) egiten duten ekarpena bermatzea. NBALAPak, hain zuzen, lehen mailako sektorerako gaitasun hobereana duten lekuak definitu eta babestu nahi ditu jarduera garatzeko, eta balio estrategiko handiko lurzoruak proposatu eta onura publikoko mendiak eta mendi babesleak kontuan hartzen ditu.

2.1.2. Lurraldearen Zatikako Planak

NBALAParen behin-behineko onespeneraren unean, LZP hauek zeuden behin betiko onartuta:

- Araba Erdialdea (abenduaren 28ko 277/2004 Dekretua)
- Audio (martxoaren 23ko 19/2005 Dekretua)
- Guardia (Arabako Errioxa) (abenduaren 28ko 271/2004 Dekretua)
- Eibar (Debabarrena) (apirilaren 12ko 86/2005 Dekretua)
- Arrasate-Bergara (Debagoiena) (apirilaren 12ko 87/2005 Dekretua)
- Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) (otsailaren 21eko 32/2006 Dekretua, akatsen zuzenketa 2006/05/18)
- Bilbo Metropolitarra (irailaren 26ko 179/2006 Dekretua)

Geroago, LZP hauek ere onartu dira behin betiko:

- Beasain-Zumarraga (Goierni) (irailaren 29ko 534/2009 Dekretua)
- Igorre (irailaren 14ko 239/2010 Dekretua).

Gaur egun, gainerako LZPen tramitazioa honela dago:

- Behin-behinekoz onartuak: Durango, Balmaseda-Zalla (Enkarterriak).
- Hasieran onartuak: Donostia (Donostialdea).
- Aurrerapen-fasean: Gernika-Markina, Mungia, Tolosa (Tolosaldea).

NBALAP LZPekin koordinatzeko mekanismoak LAPari buruzko araudiaren 4. artikuluan jaso dira:

“1. Lurrealdearen Zatikako Planak Plan honi nagusituko zaizkio babes bereziko guneak, hirigintza-garapenerako lehentasuneko guneak eta espazio libreak, ekipamenduak edo azpiegituren ekipamenduak definitzean.

2. Behin betiko onartu gabeko LZPek LAP honetako balio estrategiko handiko lurzoruari eta onura publikoko mendiak eta mendi babesleak gainjarritako baldintzatzaileari buruzko NBALAParen xedapenak jaso beharko dituzte”.

2.1.3. Lurrealdearen Arloko Planak

Beste LAP batzuk ez daude NBALAP baino barruti hierarkiko handiago batean. Baina beharrezkoa da horien arteko koordinazioa argitzea, horietako bakoitzak bertan finkatu diren arloko helburuak betetzen dituztela ziurtatzeko, bereziki teilakatzeko zonak badaude.

NBALAParen 5. artikulua ezartzen ditu beste LAP batzuekin koordinatzeko mekanismoak baldintza hauetan:

“a) LAP guztiek NBALAPak mugatutako balio estrategiko handiko guneak hartu behar dituzte kontuan gutxienez.

b) Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAParen⁴ (isurialde mediterraneoaren eta kantauriarraren) eta NBALAParen arteko teilakatze-esparruan kontraesana badago, lehenengoaren irizpideek izango dute lehentasuna bigarrenaren aldean.

c) Zona Hezeak Antolatzeko LAPak III. multzoan antolatutako esparruak NBALAParen antolamendu-esparrutik kanpo geratzen dira. III. multzoko hezeguneetan Zona Hezeak Antolatzeko LAParen gomendioak aplikatuko dira.

d) EAEko Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko LAPak Ingurumen Hobekuntza edo Hiri Hondartza gisa definitutako zonak NBALAParen antolamendu-esparrutik kanpo geratzen dira⁵.

e) Kultura Ondarea Antolatzeko LAPak katalogatutako esparruekin teilakatzerik badago, LAP horren artezpideek izango dute lehentasuna, behin betiko onartzen den unean.

f) Portuak Antolatzeko LAPak, udal-planeamenduak eta portu bakoitzeko Zuzendaritza Plan Bereziak antolatuko dituzte portu-zonetako esparruak”.

Aurreko koordinazio-xedapen horiekin, NBALAPak deskribatutako arloko planen koherentzia eta bateragarritasuna ziurtatzen da.

2.2. Ingurumen-izaerako helburuak eta konpromisoak

Erkidego- eta estatu-mailan ezarritako ingurumen-konpromisoak eta irizpideak autonomia-erkidegoaren maila jaso eta garatu dira zenbait dokumentutan, eta horien artean hauek nabarmen daitezke:

- Garapen Iraunkorrari buruzko EAEko Ingurumen Estrategia (GIIE) 2002-2020.
- Ingurumen Esparru Programa (IEP): GIIE denboraldi mugatuagoetan zehazten du. NBALAParen tramitazioaren hasieratik I. IEP (2002-2006)

⁴ Duela gutxi aldatua EAEko Uholdeak Ekiditeko Plan Integralean identifikatutako zona urperagarriak jasotzeko.

⁵ NBALAParen xedapen honen jatorria dokumentuaren aurreko bertsioetan dago, lotespen-maila antolamendu-kategoria guztietara hedatzen zenean. Gaur egun lotespena balio estrategiko handia eta onura publikoko mendiak dira, itsasertzeko LAParekin koordinatzeko mekanismoak aztertu behar lirateke, bi tresnen teilakatze-zonetan, berez gune babestuak ez direnetan, zer gertatzen den argitzeko.

eta II. IEP (2007-2010) izan dira indarrean, eta gaur egun III. IEP (2011-2014) prestatzen ari da.

- Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Plana 2008-2014.
- EAEko Landa Garapen Iraunkorraren Plana (PDRS) 2000-2006 eta EAEko Landa Garapenerako Programa (PDR) 2007-2013.

Garapen Iraunkorrari buruzko EAEko Ingurumen Estrategia 2002-2020 eta Ingurumen Esparru Programa

Garapen Iraunkorrari buruzko EAEko Ingurumen Estrategiak autonomia-erkidegoko politikak zuzendu behar dituzten helburuak eta irizpideak markatzen ditu 2002-2020 aldirako. Helburu eta irizpide horiek orokorrak eta epe luzerakoak dira (2020 denbora-horizontea), eta horien gainean definitu dira gero epe luze eta ertainerako helburuak eta irizpideak IEPak aplikatzeko aldi bakoitzerako. GIIEk 2002-2020 aldirako markatzen dituen 5 helburu nagusiak hauek dira:

1. HELBURUA: Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.
2. HELBURUA: Natura-baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.
3. HELBURUA: Naturaren eta biodibertsitatearen babesa.
4. HELBURUA: Lurralde-oreka eta mugikortasuna.
5. HELBURUA: Klima-aldaketaren eragina mugatzea.

GIIEan epe luzera hartzen diren konpromisoak hauek dira eta NBALAPak zuzenean laguntzen du horietan:

- Nekazaritza- eta ingurumen-neurriak indartzea eta berariazko lurralde-politikak sartzea 2020rako 100.000 ha arteko nekazaritza- eta ingurumen-konpromisoak dituen azalera batera iristeko.
- Edozein babes-araubideren mende dagoen lurzorua lurralde-antolamenduko tresnen bidez babestea.
- Nekazaritza-lurraren % 15eko aprobetxamendu estentsibo batera iristea 2012 urterako eta % 25ekora 2020rako.
- Behar diren baliabide ekonomiko eta sozialak eskaintzea, 2012rako euskal landa-biztanleriari 1999ko mailetan eusteko.
- Nekazaritza ekologikorako erabilitako azalera 600 ha-raino handitzea 2012 urterako eta 2.000 ha-raino 2020rako.

IEPak zenbait bertsio izan ditu indarrean NBALAParen tramitazioaren hasieratik. Horrela, azken horren hasierako onespenera egin arte, **I. IEP (2002-2006)** izan zen indarrean, eta horretarako analizatu zen nola laguntzen zuen LAPak haren helburuak lortzen.

1. HELBURUA: AIRE, UR ETA LURZORU GARBIAK ETA OSASUNGARRIAK BERMATZEA
1. helburu estrategikoa. Ingurumenera isurtzen diren gai arriskutsuen eta kutsatzaileen isuriak eta isurketak murriztea.
1. helburu estrategikoa. Ingurumen-inguruneen kalitatea hobetzea.
Konpromisoak
Baso-azalerari eustea eta/edo hori gehitzea, airea garbitzeko, uraren erregimen hidrogikoa neurrian eramateko eta higadura kontrolatzeko.
Nekazaritza- eta ingurumen-neurriak indartzea eta berariazko lurralde-politikak sartzea 2006rako 55.000 ha arteko nekazaritza- eta ingurumen-konpromisoak dituen azalerara iristeko.
2004rako higadurak lurralde osorako zer garrantzi zehatz duen jakitea.
2006rako, EAEko higaduraren kontrol- eta prebentzio-plan bat prestatzea, eta baita higadura-fenomenoen eragin handia duten zonak leheneratzeko plan bat ere.

2. HELBURUA: NATURA BALIABIDEEN ETA HONDAKINEN KUDEAKETA ARDURATSUA
1. helburu estrategikoa. Baliabide-kontsumoak eta horren ondorioek ingurumenaren karga- eta leheneratze-ahalmena ez gainditzea lortzea, eta hazkunde ekonomikoa eta baliabide-erabilera bereiztea.
Konpromisoak
Lurzoru-kontsumoa saihestea dentsitate txikiko garapenen bidez, lurraldea antolatzeko tresnen arabera lurzoru egokienetan eraikuntza-dentsitate handiagoak sartuta.

3. HELBURUA: NATURAREN ETA BIODIBERTSITATEAREN BABESA: SUSTATU BEHARREKO BALIO BAKARRA
1. helburua. Ekosistemak, espezieak eta paisaia zaintzea eta babestea.
2. helburua. Ekosistemak eta espezieak haien ingurune naturalean leheneratzea, baita paisaiak ere.
Konpromisoak
EAEko korridore ekologikoak ezartzea 2006rako.
Basogintza antolatzeko planak ezartzea onura publikoko mendien

(OPMen) iraunkortasunerako 2006rako.
2003rako EAEko paisaia berezi eta aparten katalogoa prestatzea.
EAEko paisaia berezien eta aparten katalogoan bildutako espazioak babesteko eta leheneratzeko plan bereziak ezartzea 2006. urterako, horiek lurralde-antolamenduan behar bezala bideratuta.

4. HELBURUA: LURRALDE OREKA ETA MUGIKORTASUNA: IKUSPEGI KOMUNA
1. helburua. Lurraldearen erabilera iraunkor bat lortzea.
Konpromisoak
2005erako NBALAP onartzea, helburu gisa nekazaritza-azalerari eustea finkatuta.

5. HELBURUA: KLIMA ALDAKETAREN ERAGINA MUGATZEA
1. helburua. Negutegi-efektuko gasen isuri atmosferikoak mugatzea 2020rako.
1. helburua. Karbono-hustulekuak gehitzea.
Konpromisoak
2006rako euskal basogintza- eta zur-arloaren analisi bat prestatzea ahalik eta karbono-helburu egonkor maximoa hobetoen errazten duen basogintza zehazteko eta zuraren erabilera iraunkorrak sustatzeko.

II. Ingurumen Esparru Programa 2007-2010

II. IEParen xedea ("2020an hurrengo belaunaldiari ingurumen-arazo nagusiak konpontzeko bidean dituen Euskadi bat entregatzea lortzea") GIIEaren 5 helburuekin lotutako 4 lehentasunetan zehazten da: (1) Etorkizuna ziurtatzea, klima-aldaketaren aurrean jardutea eta horren ondorioetarako prest egotea; (2) gure kapital naturala indartzea, gure biodibertsitatea babestea; (3) gure hiriguneen ingurumen-kalitatea hobetzea eta (4) euskal ekonomia iraunkor baterantz aurrera egitea. Horiek, aldi berean, 11 helburu estrategikotan garatzen dira, eta horietan antolatzen dira 2010 horizonterako hartutako konpromisoak eta horiek lortzeko proposatutako ildoak.

Helburu, konpromiso eta jardun horien artean, NBALAParekin zerikusi handiena dutenak hauek dira:

2. helburu estrategikoa
Uraren kalitate ona
Konpromisoak
6. Azaleko ur-masak babestea, hobetzea eta leheneratzea, horien % 80an egoera ekologiko on bat lortzeko.
Jardun-ildoak
1. I. 1/2006 Legea, Urarena, garatuz, uraren erabilerari lotutako zerbitzu handiak arautzeko arau orokorrak onartzea: hornidura, saneamendua, arazketa eta ureztaketa.
5. I. Ibaiak edo ibai-tarteak babesteko jardunak eta ur-masen naturaltasuna leheneratzeko jardunak sustatzea (...) eta LAPetan identifikatutako zonetan ibaien askatasun-espazioak sustatzea uholdeen eragina arintzeko eta ibaiertzen uholde motel eta horizontala errazteko (...) egoera ekologiko oneko konpromisoa betetzeko funtsezko laguntza gisa.
6. I. Jardun-plana eta zona urrakorra berraztertzea urak nitratoekin kutsatzeari lotutako nekazaritza-jardueren ikuskapena eta jarraipena optimizatzeko.

4. helburu estrategikoa
Natura-baliabideen kontsumo arduratsua
Konpromisoak
2. Industria- eta nekazaritza-jardueren berezko hartuneen eskaria % 20 murriztea 2001 urtearekiko.
Jardun-ildoak
7. I. Industria- eta nekazaritza-jardueren berezko hartuneen ikuskapen-jardunak.

5. helburu estrategikoa
Energia-kontsumo eta -ekoizpen iraunkor bat sustatzea
Konpromisoak
2. Kontsumo elektrikoaren % 29 energia berriztagarriaren eta baterako sorkuntzaren bidez egitea lortzea.
Jardun-ildoak
4. I. Baterako sorkuntzari beste bultzada bat ematea, lehen mailako sektorean (...) aprobetxamendu-instalazio berriak jarrita.

7. helburu estrategikoa
Gure dibertsitate biologikoari eustea
Konpromisoak
2. Baso autoktonoaren azalera 10.000 ha handitzea 2006an zegoenarekiko. 4. Biodibertsitatearen babesarekin lotutako nekazaritza- eta ingurumen-neurrietara bideratutako azalera handitzea. 5. Nekazaritza ekologikora eskainitako azalera handitzea 1.200 ha-tara iritsi arte. 6. Baso-ustiapen ziurtatuen 50.000 ha-tara iristea.
Jardun-ildoak
4. I. BBEez kanpoko guneen nahikotasuna, koherentzia eta lotura. 8. I. Biodibertsitate genetikoari eustea (...) arraza eta barietate tradizionalen kontserbazioa, erabilera eta merkaturatzea sustatuta. 10. I. Nekazaritzako, landa-garapeneko eta basogintzako politikak biodibertsitatearen mesedetan optimizatzea, baso-lurren erabilera iraunkorra indartzea (basogintza-kontratuak sinatzea, basogintzako kudeaketa-plan iraunkorrak, basoak egiaztatzea, lurzorua baliabidea babestea) eta landa-inguruneko lurraren eta uraren kutsadura murriztea. 11. I. Eskualdeen eta lurraldearen garapenaren eta biodibertsitatearen kontserbazioaren arteko bateragarritasuna (...) indartzea.

9. helburu estrategikoa
Lurraldearen erabilera orekatua lortzea
Konpromisoak
1. Urtez urte hirigintza-jarduerak artifizialtzen duen ha kopurua murriztea. 2. Urtez urte azpiegitura berriak eraikitzeagatik artifizialtzen den ha kopurua murriztea.
Jardun-ildoak
3. I. Udal-esparruan, artifizialdutako lurzoruen erabilera lehenesteko irizpidea planeamenduan sartzea, lurzoru urbanizaezina birkalifikatu aurretik, bereziki nekazaritza-lurzorua eta lurzoru naturala babestuta.

11. helburu estrategikoa
Klima-aldaketara egokitzea

Konpromisoak
1. EAEk klima-aldaketaren aurrean duen urrakortasuna murriztea
Jardun-ildoak
2. I. Laborantza-metodoak egokitzea lurraren emankortasunari eta uraren aurrezteari errazago eusteko.

IIT hau, gainera, II. IEParen 9. helburu estrategikoaren 6. jardun-ildoak lortzeko ahaleginetan ari da (*"Lurraldean eragina duten plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozesuetan IEP 2007-2010 honetan ezarritako konpromiso kuantitatiboekiko koherentziaren analisisa sartzea"*).

III. Ingurumen Esparru Programa 2011-2014

III. IEParen xede estrategikoa bost helburu estrategikotan eta beharrezko sei baldintzatzailetan gauzatzen da. Horien artean, hauek NBALAParekin lotuta daude:

III. IEParen helburu estrategikoak	
1	Berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea eta klima-aldaketaren eraginak minimizatzea EAEn
2	Dibertsitate biologikoaren galera gelditzea; ekosistemak leheneratzea eta lurra artifizialtzea mugatzea
3	Baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea

III. IEParen beharrezko baldintzak	
1	Ingurumen-aldagaia beste politika batzuetan integratzea
3	Merkatua ingurumenaren mesedetan erabiltzea
6	Ingurumen-lankidetzak sistematikoa estatuarekin eta autonomia-erkidegoekin, baita Europako eskualdeekin eta nazioartearekin ere

III. IEParen helburu estrategikoak hedatzeko konpromisoak eta jardun-ildoak, NBALAParekin lotuta daudenak, hauek dira:

1. HELBURU ESTRATEGIKOA
Berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea eta klima-aldaketaren eraginak minimizatzea EAEn

Konpromisoa	Jardun-ildoak
2. EAEko jarduera/sektore giltzarrien klima-aldaketaren inpaktuen aurrean urrakortasunaren analisia sustatzea.	7. Aldagai hauek kontuan izatea erraztea: nola eragingo digun klima-aldaketak toki-mailan zenbait politikatan (nekazaritzakoan, basogintzakoan, biodibertsitatekoan, hidrobiologikoan, lurralde-antolamendukoan)

2. HELBURU ESTRATEGIKOA	
Dibertsitate biologikoaren galera gelditzea; ekosistemak leheneratzea eta lurra artifizialtzea mugatzea	
Konpromisoa	Jardun-ildoak
5. Lurraldean habitat naturalek, erdinaturalek edo naturalizatuek okupatutako azalera handitzea, eta horien kontserbazio-egoera etengabe hobetzea	14. Lurraldearen zaintza sustatzea, EAEko Zaintza Erakundearen Sarea sortuta
6. Lurraren artifizialtzea mugatzea	18. Antropizatutako lurzoruen berrerabilera sustatzea eta lehenestea, hirigintza-plangintzaren aztertzeetan eta lurralde-plangintzako tresnetan artifizialtzea prebenitzera bideratutako lurzoru natural edo ez-urbanizatuen gainetik

3. HELBURU ESTRATEGIKOA	
Baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea	
Konpromisoa	Jardun-ildoak
7. Euskal ekonomiaren guztizko produktibitate materiala % 4 hobetzea	22. Sorkuntza- eta isurketa-tasen aplikazioa indartzea hondakinen prebentzioa eta kudeaketa bikaina lortzeko
8. Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen balio materialaren tasa % 5 handitzea hurrenez	30. Nekazaritzako, basogintzako eta abeltzaintzako azpiproduktuen kudeaketa indartzen duten

hurren	proiektuak sustatzea: material-zikloa nekazaritza-sistemaren barruan ixtea
9. Lurraldeko birziklapenean eta hiri-, industria- eta azpiegitura-espazioen berritzean laguntzea lurzoru berriak okupatzearen ordezkoko aukera gisa	31. Konponbideak sustatze/erraztea lurzoru kutsatuak erremediatzeko eta baliotzeko

Jardun-ildoak osatzeko eta planteatutako helburuak betetzeko, III. IEPak "beharrezko baldintza" kontzeptua garatu du, eta horretan zeharkako zenbait tresna hedatu dira. Horien artean, hauek NBALAParekin lotuta daude:

1. BEHARREZKO BALDINTZA	
Ingurumen-aldagaia beste politika batzuetan integratzea	
Konpromisoa	Jardun-ildoak
1. EAEko administrazioen politika eta jardun esanguratsuak prestatzen parte hartzea	1. Plangintza sektorialetan parte hartzea

3. BEHARREZKO BALDINTZA	
Merkatua ingurumenaren mesedetan erabiltzea	
Konpromisoa	Jardun-ildoak
3. Erosketa eta kontratazio publiko berdeko irizpideak txertatzea Eusko Jaurlaritzaren sailetan eta atxikitako sozietate eta erakunde publikoetan, erosketa publiko "esanguratsuen" % 100ean, horientzat ingurumen-irizpide definituak badaude	Ingurumen-ziurtagirien hedapena bultzatzea eta ezagutzea sustatzea, bereziki EMAS ziurtagiriarena

Azkenik, III. IEPak kontuan hartzen du EAerako proposatutako esparru estrategiko zabalarenekin, eta koherentea da horrekin: EkoEuskadi 2020rekin. EAerako 8 iraunkortasun-gako planteatzen dituen ekimena da, ingurumen-politikan eragin handia duena. Horietako 3 gako oso lotuta daude NBALAParekin, hauek dira:

- Natura-baliabide urriak

- Aldaketa demografiko sakonak
- Belaunaldi-aldaketa desorekatua

III. IEPean proposatutako xedea eta helburu estrategikoak lerrokatuta daude Europar Batasunaren eta Espainiaren erreferentziako dokumentu nagusietan identifikatutako lehenespeneekin:

- Europa Estrategia 2020
- Energiari eta klimari buruzko politika integratua 20-20-20
- Seigarren Ingurumen Esparru Programa

Espainia mailan, III. IEP honekin lerrokatzen da lehentasunez:

- Garapen Iraunkorrerako Espainiako Estrategia

Ingurumen-legeriari dagokionez, NBALAPak bere egiten ditu EAEko Ingurumena Babesteari buruzko 3/98 Lege Orokorretik ondorioztatzen diren adierak, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek izan behar dituzten edukiei dagokienez, horiek baterakoak, banakakoak zein sinplifikatuak izan; eta prozedura horien mende jarri behar diren obra edo jardueren zerrenda ere bere egiten du. Horrekin estu lotuta, "Nekazaritza-arloko afektazioaren ebaluazioa" dago. Hor, LAPak planak eta proiektuak definitzeko eta tramitatzeko kontuan izan beharreko nekazaritza-aldagai batzuk proposatzen ditu, baita afektazio hori minimizatzeke neurri zuzentzaileak edo konpentsatzaileak ere.

Gainera, lege horren xedapen iragankorrari jarraituz, LAAetan natura-intereseke gune gisa zerrendatutako guneak ingurumen-arloan sentikorrek diren guneetat jotzen dira.

Landa Garapenerako Planak: 2000-2006 eta 2007-2013

EAEko ingurumen-arloke konpromiso eta helburuen artean, **EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Plana 2000-2006** dago, nekazaritza- eta ingurumen-neurriak jasotzen dituen, landa-garapenerako eskualdeke planetan ere jasotzen direnak.

EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako 2000-2006 Planak nekazaritza-baliabideen kudeaketaren iraunkortasunaren aldeke apustua egiten zuen eta finantza-dokumentu bakar batean biltzen zituen egitura eta landa-garapenerake politikan garatu beharreke jarduera guztiak; hala, Ingurumen Laguntzak (1257/1999/EEE Erregelamendua) abian jartzea suposatu du gure lurraldean 2. helburu gisa deklaraturake zonetan (264/2000/EEE Erregelamendua, 2000ke martxoaren 14koa).

EAE-KO GARAPEN IRAUNKORRAREN PLANEAN (2000-2006) BILDUTAKO NEURRIAK	
I. NEURRIA	NEKAZARITZA USTIATEGIETAKO INBERTSIOAK
II. NEURRIA	NEKAZARI GAZTEEN KOKAPENA
III. NEURRIA	LANBIDE HEZIKETA
IV. NEURRIA	NEKAZARITZA JARDUERAREN UZTE AURRERATUA
V.A NEURRIA	ALDE BEHARTSUAK KONPENSATZEKO KALTE ORDAINAK
V.B NEURRIA	INGURUMEN BABESEKO MUGAK KONPENSATZEKO ORDAINKETAK
VI. NEURRIA	NEKAZARITZA ETA INGURUMEN NEURRIAK
	Larre-zonen aprobetxamendu estentsiboa
	Laboreak ongarrizko hondakin organiko konpostatuak erabiltzea
	Bertako animalia-arrazak kontserbatzea
	Nekazaritza-ekoizpen ekologikoa
	Baserriaren ingurunea babestea
	Higadura-arriskua duten labore-lurren lurzorua babestea
	Biodibertsitatea babestea
	Fauna babestea
	Galtzeko edo higadura genetikoa edukitzeko arriskuan dauden landare-espezieak kontserbatzea
	Babarrunen tokiko populazioak lantzea
	Nekazaritza-paisaia babestea
	Publikoarentzako eta aisialdirako lurren kudeaketa
	Mendi-larreen kontserbazioa
	Gernikako itsasadarreko padura eta hezeguneen kontserbazioa
	Errekak eta ibaiak babestea
	Urtegiak eta ibilguak babestea
VII. NEURRIA	NEKAZARITZA PRODUKTUEN TRANSFORMAZIO ETA

	MERKATURATZEAREN HOBEKUNTZA
VIII.A NEURRIA	BASOGINTZA
VIII.B NEURRIA	NEKAZARITZA LURREN OIHANEZTAPENA
VIII.C NEURRIA	BASOEN FUNTZIO EKOLOGIKO ETA BABESLEA BERMATZEKO LAGUNTZAK
IX.A NEURRIA	LURREN HOBEKUNTZA
IX.B NEURRIA	LURREN BIRZATITZEA
IX.C NEURRIA	NEKAZARITZA USTIATEGIEN KUDEAKETAREN ORDEZKAPEN ETA LAGUNTZA ZERBITZUEN EZARPENA
IX.D NEURRIA	KALITATEZKO NEKAZARITZA PRODUKTUEN KOMERTZIALIZAZIOA
IX.E NEURRIA	LANDA EKONOMIA ETA POPULAZIOARENTZAKO OINARRIZKO ZERBITZUAK
IX.F NEURRIA	HERRIEN BERRITZE ETA GARATZEA, ETA LANDA ONDAREAREN BABESA ETA KONTSERBAZIOA
IX.G NEURRIA	NEKAZARITZA JARDUEREN DIBERTSIFIKAZIOA
IX.H NEURRIA	NEKAZARITZAKO BALIABIDE HIDRIKOEN KUDEAKETA
IX.I NEURRIA	NEKAZARITZA AZPIEGITUREN GARAPENA ETA HOBEKUNTZA
IX.J NEURRIA	TURISMOAREN ETA ARTISAUTZAREN SUSTAPENA
IX.K NEURRIA	NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA PAISAIAREKIN LOTURIKO INGURUMENAREN KONTSERBAZIOA, ETA ANIMALIEN ONGIZATEAREN HOBEKUNTZA
IX.L NEURRIA	NATUR HONDAMENDIEK KALTETUTAKO NEKAZARITZA EKOIZPENEKO GAITASUNAREN ERREKUPERAZIOA, ETA PREBENTZIO NEURRI EGOKIEN EZARPENA

Bestetik, **EAEko Landa Garapenerako Plana 2000-2006** aurrekoaren ildotik doa aurrera, eta NPKren Landa Garapeneraren Politikaren eta Landa Garapenerako Plan Estrategiko Nazionalaren (2007-2013) (PEN) esparruan sartzen da, 5 ardatz estrategikotan oinarritutako programa bat proposatzeko:

I. ardatza: Nekazaritza- eta basogintza-arloaren lehiakortasuna areagotzea

II. ardatza: Ingurumena eta landa-ingurunea hobetzea

III. ardatza: Bizi-kalitatea landa-zonetan eta landa-ekonomia dibertsifikatzea

IV ardatza: LEADER ikuspegia aplikatzea

Ardatz horietan jasotako neurri batzuek, NBALAP garatu behar den esparrua ere osatzen dutenek, ingurumen-izaera nabarmena dute, eta hauek azpimarra daitezke:

I. ardatza, nekazaritza-ustiategiak berregituratzeko neurriak: nekazaritza-ustiategiak modernizatzea, basoen balio ekonomikoa handitzea, nekazaritza- eta basogintza-produktuen balioa handitzea: lehen sektoreak eskaintzen dituen zerbitzuak (tartean ingurumenekoak) eta baliabideak optimizatzeko zerbitzuak aitortzeko modu gisa.

II. ardatza:

- Nekazaritza-lurren erabilera iraunkorrerako neurriak: nekazariei arazo naturalengatik kalte-ordaina emateko laguntzak eta nekazaritza- eta ingurumen-laguntzak. Hona azken horiek:
 - o Ongarritze-plana nekazaritza-ustiategietan.
 - o Simaurra eta txiza kudeatzeko plana eta ongarritze-plana lurralde-oinarriko nekazaritza-ustiategietan.
 - o Tratamendu fitosanitario arrazoitua
 - o Izurri eta gaixotasunen kontrol integratua
 - o Lurzoruaren babesa labore estentsiboetan, neguan tarteko labore bat ezartzeagatik udaberrian erein aurretik.
 - o Lurzoruaren babesa labore zurkaretan landare-estaldura jartzeagatik.
 - o Ingurumena babestea, ateratzeko edo laborerik gabeko azaleretan estalki gidatu bat jarritz.
 - o Intereseko sega-belardiak kontserbatzea.
 - o Mendi-larreen aprobetxamenduaren kudeaketa.
 - o Tokiko animalia-arrazak kontserbatzea.
 - o EAEko sagardotarako tokiko sagarrondo-barietateak kontserbatzea.
 - o Biodibertsitatea kontserbatzea txandaketa-laboreen lurretan.
 - o Fauna babestea txandaketa-laboreen lurretan.
 - o Ur-ibilguak eta zona hezeak belar-zerrenden bidez babestea.
 - o Paisaia hobetzea heskaiak mantenduta.
 - o Paisaia hobetzea beste elementu batzuk mantenduta.
 - o Nekazaritza-ekoizpen ekologikoa.
 - o Ekoizpen integratua.
 - o Babarrunen tokiko populazioak lantzea.
 - o Erlezaintza zona ahuletan biodibertsitatea hobetzeko.
- Nekazaritza-ustiategiak berregituratzeko neurriak: nekazaritza-zonen lehen baso-sartzea, baso-ingurunearen aldeko laguntzak, baso-ahalmena berreskuratzeko laguntzak eta prebentziozko neurriak eta inbertsio ez-produktiboak ezartzea.

III. ardatza, bizi-kalitatea hobetzeko neurriak landa-zonetan: landa-ondarearen kontserbazioa eta hobekuntza.

Elikadura-segurtasunaren arloan egindako lan garrantzitsua ere azpimarratu behar da, nekazaritzako elikagaien kalitate-politikaren elementu nagusi gisa, bai trazabilitateari (nahitaezko eta borondatezko etiketatzearen araudia), bai kontsumitzailearentzako berme diren kontrolen eta ziurtagirien igoera nabarmenari dagokionez. Ildo horretan idatzi da azken ELPEa, **Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailaren Ekintza Politikoaren Esparru Orokorra (2002-2005)** deiturikoa; hala, zazpi helburu estrategiko zehaztu dira bertan, eta 27 jardun-ildo eta programa eta proiektu ugari garatzen dira bertatik. Hona helburu horiek:

1. Nekazaritza eta arrantza profesional eta aktiboa, lurraldearen kudeaketaren eta kalitatezko elikagaien horniduraren arduraduna dena, mantentzea.
2. EAEn, iraunkorra, lehiakorra eta errentagarria den eta kontsumitzaileek exijitutako baldintzak betetzen dituzten produktuak eskaintzeko gaitasuna duen elikadura-katea garatzea.
3. EAEn osasun publikoa babestea, elikadurara eta gizakietara igaro daitezkeen animalien gaixotasunei dagokienez.
4. Landa-ingurunea eta itsasertza euskal gizartean sar dadin sustatzea, landako eta itsasertzeko guneei hiriko gizartearen aukera eta zerbitzuekin alderagarria den sarbidea bermatuz eta gune horietan ekonomia dinamiko eta iraunkorraren garapena bultzatuz, EAEko landa-populazioaren hazkundera eta finkatzea ahalbidetu dezaten.
5. Landa- eta arrantza-espazioak gizartearen ondare gisa kontserbatzea, eta espazio horien gozamenerako leku izan daitezen laguntzea.
6. Nazioarteko jardunen bitartez, EBean batez ere, iraunkorrak diren nekazaritzako elikagaien eta arrantza-sektoreen kudeaketa, espazio bakoitzaren berezitasunetara egokituko dena, sustatzea.
7. Sailen kudeaketa eta antolamendua hobetzea, administratuekiko zerbitzu egokiena eta langileen garapen profesionala bilatuz.

EAEko Basogintza Plana 1994-2030 eta basogintza-kudeaketa iraunkorra

Basogintzaren ikuspegi estutik, **1994-2030 aldirako EAEko Basogintza Planean** zehaztutako jardun- eta artezpide-politika bat jarraitu da. Dokumentu horretako helburuak hauek dira:

- I. Zuhaitzutako mendien dibertsitatea eta iraunkortasuna bermatzea, basoak eta ekologia- eta paisaia-segizioa mugatuta, antolatuta eta artikulatuta.
- II. Natura-ingurunearekin errespetagarriak, eta ondasun eta zerbitzuen etengabeko horniduran eragingarriak diren baso-kudeaketako artezpideak zehaztea.

- III. Basoak komunikazio-, prebentzio- eta defentsa-azpiegiturez hornitzea, eta ikerketako, etengabeko prestakuntzako eta prestakuntza teknikoko azpiegitura malguez.
- IV. Basogintza-sektorea kohesionatzea, lehen helburuekin bat datozen potentzialtasun handienetara bideratuta, enpresa-jarduera errazteko.
- V. Basogintza-jarduera landako eta hiriko gizartearekin lotzea, ingurumen- eta basogintza-kultura sortuta.

Gaur egungo basogintza-jarduerak Helsinkin, Lisboan eta Vienan Europako basoak babesteko egindako ministroen arteko batzarretan sinatutako baso-kudeaketa iraunkorrerako oinarrietan kokatzen dira. **Baso-kudeaketa iraunkorra** honela definitzen da: *“baso eta baso-lurren administrazioa eta erabilpena, era eta erritmo batean non horien biodibertsitatea, produktibitatea, birsorkuntza-ahalmena eta bizitasuna mantentzen diren eta orain eta etorkizunean, garrantzizko funtzio ekologiko, ekonomiko eta sozialak tokiko mailan, nazio-mailan eta mundu-mailan betetzeko potentziala mantentzen duena, beste ekosistemei kalterik sortu gabe”*.

Helburu horiek lortzeko basoek bete beharreko sei irizpide finkatu dira, eta bakoitzak zenbait adierazle ditu bere ebaluaziorako:

- ⇒ 1. irizpidea: Baso-baliabideak mantentzea eta hobetzea eta horien ekarpena karbonoaren ziklo globaletan
- ⇒ 2. irizpidea: Baso-ekosistemen osasuna eta bizitasuna mantentzea
- ⇒ 3. irizpidea: Basoen funtzio produktiboak mantentzea eta hobetzea (zur eta zur ez diren produktuak)
- ⇒ 4. irizpidea: Baso-ekosistemen dibertsitate ekologikoaren mantentze, kontserbazio eta hobekuntza egokia
- ⇒ 5. irizpidea: Babes-funtzioen mantentze eta hobekuntza egokia baso kudeaketan (batez ere lurzorua eta ura)
- ⇒ 6. irizpidea: Bestelako funtzio eta baldintza sozioekonomikoak mantentzea

Bestetik, basogintza-mundura iritsi da, merkatu-tresna gisa, era iraunkorren kudeatutako basoetako zura egiaztatzea. EAEn **eskualdeko egiaztagiria** aukeratu da. Horretarako, Euskadiko baso-masak, oro har, iraunkortasun-adierazle batzuen bitartez aztertu behar dira. Adierazle horiek berak ezartzen zaizkio egiaztagiriari atxikitzen diren jabe edo kudeatzaile guztiei. Atxikitako mendietan kudeaketa-planak eta egindako baso-jardueren trazabilitatea alderdi saihestezinak dira basoak egiaztatzeko sisteman.

2.3. Aztergai den esparruan eragina duten beste plan batzuk

EAEko Biodibertsitate Estrategia 2009-2014

EAEko Biodibertsitate Estrategia tramitazioan dagoen tresna bat da eta horren azken bertsio publikoa 2009 hasierakoa da. Hor identifikatzen dira, biodibertsitatearen galeraren eta degradazioaren kausa nagusien barruan, nekazaritza- eta basogintza-erabileren areagotzea eta lurraldearen artifizialtzea eta azpiegituren plangintza eta diseinu bat.

Ondorioz, hau adierazten du 2. helburuaren barruan: biodibertsitatea gune babestuetatik harago kontserbatzea eta leheneratzea; biodibertsitateak behar dituen eta bere oinarri diren prozesu ekologikoak lurralde osoan daude eta, horren barruan –beste gune nagusi batzuen artean–, nekazaritza-sistemetan.

Horien diagnosiak adierazten du zer alde dagoen isurialde kantauriarraren (oro har biodibertsitate handiagokoan, lehen sektoreak bultzatu duen larre, labore, heskai eta baso txikien mosaikoari esker) eta mediterraneoaren artean (non labore eta basoen mosaikoa pobretu egin den azken urteotan ureztatzeak orokortzeagatik eta hirigintza-presioengatik). Aldagai horretarako proposatzen diren jardun-ildoen artean hauek daude:

- Nekazaritza- eta ingurumen-neurrien aplikazioa sustatzea eta nekazaritza-integrazioa hobetzea biodibertsitatearen kontserbazioaren ikuspegitik.
- Biodibertsitatearen kontserbaziorako lagungarriak diren nekazaritza-ereduak eta -jarduerak ezartzen laguntzea.

Bi jardun-ildoak bat datoz NBALAParen helburuekin eta jasota daude, bai espresuki, bai arloko beste tresna batzuen (PDRS, etab.) irizpideak eta helburuak bere eginda.

Estrategiak balio handiko zonak identifikatzeko eta babesteko premia ere aipatzen du, Europako Batzordeak adierazitakoa (Batzordearen jakinarazpena – Biodibertsitate-galera geldiaraztea 2010erako –eta aurrerago– ekosistemetako zerbitzuak babestea giza ongizaterako {SEC(2006) 607} {SEC(2006) 621} /* COM/2006/0216 azkena */⁶).

NBALAP xedapen horien aurreko tresna da eta aurrera egiten du erabilera heterogeneoen zona-proposamenarekin (antolamendu-kategoriak). Hor, bere definizioak berak eta egiten diren erabilerei buruzko ñabardurek baliagarri bilakatzen dituzte estrategiak nekazaritza-sistemen barruan biodibertsitaterako garrantzitsu gisa identifikatzen dituen elementuak: heskaiak, baso txikiak, hormak, etab. Halaber, PDRSetan jasotako nekazaritza- eta ingurumen-neurriak orokortzeko

⁶ <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2006:0216:FIN:ES:HTML>

komenentzia bere egiten duenez, NBALAP bat dator estrategiarekin zentzu horretan.

Espezie mehatxatuak kudeatzeko planak

Aurrerago deskribatu den bezala, EAeko espezie mehatxatuak kudeatzeko planak nahitaez ezarri behar dira espezie horietarako definitutako interes bereziko guneetan. Ondorioz, zona horietan garatzen den edozein nekazaritza- eta basogintza-jarduerak errespetatu egin behar ditu plan horien xedapenak.

Kudeaketa-planen eta NBALAParen aplikazio-guneen arteko teilakatzeek ez dute sortzen kontraesanik; izan ere, zona horietan LAPak ezartzen dituen erabileren araubidea adierazitako xedapenen mende dago.

KBE kudeatzeko planak

Diagnosian (IITaren 3. atalean) jaso dira Natura 2000 Sarearen deskribapena EAEn eta espazioen tramitazio-egoera. Europako Batzordeak onartutako Garrantzi Komunitarioko Leku (GKL) batzuek badituzte kudeaketa-planen bertsio aurreratuak, eta 92/43/EE Zuzentarauak, habitatei buruzkoak, erabilarazten dituen "neurriak" jasotzen dituzte espazio horiek kontserbazio bereziko zona izendatzeko.

Dokumentu aurreratuena duen espazioa Kantabriako Mendilerroa da, eta behin-behinekoz onartutako muga berriak eta kudeaketa-planak ditu. Hona kudeaketa-planen zirriborroak eta hasieran onartutako muga-proposamen berria dituzten beste espazio batzuk: Ernio-Gatzume, Aiako Harria, Pagoeta, Garate-Santa Barbara, Arno, Izarraitz, Barbadun ibaiaren itsasadarra, Astondoko dunak, Lea ibaia, Artibai ibaia, Urola ibaiaren itsasadarra, Iñurritza, Oria ibaiaren itsasadarra, Oria Garaia, Araxes ibaia, Leitzaran ibaia, Urumea ibaia, Barrundia ibaia, Arakil ibaia eta Ega-Berron ibaia.

Parke natural (Pagoeta, Aiako Harria) edo babestutako biotopo (Leitzaran) direnak ere, bai deklaraturakoak, bai tramitazioan daudenak, NBALAParen antolamendu-esparrutik ateratzen ari dira. Bestetik, Natura 2000 Sarea antolamendu-kategoriari gainjarritako baldintzatzaile gisa jasotzen du NBALAPak, eta ezartzen du KBEen kudeaketa-planak indarrean jartzean, horiek modu automatikoan gainjarriko zaizkiola NBALAPari. Ordura arte eta nolahi ere, zuzentarauak ezartzen duen prebentzio-erregimenaren mende daude espazioak, eta beharrezkoa da espazioaren integritatean afektazio esanguratsuak sor ditzaketan plan eta programen ebaluazio bat egitea.

Ondorioz, NBALAP Natura 2000 Sarearen helburuetara egokitzen dela pentsatzen da eta antolamendu-tresnen artean ez da kontraesanik sortzen.

Plan hidrologikoak

Uraren Esparru Zuzentarauak (UEZ), 2000. urtean indarrean jarri zenak, arroko plan hidrologikoak jotzen ditu tresna nagusitzat ur-ekosistemen narriadura

prebenitzeko eta egoera hobetzeko eta uraren erabilera iraunkorra sustatzeko helburuak lortzeko.

EAEEn plangintza hidrologikoko hiru esparru daude: Barne-arroak, Kantauri eta Ebro. Zona horietako plan hidrologikoen UEZaren helburuak 2016 aurretik betetzeko behar diren arazuko xedapenak eta jardunak jaso behar dituzte.

EAEko plan hidrologikoak idazte-fasean daude: Barne-arroetako plan hidrologikoa – hiruen artean, EAEk hori bakarrik prestatzeko eskumena du, beste biak demarkazioei dagozkie– badu aurretiko bertsio bat. Hori idazteko, parte hartzeko prozesu bat jarraitu da, eta Uraren Euskal Agentziak ere heldu dio horri Kantauriko eta Ebroko demarkazioen plangintza hidrologikoan laguntzeko.

Plan hidrologiko horiei jarraituz, NBALAP kontuan izan da neurri-programetan jasotako jardun batzuk prestatzean. Adibidez, barne-arroetako PHan, LAPak neurri-programan jasotako jardun batzuk prestatzean, kontuan izan dira hauek, jardun-ildoetan jaso den bezala⁷:

- Nekazaritza-jarduera iraunkorrak bultzatzeko jardunak.
- EAEko nekazaritzako elikagaien sektorean sortutako materia organikoa, azpiproduktuak eta hondakinak kudeatzeko plana (2008-2011).
- Basogintza-jardueren hobekuntza.
- Ibaiertzen kontserbazioa eta leheneratzea.

Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Plana 2008-2012

KABEP askotariko esparruetan (hezkuntzan, nekazaritzan, energian...) erantzukizuna duten Eusko Jaurlaritzako zenbait sailen artean zeharka prestatutako dokumentu bat da, baina denei axola zaie klima-aldaketaren fenomenoak.

KABEPak diotenaren arabera, klima-aldaketak prezipitazioen urteko % 15-20ko murrizketa dakarte EAEEn, neguan areagotu eta udan murriztu egiten dira, igoera termikoa dago –eta ondorioz, gehikuntza ebapotranspirazioan eta baso-suteen arriskuan– eta tenperatura maximo itzelak aurreikusten ditu mendearen amaieran, egungoak baino 1,5-3,5°C handiagoak, eta minimo itzelak, 1 eta 3°C artekoak. Itsas mailan eta olatuen indarrean aurreikusten den igoera ere esanguratsua da; izan ere, atzerapena eragingo luke kosta-lerroan (11-13 m) eta uholde-arriskuko prozesuak areagotzea estuarioetan.

Horrela, KABEPak 4 helburu estrategiko markatzen ditu horizonte hurbil batean (2012):

- Berotegi-efektuko gasen (BEGen) isuriak % 14ra mugatzea oinarri-urtearekiko.

- Karbono-hustulekuak kentzeko ahalmena oinarri-urteko isurien % 1era handitzea.
- Natura-baliabideen gaineko arriskuak minimizatzea.
- Pertsonen osasunaren, hiri-habitataren kalitatearen eta sistema sozioekonomikoen gaineko arriskuak minimizatzea.

Lau helburu horiek lortzeko, planak 120 ekintza ukigarri, neurgarri eta zehatz aurreikusten ditu, beste lau programatan banatuta: karbono gutxiago, aurrerapena, ezagutza eta hiritartasuna eta administrazioa.

Nekazaritza- eta basogintza-sektorerako, KABEPak berariazko programa sektorial bat sortu du isurien murrizketa handitzeko eta karbonoa kentzeko, "*Karbono gutxiago eta energia garbiagoak erabilia ekoiztea eta kontsumitzea, eta karbono-hustulekuak kudeatzea*" (KABEParen 5. programa, planaren 1. eta 2. helburu estrategiak hedatzekoa). Esku hartzeko definitutako ildoak dira aurrezte eta eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarriak sustatzea, isuri ez-energetikoak murriztea eta karbono-hustulekuak kudeatzea.

KABEPak dioenez, nekazaritza-sektoreak -abeltzaintza, nekazaritza- eta basogintza-azpisektoreak barnean hartzen dituenak- alderdi bikoitza du isuriekiko. Izan ere, batetik, CO₂, CH₄ eta N₂O isurtzen du eta, bestetik, karbono-hustuleku gisa jarduten du biomasan zein lurzoruetan, eta isurien bilakaera goranzkoa da (baina azken urteotan ia egonkor egon dira). BEGen isurien murrizketaren ikuspegitik, nekazaritza-sektorea 1,33 MTm CO₂-ren hustuleku garbia izan zen 2005ean.

NBALAPak nekazaritza-lurzorua eta lurraldean garatzen diren nekazaritza- eta basogintza-jarduerak antolatzen dituenek, horiek ezartzen lagundu behar du KABEParen helburuak lortzeko. Zuhaitz-masak mantentzea eta berreskuratzea, nekazaritza- eta basogintza-jardunbide egokiak erabiltzea, eta antzeko neurriak sustatzeak helburu hori dute.

Arloko beste plan batzuk

Arloko plan hauek zenbait tramitazio-mailatan daude eta ez dute zuzeneko loturarik NBALAParekin eta nolana ere, horietatik sortutako ekimen berriek nekazaritza-arloko ebaluazioa egin behar dute, azken horrek definitutako baldintzetan:

- Errepideen Arloko Plan Orokorra
- Bizkaiko Errepideen Arloko Plana
- Energia Eolikoaren LAP
- EAeko Trenbide Sarearen LAP

⁷ Barne-arroetako plan hidrologikoaren ebaluazio bateratuaren azterlanak berak 3.2.3.4 atalean jaso duen bezala, PHak

- EAeko Lurzoru Kutsatuen Plana 2007-2012
- Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren LAP
- Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Lurzoruaren LAP
- Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko LAP
- Portuak Antolatzeko LAP, portuak eta jalkin kutsatuak dragatzeko jardunei buruzko programa
- Garraioaren Sare Intermodal eta Logistikoaren LAP
- EAeko Hondakin Arriskutsuak eta Ez-arriskutsuak Prebenitzeko eta kudeatzeko Plana 2008-2015
- etab.

beste plan eta programa batzuekin zer erlazio duen analizatzen da.

3. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAParen eraginpeko esparruaren ingurumeneko analisia, diagnosis eta balorazioa

Atal honen helburua da elkarrekintza ekologiko eta ingurumeneko elkarrekintza nagusien deskribapena egitea. Gainera, kontuan izan dira lurraldearen kontserbazioaren eta garapen iraunkorraren lehentasunak.

3.1. Aztergai den esparruaren definizioa

LAP honen antolamendu-esparruak **EAE osoa** hartzen du, lehendik dauden hiriguneak eta Babestutako Natura Guneak izan ezik: (parke naturalak eta babestutako biotopo deklaratuak eta tramitazioan daudenak), Urdaibaiko Biosfera Erreserba, Zona Hezeen LAPak babestutako hezeguneak (II. multzoa) eta Itsasertza Antolatzeko LAPak babestutako zonak (babes berezia, ingurumen-hobekuntza, hiri-hondartzak).

Nolanahi ere, NBALAParen helburu nagusia EAEko nekazaritza- eta basogintza-balio handiko lurzorua babestea da, gure erkidegoko lehen sektorearen sostengu nagusi gisa eta landa-paisaiaren eta natura-ingurunearen funtsezko zati gisa. Babes hori EAEko lehen sektorea sostengatzeko behar den "hanka" bat balitz bezala – gainerako politika eta araudi sektorialekin batera– marrazten da.


Aurrekoaren ondorioa da lurralde-eredu baten proposamena, eta horren lotespena dira balio estrategiko handiko guneak, onura publikoko mendiak eta mendi babesleak eta nekazaritza- eta basogintza-erabilerak, LAPari buruzko araudiaren III. tituluan jaso den bezala. Horrela, LAPak lurzoru urbanizaezinera hedatzeko izaera du, baina bere edukiek garapen-planeamendurako proposamen edo gomendioen irismena dute lurzoru horren zati handiengan.

IIT honen esparrua EAEn lurraldea da eta, zehatzago, NBALAParen helburu-zonak. Lurralde mugakideetan eragina izan dezaketen inpaktuak egoteko aukera oso txikia da LAParen ezaugarriengatik: aplikaziokoa gaindi dezaketen esparruetan inpaktu handiena izan dezaketen jarduerak, nekazaritza- eta basogintza-jarduerarekin lotuak, hala nola araztegi, fitosanitario eta antzekoen lohi-konponketak, berariazko araudiak arautzen ditu, inpaktu-atalaseak aurrez kontuan izanda. Nolanahi ere, nekazaritza- eta basogintza-erabileren garapen gisa sor daitezkeen plan eta proiektuen ingurumen-ebaluazioko prozedurek kontuan izan behar dute aukera hori.

3.2. Natura-baliabideak eta lurzorua aprobetxamendua

EAEko azalera nagusi den erabilera basokoa da, guztizko azalaren erdia baino gehiago hartzen duena. Nekazaritza-jarduerak sega-belardiak dira isurialde atlantikoan eta labore estentsiboak isurialde mediterraneoan, eta Arabako Lautadan eta, batik bat, Arabako Errioxan iristen dira azalera-portzentaje handienetara. Bi isurialdeetako paisaien arteko aldeak bi lurraldeen dibertsitate fisikoaren eta sozialaren kausa eta ondorioa dira aldi berean.


Isurialde kantauriarreko eskualdeetan, basogintza-erabilera balio oso altuetara iristen da, kasu askotan % 75 ingurura, baina bi heren intsinis pinuaren sailak dira. Hain zuzen, horixe da euskal paisaia atlantikoan nagusi den erabilera; baso autoktonoak mendi garaienetan biltzen dira eta horien gailurretan abeltzaintza-azienda ugari batek mantendutako larre-belardiak ikus daitezke. Baserriaren erabilera-mosaikoa, hots, larreak, fruta-arbolak eta baratzeak, mendi-hegalen bealdera mugatzen da eta, haranaren hondoa, ugari garatzen dira hiriguneak eta komunikazio-bideak.



Iturria: Baso Inbentarioa, 2010.

Isurialde mediterraneoan, basogintza-erabilerak azaleko banaketa txikiagoa du eta % 50etik beherako balioetan kokatzen da eskualde nekazarietan. Kasurik nabarmenena Arabako Errioxa da: % 12 besterik ez da zuhaitz-azalera. Baina isurialde kantauriarrean ez bezala, Araban, zuhaitz-azalaren hiru heren hostozabal-masak dira. Paisaia irekiagoa da eta haranetan eta ibaien ibarretan

nagusi dira laboreak eta, basoak estaliz, hobeto edo okerrago kontserbatuta, mendi-hegal gehienak.



Iturria: Baso Inbentarioa, 2010.

2009an 16.000 nekazaritza- eta basogintza-ustiategitik gora zeuden erroldatuta EAEn eta taula honen arabera banatzen diren eskualdeka:

EAE	Guztira Ustiategi kop.
Lurralde Historikoak	
Araba	3.546
Bizkaia	7.089
Gipuzkoa	5.810
Eskualdeak	
Arabako haranak	335
Arabako lautada	890
Arabako mendiak	249
Arratia-Nerbioi	805
Bidasoa Beherea	250
Bilbo Handia	1.410
Debarrena	544
Debagoiena	819
Donostia-San Sebastián	1.151
Durandaldea	1.169
Enkarterriak	997

Arabako Errioxa	1.057
Gernika-Bermeo	1.019
Goierra	954
Gorbeia inguruko mendiak	305
Arabako eskualde kantauriarra	710
Markina-Ondarroa	685
Plentzia-Mungia	1.004
Tolosa	1.007
Urola Kosta	1.085

Joera negatiboa egiazta daiteke; izan ere, 10 urtetan (1999tik), ustiategi kopurua nabarmen jaitsi da: erroldatutako 40.000 ustiategietatik 16.000 baino gehixeagora igaro da. Jaitsiera handia izan da probintzia guztietan: Bizkaian (13.244 ustiategi gutxiago), Gipuzkoan (6.595 ustiategi desagertu dira) eta Araban (3.672 ustiategi gutxiago).

Euskal ustiategien ezaugarri bat da haien tamaina txikia. Hala ere, ustiategiko buruen % 62k dio ustiategitik kanpo ez dutela irabazizko beste jarduerarik edo erretiratuta daudela; % 30,6k beste lan bat du kanpoan eta bere diru-sarreraren iturri nagusia da gainera. Ustiategiko burua 40 urtetik beherakoa duten ustiategiak soilik kontuan izanda, horien % 35ek soilik ez du irabazizko beste jarduerarik ustiategitik kanpo.

Oro har, NBALAPak definitutako balio estrategiko handiko lurzoruek nekazaritza-edo abeltzaintza-ustiategietarako zonak hartzen dituzte barnean, baina askotariko erabilera batzen dira hor: interes naturaleko zonak nabarmentzen dira, hala nola heskaiak, baso txikiak edo errekek, LAPak egindako "urban handiak" proposamenaren ondorioz, eta tokian tokiko udalek berraztertu behar dute hori.

Bestetik, NBALAParen aurrerapen-dokumentuak aurkeztutako lehen kartografiatik, balio handiko zona horiek nabarmen gutxitu dira: orokorrean haran-hondoetan daudenez, beste erabilera batzuetarako gune aproposetan, hala nola hirigintzakoetarako (batik bat isurialde kantauriarrean, lurzoru lau urria egonik haran-hondo horietara bideratzen baitira ia ekimen berri guztiak), desagertu egin dira pixkanaka. Adibidez, Donostialdean soilik, 2003tik 2010 arte, balio handiko nekazaritza-lurzoruen 300 ha-tik gora desagertu dira hirigintza-garapenengatik.

Egoera hori okertu egin da udalen artean koordinazio falta izan delako eskualde-mailan garapen eta azpiegituren proposamen koherenteago bat egitean, eta maximo-joeragatik garapen berriak proposatzean (nola kopuruan nola hedapenean). Lurraldea funtzio-arlotan antolatzen duten Lurraldearen Zatikako Planak onartu, eraikuntza-dentsitateak handitu eta "higiezinen burbuila" lehertu egin denez, azken urteotan leundu egin da lurzoru naturalen okupazio estentsiborako joera hori.

Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu NBALAPak haran-hondoko lurzoruak babesten dituela, egungo hiriguneak inguratuz, hirigintza-tentsio handieneko zonetan.

Lurralde-eredu koherente bat, nekazaritza-lurzorua babesa eta natura-ingurunearen eta biodibertsitatearen kontserbazioa bateratu nahi dituen bultzatzeko, LAPak proposamen malgu bat egiten du, eta nekazaritza-lurzorua galerak onartzen ditu, baldin eta horiek minimizatzen badira eta, gainera, behar bezala baloratzen badira konpentsazio zuzenago bat lortzeko.

Bestetik, nabarmendu behar da lehen sektorea eraldaketa sakona ari dela jasaten barne-barneko kausengatik, eta landa-zonaren aldaketa bat sortzen ari dela. Nekazaritza-krisia, produktibitate-eredu bat bultzatzen duen merkatu globalaren eredia, hiriaren gertutasuna eta ondoriozko hirigintza-espektatibak, belaunaldi-aldaketa egiteko interes falta, etab. direla bide, euskal nekazaritza- eta basogintza-sektorearen jarraitutasuna kolokan dago, eta horrek ondorio larriak sortuko ditu paisaian, bere kalitatea tradizioz eman zaion erabilerak zehazten baitu.

3.3. Eraginpeko ingurumen-aldagaiak

NBALAParen xedapenen eraginpekoak izan daitezkeen ingurumen-aldagaiak lurzoru-baliabideari eta horretan oinarritzen diren natura-baliabideei bereziki lotutakoak dira: biodibertsitatea, ura eta paisaia.

Inpaktuen identifikazioak eta balorazioak (IITaren 5. atala) aurrekoan ari da aurreratzen, eta afektazio-ahalmena duten inguruneko elementu gisa jasotzen ditu hauek:

- Lurzorua
- Ura
- Flora
- Landaredia (garrantzi komunitarioko habitatak barnean hartzen ditu eta lehentasunezkoak adierazten ditu gainera)
- Fauna
- Natura 2000 Sarea
- Paisaia
- Kultura-ondarea

Aldagai horiek izan ditzaketen afektazio nagusiak hauek dira:

- Lurzorua: Lurzoru-galera, higaduragatik eta artifizialtzeagatik. Kutsadura isurketengatik
- Ura: Kutsadura isurketengatik, emariak kentzea

- Flora: Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoko⁸ espezieen eta/edo garrantzi komunitarioko espezieen aleak galtzea.
- 92/43/EEE Zuzentarauko landaredia eta habitatak: Komunitate horien azalerak galtzea eta/edo narriatzea
- Fauna: Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoko espezieen eta/edo garrantzi komunitarioko espezieen aleak galtzea eta/edo horien habitata aldatzea.
- Natura 2000 Sarea: Lekuaren integritatea zalantzan jartzen duten inpaktuak
- Paisaia: Paisaia-kalitatea narriatzea
- Ondarea: Zuzeneko afektazioa ondare-elementuak suntsitzeagatik edo narriatzeagatik

3.4. Ingurumen-baliabideak identifikatzea

LAParen esparruko ingurumen-baliabide baliotsuak, kontserbazioa, ahultasuna, berezitasuna edo babes berezia kontuan izanda, hauek dira:

Babestutako Natura Guneak

Asko dira, EAEn, ongi kontserbatutako natura-balioak. Gehienak leku helezinagoetan edo produktibitate-muga handiagoak dituztenetan biltzen dira: mendigune menditsuetan, paduretan eta abarretan.


Egun, Eusko Jaurlaritzaren Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legearen, ekainaren 30ekoaren babesean, parke natural hauek deklaratu dira: Urkiola (5.958 ha), Valderejo (3.418 ha), Izki (9.081 ha), Gorbeia (20.016 ha), Aralar (10.971 ha), Aiako Harria (6.913 ha), Pagoeta (1.335 ha), Aizkorri-Aratz (15.919 ha) eta Armañon (2.971 ha). Aurreikusita dago parke natural izendatzea Entzia eta Gasteizko Mendiak ere, biak Araban.

Parke naturalek babestutako azalera EAEn azalera osoaren % 10,6 da, eta deigarria da parke naturalek hartzen duten azaleraren % 85 jabetza publikoko mendiak izatea.

EAEko Natura Babesteko Legean zehaztutako beste hainbat figura 1995etik aurrera garatu dira, babestutako biotopo hauek deklaratu: Itxina, Gorbeiko Parke Naturalaren barnean (571 ha); Guardiako Aintzirak (46 ha); Leitzaran (74 ha); Iñurritza (52 ha) Gaztelugatxeko Doniene (158 ha) eta Deba-Zumaiako itsasertz-tartea (4.299 ha). Bestetik, segidako bi dekreturen bidez, 1995ekoaren eta 1997koaren bidez hurrenez hurren, 25 **Zuhaitz Berezi** deklaratu ziren EAEn.

⁸ 167/96 Dekretua, uztailaren 9koa, Basoko eta Itsasoko Fauna eta Florako Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoa arautzen duena. (EHAA, 140. zk., 1996ko uztailaren 22koa) (Eta horren zabaltzeak eta aldaketak)

Babestutako Natura Gune gisa sartu da, halaber, lege berezi batean deklaraturako **Urdaibaiko Biosfera Erreserba**: 5/89 Legean, Urdaibaiko Biosfera Erreserba babestekoan eta antolatzekoan.



Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren, Txingudiren, parke naturalen eta babestutako biotopoen⁹ barruan, nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako jarduerak garatzen dira, beti ere erabilera horiek arautzen dituen araudiaren babespean, eta atalaseak ezartzen ditu espazioen hartze-ahalmenaren arabera. BBE horiek eta Zona Hezeak Antolatzeko LAParen II. multzoko hezeguneak, Itsasertza Antolatzeko LAPak babestutako zonak, etab. NBALAParen antolamendu-esparrutik kanpo geratzen dira, eta ez dira lurralde-ereduaren eraginpekoak izango. Hala badagokio, berariazko kudeaketa-tresnek ezartzen dituzte nekazaritza-zonak eta arautzen dute erabileren onargarritasuna.

EAEko Espazio Naturalen Sarearekin batera, **Natura 2000 Sarea** sortu zen, Europa mailako sare ekologiko bat, eta gaur egun erreferentzia nagusia da biodibertsitatearen kontserbazioari dagokionez. Horren jatorria habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteko 92/43/EE Zuzentarauan dago. Barnean hartzen ditu zuzentarau horren babesean deklaraturako espazioak, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) deklaraturakoak, nahiz baso-hegaztien eta horien habitaten

⁹ Ez dira sartu zuhaitz bereziak, izaera bakarra eta banakako tratamendua eta babesa dutenak, arau-izaera deklarazio dokumentuetan jasoak.

kontserbazioari buruzko 79/409/EEE¹⁰ Zuzentarauaren arabera sailkatutakoak, Babes Berezikoko Eremu (BBE) deiturikoak. Sarearen helburua da hainbat habitata natural motaren edo garrantzizko hainbat animalia- eta landare-espezieren aldeko kontserbazio-egoera mantentzea edo, hala badagokio, berrezartzea segurtatzea.


Eusko Jaurlaritzak, 2003ko ekainaren 10eko Erabakian, Garrantzi Komunitarioko Lekuen (GKL) Zerrenda Nazionalan 52 leku sartzea proposatzen du, eta 6 espazio BBE izendatzea. Proposamen horrek GKLetan sartutako 107.500 ha aurreikusten ditu guztira, eta BBE izendatutako 11.963 ha inguru, bi babes-figura horiek gainjartzen diren zonez gain. Guztira, EAeren azaleraren % 20,31 sartu da proposamen horretan.

	Kodea	Garrantzi Komunitarioko Lekuaren izena	Lurralde Historikoa
1	ES2110001	Valderejo	Araba
2	ES2110002	Sobron	Araba
3	ES2110003	Urkabustaizko irla-hariztiak	Araba
4	ES2110004	Arkamo-Gibijo-Arrastaria	Araba
5	ES2110005	Omecillo-Tumecillo ibaia	Araba
6	ES2110006	Baia ibaia	Araba
7	ES2110007	Arreo-Caicedo Yuso lakua	Araba
8	ES2110008	Baia ibaia	Araba
9	ES2110009	Gorbeia	Araba eta Bizkaia
10	ES2110010	Zadorra ibaia	Araba
11	ES2110011	Zadorra sistemako urtegiak	Araba
12	ES2110012	Ayuda ibaia	Araba
13	ES2110013	Arabako Lautadako irla-hariztiak	Araba
14	ES2110014	Salburua	Araba
15	ES2110015	Gasteizko Mendi Garaiak	Araba
16	ES2110016	Montes de Aldaia	Araba
17	ES2110017	Barrundia ibaia	Araba
18	ES2110018	Kantabriako Mendilerroa	Araba
19	ES2110019	Izki	Araba
20	ES2110020	Ega-Berron ibaia	Araba
21	ES2110021	Guardiako lakuak	Araba
22	ES2110022	Entzia	Araba
23	ES2110023	Arakil ibaia	Gipuzkoa
24	ES2120001	Arno	Gipuzkoa
25	ES2120002	Aizkorri-Aratz	Gipuzkoa eta Araba
26	ES2120003	Izarraitz	Gipuzkoa

¹⁰ 2009/147/EB Zuzentarauak ordeztua.

27	ES2120004	Urolaren itsasadarra	Gipuzkoa
28	ES2120005	Oria Garaia	Gipuzkoa
29	ES2120006	Pagoeta	Gipuzkoa
30	ES2120007	Garate-Santa Barbara	Gipuzkoa
31	ES2120008	Ernio-Gatzume	Gipuzkoa
32	ES2120009	Iñurritza	Gipuzkoa
33	ES2120010	Oriaren itsasadarra	Gipuzkoa
34	ES2120011	Aralar	Gipuzkoa
35	ES2120012	Araxes ibaia	Gipuzkoa
36	ES2120013	Leitzaran ibaia	Gipuzkoa
37	ES2120014	Ulia	Gipuzkoa
38	ES2120015	Urumea ibaia	Gipuzkoa
39	ES2120016	Aiako Harria	Gipuzkoa
40	ES2120017	Jaizkibel	Gipuzkoa
41	ES2120018	Txingudi-Bidasoa	Gipuzkoa
42	ES2130001	Armañon	Bizkaia
43	ES2130002	Ordunte	Bizkaia
44	ES2130003	Barbadunen itsasadarra	Bizkaia
45	ES2130004	Astondoko dunak	Bizkaia
46	ES2130005	Gaztelugatxeko Doniene	Bizkaia
47	ES2130006	Urdaibaiko ibai-sarea	Bizkaia
48	ES2130007	Urdaibaiko itsasertzeko zonak eta padura	Bizkaia
49	ES2130008	Urdaibaiko artadi kantauriarrak	Bizkaia
50	ES2130009	Urkiola	Bizkaia eta Araba
51	ES2130010	Lea ibaia	Bizkaia
52	ES2130011	Artibai ibaia	Bizkaia

Ko de	Zk.	BBEaren izena	Lurralde Historikoa
1	ES0000144	Urdaibairen itsasadarra	Bizkaia
2	ES0000243	Txingudi	Gipuzkoa
3	ES0000244	Gorobel mendilerroa	Araba
4	ES0000245	Valderejo-Arcena	Araba
5	ES0000246	Arabako Hegoaldeko mendilerroak	Araba
6	ES2110019	Izki	Araba



Natura 2000 Sarea antolamendu-kategoriari gainjarritako baldintzatzaile gisa jasotzen da, eta ezartzen du zuzentarauak aipatzen dituen kontserbazio-neurriak (kontserbazio bereziko zonak kudeatzeko planetan jaso daitezkeenak) indarrean jartzean, neurri eta/edo plan horiek modu automatikoan gainjarriko zaizkiola NBALAPari. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak asko aurreratu du KBE horien kudeatzeko zenbait plan izendatzen eta onartzen, eta tramitazio-maila desberdinetan daude. Hona aurreratuenak:

- Kantabriako Mendilerroa
- Ernio-Gatzume
- Aiako Harria
- Pagoeta
- Garate-Santa Barbara
- Arno
- Izarraitz
- Eskualde biogeografiko atlantikoko ibaiak eta estuarioak: Barbadunen itsasadarra, Astondoko dunak, Lea ibaia, Artibai ibaia, Urolaren itsasadarra, Iñurritza, Oriaren itsasadarra, Oria Garaia, Araxes ibaia, Leitzarain ibaia, Urumea ibaia, Barrundia ibaia, Arakil ibaia, Ega-Berron ibaia.

Kantabriako Mendilerroa KBEak badu mugei eta kontserbazio-neurriari buruz behin-behineko onartutako proposamen bat (2007ko abenduaren 3ko Agindua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuarena).

Adierazitako gainerako espazioak, bai horien muga-proposamen berria, bai kudeaketa-planak, hasieran onartu dira duela gutxi (2011ko otsail-apirilean) eta jendaurrean jarri dira, eta orain alegazioei erantzuteko prozesuan daude¹¹.

Kudeaketa-planak behin betiko onartutakoan, espazio horiek NBALAParen esparrutik aterako dira. Ordura arte eta nolana ere, 92/43/EE Zuzentarauak eta 42/2007 Legeak ezarritako prebentzio-erregimenaren mende daude, eta edozein jarduera berrik lekuan dituen ondorioen ebaluazio bat egin behar da. Horrela, nekazaritza- eta basogintza-jarduerari lotutako edozein ekimenek espazio(et)an dituen eraginaren ebaluazioa egitea ziurtatzen da.

Halaber, prebentzio-erregimen hori aplikatzekoa da Natura 2000 Sarea osatzen duten Hegaztien Babes Berezikiko Eremuetan (BBE) ere, non balioko nekazaritza- eta basogintza-zonak har ditzaketen, hala nola abeltzaintza-jarduerara (larreetara) zuzenean lotutako habitatak.

Bestalde, nazioartean bada beste babes-figura bat, ekosistema zehatzetarako berezia dena, hala nola hezeguneetarako. Nazioarteko Garrantzia duten Hezeguneen Zerrenda edo Ramsar Zerrenda da, 1971n izandako izen bereko itunaren ondorioz sortutakoa. EAeko hainbat hezegune adierazi dira nazioarteko garrantziko gisa:

RAMSAR NAZIOARTEKO GARRANTZIA DUTEN HEZEGUNEAK Azalera (ha)	
Urdaibaiko padurak	915,9
Txingudi	134,1
Ulibarriko urtegi-buztanak	386,4
Guardiako aintzirak	45,2
Gesaltza-Caicedo lakua	25,8
Salburua	174,8

Zona horiek ez dute berariazko araudirik edo kudeaketa-planik, baina araudi propioa duten beste enklabe katalogatu batzuen barruan daude (Urdaibain, Txingudin, babestutako biotopoan eta/edo Natura 2000 Sarean) eta, NBALAParen arabera eta IIT honetan lehenago adierazi den bezala, horixe izango da aplikatzekoa.

Beste hezegune katalogatu batzuk, inguru hezeen LAPak jasotakoak, kasu: LAP horren I. eta II. multzoetako hezeguneak NBALAParen antolamendu-esparrutik kanpo geratzen dira, horrek araudiaren 3. artikuluan (I. multzoko hezeguneak parke naturaletan, biotopoetan edo Urdaibain sartu direlako) eta 5. artikuluan adierazten duen bezala. III. multzoko hezeguneek inbentario bat osatzen dute eta

¹¹ Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren web-orria, www.ingurumena.net

nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilera batera zuzenean lotutako zona hezeak hartzen ditu barnean: ureztatze-putzuak, etab. Horientzat, Zona Hezeak Antolatzeko LAPak jarraibide batzuk ematen ditu, udal-planeamenduak tratatu eta kontuan izan ditzan. NBALAPak berriaz jasotzen du III. multzoko hezeguneetan aplikatzekoak izango direla Zona Hezeak Antolatzeko LAParen gomendioak, eta horrek hezegune horien kudeaketa egoki bat errazten duela pentsatzen da.

Azkenik, LAAek aurkeztutako natura-intereseko guneen zerrendan sartutako espazioak nabarmendu behar dira, eta *"Babes Bereziko kategoria izango dute soilik dagozkien Lurraldearen Zatikako Planek edo udal-planeamenduak horrela ezartzen badute"*. NBALAPak bere araudiaren 4. artikuluan jasotzen du LZPekiko koordinazioa, eta bigarrenen lehentasuna suposatzen du *"Babes Bereziko Guneen" definizioari dagokionez (...)*. Gainera, udal-planeamenduari dagokionez, NBALAParen araudiaren 46. artikuluan adierazten da NBALAPak babes bereziko kategoria berriaz mugatzen ez duen arren, udalek mugapen horri heldu behar diotela LAAek ezarritakoari jarraituz, hots, epigrafe horretan zona hauek bilduta:

- *"Funtsezko prozesu ekologikoak mantentzean zeregin garrantzitsua dutenak, hala nola lurzoruen babesa, akuiferoen karga, etab.*
- *Kontserbazio-egoera oneko habitat naturalen laginak, desagertzeko arriskuan daudenak edo, nazioarteko hitzarmenen edo berriazko xedapenen ondorioz, babes berezia behar dutenak.*
- *Espezie mehatxatu gisa katalogatutako animalia edo landareen populazioak dituzten guneak, elementu endemikoen kontzentrazio handiak edo, nazioarteko hitzarmenen edo berriazko xedapenen ondorioz, babes berezia behar dutenak.*
- *Landa-paisaiak edo malkartsu harmoniatsuak, edertasun edo kultura-balio bikainekoak, hala nola aztarnategi paleontologikoak, hobi mineralak, etab.*
- *Bitxitasunagatik edo berezitasunagatik nabarmentzen diren elementu naturalak dituzten guneak, edo interes zientifiko berezia dutenak"*.

Zona horiek mugatzeko oinarri orientagarri gisa, NBALAPak gainjarritako baldintzatzaile hauek aurkezten ditu: "Natura Intereseko Guneak", "Korridore Ekologikoak", "Onura Publikoko Mendiak eta Mendi Babesleak" eta "Gutxi Aldatutako Paisaia duten Guneak". Proposamen horrekin, proposatutako lurralde-eredua eta balio naturalen babesa bateratzen direla ulertzen da, eta LAParen lehentasunezko helburua da hori.

Landaredia¹² eta habitatak¹³

¹² EAEko habitaten, egungo landarediaren eta lurzorua erabileren kartografia. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Eusko Jaurlaritza, 2007.

¹³ Garrantzi komunitarioko espezieak: 92/43/EE Zuzentarauaren (Habitaten Zuzentarauaren) I. eranskinean eta 42/2007 Legea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoaren I. eranskinean jasotakoak. Estatu kideek habitat horien ordezkapenak babestu behar dituzte kontserbazio bereziko zona izendatuta. Natura 2000 Sarean sartu ez diren

Esan bezala, NBALAPak erabilera heterogeneoko "orban handien" antolamendu bat proposatzen du, elementu eraldatuak eta izaera naturaleko beste batzuk biltzen dituen: adibidez, heskai naturalak dituzten zonak.

Ustiategi batzuen jabeen *praxi txarrak* balio handiko elementu horiek desagertzea erraztu du. Hau aztertzea besterik ez dago: monolaborantza estentsiboa nagusi den zona batzuetako heskai eta ibai-ibilguen egoera, Arabako Errioxan eta beste zona batzuetan desagertuz joan diren larre xerofilo eta erromero saildun muinoak, zona horietako batzuetan ganaduak egiten duen erabilera intentsiboa dela bide baso naturalak berritzeko arazoak, etab. Azken urteotan, erakundeen ahaleginari (araudi arautzailea eta nekazaritza- eta ingurumen-laguntzak eta antzeko neurriak onartuta) eta sektorearen ingurumen-kontzientzia handiagoari esker, joera horrek atzera egin du, baina oraindik badira kontserbazio-egoera kaskarreko elementu naturalak (baso txikiak, ibai-ibilguak, etab.) dituzten nekazaritza- eta basogintza-zonak.

NBALAPak baliagarri bilakatu nahi ditu elementu natural horiek, nekazaritza- eta basogintza-jarduerarekin bateragarri eginik, eta hori jasota geratu da antolamendu-kategoria eta gainjarritako baldintzatzaileen definizioan zein erabileren araubidean eta nekazaritza- eta basogintza-erabilerei buruzko ñabarduretan. Balio estrategiko handiko kategoriari dagokionez, NBALAPak izaera loteslea ematen dio eta ingurumen-hobekuntza erabilera onargarria da ñabardurarik gabe. Eta basogintza-erabilerei buruzko ñabarduretan, erabilera mota horiek guztiek Nekazaritza Sailaren baimena behar dutela jaso da, "*haltzadietan edo antolaketa linealeko zuhaitzietan izan ezik*": *urbazterrek, heskaiek, baso txiki babesleek, etab., eta nekazaritza-sistemen kalitatea eta konplexutasuna hobetzeko neurriak aplikatu ondoren sortzen direnek*", eta elementu horien garrantzia aitortzen da horrela.

Bestetik, hobeto kontserbatutako basoak babes bereziko kategoria batean sartuko lirake LAAen arabera, baina NBALAPak ez du kontuan hartu hori, LZPei eta udal-planeamenduari (xehetasun-azterketen bidez) dagokiela deritzolako. Hala, argibideak prestatu dira udal-planeamenduak bere lurraldearen antolamendua egin dezan. Azken kasu horretan, NBALAPak berariaz jasotzen du (46. artikuluan) babestu behar diren guneak mugatzeko LAAek ezarritakoa eta, horrela, kontuan izango dira udal-plangintza idaztean –LAParen gainjarritako baldintzatzaileen mugapenarekin batera–.

Hori bat dator 16/94 Legeak, EAEko Naturaren Kontserbazioari buruzkoak, ezarritakoarekin, LAAekin eta 92/43/EE Zuzentarauarekin.

Nolanahi ere, kontuan izan behar dira zona horietan egun garatzen diren erabilera tradizionalak, LAAen erabilera-araubidea (oso murriztailea EPan) zuzenean aplikatzen bada, egungo nekazaritza- eta basogintza-erabilerak mugatu

garrantzi komunitarioko habitatentzat, Zuzentarauak zaintza bat ezartzen du, eta 42/2007 Legeak dio organo eskudunek neurriak hartu behar dituztela horiek narriatzea edo kutsatzea ekiditeko.

daitezkeelako. Kontuan izan behar da LAAek berek ingurune fisikoari eskainitako kapituluaren 6.8.1.2 atalean ezartzen dutenez, “*gune horietan aplikatu beharreko erabilera-irizpidea (...), zona aprobetxamenduaren mende badago, aprobetxamendu hori modu iraunkorrean sustatuko [dela], erabilitako baliabidea berriztatzen dela ziurtatzeko*”. Beraz, udal-planeamenduak kontuan izan behar du aztergai diren lursailen egungo erabilera. Nolanahi ere, alderdi hori udal-planeamenduen berraztertzeek egiten duten ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuan balora daiteke, eta plangintza hori EHLABetik igarotzean.

Gainera, eta nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar badirela interes handiko landare-formazioak, nekazaritza- eta basogintza-jardueraren mendekoak direnak zuzenean. Hori gertatzen da, adibidez, garrantzi komunitarioko habitatak osatzen dituzten larre eta belardiekin: 6170 Belardi alpetarrak eta subalpetar karetsuak, 6210(*) Belardi lehor erdinaturalak eta karekizko substratu gaineko sastrakadi-faziesak (*: lehentasunezkoa orkidea nabarmenak badaude), 6220* *Thero-Brachypodietea*-ren eta urteko landareei dagozkien subestepa-zonak (lehentasunezkoa), 6230* Larre menditarrak (lehentasunezkoa), 6510 Segabeldi, etab. Horietan zuzenean egiten den nekazaritza- eta abeltzaintza-erabileraren mende dauden zonak dira. Garrantzi komunitarioko beste habitat batzuk ere, hala nola txilardi- eta sastrakadi-zona batzuk, ganaduaren neurrizko presentzia bati esker mantentzen dira.

Horrela, NBALAParen edukietan intereseko landaredi naturalaren babesa azpimarratzen da, LAPak lotesten dituen guneetan (nekazaritza-balio handia eta onura publikoko mendiak eta mendi babesleak) horiek babestuta eta LAPak gomendio gisa ezartzen dituen guneetan udal-planeamendurako jarraibide egokiak aurkeztuta.

Flora- eta fauna-espezieak

Flora- eta fauna-espezie hauek nabarmendu daitezke:

- Garrantzi komunitarioko espezieak: 92/43/EEE Zuzentarauaren II. eranskinean¹⁴ sartutakoak: horien babesa Natura 2000ko espazioen barruan egin behar da, eta horrela, horiek arautzen dituzten espazioen kudeaketa-planek eta, nolanahi ere, prebentzio-erregimenak (aurreko ataletan adieraziak) ziurtatzeko dute horien kontserbazioa.
- Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa: katalogo honetan sartutako eta zenbait mehatxu-mailaren eraginpeko flora- eta fauna-espezieak. Zabaltzeko hainbat aginduren ostean, egungo katalogoan (2011ko urtarrilaren 10eko Agindua, Basoko eta Itsasoko Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa aldatu eta testu bakarra onartzen duena), mehatxatu gisa agertzen dira 145 fauna-taxon (143 espezie eta 2 populazio) eta 205 flora-taxon (201 espezie eta 4 populazio).

¹⁴ Babes zorrotza behar duten garrantzi komunitarioko animalia- eta landare-espezieak.

- Espezie Mehatxatuak Kudeatzeko Planak: Araban zenbait kudeaketa-plan onartu dira espezie hauentzat: *bisoi europarra (Mustela lutreola)*, igaraba (*Lutra lutra*), ibai-kabuxa (*Salaria fluviatilis*), uhalde-enara (*Riparia riparia*), Bonelli arranoa (*Hieraetus fasciatus*), iparraldeko katxoa (*Squalius pyrenaicus*) eta mazkar arantzaduna (*Cobitis calderoni*). Gipuzkoan zenbait kudeaketa-plan onartu dira espezie hauentzat: bisoi europarra (*Mustela lutreola*), desman piriniarra (*Galemys pyrenaicus*) eta hegoaldeko zuhaitz-igela (*Hyla meridionales*). Bizkaian zenbait kudeaketa-plan onartu dira espezie hauentzat: bisoi europarra (*Mustela lutreola*), ubarroi mottoduna (*Phalacrocorax aristotelis*), ekaitz-txori txikia (*Hydrobates pelagicus*), arrain hiruarantza (*Gasterosteus gymnurus (=G. aculeatus)*) (fauna), *Genista legionensis*, *Diphysastrum alpinum*, *Eriophorum vaginatum* eta *Ranunculus amplexicaulis* (flora).

Espezie horiek gehienak espazio babestuetan daude. Nolanahi ere, kudeaketa-planak dituztenek nahitaez betetzeko xedapen batzuk dituzte, edozein jardueraren garapena baldintzatzen dutenak, nekazaritzakoak eta basogintzakoak barne.

Balio estrategiko handiko zona batzuk teilakatu egin daitezke aipatutako espezieen interes bereziko guneekin, batik bat eskala-arrazoia tarteko, baina horrek ez dakar inolako kontraesanik: kudeaketa-planak, ingurumen- edo arlo-izaerako beste araudiren bat bezala, nahitaez betetzekoak dira zona horietan eta, ondorioz, hor gara daitezkeen nekazaritza- eta basogintza-jarduerak mugatzen dituzte.

Landa-lurzoruaren tratamendu egoki eta koherente batek, NBALAPak proposatzen duen bezala, ondorio positiboa du, adierazitako espezieetan ez ezik, orokorrean EAEn dauden fauna- eta flora-espezie guztietan ere.

Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak

Nekazaritza eta basogintza antolatzeko LAParen lehentasunezko helburuetako bat da, batetik, gune horiek defendatzen laguntzea, gure autonomia-erkidegoko natura-baliorik ordezkartzarik onena eduki dezaten, eta, bestetik, haien baso-ahalmena babesten laguntzea. Hortaz, OPMak eta mendi babesleak gainjarritako baldintzatzaile gisa biltzen dira LAPean, eta haien erabileren araubidea Mendiei buruzko 43/2003 Legean eta hiru lurralde historikoetako foru-arauetan dago ezarria. Horixe da, gainera —balio estrategiko handiko lurzoruarekin batera—, Nekazaritza eta basogintza antolatzeko LAParen xedapen lotesleetakoa bat.

OPMak eta mendi babesleak lurraldea antolatzeko dokumentu batean —alegia, Nekazaritza eta basogintza antolatzeko LAPean— biltzea eta aplikatu beharreko araudia adieraztea lagungarria izango da udal-planeamenduek espazio horiek eta bertan aplikatu beharreko araudiak behar bezala aintzat hartzeko; eta, hortaz, gure mendien kudeaketa iraunkorrerako aurrerapausoak egingo dira.

Jabari hidrauliko publikoa eta itsasoko eta lehorreko jabari publikoa

Jabari hidrauliko publikoa (JHP) eta itsasoko eta lehorreko jabari publikoa (ILJP) Uraren ekainaren 21eko 1/2006 Legean eta Kostaldeein buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legean daude definituta, hurrenez hurren. Legedi horrek "babes-zortasunak" (jabariaren mugakideak diren lursailak, natura-ingurune sentikor bat babesteko adieraziak) definitzen ditu, baita "mugatzea" ere.

A dokumentuko —Memoria— "4. Esparru juridikoa" atalean, NBALAPak honako hau jasotzen du esplizituki:

- *"Jabari publiko hidraulikoan eta horren babes-zonan eragina duten NBALAParen erabakiak dagokion sektore-legediaren eraginpekotzat jotzen dira (Uraren Legea)".*
- *"Itsasoko eta lehorreko jabari publikoan eta horren babes-zonan eragina duten NBALAParen erabakiak berariazko sektore-legediaren eraginpekotzat jotzen dira".*

Garbi dago, beraz, batetik zein den lege horiek arautzen duten administrazio-esparrua eta NBALAPak haiekin bat egin eta haiek aplikatuko direla ziurtatzen duela, eta bestetik ez dagoela horren inguruko kontraesanik.

Akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren zonak

NBALAPak akuiferoen kutsadurarekiko sentikorrak diren gunek baldintzatzaile gainjarria biltzen du, kutsadurarekiko urrakortasun handia edo oso handia duten (betiere Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak egindako EAeko "Akuiferoen kutsadurarekiko sentiberatasunari buruzko maparen" irizpideen arabera) lur azpiko akuiferoak berriz ere kargatzeko guneei dagokiona. Espresuki biltzen dira abenduaren 22ko 390/98 Dekretuaren (Gasteizko Unitate Hidrogeologikoko mendebaldeko sektorea) eta 2008ko apirilaren 8ko Aginduaren (zona urrakorra handitzea) arabera "akuiferoen kutsadurarekiko urrakortzat" jotako zonak.

Arabako Lautadako zona bat da, Gasteizko akuifero kuaternarioaren lur azpiko presentziaren ondorioz ahultasun handia duena eta, Arabako zona horretan egiten den nekazaritza-jarduera intentsiboak eraginda, nitrato-kutsadurako arazoak izan dituen.

Nekazaritzako jokabide egokien kodea nahitaez aplikatu behar zaien zona horiek NBALAPean aintzat hartzea funtsezkoa da zona horretan dagoen balio estrategiko handiko lurzorua nahiz han egiten diren jarduerak akuiferoa babesteko moduan antolatzeko. LAPak, gainera, jokabide egokien kode hori baldintzatzaile gainjarri hori dagokien zona guztietan aplikatzeko gomendioa jasotzen du, eta, hortaz, babes-araubidea akuiferoak berriz ere kargatzeko kartografiatutako zona guztietara hedatzen du (Araudiaren 55. artikulua).

Korridore ekologikoen sarea

NBALAPak, bere aurrerapen-bertsioan, EAEko korridore ekologikoen sarea¹⁵ aipatzen zuen (azterlan hori argitaratu gabe zegoen orduan), aldagai hori EAEko lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan sartzeko modu gisa. Orduan bildu eta LAParen proposamenean eusten zaionez, korridore-sare hori antolamendukategoriari gainjarritako baldintzatzaile gisa aurkeztuko da behin betiko onartzeko. Horrez gain, Arabako Foru Aldundiak lurralde historiko horretarako berariaz diseinatu duten Arabako korridore ekologikoen sareari dagokion aipamena egiten da.

Era horretara, udalerriei orientabidea eman nahi zaie tokiko azterlanen bitartez zehatzago definitzeko zer lurralde-eredu izan daitekeen lagungarriena tokiko eta eskualdeko lotura ekologikoko lotuneak ezartzeko.

Korridore ekologikoen sare horrek ez du araudi-erregimen propiorik. Alabaina, sarea osatzen duten elementu jakin batzuen kudeaketari eta erabilera-araubideari heltzeko gomendio batzuk biltzen ditu, udalerriek beren hirigintza-araudia idazteko balia ditzaketenak.

Paisaia bereziak eta apartak

NBALAPak, bere aurrerapen-bertsioan, "Paisaia" aldagaia berariazko paisaia-eredu batez babesteko premia bildu zuen eta eredu horrek gure autonomia-erkidegoko natura- eta kultura-ondarearen funtsezko elementu hori balioan jarri behar zuela adierazi.

Eredu hura LAPeko gutxi aldatutako paisaia duten zonak gainjarritako baldintzatzailearen proposamenerako oinarri gisa balio zuen. Zona horiek "*EAEko landa- nahiz natura-paisaiaren ordezkari diren zona onak dituzte, oztopo diren elementuetatik (hiri eta industria guneetatik, komunikazio-bideetatik eta abarretik) urrun daudenak. (...)*".

Behin-behinean onartutako LAPak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak EAEko Paisaia Berezi eta Aparten Katalogoa prestatzen egindako lanak deskribatzen ditu. Alabaina, katalogo hori aurreproiektu-fasean dagoenez gero, ez zen komenigarritzat jo NBALAPean ezartzea eta horretarako katalogoa behin betiko onartu arte itxarotea erabaki zen (ordurako LAPa automatikoki egokitzea aurreikusten zen). Harrezkero, ordea, ez da aurrera egin katalogo hori izapidetzeko lanetan.

Aldiz, NBALAPean sartu dira, deskribatutako gainjarritako baldintzatzailearen barruan, "Arabako Lurralde Historikoko paisaia berezi eta aparten katalogoan"

¹⁵ Gurrutxaga M., 2005. *Red de Corredores Ecológicos de la Comunidad Autónoma de Euskadi*. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Biodibertsitateko Zuzendaritza. <http://www.ingurumena.eiqv.euskadi.net/r49-bio/es>

bildutako baliorik handieneko paisaiak. Katalogo hori Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabaki bidez onartu zen.

Aurrekoaren ondorioz, LAPean gure erkidegoko paisaiaren babesean aurrera egiteko nahikoa arreta-neurri hartzen direla irizten zaio. Nolanahi ere, Paisaiari buruzko legea izapidetze-fasean dago (une honetan, aurreproiektua informazio publikoko fasean dago). Legea aurrerapauso bat izango da gai horretan eta haren xedapenak nahitaez bete beharko dira nekazaritzako eta basogintzako jarduerak egiteko eta lurzoru urbanizaezina antolatzeko.

Arrisku naturalak dituzten guneak¹⁶

Nekazaritza- eta basogintza-jarduera tradizionalak hainbat arrisku izan ditzakete, hala nola uholdeak izatekoa: askotan, urpean gera daitezkeen ibai-ibarretan kokatzen dira, oso gune emankorrak baitira; baina noizean behin edo aldiro uhaldiak izaten dituzte. Jardueraren izaerak ez dakar ibai-egitura aldatzea, eta, hortaz, ez du uholde-arrisku gehigarri sortzen. Nolanahi ere, NBALAPak azaleko uren babesa kategoria biltzen du araudi eta arreta-neurri bereziak dituzten ibai-ibar horiek —Ibai eta erreken LAPean sartuta daude— barnean hartzeko.

Higadura-arriskuari dagokionez, LAPek, aurrerapen-fasetik, USLE ekuazioan oinarritutako higadura-eredua ematen du. Ekuazio hori lursail baten batez besteko lurzoru-galera kuantifikatzen saiatzen da, betiere aldi jakin bat eta uhertasunari, lur motari, fisiografiari eta landarediari buruzko baldintza jakin batzuk aintzat hartuta. “Gune higagarri” horiek —higadura-fenomenoak pairatzeko aukera handia duten eremuak— irizpide nagusi hauek dituen gainjarritako baldintzatzaile batean bildu dira:

- Zuhaitz- eta zuhaixka-estaldura babes- eta leheneratze-irizpidez mantentzea, edo estaldura hori sartzea edo zabaltzea, landaredi-estaldura meatsa izanez gero.
- Lurzoruaren egonkortasunean eragina duten jarduerarik ez egitea, eta nekazaritzako eta basogintzako jarduerak ahalik eta gehien zaintzea.
- Hidrologia- eta baso-kudeaketako planak egitea zona horietako jarduketetarako.

LAPak bultzatzen duen lurralde-ereduan arrisku naturalak dituzten zonak barnean hartzeko proposamen hori eginda, arrisku horiek minimizatzea ziurtatu nahi da, bereziki nekazaritza- eta basogintza-jardueren garapenean.

¹⁶ 153/1997 Dekretuaren bitartez onartutako Euskadiko Herri Babeseko Planaren (Larrialdiei Aurregiteko Bidea-LABI) barruan, “arrisku naturalizat” hartzen da giza presentziarekin edo jarduerarekin zuzeneko lotura ez duen abiarazlea duena. Aurrekoa kontuan izanik, arrisku naturalizat hartzen dira uholde-arriskua eta lurzoruaren higadura.

3.5. Ingurunearen kalitatea

Ez da egin EAEko natura-ingurune osoaren kalitatea baloratzeko indizerik. Alabaina, aurreko ataletako espazioen zerrendetan habitatak eta espezieak kontserbatzeko garrantzi handieneko, eta, beraz, ingurumen-ikuspegitik kalitate handieneko esparruak sartu direla.

BNGetako erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planik (EJZP) modernoenak Natura 2000 Sareko espazioen kudeaketa-planak idazteko metodologiaren arabera. Bi dokumentu horietan (EJZPea eta Natura 2000ko kudeaketa-planetan), habitat eta espezieen kontserbazio-egoera baloratzen da, hainbat parametroren arabera, ahal den neurrian parametro kuantitatiboetan oinarrituta, baina kasu gehienetan parametro kualitatiboetan oinarrituta. Dokumentu horiek, hortaz, inplikaturako zonetako ingurumenaren kalitaterako hurbilketa egokia dira.

Paisaiaren kalitatea testatzeko, izapidetze-fasean dagoen paisaiari buruzko legeak aipatzen dituen Paisaiaren katalogoak eta artezpideak definitzeko lehen urratsak egiten ari dira; izan ere, katalogo eta artezpide horiek zuzenean aplikatuko dira lurralde-planeamendurako onartzen denean, lege-aurreproiektuak ezartzen duen moduan.

3.6. Ingurumen-unitateak. Kalitatea eta erabiltzeko gaitasuna

EAEko lurzoru urbanizaezinean defini daitezkeen ingurumen-unitate homogeneousak bat datoz antzeko zonekin, ezaugarriei, lurzoru-erabilerei eta abarri dagokienez. NBALAPak lurzoru ez-erabilgarriaren zonifikazioa lurzoruaren erabileren arabera definitzen duenez gero, bat-etortze handia dago identifikaturako ingurumen-unitate homogeneousekin proposaturako antolamendu-kategorien artean. Hona hemen unitate horiek:

- Nekazaritzako IU
- Basoetako IU
- Sastrakako/azpibasoko IU
- Larre menditarretako IU
- Haitzetako IU
- Gune degradatuetako IU
- Azaleko ur kontinentaletako IU
- Itsasertzetako IU
- Hiriguneetako IU: bizitegi-guneak, azpiegiturek okupatuak, etab.

Unitate horien kalitatea beren kokapen zehatzaren eta aintzat hartzen den ikuspegiaren arabera aldatuko da. Alabaina, unitate horiek erabiltzeko ahalmena Erabilerak eta jarduerak antolatzeko matrizeak bildutakoa izango da.

NBALAParen esparruan adierazitako ingurumen-unitateen azaleren banaketa hau da:

INGURUMEN UNITATEA	Azalera (ha)	Ehunekoa
Nekazaritza	212266.63	33.7
Basoak	325974.15	51.9
Sastraka/azpibasoa	33759.43	5.3
Larre menditarrak	4388.61	0.7
Haitzak	1437.75	0.2
Gune degradatuak	4537.89	0.7
Ur kontinentala: ibaiak eta urtegiak	3842.07	0.6
Itsasertzak: labarrak, hondartzak...	1069.70	0.2
Hiriguneak	40292.81	6.4

Ingurumen-unitate horietan erabilera-ahalmena ezartzeko, honako irizpide orokor hauek ezartzen dira:

- Oro har, lurzorua baliabidea ezinbestean hipotekatzen duten erabileretarako ezartzen dira kautela handienak balio natural handieneko zonei dagokien plangintzan (basogintzakoa, Basoa-Mendi meatsa, larre menditarrak, larre menditarrak-haitzak, ingurumen-hobekuntzako zonak, ur kontinentalak). Zona horien barruan ingurumen-kalitatea gutxitzea edo etengabeko okupazioa dakarten erabilerak mugatu egiten dira (debekatzen dira, edo inpaktua zuzentzeko neurriak ezartzeko eta babes-zonak konpentsatzeko babes-klausulak ezartzen dira) zona horiek barnean hartzen dituzten antolamendu-kategorietan.
- Gainerako ingurumen-unitateetan, ingurumen-balio txikiagoa ematen zaienetan, erabilera gehiago har ditzaketela irizten zaio. Nolanahi ere, eta nekazaritza-lurzorua ahal den neurrian babesteko (LAParen lehentasunezko helburua), jardueren garapenean, nekazaritza-sektorearen afektazioa ingurumen-inpaktuko ebaluazioaren bidez ebaluatzea agintzen da.
- Adierazitako ingurumen-unitate guztiak nekazaritza-erabilerak har ditzaketela irizten zaio eta erabilera horiek ez dutela unitateen ingurumen-kalitatea zuzenean gutxitzen. Dena den, erabilera horiei baldintzatzaileak jarri behar zaizkie aurrekoa ziurtatzeko. NBALAPean, antolamendu-kategoria guztietako nekazaritza- eta basogintza-erabileretarako zehaztasunek baldintza hori betetzen dutela irizten zaio.

Ingurumen-unitate homogeenok EAEko lurzoru urbanizaezin guztia hartzen dute. NBALAPak egin beharreko jardueretarako eta erabileretarako muga bat gainjartzen

die, gainjarritako baldintzatzaileetan biltzen dena, betiere natura-interes handiko zonei dagokienez (OPMak eta mendi babesleak, natura-intereseko gunek, korridore ekologikoak, gutxi aldatutako paisaia duten gunek) edo arrisku naturalak dituzten zonei dagokienez (akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren gunek).

Horren ondorioz, ingurumen-unitateak erabiltzeko ahalmena beste baldintzatzaile batzuk—arriskuak prebenitzera eta minimizatzaera bideratuak edo zonen ingurumen-kontserbaziora bideratuak— mugatzen dute, eta, beraz, kontserbazio-irizpideei ematen zaie lehentasuna produkzioen aldean.

Baldintzatzaile horien adibide gisa, honako taula honetan Natura 2000 espazioetan (Garrantzi Komunitarioko Lekuak —GKL— eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak —HBBE—) sartutako ingurumen-unitate bakoitzari dagokion azalera agertzen da.

GKLa	INGURUMEN UNITATEA¹⁷	AZALERA
Aiako Harria	BNG	6775,72
Aizkorri-Aratz	BNG	14947,26
Aldaiako Mendiak	Nekazaritza	115,27
	Basoak	876,42
	Sastraka/azpibasoa	128,66
Arabako Lautadako Irla-hariztiak	Nekazaritza	66,69
	Basoak	175,98
	Sastraka/azpibasoa	2,82
	Ibaiak eta urtegiak	11,71
Arakil ibaia	Balio estrategiko handia	29,65
Aralar	BNG	10930,76
Araxes ibaia	Nekazaritza	22,52
	Basoak	24,53
	Hiriguneak	16,50
Arkamo-Gibijo-Arrastaria	Nekazaritza	371,13
	Basoak	7145,04
	Sastraka/azpibasoa	2771,01
	Gune degradatuak	301,32
	Larre menditarrak	746,30
	Haitzak	185,39
Armanon	Hiriguneak	17,81
	BNG	2956,72
Arno	Nekazaritza	69,07
	Basoak	927,37
	Haitzak	15,06
Arreo-Caicedo Yusoko lakua	BNG	136,21

¹⁷ "BNG" gisa biltzen dira NBALAParen antolamendu-esparrutik at geratu diren espazioak. Parke naturalak, biotopo babestuak, hezeguneak... Ingurumen-unitate homogeneousat ere har litezke.

Artibai ibaia	Nekazaritza	43,99
	Basoak	33,17
	Hiriguneak	24,10
	Ibaiak eta urtegiak	34,80
Astondoko Dunak	Nekazaritza	5,19
Ayuda Ibaia	Nekazaritza	61,53
	Sastraka/azpibasoa	2,68
Baia Ibaia	Nekazaritza	207,06
	Basoak	199,10
	Gune degradatuak	1,38
	Hiriguneak	7,96
	Ibaiak eta urtegiak	7,50
Barbadungo itsasadarra	Labarrak eta hondartzak	10,81
	Nekazaritza	7,11
	Hiriguneak	14,82
	Ibaiak eta urtegiak	16,59
Barrundia ibaia	Nekazaritza	54,77
	Basoak	39,83
Ebro ibaia	Nekazaritza	258,42
	Basoak	6,12
	Gune degradatuak	49,49
	Hiriguneak	16,12
	Ibaiak eta urtegiak	204,18
Ega-Berron ibaia	Nekazaritza	196,56
	Basoak	21,71
	Hiriguneak	6,59
Entzia	Basoak	7489,40
	Sastraka/azpibasoa	1293,38
	Gune degradatuak	3,36
	Nekazaritza	598,48
	Larre menditarrak	516,12
	Haitzak	17,76

	Hiriguneak	7,73
	Ibaiak eta urtegiak	3,95
Ernio-Gatzume	Basoak	1245,88
	Sastraka/azpibasoa	649,48
	Trantsizioko Landa Paisaia	76,84
	Larre menditarrak	102,06
	Haitzak	83,34
Garate-Santa Barbara	Nekazaritza	62,01
	Basoak	78,51
Gasteizko Mendi Garaiak	Nekazaritza	12,32
	Basoak	1784,66
	Sastraka/azpibasoa	33,30
	Larre menditarrak	4,49
	Ibaiak eta urtegiak	17,41
Gaztelugatxeko Doniene	BNG	24,55
Gorbeia	BNG	20014,58
Guardiako aintzirak	BNG	45,30
Inurritza	BNG	81,25
Izarraitz	Basoak	597,85
	Sastraka/azpibasoa	493,95
	Gune degradatuak	1,32
	Nekazaritza	121,49
	Larre menditarrak	240,59
	Haitzak	80,61
Izki	BNG	8991,94
Jaizkibel	Labarrak eta hondartzak	145,25
	Basoak	2080,38
	Sastraka/azpibasoa	136,07
	Nekazaritza	56,88
	Haitzak	2,77
	Hiriguneak	13,09
Kantabria Mendilerroa	Nekazaritza	1031,02

	Basoak	8584,89
	Sastraka/azpibasoa	1054,88
	Gune degradatuak	9,22
	Larre menditarrak	253,37
	Haitzak	287,67
	Hiriguneak	55,93
	Ibaiak eta urtegiak	6,87
Lea ibaia	Nekazaritza	43,86
	Basoak	49,56
	Hiriguneak	5,49
	Ibaiak eta urtegiak	9,79
Leitzaran ibaia	Basoak	70,65
	Nekazaritza	2,65
Omecillo-Tumecillo ibaia	Nekazaritza	108,17
	Basoak	10,71
	Hiriguneak	8,93
Ordunte	Basoak	2014,47
	Sastraka/azpibasoa	1844,69
	Nekazaritza	4,20
	Larre menditarrak	5,83
Oria Garaia	Nekazaritza	79,98
	Basoak	19,46
	Hiriguneak	47,98
	Ibaiak eta urtegiak	4,00
Oriako itsasadarra	Nekazaritza	106,19
	Basoak	25,28
	Hiriguneak	1,89
	Ibaiak eta urtegiak	50,88
Pagoeta	BNG	1335,49
Salburua	Nekazaritza	198,61
	Hiriguneak	9,76
	Ibaiak eta urtegiak	8,18

Sobron	Basoak	1600,00
	Nekazaritza	27,16
	Haitzak	65,39
	Hiriguneak	30,95
	Ibaiak eta urtegiak	35,11
Txingudi-Bidasoa	Nekazaritza	87,88
	Basoak	2,17
	Hiriguneak	7,08
	Ibaiak eta urtegiak	14,27
Ulia	Labarrak eta hondartzak	28,07
	Basoak	14,98
Urdaibaiko artadi kantauriarrak	BNG	1582,80
Urdaibaiko ibai-sarea	BNG	1327,41
Urdaibaiko itsasertzak eta padurak	BNG	1005,33
Urkabustaizko Irla-hariztiak	Nekazaritza	30,56
	Basoak	231,87
	Hiriguneak	2,96
Urkiola	BNG	5935,68
Urolako itsasadarra	Nekazaritza	24,64
	Basoak	31,82
	Hiriguneak	9,77
	Ibaiak eta urtegiak	31,29
Urumea Ibaia	Nekazaritza	21,94
	Basoak	38,31
	Hiriguneak	13,65
Valderejo	BNG	3418,67
Zadorra ibaia	Nekazaritza	234,84
	Basoak	2,83
	Gune degradatuak	1,27
	Hiriguneak	18,29
	Ibaiak eta urtegiak	59,50
Zadorra-sistemako urtegiak	Nekazaritza	241,78

	Basoak	125,58
	Sastraka/azpibasoa	29,25
	Hiri-lurzorua	5,07
	Ibaiak eta urtegiak	2157,65

HBBea	INGURUMEN UNITATEA	AZALERA
Arabako Hegoaldeko Mendilerroak	Nekazaritza	1201,96
	Basoak	13337,10
	Sastraka/azpibasoa	1189,56
	Gune degradatuak	15,44
	Larre menditarrak	287,68
	Haitzak	290,90
	Hiriguneak	60,17
	Ibaiak eta urtegiak	8,44
Izki	BNG	8991,94
Salvada mendilerroa	Basoak	1156,28
	Sastraka/azpibasoa	511,51
	Gune degradatuak	715,03
	Nekazaritza	7,67
	Larre menditarrak	1294,50
	Haitzak	149,19
	Hiriguneak	2,75
Txingudi	Nekazaritza	104,15
	Hiriguneak	12,83
	Ibaiak eta urtegiak	17,09
Urdaibaiko itsasadarra	BNG	1953,34
	Basoak	102,61
	Gune degradatuak	2,39
	Nekazaritza	18,13
Valderejo-Arcena mendilerroa	BNG	3418,69
	Basoak	2849,87
	Sastraka/azpibasoa	128,00

Gune degradatuak	4,98
Nekazaritza	105,96
Haitzak	87,15
Hiriguneak	35,19
Ibaiak eta urtegiak	41,99

3.7. Ingurumen-diagnostikoa

EAE osoko ingurumen-diagnostikoari aldiro heltzen zaio Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak argitaratzen dituen "EAEko ingurumenaren egoera" izeneko dokumentuetan. Argitaratutako azken dokumentuan (EAE-KO INGURUMENAREN EGOERA 2009) idazketa-fasean dagoen III. Ingurumen Esparru Programa (2011-2014) definitzeko egindako diagnostikoa biltzen da.

Dokumentu horretan, EAEko ingurumen-egoera analizatzen da, eremuen arabera, eta, laburbilduz, honako ondorio hauek ateratzen dira:

- Ura: gure uren kalitatea hobetzen ari da Urari buruzko Esparru Zuzentzarauak ezarritako jarraibideen arabera. Ur-kontsumoak ere joera positiboa du, eta urtero murrizten da.
- Airea eta zarata: airearen kalitateak joera positiboa du, nahiko txikia, hori bai; eta energia-sorkuntzaren eta garraioaren sektoreetako isurien gorakadak baldintzatzen du. Bestalde, azken urteotan lehen mailako arazo gisa hartu da EAEko ingurumen-agendan.
- Klima-aldaketa: berotegi-efektuko gasen isuriak egonkortasunerako joera izan du EAEn azken urteotan. Isurien mugaketaz gain, ezagutza eta egokitzapena funtsezko tresnak dira erronka horri hurrengo urteetan heltzeko.
- Energia: energia-kontsumoa gero eta handiagoa da EAEn, batez ere garraioaren sektorean. Dena den, EAEko ekonomia gero eta efizienteagoa da energiaren erabilerari dagokionez.
- Materialak eta hondakinak: EAEn, baliabide materialen kontsumoa handitu egiten da urtetik urtera; aldiz, sortzen diren hondakinen kopuruak egonkortzeko joera hartu du.
- Lurzoruak: lurzoruaren kutsadura prebenitzera eta zuzentzera bideratzen da ahalegin publiko eta pribatuaren zati handiena, eta nabarmen areagotu dira ikertu eta leheneratutako kokalekuak. Bestalde, lurzoruaren artifizializazioak goranzko joerari eusten dio urtetik urtera.
- Biodibertsitatea eta paisaia: gutxi gorabehera, EAEn azaleraren heren batean 68 habitat mota daude kontserbatzeko interesgarritzat eman direnak. Horien egoera eta gaur egungo bilakaera, nola espazioei, hala EAEko paisaia eta fauna eta florari dagokienez, desberdina da oraindik.

LAParen eragina izan dezaketen ingurumen-aldagaien analisia zehatzago bat azaltzen da IIT honen 3.4 atalean.

Aditzera eman behar da "EAEko ingurumenaren egoera" dokumentuan eta erreferentziazko beste dokumentu batzuetan (GIIE, IEP) behin eta berriz azaltzen

dela presiorik handienak honako esparru hauetan egiten ari direla EAEn: lurzoru-eta ur-kontsumoa, hondakinen sorrera, airearen kalitatea, hiri-ingurumena, ur kontinentalak, eta itsasoko eta itsasertzeko ingurumena. Gainera, etorkizuneko aurreikuspenen arabera, jarduera ekonomikoetarako eta bizitegi-erabileretarako lurzoruaren kontsumoa modu desorekatuan igoko da eta horrek EAeko ingurumenean nahi ez diren eraginak izango ditu. Horregatik, lurzoru baliabide ez-berriztagarri gisa babestea lehentasun bat da ingurumenaren babesean eta kontserbazioan eta garapen iraunkorrean.

Bestalde, NBALAPak EAeko landa-eremuaren egoeraren sektore-diagnostikoa egiten du (A dokumentua). Bertan, nekazaritza-transakzioetan lur-mugikortasunik eza (lurrarekiko atxikimendua) eta hirigintza-presioa nabarmentzen dira, sektoreak bizirauteko dituen zailtasun nagusietako bat direla azalduta.

3.8. Eskatutako informazioa biltzeko zailtasunak

Arestian adierazitako moduan, IIT hau egiteko dagoen informazioa nahiko egokia da (lan-eskala aintzat hartuta), eta Eusko Jaurlaritzaren (www.ingurumena.net eta www.geoeuskadi.net) eta foru-aldundien web-orrien bitartez erraz eskura daiteke. Bestalde, eskuragarri ez dagoen oinarritzko informaziorako, bereziki dokumentuaren atariko faseetan, LAPak sortu egin du ereduak eginez (higadura-ereduak, paisaia-ereduak, lotura-ereduak..., LAParen eranskinetan bildutakoaren arabera). Eredu horietako batzuk informazio eguneratuarekin bete dira dagoeneko (korridoreak, paisaia).

Zailtasunik handiena LZPetan izan da, dokumentu horietan zona babestuak definitzeko eta mugatzeko erabilitako irizpide desberdinak direla-eta.

4. Aukeren ingurumen-analisia

NBALAParen hastapenak 90eko hamarkadaren amaieran izan ziren, orain dela 10 urte baino gehiago; historia luze horrek LAParen edukiak eta irismena definitzeko aukera ugari aintzat hartzea baldintzatu du, eta aukera horiek hainbat faktorek eragindako etengabeko aldaketa-prozesu gisa ulertu behar dira.

Atal honetan, NBALAPa idazteko prozesuaren nondik norakoak azaltzen saiatuko gara eta erabakiak hartzeko mugarri garrantzitsuenak nabarmenduko ditugu.

Hala, hasieran, "Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko eta Natura Ingurunekeo LAPa" izena eman zitzaion Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko LAP edo NBALAPari. Izan ere, garai hartako Nekazaritza eta Arrantza Sailak zituen ingurumenari eta babestutako guneei buruzko eskumenak. Horren ondorioz, LAParen edukietan honako alderdi hauek bildu ziren:

- Babestutako guneei eta horien tratamenduari buruzko zati zabal bat.
- EAEko lurzoru urbanizaezina bere hedadura guztian aintzat hartzea, zona bakoitzaren nekazaritza-, baso- eta natura-balioak nabarmenduta.

Horrela egin zen Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko eta Natura Ingurunekeo LAParen aurrerapen-fasea, 2001. urtekoa (2001eko irailean, aurrerapen-dokumentua Administrazioaren erakunde interesdunei, sindikatuei eta EAEko nekazaritza- eta basogintza-sektoreko gainerako entitateei helarazi zitzaienten, egoki irizten zieten iruzkinak egin zitzaienten, dokumentuan txertatzeko).

Ekarpen horiek aintzat hartuta, LAParen izena aldatu zen eta orain duena jarri zitzaion, "Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko LAPa", natura-inguruneari buruzko eskumenak Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren esku uzteko prozesua zela medio. Horrek, halaber, LAPatik alderdi horiei buruzko aipamenak pixkanaka ateratzea ekarri zuen. Dena den, plana idazten hasieratik jardundako taldeari eutsi zitzaion, ingurumenaren aldeko joera nabarmena zuena, eta hori oso lagungarria izan da LAPean ingurumen-alderdiak txertatzeko, nahiz eta geroagora arte ez zen egin dokumentuaren ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluazio bateratua (IIEB).

Hasieran onartu zen LAParen dokumentuan (2005. urtekoan) natura-inguruneari buruzko aipamen ugari kendu ziren eta nekazaritzako eta basogintzako lurzoruaren antolaketa zuen jomugan. Dokumentu hura, ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenaren lehen bertsioarekin batera (LAPa ingurumen-inpaktuari buruzko baterako ebaluazioaren prozeduraren pean jarri zen 182/2003 Dekretua onartuta; dena den, lehendik ere bazegoen LAParen aurrerapen-dokumentu bat), informazio publikoko eta entzunaldiko fasean jarri zen. Aldi hartan, alegazio eta iradokizun ugari bildu ziren eta, horiek aintzat hartuta, LAParen hainbat alderdi berrikusi ziren.

Hona hemen LAPean egin ziren aldaketa garrantzitsuenak:

- LAPak eduki behar zuen eskumen-eremua argitu zen. Hain zuzen ere, balio handiko nekazaritza-lurzorua eta basogintza-lurzorua babestera bideratu behar zen batez ere.

Horri dagokionez, garbi ikusi zen basogintza-sektoreari buruzko aplikazio-araudi zabala zegoela eta eduki berririk gabe uzten zuela NBALAPa. Adibide gisa, honako hauek aipa daitezke: foru-arauak; Mendiei buruzko legea; baso-baliabideak antolatzeko planak (BBAP), eginak edo idazketa-fasean zeudenak... Hortaz, NBALAPean gutxienez baso-ingurunea babesteari buruzko aipamen eta mugarririk garrantzitsuenak biltzea erabaki zen, sektore horretako esku-hartzea gidatu behar zuen araudi gisa.

- LAParen erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizea aldatu zen, balio estrategiko handiko lurzoruaren babesari garrantzi handiagoa emateko, horixe baita planaren helburu nagusia. Basogintza-kategorietako murrizketak ere gehitu ziren, gomendio gisa bazen ere.
- Arabako balio estrategiko handiko lurzoruaren kartografia berrikusi zen, Arabako Foru Aldundiak emandako kartografiaren arabera.
- NBALAPak udal-planeamendurako zeukan lotespen-maila argitu zen. Era berean, NBALAPa lurraldearen arloko planekin (LAP) eta lurraldearen zatikako beste plan (LZP) batzuekin nola koordinatu behar zen argitu zen.
- Dokumentu guztia hasierako onespeneratik sortutako nekazaritza-, ingurumen- eta hirigintza-araudi berriarekin eguneratu zen.

Izapidearen une horretan, garbi ikusi zen NBALAParen helburua nekazaritza-lurzorurako baimendutako erabilerak modu loteslean arautzea zen, bereziki balio estrategiko handikoarena, lurzoru hori baliabide naturalak zaintzea eta aldi berean babestea ziurtatzeko, betiere erabilera-gatazka handienak dituzten zonetan (haran-hondoak, hirigintza- eta azpiegitura-garapen berritarako xede-zonak ere badirenak) nola dauden banatuta kontuan izanik.

Horrela, planteatu zen gainerako lurzoru urbanizaezinerako emandako erabilera-araudia eta zonifikazioa ez zirela LAParen xede-edukiak eta, hortaz, nolabait ere plan horretatik atera zitezkeela. Hala ere, sailak badaki jakin udalerriek NBALAParen proposamena erabili dutela beren planeamenduan lurzoru urbanizaezina arautzeko eta zonifikatzeko, LAParen aurrerapen-dokumentua argitaratu zenetik.

Horren ondorioz, emandako zonifikazioari eta araudiari eustea erabaki zen. Hala ere, NBALAParen lotespen-maila nekazaritza-arloko kategoriei eta erabilerei zegokiela eta gainerakoa gomendio hutsa zela argitu zen.

Honako taula honetan, laburbilduta jaso dira NBALAParen faseak, ekarpen nagusiak (zuzeneko edo zeharkako ingurumen-inplikazioa izan ditzaketela iritzi den

kasuetan) eta bakoitzak izan litzakeen ingurumen-ondorioei buruzko iruzkinak, ondoren egin beharreko aukeren ingurumen-analisiari heltzarren:

LAParen fasea	Ekarpen/aldaketa nagusiak	Izan litezkeen ingurumen-ondorioei buruzko oharpenak
Aurrerapena	<ul style="list-style-type: none"> - Lurzoru urbanizaezin guztia hartzen duen lurralde-ereduaren proposamena. - Erabileren araubide loteslea oro har. - Eduki zabalak natura-inguruneari buruz: espazio babestuak sartzea, etab. (Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko eta Natura Ingurunekeo LAPa) - Kategoriak proposatzea LAAak garatuz. 	<p>LAPak argi uzten du hasieratik definizio kartografikoak "urban handiak" aipatzen dituela eta egiaz bakoitzaren barruan erabilera heterogeneoak daudela (adib.: Arabako etzeak baso-zonetan, heskaiak nekazaritza-zonetan, etab.).</p> <p>Kategoria bakoitzeko definizioak eta nekazaritzako eta basogintzako erabilerei egindako ñabardurak elementu horiek baliaraztera bideratuta dira, ez baitira jaso 1:25.000 eskalan egindako kartografian.</p> <p>Erabilera-araudia loteslea da oro har (matrizea loteslea da osorik, baita nekazaritzako eta basogintzako erabilerei egindako ñabardurak ere), eta LAAek ezartzen dituen muga berberak edo muga gehiago ezartzen ditu. Batzuetan, balio estrategiko handiko lurzoruari zenbait baso-kategoriari baino babes-maila handiagoa ematen zaio, eta horrek zeharkako inpaktuak sor litzake.</p> <p>LAParen antolamendu-kategorien proposamenak LAAen babes berezia kanpoan uzten du; izan ere, horren arabera, LZPek eta udal-planeamenduak definituko dute categoria hori zona bakoitzaren balioen arabera (hots: ez da zalantzan jartzen adierazitako kategoriaren premia; aldiz, LAAk ez duela definituko ematen da aditzera). Bestalde, LAAetako Erabilera zehatzik gabea izeneko categoria aintzat ez hartzea positibotzat hartzen da; izan ere, garapen berrietarako xede-zonatzat har litezkeen "lurralde-hutsuneak" sortzeko aukera ezabatzen du eta lurralde osoaren nekazaritzako eta basogintzako erabilera hartzen du aintzat hein batean edo bestean. .</p>
Hasierako onesp.	<ul style="list-style-type: none"> - Natura-inguruneari buruzko edukiak murriztea (NBALAP). - Baso-kudeaketa iraunkorrari buruzko kontzeptuak sartzea (sektore-testuingurua). - NBALAPetik babestutako beste zona batzuk ateratzea: aurreikuspena. - Erabileren araubide loteslea oro har, baina 	<p>Natura-inguruneari buruzko edukiak murriztea eskumen-aldaketaren eta Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko eta Natura Ingurunekeo LAPa NBALAP bihurtu izanaren ondorioa da, besterik gabe. Nolanahi ere, beste tresna batzuek (ingurumen-arloko legediak eta plangintzek) araututako alderdiak dira eta NBALAPak koordinazio-mekanismoak ezartzen ditu haien zatiak (babestutako natura-guneak ateratzea, Natura 2000 gainjarritako baldintzatzaile gisa sartzea kudeaketa-planak onartu arte, etab.).</p> <p>Sektore-testuinguruaren analisisan gehiago zehazten dira NBALAPerako esparru-dokumentuetan bildutako ingurumen-irizpideak, hala nola baso-kudeaketa iraunkorra, eta horien iraunkortasuna ziurtatzeko sektore-politikan aintzat hartu beharreko eta NBALAPak barne hartutakotzat ematen diren irizpideak identifikatzen dira.</p> <p>LAParen eskumen-esparruan aditzera ematen da hezeguneei eta itsasertzari buruzko LAPek antolatutako zonak planetik aterako direla tresna horiek behin betiko onartzen direnean. Hortaz, gune horiek ingurumen-arloko araudi propioa dutela onartzen da —babestutako natura-guneentzat eta Urdaibairerentzat onartu zuen bezalaxe—.</p> <p>LAParen lotespen-mailari dagokionez, matrizeak eta nekazaritzako nahiz basogintzako erabilerekiko ñabardurak oro</p>

	<p>aurrerapenarekiko aldatetekin.</p>	<p>har lotesleak izateko aurreikuspenari eutsi zaio, eta, horrez gain, honako hau erantsi da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - LAPa Kostaldeein buruzko Legearekin, aireportu-zonekin eta LZPein koordinatzeko aurreikuspenak, NBALAParen aldean lehentasuna izango dutenak. - LAPa LZPein koordinatzea: aurrerapen-fasean bezala, LZPein LAParen balio estrategiko handia barnean hartzeko eskatzen da. Dena den, aurrerapenean jasota geratu zenez, aditzera ematen da LZPetako lurzoru babestua NBALAPak hartuko duela bere gain planak behin betiko onartzen direnean. <p>Nekazaritza-kategoriei garrantzi handiagoa emanda basogintzakoak babes eskasa izan dezakete, eta hori nabarmendu egiten da jasotako alegazioetan.</p> <p>Bestalde, LAParen edukietatik natura-inguruneari buruzko zatia ateratzeak tresnaren sektorializazio-maila gehitzen du. Bestalde, NBALAPetik atera dira araudi propioa duten espazioak (parke naturalak, Urdaibai...), eta beste espazio batzuk gainjarritako baldintzatzaile gisa biltzen dira, hala nola Natura 2000 Sarea. Horren bidez, espazio horietan indarrean dauden araudia eta plangintzak errespetatzea ziurtatu nahi da.</p>
<p>Behin-beh. on.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - LAPetik babestutako beste gune batzuk kentzea: hezeguneak, etab. - Kategoriak aldatzea. - Erabilera-araudia berraztertzea. Aldaketak matrizean, ñabarduretan eta LAParen lotespen-mailan. - Basogintza-sektoreari buruzko edukiak gehitzea: Mendiei buruzko legea, onura publikoko mendiak, BBAPak. - Argitzea LAPak beste LZP eta LAP batzuekin nola koordinatu behar den eta nola egokitu behar den udal-planeamendua. 	<p>LAPetik atera dira beste tresna batzuek babestutako guneak eta argi utzi da NBALAP honek beste LZP eta LAP batzuekin duen lotura. Hain zuzen ere, hezeguneei buruzko LAPak araututako hezeguneak, Itsasertzaren LAPak definitutako babes bereziko eremuak atera dira... Horren bidez, espazio horien antolamendua eta erabilera-araudia ingurumen-arloko plangintzara eraman dira. Natura 2000 Sareari gainjarritako baldintzatzaile gisa eutsi zaio ("Natura-intereseko guneak", beste hainbat enklaberekin batera), eta argi utzi da espazio horiek kudeatzeko planak onartzen direnean NBALAPa automatikoki egokituko dela.</p> <p>"Mendia" gainkategoria barnean hartutako kategoriei dagokienez, hainbati izena aldatu zaie barnean hartzen dituzten erabilera heterogeneoak hobeto islatzeko, informazio publikoko fasean jasotako hainbat alegaziotan eskatutakoari jarraiki. Esaterako, "Meatsa" zenari "Baso-mendi mehatza" izena eman zaio eta "Haitzak" zenari "Larre menditarrak-Haitzak". Hori eginda, kategorien heterogeneotasuna eta aniztasuna onartzen da eta udalerriek errazago identifikatzea, mugatzea eta kudeatzea ahalbidetzen da.</p> <p>Erabilerak arautzeko matrizea berrikusita hainbat gauza lortu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - "Nekazaritza", "abeltzaintza" eta "basoak" kategorietan barne hartutako erabilerak zehaztu ditu eta nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-lanak erabilera horiei lotutako eraikuntzetatik bereizi ditu. Horrek matrize zehatzagoa egitea eta erabilerak garatzeko baldintza murriztaileagoak esleitzea ahalbidetzen du kategoriaz guztietarako. - Ingurumen-hobekuntza izeneko kategoria murriztaileagoa egin da, eta, horri esker, kategoria horren barnean hartutako zonetako ingurumena leheneratzea arriskuan jar lezaketan erabilerak sortzea saihestu da. - Oro har, erabilera-araubide murriztaileagoa egin da Basoa-Mendi mehatza, Basoak eta Larre menditarrak

		<p>kategorietan. Horren bidez, saihestu nahi da nekazaritza-kategorietan muga gehiegi jartzea erabilerak mendi-zonetara bideratzearen kalterako izatea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Balio estrategiko handiari murrizketa edo muga handiagoak jarri zaizkio. Dena den, maila hau sartu eta orokortu da: "3a: nahi ez den erabilera, baina onargarria goragoko mailako antolamendu-tresna batzuk bermatzen badute edo nekazaritza-sektoreko ebaluazio-protokolo baten arabera bada". Horren helburua da sektorerako baliorik handiena duen lurzoruaren babes-maila gehitzea, zorrotzegi mugatu gabe, askotariko erabileretarako xedelekutat hartuta (hirigintza-garapenetarako...), betiere kontuan hartuta horiek babestek ez diela inola ere kalterik eragin behar balio ekologiko handiagoko zonei. <p>Bestalde, nekazaritzako eta basogintzako erabileretarako ñabardurak osatu dira, ingurumen-arloko ñabardura berriak sartuta: lehentasuna ematea abeltzaintza-erabilera izan eta utzi ondoren sortutako baso-zonak berritzeko zuhaitziak erabiltzeari; zona horietan berritze naturala eta masen hobekuntza ziurtatzen duten tratamenduak baliatzea; landaredi-estaldura babeslea sortzeko egokienak diren zuhaitz-espezieak erabiltzea; bertako zuhaitzia arriskuan ez jartzea edo baso-artzaintzaren bidez berritzea; egungo zuhaitzi-azalera mantentzea eta sustatzea, baldin eta katalogatutako natura-intereseko ezein elementuri eragiten ez bazaio; etab.</p> <p>"Natura-intereseko guneak" gainjarritako baldintzatzailea zabaldu egin da nazioarteko garrantzia duten hezeguneak (Ramsar) sartuta, eta, hortaz, udalerriek aintzat hartzea erraztu da. Nolanahi ere, enklabe horien azalera gehiena Natura 2000 espazioek teilakatzen dute.</p> <p>Basogintza-sektoreari buruzko edukia gehitzeak baliabidearen aprobetxamendu iraunkorrerako tresna berriak (BBAP) nabarmentzea ahalbidetzen du. "Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak" gainjarritako baldintzatzaileari buruzko edukia ere gehitu da, eta horrek udal-planeamenduetan aintzat hartzea errazten du; era berean, ziurtatzen du eskumeneko administrazioak egoki kontrolatuko dituela mendi horiek katalogatzean aintzat hartutako helburuak betetzen dituztela: lurzorua babestea, dibertsitate biologikorako ekarpena egitea, etab.</p> <p>NBALAParen erabakien lotespen-mailari dagokionez, askoz gehiago zehaztu da erabaki horiek ezartzea errazteko modu gisa eta, gainera, lotespen-maila berrikusi da: behin-behineko onespeneraren bertsioak balio estrategiko handiko lurzoruekin bat ez datozen irizpideen, arauen eta kartografiaren lotespen-maila gutxitzen du. Horrela, beraz, honako hauek mantendu dira lotesle gisa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erabilerak ezartzeko irizpide nagusiak: A, B eta C atalak; gainerakoak lagungarriak dira. - Antolamendu-kategorietan aplikatu beharreko arau bereziak: balio estrategiko handia azpikategoriari dagokion guztia. Gainerako kategoriak eta azpikategoriak lagungarriak dira, nola matrizeak biltzen duena, hala matrizea garatzeko atalak. - Gainjarritako baldintzatzaileetako artezpideak: loteslea onura publikoko mendi eta mendi babesleetan, eta gomendioa gainerakoan.
--	--	---

		<ul style="list-style-type: none"> - Kartografia: aldaketak eta doikuntzak egin dakizkioke (eskala, etab.) LAPean bildutako kasuetan. Nolanahi ere eta oro har, balio estrategiko handia kategoriatan eta onura publikoko mendiak eta mendi babesleak lotesleak dira; eta kartografiaren gainerakoa, lagungarria. <p>Balio estrategiko handiaren izaera lotesleak Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko 17/2008 Legea du oinarri, eta onura publikoko mendiak eta mendi babesleak kategoriarenak Mendiei buruzko 43/2003 Legea eta dagozkion foru-arauak.</p> <p>Hasierako onespeneratik behin-behineko onespenerako urrats horretan, eta jasotako alegazioak nahiz Lurralde Antolamendukoekin egindako hainbat bilera aintzat hartuta, erabaki da NBALAParen helburuek espaziorik garrantzitsuenetan jarri behar dutela arreta, bi ikuspegietatik: nekazaritzakoa eta basogintzakoa. Horren ondorioz, kategoriatan horiei arreta handiagoa ematen zaie, gainerako zonak babestea beste instantzia batzuei dagokiela iritzita. Nolanahi ere, lurzoru urbanizaezinaren gainerakoan proposamenari eutsi zaio —gomendio gisa, dena den—; izan ere, udalerriei beren funtzioak betetzen gidatzeko tresna baliagarria dela egiaztatu da eta azken batean lurzoru urbanizaezinaren tratamendu koherenterako proposamen bat da.</p>
Behin bet. on.	<ul style="list-style-type: none"> - Edukiak kentzea, <i>lex repetitae</i> dela-eta. - LAPa hainbat dokumentutan berregituratzea eta araudia testu artikulatu bihurtzea. - LAPetik sortutako txosten-proposamenak kentzea. - LAAk babes bereziko kategoriatan handitzea. - Ingurumen-baldintzatzaileak gehitzea nekazaritza- eta basogintza-jardueretarako. 	<p>Oro har, esan daiteke NBALAPari ez zaiola funtsezko aldaketarik egin, behin-behineko onspen-proposamenari dagokionez: LAParen helburuei eta lurralde-ereduaren proposamenei eutsi zaie, eta haren egitura aldatu egin da araudia artikuluen bidez biltzeko eta dokumentuaren antolaketa hobetzeko. LAPetik ateratako edukiak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko zerbitzu juridikoek egindako iradokizunetatik hartu dira, eta honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> a. Aplikatzekoa zen beste sektore- edo ingurumen-araudi baten edukiak NBALAPetik kentzea, errepikapenik gerta ez dadin eta araudi berriren bat onartzen bada edukiak zaharkituta gera ez daitezten. b. LAPak egiten zuen txosten berrien proposamena kentzea, hori ez baita proposamen horiek egiteko legezko tresna. <p>Bestalde, eta ingurumen-organoaren eskaeran oinarrituta, babes bereziko kategoriaren inguruko LAPeko edukiak handitu dira, eta esplizituki adierazi dira LAAen arabera udalerriek halakotzat hartu behar dituzten zonak. Horren bidez, NBALAParen babes bereziko kategoriatan aintzat ez hartzea justifikatu eta konpentsatu nahi izan da, eta udalaren betebeharra ez betetzeagatik ingurumen-inpaktu gehigarriak sortzea saihestu da.</p> <p>Era berean, behin-behinean onartutako LAParen ingurumen-ebaluazioaren emaitzat aintzat hartuta, ingurumen-arloko beste eduki batzuk sartu dira nekazaritzako eta basogintzako erabileren garapenerako.</p>

Aukeren ingurumen-analisirako aurreko eskema erabiliko da, nahiz eta —azaldu dugunez— ez diren 9/2006 Legean aurreikusitako moduko aldi bereko aukerak, baizik eta segidako aukerak, ingurumen- nahiz sektore-alderdiak kontuan izanik LAParen oraingo proposamena osatu duen etengabeko erabaki-prozesutik sortuak.

4.1. LAParen aukeretan bildutako jarduketaren definizioa

NBALAPean ez da jarduketarik bildu. Aldiz, hainbat proposamen jaso dira (hainbat aukera jaso dira, antolamendu motei eta antolamendu-kategoriak mugatzeari buruz, gainjarritako baldintzatzaileei buruz, erabilera-araudiari buruz eta proposatutako ereduaren lotespen-maila orokorrari buruz, besteak beste) Nekazaritza-lurzorua babestera bideratutako lurralde-eredu bat osatzeko. Atal honetako hasierako paragrafoetan azaldutakoak NBALAParen nondik norakoak eta egin zen lehen bertsiotik behin-behinean onartutako bertsioraino egin zaizkion aldaketarik garrantzitsuenak jasotzen ditu.

4.2. 0 aukera edo “esku-hartzerik eza”

Egia esan, ez dago 0 aukerarik, NBALAPA egin ez balitz aplikatuko zatekeena: LAParen aurrerapen-dokumentua argitaratu zenetik, emandako kartografia eta proposatutako erabileren araudia erabili izan dute udalerriek beren lurralde-planeamendua egiteko. Hortaz, dagoeneko ez dago “0 agertokirik” (LAParik gabea).

Nolanahi ere, eta egungo egoera aintzat hartuta, ondoriozta daiteke NBALAPean proposatutako neurriak behin betiko onartzen ez badira, egungo joerari eutsiko zaiola bai landa-eremuan bai hirigintza-antolamenduan. Hirigintza- eta azpiegitura-interesak, lurraldearen zatikako planean aurreikusitako garapenkeria neurrigabeak bultzatzen dituenak, nagusitu egingo lirатеke natura-baliabideen —eta batez ere nekazaritza-baliabideen— babesaren aldean. Lurzorurik onenak, nekazaritzako interesgarrienak eta landa-eremuan nekazaritza-jarduerari eusteko ezinbestekoak direnak, galdu egingo lirатеke ezinbestean.

Ingurumeneko Esparru Programak egindako diagnostikoaren arabera, 1990. urtetik 2000. urtera bitartean 52 km²-ko azalera artifizialdu zen, batez ere nekazaritza-lurzorua kontsumituz. Hortaz, urtero gutxi gorabehera 500 ha lurzoru artifizialtzen dira EAEn.

Nekazaritzak landazabal atlantikoko paisaia tipikoa osatzeko egiten duen ekarpena, lurzoru horietan natura-interes handiko egiturak biltzea (hesiak eta baso txikiak, etab.), lurzoru horiek fauna-espezieen banaketan (gehienetan, askotariko lurralde-mosaikoa behar izaten da) funtsezkoak izatea eta kasu askotan nekazaritza-habitaten berezko garrantzia (horietako batzuk garrantzi komunitarioko habitatak dira, Habitategi buruzko 92/43/EE zuzentarauaren eta Natura Ondareari eta

Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen arabera) kontuan hartuta, beharrezkoa da lurzoru horiek eraginkor babesteko neurriak hartzea, betiere natura-baliabideak zainduz. Eta horri dagokionez, NBALAPak alderdi hori nabarmentzen du.

4.3. Aukera guztiak baloratzeko erabilitako ingurumen-irizpideen deskribapena

Azaldu dugunez, gaur egungo NBALAParen proposamena erabakiak hartzeko prozesu luze eta etengabearen emaitza da. Alabaina, 183/2003 Dekretua onartutakoan LAPari hasierako onspena eman baino lehentxeagora arte ez zen aukerarik eta aukera horien ingurumen-analisirik aipatu.

Ordura arte, NBALAPean ez zen aukera-analisi hori planteatu. Aldiz, ingurumen-irizpideak erabili ziren proposatutako lurralde-eredua osatzeko, espresuki bildu ez baziren ere.

Hain zuzen ere, funtsean, honako ingurumen-irizpide nagusi hauen arabera definitu dira bertsio guztiak (aurrerapena, hasierako onspena, behin-behineko onspena):

- Nekazaritza-lurzorua natura-baliabideak eta bereziki nekazaritza-kategorietan eta basogintza-kategorietan sartutako natura-balio handiko zonak zaintzeko moduan babestea.
- NBALAPean indarrean dagoen ingurumen-arloko araudia eta plangintza egoki aintzat hartzea.
- Nekazaritza-lurzorua baliaraztea ingurumen-zerbitzuen beste hornitzaile bat izan daitekeela aintzat hartuta.
- Xede diren lurzoruak erabilera-gatazkarik handiena dutenak direla onartzea, eta garrantzi berezia ematea lurzoru horiek natura-interes elementurik kaltetu gabe babesteari.

4.4. Aukerek eragindako inpaktu nagusien deskribapena eta balorazio orokorra

4.4.1. AURRERAPEN fasea

LAParen aurrerapen-faseak natura-inguruneari buruzko eduki zabalak zituen: babestutako guneak, etab. Ildo horretan, LAPa ingurumen-alderdietan sartuagotzat har zitekeen, natura-ingurunea babesteko hainbat maila bildu eta proposatzen zituelako. Nolanahi ere, alderdi horiek ibilbide alternatiboa egin dute eta, emaitza gisa, askotariko araudi eta plangintzak sortu dira, gaur egungo LAPak biltzen dituenak.

“Orban handiko” kartografia baten proposamena dagoen errealitatearen sinplifikaziotzat har daiteke, eta, hortaz, ingurumen-inpaktuen iturri dela ondoriozta liteke. Gainera, proposamen horrek ia ez du aldaketarik izan LAParen atariko faseetatik orain arte. Hala ere, nola kategorien definizioan hala nekazaritza- eta basogintza-erabileren ñabarduretan, LAPak espresuki biltzen du “orban handi” heterogeneoen proposamen bat dela, eta orban horiek lurzoru-erabilera nagusiak biltzen dituzte eta aldi berean baliarazi behar diren askotariko elementuak dituzte batera. Esaterako, nekazaritza-zonetan heskaiak eta baso txikiak daudela onartzen da, eta LAPak beharrezkotzat jotzen du elementu horiek sustatzea eta zaintzea. Horretarako (1), kategorietan erabilera heterogeneoak daudela nabarmendu du eta modu egokian kudeatzeko premia adierazi du; era berean (2), toki-arloko azterlanetan oinarrituta zonak berriz mugatzeko aukera eman die udalerriei.

Antolamendu-kategorien proposamenari dagokionez, LAAen proposamenean aurrera egin da alderdi hauetan:

- NBALAPak ez du biltzen *Babes berezia* kategorია; izan ere —LAAek ezartzen dutenez—, plan horren arabera LZPek eta udal-planeamenduak definitu behar dute kategoría hori.

Hain zuzen ere, hasieran pentsa liteke *Babes berezia* kategoría ateratzeak zeharkako inpaktua eragin dezakeela, LAAek definitzen dituzten natura-balio handiko zonak ez baitira kategoría horretan sartzen, NBALAPak lurzoruaren erabileren arabera definitzen ditu-eta bere kategoríak. Alabaina, LAPak garbi uzten du LZPak eta udal-planeamenduak definitu behar dituztela babes bereziko zonak, LAAen irizpideen arabera betiere, kategoría hori berdín era dadín.

NBALAParen aurrerapen-fasean ez dago hasierako onespenerik duen LZPrik, eta hortaz, ez da atera LAPetik haren babes bereziko zonarik. Udal-planeamenduari dagokionez, LAPak behar diren mekanismoak ezarri ditu, planeamenduari aldaketak eta/edo berrikuspenak eginez, planeamenduak barnean hartzeko LAAen irizpideei jarraiki komenigarritzat irizten dien babes bereziko zonak.

- Ez da aintzat hartu *Erabilera zehatzik gabea* kategoría, neurri batean edo bestean lurzoru guztia nekazaritzara eta basogintzara bideratuta dagoela erabaki baita.

Neurri horrek ingurumen-eragin positiboa duela irizten zaio, kategoría “hutsak” agertzea saihesten baitu; hain justu ere, dagozkien balioak definituta ez daudenez, aukera handiagoa dago hirigintza-garapenetara bideratzea. Beste kategoría batzuetara atxikita, dagozkien lurzoru-erabileren arabera, behintzat baliaraztea ziurtatu da.

- NBALAParen arabera “Mendia” “basogintzako” hainbat kategoría —lurzoruaren erabileraren arabera definituak— biltzen dituen gainkategoría da. Neurri horren bidez, erabilereri dagokienez bi zona handi bereizteko helburua betetzen da: Landazabala eta Mendia. Horri esker, bi kategoría horiek identifikatzea eta

kudeatzea errazten da. Nolanahi ere, "Mendia" gainkategoria biltutako kategorien hasierako proposamena aldatu egin da LAParen ondorengo faseetan, ingurunearen errealitatea hobeto jasotzeko.

Erabilera arautzeari dagokionez, loteslea da orobat (nekazaritza- eta basogintza-erabileren matrizea eta haiekiko ñabardurak, kategoria guztietan, eta kartografia), eta erabilera jakin batzuetarako, babes-maila handiagoa ematen die nekazaritza-kategoriei (bereziki balio estrategiko handian) basogintzakoei baino, eta hori zeharkako inpaktuen iturri izan liteke. Matrize-proposamen horri aldaketa ugari egin zaizkio geroagoko LAPetan, eta ondorengo atalean zehaztu ditugu.

4.4.2. HASIERAKO ONESPENAREN fasea

Hasieran onartutako NBALAParen dokumentuak natura-inguruneari buruzko edukiak gutxitu zituen, eta joera horri eutsi zion behin-behinean onartu arte. Horren jatorria Eusko Jaurlaritzaren sailen osaera eta eskumenen aldaketa da, eta ez da hartu behar ingurumenerako kaltegarritzat; izan ere, NBALAPetik ateratakoa dagozkion araudi- eta plangintza-tresnetan bildu eta arautu da, edo bestela LAPak modu iragankor eta adierazgarrian jasotzen du (adib.: Natura 2000 gainjarritako baldintzatzaile gisa sartzea dagozkion kudeaketa-planak onartu arte).

"Natura-ingurunearen" zati horrek LAPean garrantzia galdu duen arren, hasierako atalek sakonago analizatzen dituzte NBALAParen garapen-esparrua osatzen duten sektore-arloko dokumentuek —EAEko Basogintza Planak, EAEko Landa Garapen Jasangarrirako Planak eta abarrek— biltzen dituzten ingurumen-arloko irizpide eta helburuak. NBALAPak irizpide horiek bere egiten dituela irizten zaio.

Bestalde, beste dokumentu batzuetan araututako ingurumen-alderdiak aintzat hartzea sustatzen da, NBALAPak aditzera ematen baitu hezeguneei eta itsasertzari buruzko LAPek antolatutako zonak planetik aterako direla plana onartzen denean (babestutako natura-guneetarako eta Urdaibairako onartutako moduan).

LAParen lotespen-maila aurrerapen-faseko bera da: erabilera-matrizea, nekazaritza- eta basogintza-erabilerekiko ñabardurak eta kartografia lotesletzat hartzen dira. Ia ez da aldaketarik egin atal horietan. Aldiz, ingurunean eragina izan dezaketen hainbat aldaketatxo egin dira:

- Oro har, Ingurumen-hobekuntzako kategoriako araudia murrizketa-maila gutxitu zaio, eta "debekatutako" erabileren ordean erabilera hauek ezari dira: "onargarriak, ingurumen-ebaluazioarekin eta nekazaritza-sektorearen afektazioari buruzkoak". Horrek zeharkako afektazioak sor litzake, gaur egun degradatuta dauden zonetan hainbat jardun egiteko bidea irekitzen baitu. Dena den, aukera egokia dira zona horien ingurumena leheneratzeko, eta leheneratze hori arriskuan jar liteke.
- "Landa-bideak eta pistak" erabilera, oro har, onargarria eta kategoria gehienetan ñabardurak dituen izatetik besterik gabe onargarria izatera igaro

da (nekazaritza - abeltzaintzan eta landazabalean eta ingurumen-hobekuntzan) edo onargarria nekazaritza-arloko ingurumen- eta sektore-ebaluazioaren baldintzapekoa (meatsean eta basokoan). Ñabardurak ez ziren geroago txertatzen. Hortaz, matrizearen zuzenketatzat har daiteke, eta, beraz, ez da uste aldaketak ingurumen-eragina izango duenik. Bestalde, Mehatsa eta Basoak kategorietako ebaluazioak bideak eta pistak prestatzeko kautela gehitu ditu eta elementu horien ingurumen-integrazioarako aukerak gehitu dira.

- LAPa beste ingurumen- eta sektore-tresna batzuekin —Kostaldee buruzko Legearekin, aireportu-zonekin eta LZPekin...— koordinatzeko aurreikuspenak gehitu dira.

Nolanahi ere, matrizeari eta lotespen-mailari antzeko baldintzetan eutsita, nekazaritza-kategorietan —bereziki balio estrategiko handian— basogintzakoetan baino murriztaileagoa den araudia sustatzen du; izan ere, basokoetan erabilera asko onargarriak dira (ildo horretan, basogintzakoen artean, Haitzak kategoria da babestuen, baita garapen-ekimenez kaltetzeko arrisku txikiena ere, goi-aldeetako zonetan daudelako). Basogintzako kategorien balizko babes eskasa informazio publikoko fasean jasotako alegazioetan bilduko da eta LAParen etorkizuneko aldaketetarako oinarria izango da.

4.4.3. BEHIN BEHINEKO ONARPENAREN fasea

Bost urte igaro ziren LAParen hasierako onspenetik behin-behineko onarpeneraino (2010eko azaroa). Aldi horretan, planaren aldaketa ugari baloratu ziren. Aldaketa horiek informazio publikoko fasean jasotako alegazioen eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritzarekin eta Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailarekin izandako elkarriketa gehigarrien ondorioa dira.

Prozesu luzea da eta, bertan, NBALAParen sektoretasuna gehitzea da erabaki nagusia, betiere nekazaritza-lurzorua babesteko helburua aintzat hartuta. Lehen sektorea mantentzeko beste laguntza bat da —laguntza politikoez eta sektore-planaz gain—. Horrela, erabaki zen, batetik, balio estrategiko handiko lurzorua LAPean duen pisua gehitzea, eta, bestetik eta modu paraleloan, plan honetan nekazaritzakoak ez diren kategoriei emandako garrantzia gutxitzea, LAParen helburua ez direla onartuta.

Hauek dira sartu diren ingurumen-arloko aldaketa nagusiak:

- Babestutako beste zona batzuetara egokitzea: NBALAPetik atera dira hezeguneei buruzko LAPak eta itsasertzari buruzko LAPak babestutako esparruak eta aurrera egin zen lehenengoa indarrean dagoen beste ingurumen- eta sektore-araudi batekin integrazteko prozesuan.
- "Meatsa" eta "Haitzak" kategorien izenak kentzea eta haien ordez "Basoa-Mendi meatsa" eta "Larre menditarrak-Haitzak" jartzea, hurrenez hurren. Hori eginda, LAAen kategorien zuzeneko isla eduki nahi izan da eta, horrez gain, kategorien

heterogeneotasuna eta aniztasuna onartu da, baita udalerriek errazago identifikatzea, mugatzea eta kudeatzea ahalbidetu ere.

- "Nekazaritza", "abeltzaintza" eta "basoak" kategorietan barne hartutako erabilerak zehaztu dira eta nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-lanak erabilera horiei lotutako eraikuntzetatik bereizi ditu. Horri esker, arautzeko matrizea gehiago doitu da; izan ere, onarpen-maila handiagoa dute praktika tradizionalak antolamendu-kategoria guztietan eraikuntzek baino, horiek oso kasu eta kategoria jakinetan onartzen baitira (bakarrik Trantsizioko landa-eremuan, eta beste kategoria batzuen kasuan, nahi ez den erabilera da, eta bakarrik onartzen da goragoko mailako planeamendu batek bermatzen badu eta nolana ere ingurumen- eta sektore-ebaluazioa egin behar zaio).
- "Nekazaritza-industrien" erabilera ere gehiago mugatu da, egun duen kokapenetik Trantsizioko landa-eremura pasatu nahian; hartara, bultzatu egiten da nekazaritza-balio handieneko luraren babesa betiere natura-balio handiak dituzten basoetako kategorietara jarduerarik lekualdatu behar izan gabe.
- "Ingurumen-hobekuntza" kategoria murriztaileagoa egin da (lehen onargarriak ziren erabilerak debekatu dira), eta, horri esker, kategoria horretako zonetako ingurumena leheneratzea arriskuan jar lezaketen erabilerak sortzea saihestu da.
- Informazio publikoko fasean bildutako alegazioak eta ingurumen-organoak bere txostenetan azaldutakoa aintzat hartuta, basoko kategorietako muga-maila gehitzeko ahalegina egin da, bereziki "Basoa-Mendi meatsa", "Basoak" eta "Larre menditarrak" kategorietakoak, LAParen aurreko faseetan babesik txikiena zutenetan, alegia. Nekazaritza-kategorietan gehiegizko babesa ezartzeak natura-balio handiak dituzten mendi-zonetarako kaltegarriak izatea saihestu nahi izan da.
- Balio estrategiko handiaren muga-maila gehitu da; dena den, "3a" delakoa "nahi ez den erabilera" gisa sartu eta orokortu da eta bakarrik onartzen da baldintza zorrotz batzuk betetzen baditu: goragoko mailako beste tresna batzuen (LZPa, LAPa bere eskumenen esparruan) bermea izatea, edo —bere izaera dela-eta tresna horietan barne hartuta ez badago— nekazaritza-arloko ingurumen- eta sektore-ebaluazioaren mende egotea.

Aurreko guztia babesa gehitzera bideratuta dago, bai NBALAParen xede-zonetan (balio estrategiko handiko nekazaritza-lurzorua), bai ingurumen-kutsu handieneko kategorietan ("basokoak" deritzanak, Mendia gainkategorian sartutakoak, eta Ingurumen-hobekuntza). Era horretara balio handieneko nekazaritza-lurzorua natura-baliabideak zaintzearekin batera babestearen garrantzia onartu da. Bestalde, nekazaritza-lurzoruak, oro har haran-hondoetan daudenak, lurraldean ekimen ugariarako —hirigintza garapeneterako, azpiegitura-garapeneterako eta abarrerako— helburua ere badirela hartu da aintzat.

- Nekazaritzako eta basogintzako erabileretarako ñabardurak ere osatu dira, ingurumen-arloko ñabardura berriak sartuta: lehentasuna ematea abeltzaintza-erabilera izan eta utzi ondoren sortutako baso-zonak berritzeko zuhaitziak erabiltzeari; zona horietan berritze naturala eta masen hobekuntza ziurtatzen duten tratamenduak baliatzea; landaredi-estaldura babeslea sortzeko egokienak diren zuhaitz-espezieak erabiltzea; bertako zuhaitzia arriskuan ez jartzea edo baso-artzaintzaren bidez berritzea; egungo zuhaitzi-azalera mantentzea eta sustatzea, baldin eta katalogatutako natura-intereseko ezein elementuri eragiten ez bazaio; etab.
- “Natura-intereseko gunek” gainjarritako baldintzatzailea zabaldu da nazioarteko garrantzia duten hezegunek (Ramsar) sartuta, eta, hortaz, udalerriek balio handiko zona horiek aintzat hartzea erraztu da. Nolanahi ere, enklabe horien azalera gehiena Natura 2000 espazioek teilakatzen dute.
- NBALAP osoan “basokoak” diren edukiak neurri handi batean gehitu dira: Mendiei buruzko legeari eta baso-baliabideak antolatzeko planei (BBAP, baliabidearen aprobetxamendu iraunkorrerako lagungarriak dira) buruzko atal berriak sartu dira eta “Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak” gainjarritako baldintzatzailearen edukia zabaldu da. Horri esker:
 - Udal-planeamenduak araudi hori aintzat hartzea errazten da.
 - Ahalik eta inpakturik txikienak eragiten dituen lurralde-eredu bat ziurtatzeko, baso-baliabidea modu egokian kudeatzea eta antolatzea beharrezkoa dela nabarmentzen da.
 - Onura publikoko mendiek eta mendi babesleek katalogatzeko aintzat hartu diren helburuak betetzea errazten da: lurzorua babestea, dibertsitate biologikorako ekarpena egitea, etab.
- NBALAParen erabakiekiko lotura: atal horri ia ez zitzaion aldaketarik egin aurreko faseetan; gainera, LAParen ingurumen-inplikazioetako askok — proposatutako arautzeko matrizearekin batera— atal horretan zuten jatorria. Atal hori sakon berrikusi da behin-behinean onartutako NBALAPean. Oro har, betiere LAPa balio handieneko nekazaritza- eta basogintza-lurzoruek babesteko helburu nagusira behar bezala egokitze aldera, balio estrategiko handiko lurzoruei ez dagozkien irizpideen, arauen eta kartografiaren lotespen-maila gutxitu da. Horrela, beraz, honako hauek mantendu dira lotesle gisa:
 - Erabilerak ezartzeko irizpide nagusiak: A, B eta C atalak; gainerakoak lagungarriak dira.
 - Antolamendu-kategorietan aplikatu beharreko arau bereziak: balio estrategiko handia azpikategoriari dagokion guztia. Gainerako kategoriak eta azpikategoriak lagungarriak dira, nola matrizeak biltzen duena, hala matrizea garatzeko atalak.

- Gainjarritako baldintzatzaileetako gidalerroak: loteslea onura publikoko mendi eta mendi babesleetan, eta gomendioa gainerakoan.
- Kartografia: aldaketak eta doikuntzak egin dakizkioke (eskala, etab.) LAPean bildutako kasuetan. Nolanahi ere eta oro har, balio estrategiko handia kategorian eta onura publikoko mendiak eta mendi babesleak lotesleak dira; eta kartografiaren gainerakoa, lagungarria.

Balio estrategiko handiaren izaera lotesleak Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko 17/2008 Legea du oinarri, eta onura publikoko mendiak eta mendi babesleak kategoriarenak Mendiei buruzko 43/2003 Legea eta dagozkion foru-arauak.

Nolanahi ere, honako hau hartu behar da kontuan:

- LParen arabera, beste instantzia batzuei dagokie gainerako zonak babestea, zona horietan nabarmenak diren balioak aintzat hartuta.
- Nolanahi ere, proposamenari eutsi zaio gainerako lurzoru urbanizaezinari dagokionez, egiaztatu baita tresna baliagarria dela udalei beren planeamendua idazteko gida gisa. Proposatutako zonifikazioak, zonak berriz mugatzeko aukerak eta, proposamen gisa bada ere, NBALAParen erabilera-matrizeak natura-balio handieneko kategorietan (basokoak eta ingurumen-hobekuntza) mugak gehitu izanak lurraldearen eta ingurumenaren aldetik koherentea den proposamen bat aintzat hartzea dakar.

4.4.4. BEHIN BETIKO ONESPENAREN fasea

NBALAPa behin betiko onartzeko dokumentua batez ere plan horren edukien doikuntza juridikoa eginez prestatu da; horren arabera:

- (1) LAPa berregituratu da hainbat dokumentutan eta araudia modu artikulatuan idatzi da.
- (2) Beste araudi batzuetako xedapenak hitzez hitz biltzen zituzten edukiak kendu dira, beharrik gabeko errepikapenik ez gertatzeko eta, arauak indargabetuz gero, LAPa egunean ez dauden xedapenetan ez oinarritzeko.
- (3) LAPak proposatzen zituen sektore-txosten berriak kendu dira, hartarako tresna egokia ez direla iritzita.
- (4) Nekazaritza-sektoreko ebaluazio-protokoloa IIE/IIEB prozeduretan txertatzeari dagokion zatia kendu da eta sektoreko afektazio-txostena Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko Legeak ezartzen duenean oinarritu da.
- (5) NBALAParen antolamendu-esparrutik itsasertzari buruzko LAPeko ingurumen-hobekuntzako guneak eta hiri-hondartzak atera dira; izan ere, tresna horrek gune horiek eta babes berezikoak lotzen ditu, eta, hortaz, ez dira NBALAParen antolamendu-esparrutzat hartzen.

(6) Araudi- eta planeamendu-erreferentziak eguneratu dira azken berrikuntzen arabera.

(7) Kendu egin dira NBALAParen kartografian LZPetako babestutako zonak gainjarritako sare gisa biltzeko aurreikuspenak; izan ere, egileen arabera, (1) interpretatzen zaila den irtenbide grafikoa sortuko litzateke, eta (2) ez da beharrezkoa, LZPen prebalentzia juridikoak bi tresna horiek koordinatzeari buruzko ziurgabetasun-aukera oro ezabatzen du.

(8) Behin-behinean onartutako LAParen ingurumen-ebaluazioaren emaitzak aintzat hartuta, ingurumen-arloko gomendioak proposatu dira nekazaritza- eta basogintza-erabileren garapenerako, behin betiko onartzeko aurkeztu den LAPean espresuki bildu direnak.

Aldaketa horiek ez dira funtsezkotzat hartzen, behin-behinean onartutako LAPean bildutako helburuak eta arautzeko matrizea ez baitira ukitu (eta, hortaz, ezta LAParen lurralde-ereduko proposamena ere).

Gainera, eta ingurumen-organoarekin izandako elkarrizketetan horren premia ikusita, udalerriei beren babes bereziko kategoria mugatzen gidatzeko edukiak zabaldu dira eta LAAek kategoria hori osatu behar duten guneetarako adierazitakoa bildu da:

- a) *"Funtsezko prozesu ekologikoak mantentzean zeregin garrantzitsua dutenak, hala nola lurzoruen babesa, akuiferoen karga, etab.*
- b) *Kontserbazio-egoera oneko habitat naturalen laginak, desagertzeko arriskuan daudenak edo, nazioarteko hitzarmenen edo berariazko xedapenen ondorioz, babes berezia behar dutenak.*
- c) *Espezie mehatxatu gisa katalogatutako animalia edo landareen populazioak dituzten guneak, elementu endemikoen kontzentrazio handiak edo, nazioarteko hitzarmenen edo berariazko xedapenen ondorioz, babes berezia behar dutenak.*
- d) *Landa-paisaiak edo malkartsu harmoniatsuak, edertasun edo kultura-balio bikainekoak, hala nola aztarnategi paleontologikoak, hobi mineralak, etab.*
- e) *Bitxitasunagatik edo berezitasunagatik nabarmentzen diren elementu naturalak dituzten guneak, edo interes zientifiko berezia dutenak".*

Horren helburua da NBALAPean babes bereziko kategoria aintzat ez hartzeak (LAAk interpretatuta hartu zen erabaki hori) kategoria hori osatu behar duten guneetan zeharkako inpakturik ez sortzea.

Era berean, argi utzi da LAAek kategoria horretarako oro har erabilera antropikoa mugatzea ezartzen duten arren, aprobeixamenduaren kasuan hori modu iraunkorrean sustatu behar da, erabilitako baliabidea berrituko dela ziurtatuta. Horren bidez, hau lortu nahi da: udalerriek beren lurraldean natura-baliorik handiena duten zonak identifikatzea eta mugatzea, eta zona horietan egiten diren

erabilerak (besteak beste nekazaritza- eta basogintza-erabilerak) beren gain hartzea eta modu iraunkorrean bultzatzea.

4.5. Egindako aukeraren justifikazioa

EAEko landa-inguruneak etorkizuna jokoan du bere lurralde-osagaia defendatzeko gaitasunean. Bitxiak dira, ordea, landa-eremua babestu eta antolatzeko beharrak landa-irizpideetan oinarrituta garatzen dituzten lurralde-antolamenduari buruzko udaleko eta udalaz gaindiko txostenak: "lurra baliabidearen" kontserbazioa, ustiategiaren ekoizpen-gaitasunaren mantentzea eta garapena, eta abar.

Egia esan, egoera horren arabera, informazio-gabezia handia dago landa osatzen duten elementuei, horien kontserbazioan inplikaturako prozesuei eta abarrei dagokienez. Horregatik, gabezia horiek gainditzea izan behar du NBALAParen lehen erronkak, eta horretarako, EAEko landa-eremuaren lurralde-eredua sortu behar da: nekazaritzarako eta basogintzarako balio handiena duten lurren inbentarioa, nekazaritza-unitate nagusiak eta horien tipologia definitzea, babestu beharreko natura-guneei erantsi beharreko landa-paisaia garrantzitsuenen inbentarioa egitea...

NBALAPak bultzatzen duen lurralde-ereduan, nekazaritza- eta basogintza-erabileren eta antolamendu-kategoria nahiz gainjarritako baldintzatzaileen definizioa berraztertu da, lurraldean landa-ingurunea eta natura-ingurunea ahalik eta gehien errespetatzen duten erabilerak ezartzea aurreikusteko.

Informazio ugari finkatzea ez da garrantzitsua hirigintza-planeamendua landa-irizpideak kontuan hartuta egin nahi bada. Horretarako, beharrezkoa da funtsezkotzat hartzen diren gaietan gainerako antolamendu-txostenak kontuan hartuko dituen lurralde-antolamenduko eredua, eta lurraldeari buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan sartzea.

Horrekin bat, NBALAPak, EAEko landa-eremu pluriaktibo eta multifuntzionalaren bideragarritasuna ziurtatuko duen lurralde-eredua bultzatzeaz gain, lurralde-gaiei buruzko erabakitze-prozesuetan eredu hori sartzeko bidea zabaltzea ezarri behar du. Sartze-bide horrek tresna arautzaileak hartu behar ditu barnean, baita, informazioan nahiz irizpide-ezarpenetan oinarrituta, EAEko lurralde- eta sektore-antolamenduan inplikaturik dauden erakundeen jarduera bideratuko dituzten beste tresna batzuk ere.

Bestalde, aurrera egin behar da, halaber, EAEko administrazioek ingurumenari, biodibertsitateari eta klima-aldaketari dagokienez hartutako konpromisoekin bat datorren antolamendu-eredu baten proposamenean.

Horri dagokionez, NBALAParen behin betiko onespenerako dokumentuak, atal honetan aukera gisa tratatu denak, ildo horretan aurrera egin duela irizten zaio, eta, izaera sektorial handiagoa hartu duen arren (hori, ordea, logikoa da, garatu behar dituen eskumenen ondorioz), gehiago inplikatzeko da EAEko baliabide

naturalak zaintzea sustatzen duen proposamen batean, bai LAParen helburu-zonei, bai lurzoru urbanizaezinaren gainerakoan.

Nolanahi ere, IIT honen inpaktuak identifikatzeko eta baloratzeko atalaren helburua da ingurumen-inplikazioen bat izan lezaketen LAParen alderdiak antzematea eta, horren arabera, LAPak berak (behin betiko onartu baino lehen aldatuta) edo hura garatuz udal-planeamenduak bere egin ditzaketen prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak ezartzea.

Puntu honetan, aditzera eman behar da behin-behinean onartutako LAParen ingurumen-ebaluazioa dela-eta bildu dela planean neurri zuzentzaileen proposamena, neurri horiek LAParen eduki gisa, horren ingurune-portaera hobetzeko.

5. Inpaktuak identifikatzea eta baloratzea

5.1. Metodologia

NBALAPa lurraldea antolatzeko dokumentu konplexua da, oso sektoriala baita, eta, hortaz, atal hau hiru analisi-mailatan oinarrituta jorratzea erabaki da:

- helburuei dagokienez
- proposatutako lurralde-ereduari dagokionez
- nekazaritza- eta basogintza-erabilerei dagokienez

Planaren helburuen ingurumen-eraginen analisiaren ardatz nagusia hau da: analizatzea LAParen edukiek nola laguntzen duten EAEn erreferentziazkoak diren ingurune-arloko helburu eta konpromisoak betetzen, haien bateragarritasuna ziurtatzen laguntzeko modu gisa.

Lurralde-ereduaren eta nekazaritza- eta basogintza-erabileren inpaktuen analisia bi proposamen horiek eraginpean har ditzaketen ingurumen-faktoreak identifikatuta egiten da —diagnostikoan, IITaren 3. atalean analizatu denez—. Ingurumen-eraginei eta terminologia eta kontzeptuei buruz eztabaidatzeko, 1131/1988 Errege Dekretuan —abenduaren 30ekoa, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluaziorako Erregelamendua onartzen duenean— eta 9/2006 Legean —apirilaren 28koa, Plan eta programa jakin batzuk ingurumeneari duten eraginaren ebaluazioari buruzkoan (II. eranskina)— xedatutakoa hartu da oinarritzat eta NBALAParen ingurumen-analisiaren berezko ezaugarrietara egokitu da.

Hain zuzen ere, inpaktuak honela sailkatuko dira¹⁸:

- Positiboa.
- Bateragarria.
- Neurritzkoa.
- Larria.
- Kritikoa.

¹⁸ 1131/1988 Errege Dekretuak honela definitzen ditu inpaktu horiek: *Bateragarria: jarduera bertan behera utzi eta berehala leheneratzen denean, jardun babesle edo zuzentzailerik gabe. Neurritzkoa: leheneratzeko jardun babesle edo zuzentzailerik behar ez denean eta hasierako ingurumen-baldintzak lortzeko denbora pixka bat behar denean. Larria: ingurunearen baldintzak leheneratzeko neurri babesleak edo zuzentzailerik hartu behar direnean, eta, hala ere, ingurunea leheneratzeko denbora luze behar denean. Kritikoa: onar daitezkeen atalasearen gainera dagoena; ingurumen-baldintzak etengabe galtzea dakar eta ezinezkoa da leheneratzea, ezta neurri babesleak edo zuzentzailerik hartuta ere. Bestalde, pentsatzen da LAParen zenbait zehaztapenek ingurumenarekiko eragin positiboak izan ditzaketela, eta hori balorazioan ere bildu da.*

Izan litezkeen inpaktuen deskribapena esanguratsutat hartutako aldetetara mugatu da, eta, beraz, ez da barnean hartu esanguratsua ez den balizko eraginik, balorazioaren alderdirik zuen eta garrantzitsuenak nabarmentzeko.

Azkenik, aditzera eman behar da ez dagoela plan honen goragoko hierarkia-mailetan baterako ebaluazioa edo ebaluazio estrategikoa egin zaion jardun eta eraginik.

5.2. Planaren helburuen ingurumen-eraginak

LAParen helburuen ingurumen-eraginak identifikatzeko, foro, biltzar eta hitzarmenetatik sortutako nazioarteko oinarrizko ingurumen-alderdiak berrikusi dira. Era berean, berriz aztertu dira sektorearen kudeaketarekin edo lurralde-kudeaketarekin, naturaren kontserbazioarekin eta garapen iraunkorrarekin nolabaiteko lotura duten nazioarte-, nazio- eta eskualde-esparruko estrategia, plan eta arauak.

Gertueneko strategiak analizatuta, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia (GIIE) eta ingurumen-esparruko programak (IEP), denbora-tarte mugatuagoetan hura zehazten dutenak, dira EAEn aplikatu beharreko oinarrizko ingurumen-helburuak barnean hartzen dituzten tresnak.

IEPek (2002-2006, 2007-2010 eta 2011-2014) EAerako ingurumen-arloko helburu eta konpromisoak zehaztu dituzte hainbat alditan, eta NBALAPa, hasierako dokumentuak egin zirenetik, programa horietara egokitu behar izan da horiek betetzeko ekarpen gisa.

Hortaz, NBALAPak indarrean egon diren IEP guztiei (I.a eta II.a) erantzun behar izan die, baita gaur egun berrikuste-fasean dagoenari ere (III.a), eta, beraz, LAParen helburuen ingurumen-eraginaren analisia dokumentu hauetan guztietan oinarrituko da:

I. IEPari dagokionez:

NBALAPak lotura handia du 4. jomugarekin: "Lurralde-oreka eta mugikortasuna, ikuspegi komuna". Jomuga horren lehen helburua, lurraldearen erabilera iraunkorra lortzea alegia, besteak beste honela zehazten zen:

- Jarduera sozio-ekonomikoek lurraldean duten banaketa orekatua eta banaketa espaziala hobetzea.
- Landa-espazioa eta espazio naturala balioz horni dadin sustatzea eta ondoriozko onurez tokian bertan gozatzea.
- Hiri-planeamendua lurralde-antolamenduko tresnetako helburuetara eta iraunkortasun-irizpideetara egoki dadin sustatzea.

Helburu horri lotuta eman zen adierazgarrientzat NBALAParen ingurumen-inpaktu positiboa, batez ere “Balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintzako zonen eta landazabalaren” definizioaren ondorioz.

Gainera, I. IEParen beste helburu eta konpromiso batzuk nabarmendu ziren, hain zuzen ere LAParen eduki jakin batzuk nolabait ere lagungarri izango zituztelakoan:

I. IEParen helburuak	Helburu horiek lortzeko lagungarriak diren NBALAParen edukiak
Ingurumenara isurtzen diren gai arriskutsuen eta kutsatzaileen isuriak eta isurketak murriztea.	I. kapitulua, Artezpide orokorrak (10.-22. artikulua) eta Araudiaren 63.-70. artikulua (nekazaritza- eta basogintza-erabileretarako ñabardurak).
Ingurumen-inguruneen kalitatea hobetzea.	“Ingurumen-hobekuntza” erabilera eta antolamendu-kategoriaren definizioa, balio natural handiagoko beste egoera batzuetara birbideratzea dakarrena (Araudiaren 24., 52. eta 70. artikulua).
Baliabide-kontsumoak eta horren ondorioek ingurumenaren karga- eta leheneratze-ahalmena gaindi ez dezaten lortzea eta hazkunde ekonomikoa eta baliabide-erabilera bereiztea.	LAPean proposatutako neurrietako batzuek berriztatze naturalaren tasa ziurtatzeko eta nekazaritza- eta basogintza-jarduerek paisaian eta biodibertsitatean duten inpaktua minimizatzeko konpromisoa dakarte. Halaber, lurzorua baliabidea degradazio itzulezineko prozesuekiko kontserbatzea ziurtatzen du.
Ekosistemak, espezieak eta paisaia zaintzea eta babestea.	Natura-intereseko gunetako, korridore ekologikoetako eta gutxi aldatutako paisaian gainjarritako baldintzatzaileak (Araudiaren IV. eta VI. kapituluak).
Biodibertsitateari buruz ikertzea eta sensibilizatzea.	Nekazaritza-erabilera hainbat ingurumen-proposamenetara baldintzatzea.
Karbono-hustulekuak gehitzea.	Baso-masa mantentzea, Basoak kategoriako oinarritzko irizpidea (50., 51. eta 56. artikulua).
I. IEPko konpromisoak	Konpromiso horiek betetzea errazten duten NBALAParen edukiak
Baso-azalerari eustea eta/edo hori gehitzea, oso onuragarria baita airea garbitzeko, uraren araubide hidrokologikoa neurrian eramateko eta higadura kontrolatzeko.	Basoak kategoria aplikatzea (50., 51. eta 66. artikulua).
Nekazaritza- eta ingurumen-neurriak indartzea eta berariazko lurralde-politikak sartzeko 2006rako 55.000 ha arteko nekazaritza- eta ingurumen-konpromisoak dituen azalera iristeko.	Garai hartan (2000-2006) indarrean zegoen LAPean landa-garapenerako planeko (LGP) lurralde- eta sektore-plangintza artezpideak eta irizpideak txertatzea (A dokumentua, Sektore-testuingurua eta esparru juridikoa).
2004rako higadurak lurralde osorako zer garrantzi zehatz duen jakitea.	Higadura-eredua, higadura potentzialaren hainbat maila bereizten dituen (D dokumentua, higadura).
2006rako, EAEko higaduraren kontrol- eta prebentzio-plan bat prestatzea, baita higadura-fenomenoen eragin handia duten zonak leheneratzeko plan bat ere.	Higadura-arriskua duten gunetako erabilerak arautzeko artezpideak (Araudiaren 56. eta 72. artikulua).
Lurzoru-kontsumoa saihestea dentsitate txikiko garapenen bidez, lurraldea antolatzeko tresnen arabera lurzoru egokienetan eraikuntza-dentsitate handiagoak sartuta.	Udal-planeamenduak bere egin behar duen lurzoruaren kalifikazioko irizpideak eta kontzeptuak bateratzea eta dentsitate txikiko garapen horiek kategoria jakin batzuetara mugatzea.
EAEko korridore ekologikoak ezartzea 2006rako.	Korridore ekologikoak gainjarritako baldintzatzaile berrizat hartu dira, LAAetan jasota daudenez gain (Araudiaren IV. kapitulua eta 75. artikulua).
Baso-antolamenduko planak ezartzea, onura publikoko mendien iraunkortasunerako, 2006. urterako.	Mendiei buruzko 43/2003 Legeko baso-baliabideak antolatzeko planak (BBAP) NBALAParen jardun-ildoekin bat datorren baso-plangintzarako tresna berri gisa ezarri dira, eta, horri dagokionez, NBALAPA BBAP horiei lotuko zaie onartzen direnean (D dokumentua, Jardun-tresnak).
EAEko Paisaia Berezi eta Aparten Katalogoa	NBALAPak gainjarritako baldintzatzaile berrizat hartzen

lantzea 2003. urterako.	ditu gutxi aldatutako paisaia duten zonak, LAAetan dagoeneko bilduta daudenez gain (Araudiaren IV. kapituluak eta 76. artikulua).
EAEko paisaia berezien eta aparten katalogoan bildutako espazioak babesteko eta leheneratzeko plan bereziak ezartzea 2006. urterako, horiek lurralde-antolamenduan behar bezala bideratuta.	NBALAPeko paisaia-eredua (VI. eranskina) eta "Gutxi aldatutako paisaia duten gunek" gainjarritako baldintzatzailea (Araudiaren 60. eta 76. artikulua).
NBALAPa onartzea 2005. urterako, helburu gisa nekazaritza-azalerari eustea txertatuta.	Egiteke
2006rako euskal basogintza- eta zur-arloaren analisi bat prestatzea ahalik eta karbono-helburu egonkor maximoa hobeto errazten duen basogintza zehazteko eta zuraren erabilera iraunkorrak sustatzeko.	Baso-baliabideak antolatzeko planak, LAParen D dokumentuan jasoak; jardun-tresnak; eta basokudeaketa iraunkorrari buruzko arauak onartzeari buruzko aipamenak (A dokumentua, Sektore-testuingurua).

II. IEPari dagokionez (2007-2010):

II. IEParen helburuak	Helburu horiek lortzeko lagungarriak diren NBALAParen edukiak
Uraren kalitate ona	Kategoria hau sortu da: Azaleko uren babesa (Araudiaren 53. artikulua).
Natura-baliabideen kontsumo arduratsua	LAPak planteatutako helburuen artean, hauek aipa daitezke: nekazaritza-lurra definitzea eta babestea, nekazaritza- eta basogintza-jarduera orekatu baterako ezinbesteko baliabide gisa, eta lurralde-antolamendu bat bultzatzea (Araudiaren 1. artikulua).
Lurraldearen erabilera orekatua lortzea	
Energia-kontsumo eta -ekoizpen iraunkor bat sustatzea	Teknika erabilgarri onenak baliatzea nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako erabilerak garatzeko: baliabide-optimizazioa (Araudiaren I., V. eta VI. kapituluak).
Gure dibertsitate biologikoari eustea	LAPak, gainjarritako baldintzatzaileen irismenez, LAAetan babes bereziko kategoria duten gunek mugatzen ditu, hain zuzen ere "Natura-intereseko gunek eta espazioen zerrenda irekia". Gainera, LAPak GKL eta HBBE espazioetara eta RAMSAR hezeguneetara hedatzen du (Araudiaren IV. eta VI. kapituluak).
Klima-aldaketara egokitzea	LAPak, bere edukien artean, zuhaitz-masak babesteko eta sustatzeko premia biltzen du, baita baso-kudeaketa iraunkorraren arauak onartzeko ere. Hori klima-aldaketara egokitzeko printzipioekin bat datorrela irizten zaio (Araudiaren I., III., IV, V. eta VI. kapituluak).
II. IEPko konpromisoak	Konpromiso horiek betetzea errazten duten NBALAParen edukiak
Azaleko ur-masak babestea, hobetzea eta leheneratzea, horien % 80an egoera ekologiko on bat lortzeko.	LAPak, antolamendu-kategorien artean, azaleko uren babesa biltzen du. Zona horiei dagokionez, jardun-irizpidea uren kalitatea zaintzea sustatzera bideratuta dago besteak beste (Araudiaren 53. eta 62. artikulua).
Industria- eta nekazaritza-jardueren berezko hartuneen eskaria % 20 murriztea 2001 urtearekiko.	Nekazaritza- eta ingurumen-neurriak sustatzea (PDRSaren irizpideak onartzea) eta nekazaritza- eta basogintza-baliabideak optimizatzea (A dokumentua, Sektore-testuingurua eta esparru juridikoa; eta B dokumentua, Araudia).
Kontsumo elektrikoaren % 29 energia berriztagarriaren eta baterako sorkuntzaren bidez egitea lortzea.	Nekazaritza-ustategiak modernizatzeako neurriak sustatzea: nekazaritza-arloko afektazioaren ebaluazio-protokoloan neurri konpentsatzaileak ematea (D dokumentua, Jardun-tresnak).
Baso autoktonoaren azalera 10.000 ha handitzea 2006an zegoenarekiko.	Basogintza-erabilerak ezartzeko irizpide orokorren artean, hostozabal-plantazioak sustatzea dago (Araudiaren I. V. eta VI. kapituluak).

Biodibertsitatearen babesarekin lotutako nekazaritza- eta ingurumen-neurrietara bideratutako azalera handitzea.	LGPak NBALAPa garatzen den sektore-esparruetako bat bezala hartuta, EAE osoan nekazaritza- eta ingurumen-neurriak hartzeko apustua egin da inplizituki (A dokumentua, Sektore-testuingurua eta esparru juridikoa).
Nekazaritza ekologikora eskainitako azalera handitzea 1.200 ha-tara iritsi arte.	
Baso-ustiapen ziurtatuen 50.000 ha-tara iristea.	NBALAPak baso-kudeaketa iraunkorraren irizpideak barnean hartzea eta BBAPa idaztea (D dokumentua, Jardun-tresnak).
Urtez urte hirigintza-jarduerak artifizialtzen duen ha kopurua murriztea.	Eraikuntza-erabilera debekatu da balio estrategiko handiko landazabalean eta nekazaritzako eta abeltzaintzako antolamendu-kategorian (Araudiaren 62. eta 64. artikulua).
Urtez urte azpiegitura berriak eraikitzeagatik artifizialtzen den ha kopurua murriztea.	Azpiegiturak eraikitzea onartuta dago ia kategoriaz guztietan, baina AAEPa hartu behar da kontuan (Araudiaren 61. eta 62. artikulua; eta D dokumentua, Jardun-tresnak).
EAEk klima-aldaketaren aurrean duen urrakortasuna murriztea	LAPak, bere edukien artean, zuhaitz-masak babesteko eta sustatzeko premia biltzen du, baita baso-kudeaketa iraunkorraren arauak onartzeko ere. Hori klima-aldaketara egokitzeko printzipioekin bat datorrela irizten zaio (Araudiaren II. eta III. tituluak).

III. IEPari dagokionez (2010-2013):

III. IEParen helburuak	Helburu horiek lortzeko lagungarriak diren NBALAParen edukiak
Berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea eta klima-aldaketaren eraginak minimizatzea EAEn.	LAPak helburu horretarako ekarpena egiten du basomasari eutsiz (hori oinarritzako irizpidea da basoetako kategorian). EAEko baso-azalera 396.701 ha-koa da, eta CO ₂ -ko hustuleku gisa jokatzen dutela eta urtean 1,5 Tm inguru hartzen dutela kalkulatu da. (Araudiaren 50., 51. eta 66. artikulua).
Dibertsitate biologikoaren galera gelditzea; ekosistemak leheneratzea eta lurra artifizialtzea mugatzea.	Ingurumen-hobekuntzako kategoriaz gain, LAPak Ingurumen-babesaren erabilera biltzen du besteak beste. Hain zuzen ere, honako jarduera hauen bidezko babes-hobekuntza: hautazko inausketak; kontrolpeko artzaintza; garbiketa, landare-diaren hautazko suntsiketa; plaga eta gaixotasunen tratamendua; birsortze-itxierak; ezpondak birmoldatzea, betiere hobekuntza ekologikoa eta paisaia hobetzeko prozesuak sustatzeko egiten bada; ereite hidraulikoak; hautazko kimatzeak; etab. (Araudiaren 24., 52. eta 70. artikulua).
Baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea.	NBALAP udal-planeamenduak bere egin behar duen lurzoruaren kalifikazioko irizpideak eta kontzeptuak bateratzen ditu eta dentsitate txikiko garapen horiek kategoriaz jakin batzuetara mugatzen ditu. Hortaz, aurrerapena egiten du helburu hori lortzeko prozesuan.
III. IEPko konpromisoak	Konpromiso horiek betetzea errazten duten NBALAParen edukiak
EAEko jarduera/sektore giltzarrien klima-aldaketaren inpaktuen aurrean urrakortasunaren analisia sustatzea.	KABEPak nekazaritza-sektorerako jardun-programa bat biltzen du. Nekazaritza- eta basogintza-sistemetara bideratutako azalerei buruz LAPak ematen dituen datuak lagungarriak dira urrakortasunaren analisi hori egiteko.
Lurraldean habitat naturalek, erdinaturalek edo naturalizatuek okupatutako azalera handitzea, eta horien kontserbazio-egoera etengabe hobetzea.	LAPak emandako lurralde-zonifikazioa lagungarria da azalera hori kuantifikatzeko, eta ingurumen-hobekuntzako kategoriaz esleitzea eta ingurumen-hobekuntzako erabileren proposamena ere bai (onargarriak ia kategoriaz guztietan).
Lurraren artifizialtzea mugatzea.	NBALAPak ematen duen erabilera-araubidea (Araudiaren I., V. eta VI. kapituluak) lurzoru naturalak babestera bideratuta dago, batez ere nekazaritza- eta basogintza-

	lurzoruak babestera, eta bereziki mugatzailea da zona horietan erabilerak onartzeari dagokionez.
Euskal ekonomiaren guztizko produktibitate materiala % 4 hobetzea.	NBALAPak nekazaritzan jardunbide egokiak erabiltzearen premia, nekazaritza- eta ingurumen-neurriak eta nekazaritza-sektoreko ebaluazio-protokoloan bildutako beste neurri batzuk aipatzea, hala nola instalazioen modernizazioa, produktibitate hori hobetzeko lagungarriak izan daitekeena (hainbat: Araudiaren 55. eta 71. artikulua; D dokumentua, Jardun-tresnak;...)
Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen baliozko materialaren tasa % 5 handitzea hurrenez hurren	
Lurraldeko birziklapenean eta hiri-, industria- eta azpiegitura-espazioen berritzean laguntzea lurzoru berriak okupatzearen ordezkotza aukera gisa	LAPak ezartzen dituen lurzoru natural berriak okupatzeko mugak horretara bideratuta daude.
EAEko administrazioen politika eta jardun esanguratsuak prestatzen parte hartzea	NBALAPA EAEko administrazioekin adostasuna bilatuz idatzi izanak, nekazaritzako eskumenak dituzten sailen jardunen ardatz diren politiken barnean funtsezko pieza gisa hartzeak (politika horien osagarri) eta EAEn onartutako ingurumen-irizpideak bere egiteak konpromiso horiek betetzeko bidean aurrera egitea ahalbidetzen du.
Erosketa eta kontratazio publiko berdeko irizpideak txertatzea Eusko Jaurlaritzaren sailetan eta atxikitako sozietate eta erakunde publikoetan, erosketa publiko "esanguratsuen" % 100ean, horientzat ingurumen-irizpide definituak badaude	

5.3. Lurralde-ereduaren eta nekazaritza- eta basogintza-erabileren ingurumen-eraginak

5.3.1. Lurralde-ereduaren definizioaren ingurumen-eraginak

LAParen proposamen nagusiak, EAEn lurraldean kokatzen diren **antolamendu-kategoria eta gainjarrirako baldintzatzaile** batzuk definitzen eta mugatzen datzanak, ingurumen-aldagai ia guztietan afektazioa izan dezake, bereziki lurzorua baliabidera eta horretan oinarritzen diren natura-baliabideetara lotutakoetan: biodibertsitatea, ura eta paisaia.

Diagnostikoari buruzko atalean, LAPak aldagai horietan dituen eraginak aurreratu ziren. Dena den, ondoren zehatzago analizatuko da hori, aurreikus daitekeen inpaktua kategorien arabera sailkatuta:

5.3.1.1. Babestutako natura-guneak

Honako hauek sartzen dira epigrafe honetan:

- Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legean bildutako espazioak, deklaratuak nahiz izapidetze-fasean daudenak; hots:
 - Parke naturalak
 - Babestutako biotopoak
 - Zuhaitz bereziak.

- Natura 2000 Sarea¹⁹: Garrantzi Komunitarioko Lekuak (GKL), Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE).
- Katalogatutako hezegune hauek:
 - Hezeguneetako LAPean sartutako hezegunean (I., II. eta III. taldeak).
 - Nazioarteko garrantzia duten Ramsar hezeguneak.
- Itsasertza Antolatzeko LAPak babestutako gunek (babes berezikoak, ingurumen-hobekuntzakoak eta hiri-hondartzak)
- LAPetako natura-intereseko gunek eta oro har artezpide horiek garatuz lurraldearen zatikako planek babestutako gunek.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserba.
- Txingudi (plan bereziak antolatutako esparrua).

Adierazitako espazioetatik, honako hauek NBALAParen antolamendu-esparrutik atera dira: parke naturalak eta babestutako biotopoak (deklaratutakoak edo deklarazio-prozesuan daudenak), Urdaibaiko Biosfera Erreserba, Txingudi, zona hezeetako I. eta II. multzoetan sartutako hezeguneak, babes bereziko gunek, ingurumen-hobekuntzakoak eta Itsasertza Antolatzeko LAPeko hiri-hondartzak.

Horren ondorioz, espazio horietako bakar baterako ez litzateke sortuko LAPak proposatutako lurralde-ereduaren ondoriozko inpakturik.

Natura-intereseko guneei eta LZPetako babestutako gune gisa txertatzeari dagokienez, NBALAPak LZPekin koordinatzeko modua jasotzen du Araudiaren 4. artikuluan. Hain zuzen ere, aditzera ematen du "*Lurraldearen Zatikako Planak Plan honi nagusituko zaizkio babes bereziko gunek, hirigintza-garapeneko lehentasuneko gunek eta espazio libreak, ekipamenduak edo azpiegituren ekipamenduak definitzean*".

LZPen lehentasun juridikoa, Lurralde Antolamenduari buruzko 4/90 Legeak eta LAAek ezarritakoa, kontuan hartuta, ez da ziurgabetasunik bi tresna horien koordinazioaren inguruan, eta, hortaz, pentsatzen da NBALAPak ez lukeela inpaktu gehigarririk sortuko LZPek babestutako zonetan.

Itsasertza Antolatzeko LAPari dagokionez, NBALAPak plan horretako Babes Berezi Zorrotzeko eta Babes Berezi Bateragarriko Eremuak, Ingurumen-hobekuntzakoak eta hiri-hondartzak atera ditu bere antolamendu-esparrutik. Itsasertza Antolatzeko LAParen gainerako zonetarako, NBALAPak baliozkotzat ematen ditu bere artezpide propioak. Nolanahi ere, ez da inpakturik sortzen babestutako zonen gainean, halakotzat Itsasertza Antolatzeko LAPak identifikatzen dituenak (NBALAPetik ateratakoak) hartuta.

¹⁹ Natura 2000 Sarea martxoaren 11ko 1/2010 Legearen ondoriozko aldaketa baten bitartez sartu zen 16/94 Legean.

Natura 2000 espazioei dagokienez, diagnostikoaren atalean deskribatu denez, izapidetze-fase desberdinetan daude denak, eta hainbaten kasuan, kudeaketa-planen zirriborroak eginda daude (bakar bat ere ez da behin betiko onartu oraindik). NBALAPak bere antolamendu-kategoriai gainjarritako baldintzatzaile gisa biltzen ditu espazio horiek. Horren arabera:

- Espazio horien barnean egingo diren jarduerak Habitategi buruzko 92/43/EE Zuzentarauaren 6. artikuluko 2. atalak ezarritako prebentzio-araubidearen eraginpean daude (42/2007 Legearen 45. artikulua). Hots, enklabe horietan egiten den edozein jardueratarako, kontserbazio-helburuetan izan daitekeen inpaktuaren garrantzia analizatu behar da (tokia izendatzeko aintzat hartutako habitatak eta espezieak eta Natura 2000 Sarearen koherentzia), eta afektazio negatibo esanguratsuak antzematen badira (o, are gehiago, afektazio horiek saihestu ezin badira), jarduerari buruzko "ebaluazio egokia" egin behar da, zuzentarau horretan ezarritako moduan.

Estatuko legediaren arabera (1/2008 Legegintzako Errege Dekretua), "ebaluazio egoki" horri proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedura baten esparruan heldu behar zaio.

- Espazio horien kudeaketa-plan espezifikoak onartuta, LAParen antolamendu-esparrutik aterako dira automatikoki.

Aurrekoari esker, udal-planeamenduaren diseinuan eta gauzatzean Natura 2000 Sarearen inplikazioak egoki aintzat hartzea errazten da. Horren ondorioz, pentsatzen da NBALAPak ez duela inpakturik eragiten babestutako espazio horietan (nolanahi ere, inpaktu positiboa eragiten duela interpreta liteke, lurralde- eta hirigintza-plangintzan Natura 2000 ezartzea errazten duelako).

Azkenik, eta atal honetan orain arte aipatu ez diren hezeguneei dagokienez (hau da, Hezeguneetako LAParen I. eta II. multzoetan —Txingudi barne— eta Urdaibaiko Biosfera Erreserban sartuta ez dauden hezeguneak):

- Nazioarteko garrantzia duten Ramsar hezeguneak beste epigrafe batzuetan bildu dira: Natura 2000 espazioak dira, etab. Hortaz, babesa ziurtatuta dute eta esan daiteke, horren ondorioz, NBALAPak ez duela inpakturi sortzen horiei dagokienez.
- Hezeguneetako LAParen III. multzoko hezeguneak: NBALAPak ez ditu kartografiatzen, azalera txikiko zonak baitira; aldiz, espresuki biltzen du zona horietan hezeguneetako LAParen gomendioak aplikatu behar direla, eta horrek hezegune horiek egoki kudeatzea errazten duela pentsatzen da.

Ondorio gisa, NBALAPak **ez du inpakturik eragiten** deskribatutako natura-espazio babestuetan, edo inpaktu horiek **bateragarriak** dira; are gehiago, **positiboak** direla esan daiteke, emandako jarraibideei eta kartografiari esker udal-planeamenduak espazio horiek egoki tratatzea errazten baita.

5.3.1.2. Landaredia eta habitatak

NBALAPak EAEko ia lurzoru urbanizaezin osoa hartzen du barnean, hau da, lurraldean dauden landare-formazio gehienak biltzen dira, eta horien artean, garrantzi komunitarioko habitat gisa sailkatuta daude.

LAParen antolamendu-kategorien proposamena lurzoruaren erabileren arabera egiten da, baina "urban handien" sistema baten bitartez, azalera heterogeneoak aintzat hartzen baititu (LAPak Araudiaren 48., 50. eta 52. artikuluetan —kategorien definizioa— adierazten duenez).

Kategorien definizio horretatik eta horietan aplikatzekoa den arauditik (nekazaritza- eta basogintza-erabileretarako ñabardurak barne) ondorioztatzen da NBALAPak elementu naturalak —baso txikiak, ibai-ibilguak, etab.— baliagarri bihurtu nahi dituela eta nekazaritza- eta basogintza-jarduerarekin bateragarria egin. Kontsiderazio horrek garrantzi berezia du LAPren xedapen lotesleetan: balio handia kategorian eta onura publikoko mendiak eta mendi babesleak gainjarritako baldintzatzailean.

Aurrekoaren adibide gisa, aditzera eman behar da erabilera-matrizeak balio estrategiko handian, Mendia gainkategorian eta Ingurumen-hobekuntza kategorian duen izaera mugatzailea

Era berean, erabilerekiko ñabarduretan, basogintza-erabilerarako ñabarduren barruan, balio estrategiko handian, LAPak hainbat elementuren garrantzia nabarmentzen du, hala urbazter, baso txiki babesle eta heskaiena, baita makaldiena ere, urbazterrak babesten dituztelako.

Era horretako xedapenak lotesleak ez diren bestelako antolamendu-kategorietan ere biltzen dira, hala nola baso-artzaintzaren premia zuhaitzak eta zuhaitzen leheneratzea arriskuan jarri gabe (abeltzaintza-erabilerarako ñabardurak Basoa-Mendi meatsa kategorian); zuhaitzi-azalera sustatzeko lehentasunezko neurriak, betiere natura-intereseko elementuei eragiten ez bazaie (basogintza-erabilerarako ñabardurak, Basoak kategorian); praktika tradizional jakin batzuk erabiltzeak, hala nola larreak mantentzeko eta hobetzeko sua erabiltzeak duen inpaktuaren balorazio ekologikoaren premia (abeltzaintza-erabilerarako ñabardurak Larre menditarrak kategorian); etab.

Bestalde, Habitategi buruzko 92/43/EE Zuzentarauaren I. eranskinak (baita Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen I. eranskinak ere) zuzenean nekazaritza- eta basogintza-erabileren mende dauden garrantzi komunitarioko habitatak hartzen ditu barnean. Kasurik nabariena larre-zonak dira (6170, 6210(*: lehentasunezkoa orkidea nabarmenak badaude), 6220*, 6230*, 6510, etab.), bertan egiten den abeltzaintza-erabileraren mende daudenak; dena den, badira beste kasu batzuk: sastrakadi-zonak abeltzaintza-erabilera neurritsuaren mende ere badaudenak, baso autoktonoak beren egiturari eusteko giza ekintza ezinbestekoa dutenak, etab. Horrela, beraz, zona horietan nekazaritza-

eta basogintza-erabilera tradizionaleri eusteak habitatak kontserbazio-egoera onean zaintzea sustatzen du, bai Natura 2000 espazioen barnean, bai haietatik kanpo. Azken kasu horretan, adierazitako Zuzentarauaren 11. artikulua xedatzen duen "zaintza" betetzen da.

Aurrekoa gorabehera, NBALAPak ez du babes bereziko kategoriarik, eta zeregin hori —LAAek ezartzen dutenez— LZPen eta udal-planeamenduaren eskuetan uzten du. LZPek dagoeneko definituak dituzte, neurri handiagoan edo txikiagoan, babestutako gune horiek. Alabaina, udalek NBALAPak beste kategoria batzuetan sartzen dituen ondoen kontserbatutako eta adierazgarritasun-maila handieneko zonak (kategoriak lurzoruaren erabileren arabera egiten baititu) babes bereziko kategorian bildu behar dituzte. Definizio hori errazteko, NBALAPak espresuki biltzen du (46. artikulua) zer enklabe edo landare-formazio sartu behar dituen udal-planeamendua kategoria horretan, LAAek ezarritakoaren arabera; era berean, artezpide horiei jarraiki, gaur egun zona horietan gara daitezkeen erabilera tradizionalak hartzen ditu aintzat, nekazaritza- eta basogintza-erabilerak barne (kategoria horretan arautzeko matrize oso mugatzailea ematen duten arren, LAAek baliabideen aprobetxamendu iraunkorra egiten den tokietan horrelako aprobetxamendua bultzatzeko premia ezartzen dute).

Bi ondorio atera dira NBALAPak proposatzen duen lurralde-ereduari dagokionez:

- Inpaktu **bateragarria** du intereseko landare-formazioetan (baso autoktonoetan, heskai naturaletan eta abarretan), baliagarri bihurtu behar diren eta nahitaezko zaintza behar duten elementutzat hartzen baititu espresuki.
- Inpaktu hori **positiboa** da lurraldean egiten den nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako zuzeneko erabileraren mende dauden landare-formazioen kasuan. Larreetako garrantzi komunitarioko habitatak nabarmentzen dira, abeltzaintza-manekuari zuzenean loturik daudenak.

5.3.1.3. Flora- eta fauna-espezieak

NBALAPeko balio estrategiko handiko zonak garrantzi komunitarioko, mehatxatuta dauden eta/edo onartutako kudeaketa-planetan sartutako flora eta fauna espezieetarako interes bereziko guneekin teilaka daitezke (IITaren 3. atalean deskribatuta dagoen moduan), batez ere 2 arrazoiengatik:

- Eskala-alderdiak
- Irizpide-desberdintasuna zonak definitzeko: LAPak proposatutako zonifikazioa lurzoruaren erabileretan oinarrituta definitutako antolamendu-kategorien arabera da; aldiz, faunarentzat eta florarentzat interesgarriak diren zonen definizioa populazioak banatzeko irizpide ekologikoen arabera da (kokapena, lurraldea nola erabiltzen duten...).

Hala ere, balio estrategiko handirako nahiz LAPak definitutako gainerako kategorietarako, kategoria horietan erabilera arautzeak ez dakar erabilerak

baimentzerik, baizik eta zona bakoitza kudeatzeko muga bat, eta, hortaz, espezieei lotutako araudia (kudeaketa-planak eta beste ingurumen- nahiz sektore-araudi bat) muga gehigarri bat da.

Bestalde, NBALAPean gainjarritako baldintzatzaileak sartzeak, hala nola Natura 2000 Sarea (habitataz nahiz espezieak babesteari lotua), eta EAEko nahiz Arabako lurralde historikoko korridore ekologikoen sareak flora- eta fauna-espezieen presentziarako eta fauna-espezieen sakabanatze eta loturarako esanguratsuenak diren zonak onartzen eta babesten dituzte, baita zona horietan jarduerak mugatu ere.

Aurreko guztiagatik, eta NBALAPak landa-lurzoruaren tratamendu egoki eta koherentea proposatzen duenez gero, pentsatzen da lurralde-ereduaren inpaktua **bateragarria** dela EAEn dauden interes handieneko flora- eta fauna-espezieen zaintzarekin.

5.3.1.4. Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak.

Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak lurralde-antolamenduko dokumentu batean, hala nola NBALAPean, biltzea (kontuan hartu behar da bertan, gainjarritako baldintzatzaile gisa ez ezik Mendiei buruzko 43/2003 Legeari—esparru juridikoa— eta basoak antolatzeko planei —jardun-tresnak— buruzko atalak ere biltzen direla) eta, gainera, aplikatu beharreko araudia adieraztea lagungarria izango da udal-planeamenduak espazio horiek eta bertan aplikatu beharreko arategiak egoki aintzat hartzeko, eta, horri esker, aurrera egingo da gure mendien kudeaketa iraunkorrean.

Hortaz, LAPak proposatutako lurralde-ereduak aldagai horretan inpaktu **positiboa** duela irizten zaio.

5.3.1.5. Jabari hidrauliko publikoa eta zortasun-zonak.

NBALAPak "Azaleko uren babesa" kategoria biltzen du. Kategoria hori EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako EAEko ibaiak eta errekek eta horien babes-eremuak osatzen dute. Gainera, aditzera ematen du bi LAP horien teilakatzeko-zonetan (hain zuzen ere kategoria honetako nahiz beste batzuetako teilakatzeko-zonetan, eskala-arrazoia medio) lehentasuna emango zaiela ibai eta erreken LAPeko xedapenei.

Bestalde, NBALAParen A dokumentuko 4. atalak "Esparru juridikoa" esplizituki biltzen du JHPa eta horren babes-zona eraginpean hartzen dituzten zehaztapenak Uraren Legearen eraginpekotzat hartzen dira.

Hori horrela, NBALAPak JHParen eta horren babes-zortasuneko zonen gainean inpaktuak saihesteko kautelak ezartzen ditu, eta, hortaz, aldagai horiekiko inpaktua **bateragarritzat** jotzen da.

5.3.1.6. Itsasoko eta lehorreko jabari publikoa eta zortasun-zonak.

NBALAPak bere antolamendu-esparrutik Itsasertza Antolatzeko LAPak babestutako zonak, ILJPea sartutakoak, ateratzen ditu (hala ere, esan dugunez, eguneratu egin behar da ingurumen-hobekuntzako guneak ere ateratzeko). Gainera, NBALAParen A dokumentuko 4. atalak "Esparru juridikoa" esplizituki biltzen du ILJPa eta horren babes-zona eraginpean hartzen dituzten zehaztapenak Kostaldeein buruzko Legearen eraginpekotzat hartzen dira.

Hori horrela, NBALAPak ILJParen eta horren babes-zortasuneko zonen gainean inpaktuak saihesteko kautelak ezartzen ditu, eta, hortaz, aldagai horiekiko inpaktua **bateragarritzat** jotzen da.

5.3.1.7. Akuiferoen kutsadurarekiko sentikorrak diren zonak.

Nekazaritzako jokabide egokien kodea nahitaez aplikatu behar zaien zona horiek NBALAPean aintzat hartzea funtsezkoa da zona horretan dagoen balio estrategiko handiko lurzorua nahiz han egiten diren jarduerak akuiferoa babesteko moduan antolatzeko. LAPak, gainera, jokabide egokien kode hori baldintzatzaile gainjarri hori dagokien zona guztietan aplikatzeko irizpidea jasotzen du, eta, hortaz, babes-araubidea akuiferoak berriz ere kargatzeko kartografiatutako zona guztietara hedatzen du.

Hortaz, LAPak proposatutako lurralde-ereduak aldagai horretan inpaktu **positiboa** izan dezakeela irizten zaio. Nolanahi ere, nekazaritza- eta basogintza-erabilereko zona horietan inpaktuak erabiltzeko aukera aurrerago aztertu da IIT honetan (5.3.2. atala).

5.3.1.8. Korridore ekologikoen sarea.

NBALAPak EAEko eta Arabako lurralde historikoko korridore ekologikoen sareak biltzen ditu antolamendu-kategoriei gainjarritako baldintzatzaile gisa.

Aurrerapen-fasean ere, bi sareak diseinatu baino lehen, NBALAPak lotura-eredu bat biltzen zuen gainjarritako baldintzatzaile hori eratzeko, eta horrela agerian utzi du EAEn lotura ekologikoa lortzeko interesa.

Hortaz, LAPak proposatutako lurralde-ereduak aldagai horretan inpaktu **positiboa** sortzen duela irizten zaio.

Gainera, NBALAPa behin-behinean onartzeko dokumentuan egindako ingurumen-analisiari esker, Araudiaren 75. artikuluan planteatu du komenigarria dela udal-planeamenduak bere tokiko lotura ekologikoko sare propioa definitzeko analisi xehea egitea.

5.3.1.9. Paisaia bereziak eta apartak.

NBALAPak, hasiera-hasierako faseetatik, gutxi aldatutako paisaia duten zonak, izen bereko gainjarritako baldintzatzailea osatuko dutenak, nabarmentzera bideratutako paisaia-eredu bat diseinatu du. EAEko Paisaia Berezi eta Aparten Katalogoaren

egungo aurreproiektua onartutakoan, NBALAPak —gainjarritako baldintzatzailearen definizioan (10.6 atala) biltzen duenez— automatikoki barneratuko du bere kartografia.

Arabako lurralde historikoaren kasuan —han badago katalogo bat onartuta—, hau ematen da aditzera: “(LAParen) *kartografiak aintzat har dezake*”.

Hori horrela eta LAPean paisaia-intereseko elementu naturalak —heskaiak, baso txikiak, etab.— aintzat hartuta (elementu horiek landazabal atlantikoaren paisaia tipikoa osatzen dute eta, besteak beste, nekazaritza intentsiboko zonetan heterogeneotasuna sartzen dute), NBALAPak EAeko paisaia babesten aurrera egiteko nahikoa kautela ezartzen ditu. Hortaz, aldagai horrekiko inpaktua **positibo** gisa kalifikatu da.

5.3.1.10. Arrisku naturalak (uholde-arriskua, higadura) dituzten gunek.

Nekazaritza- eta basogintza-jarduera tradizionalak hainbat arrisku izan ditzakete, hala nola uholdeak izatekoa: askotan, urpean gera daitezkeen ibai-ibarretan kokatzen dira, oso gune emankorrak baitira; baina noizean behin edo aldiro uhaldiak izaten dituzte. Jardueraren izaerak ez dakar ibai-egitura aldatzea eta, hortaz, ez du uholde-arrisku gehigarri sortzen. Nolanahi ere, NBALAPak azaleko uren babesa kategoria biltzen du araudi eta arreta-neurri bereziak dituzten ibai-ibar horiek —Ibai eta erreken LAPean sartuta daude— barnean hartzeko.

Era berean, Ibai eta erreken LAP horrek definitzen eta zonifikatzen ditu zona urperagarriak, betiere NBALAPak Araudiaren 54. artikuluan —Gainjarritako Baldintzatzaileen Sistematizazioa— xedatutakoari jarraiki. Hortaz, zona horietako kartografia eta xedapenak antolamendu-tresna horri atxikitzen zaizkio.

Horren ondorioz, erabaki da NBALAPak proposatzen duen lurralde-ereduak aldagai horrekin **bateragarria** den ereduak proposatzen duela eta ez dakarrela uholde-arriskuagatik inpaktu gehigarri. Gainera, eta IIT honen beste atal batzuetan bilduta dagoenez, nekazaritza- eta basogintza-jarduerak zona urperagarriekin bateragarriak izaten dira kasu askotan eta ez dute kalte gehigarri ekartzen, kontrakoa baizik, uhaldiak geruzatzeko zona bat ahalbidetzen baitute.

Higadura-arriskuari dagokionez, LAPak, aurrerapen-fasetik, Gune higagarriak gainjarritako baldintzatzailea osatzen duen higadura-eredua ematen du. Higadura-fenomenoak sortzeko aukera handia duten gune horietan, LAPak honako irizpide hauek baliatuz mugatzen du jarduera:

- Zuhaitz- eta zuhaixka-estaldura babes- eta leheneratze-irizpidez mantentzea, edo estaldura hori sartzea edo zabaltzea, landaredi-estaldura meatsa izanez gero.
- Lurzoruaren egonkortasunean eragina duten jarduerarik ez egitea, eta nekazaritzako eta basogintzako jarduerak ahalik eta gehien zaintzea.
- Hidrologia- eta baso-kudeaketako planak egitea zona horietako jarduketetarako.

Horren ondorioz, LAPak proposatutako lurralde-ereduak inpaktu **positiboa** du higadura-arriskua duten zonetan; izan ere, zona horietan egin daitezkeen jarduerak mugatzen ditu dagokion gainjarritako baldintzatzailerak eta horri lotutako irizpideak atxikita.

NBALAPak proposatutako lurralde-eredutik eratorritako inpaktuen laburpen-taula:

		LURRALDE EREDUAREN LOTUTAKO OSAGIAK					ESPERO DEN INPAKTUA	Oharrak
		Antolamendu-kategoriak	Gainjarritako baldintzatzaileak	Kategorietako erabilerak arautzea eta baldintzatzaileen artezpideak	Nekazaritza-eta basogintza-erabileretarako ñabardurak	Beste batzuk		
Babestutako naturaguneak	Parke naturalak							
	Babestutako biotopoak							
	Zuhaitz bereziak							
	Natura 2000 Sarea		x	x			Bateragarria/Positiboa	
	Hezeguneetako LAParen I. eta II. multzoak							
	Hezeguneetako LAParen III. multzoa					x	Positiboa	NBALAParen eta Hezeguneetako LAParen arteko koordinazioan bildua.
	Ramsar hezeguneak							Beste babes-figura batzuen eraginpeko hezeguneak, beren zaintza arautzen dutenak.
	Itsasertza Antolatzeko LAPak babestutako guneak							(1) NBALAPetik Itsasertza Antolatzeko LAPeko ingurumen-hobekuntzako zonak ateratzeko premia eta (2) Itsasertza Antolatzeko LAPak babesten ez dituen guneetan harekiko koordinazioa berrikustekoa.
	ING (LAA) eta LZPek babestutako zonak		x				Bateragarria/Positiboa	LZPetako gune babestuak biltzeko zailtasunak: interpretazio kartografikoa tratatzea, heterogeneotasuna "babestutako guneak" kontzeptuan.
	Urdaibai BE							
Txingudi (Plan berezia)								
Landaredia eta habitatak	Landaredia eta IKH ²⁰ interesgarriak: baso txikiak, heskaiak, etab.	x		x	x		Bateragarria	NBALAPean natura-balio handieneko elementuak aukeratzeko artezpideak sar litezke eta udal-planeamenduak babes bereziko kategorian txertatzea.
	Nekazaritza- eta basogintza-jarduerari zuzenean lotutako landaredia eta IKHak	x		x	x		Positiboa	Larretako habitatak nabarmentzen dira, baita, hala ere, jarduera tradizionalen mende dauden sastrakadiak eta basoak ere
Flora- eta fauna-espezieak	Garrantzi komunitariokoak	x	x	x			Bateragarria	Kudeaketa-planak LAParen erabilera-araudia kategoria guztietan betetzeko gehigarri bat dira.
	AEEZ ²¹	x	x	x			Bateragarria	
	Kudeaketa-planak onartuta dituzten espezieak	x	x	x			Bateragarria	
Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak			x	x	x	x	Positiboa	LAPak lotutako edukiak biltzen ditu: Mendiei buruzko Legea eta BBAPa
JHPa eta zortasun-zonak		x	x	x		x	Bateragarria	NBALAParen eta Ibai eta Erreken LAParen arteko koordinazioan eta esparru juridikoan sartua.
ILJPa eta zortasun-zonak			x	x		x	Bateragarria	NBALAParen eta Itsasertza Antolatzeko LAParen arteko koordinazioan eta esparru juridikoan partzialki sartua.
Akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren zonak			x	x			Positiboa	LAPak zona horietan babes-araudia zabaltzea proposatzen du.
Korridore ekologikoen sarea			x	x		x	Positiboa	Korridore ekologikoen sarearen eranskina. Lotura-eredua NBALAParen lehen bertsioetataik.
Paisaia bereziak eta apartak			x	x		x	Positiboa	Gutxi aldatutako paisaia duten zonen ereduaren eranskina. EAEko eta Arabako paisaiaren katalogoak aintzat hartzea.
Arriskua	Gune urperagarriak		x	x		x	Bateragarria	Ibai eta Erreken LAPera jotzea, NBALAParen aldaketa automatikoa zona urperagarrietan.
	Gune higagarriak		x	x		x	Positiboa	Higadura-eredua.

Oharra: grisez ilunduta bildu dira inpakturik antzeman ez zaien elementuak.

²⁰ GKH: Garrantzi komunitarioko habitatak (92/43/EE Zuzentarauaren I. eranskina eta 42/2007 Legearen I. eranskina).

²¹ AEEZ: Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa.

5.3.2. LAPean bildutako nekazaritza- eta basogintza-erabileren ingurumen-eraginak

NBALAPak ez ditu definitzen nekazaritza- eta basogintza-jarduerak garatzeko modua eta mugak, berariazko bere tresnek (dekretuek, foru-arauek, etab.) arautzen dituztenak. Nolanahi ere, eta **NBALAPak lurzorua ren egungo erabileren aldaketak inoiz sustatzen ez dituen** arren, IIT honek interesgarritzat jo du sektoreko ingurumen-ondorio edo -arazoen aurretziazko identifikazio bati heltzea.

Helburu nagusia da, batetik, LAPak inpaktu orokor horiek minimizatzea bultzatzeko proposamenen bat egiten ote duen identifikatzea, eta bestetik, IIT honek, edo hala badagokio LAPak, beren ingurumen-portaera hobetzeko gomendio gehigarriak zer kasutan eman litzaketen antzematea.

Lan-eskalak zehaztaperen-falta dakar ekintzen proiektuaren mailan; era berean, inpaktuak zorrotz eta zehatz ebaluatzea eragozten du; eta gainera, ebaluazio orokorra egitera behartzen du.

Kontuan hartu behar da hemen adierazitako erabileretako batzuei ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaiela, banakakoa edo sinplifikatua, eta, hortaz, dagokion ebaluazio-proiektua egin behar dela.

Inpaktuak identifikatutakoan, haien garrantzia, intentsitatea eta hedapena zehazten da. Ondoren, honako nolakotasun hauen arabera ezaugarritzen dira:

- Izaera: Negatiboa (-), positiboa (+), eta ez-esanguratsua (EE).
- Garrantzia/intentsitatea: adierazleen bitartez, parametro horiek afektazioaren mailak definitzen dituzte. Garrantzia eraginpeko faktorearen kantitatea da eta intentsitatea, berriz, eragin-maila.
- Proiektzioa espazioan: Haien eragina lokala edo hedatua den.
- Proiektzioa denboran (unea): Epe labur, ertain edo luzera.
- Iraupena: Aldi baterakoa edo iraunkorra.
- Itzulgarritasuna: egoera eta jarduerak eraginpean hartutako hasierako funtzioak leheneratzeko eta berreskuratzeko gaitasuna da.
- Leheneragarritasuna: neurri zuzentzaileak aplikatzeko aukera.
- Sinergia: Eragina sinplea, metagarria edo sinergikoa den.

Ezaugarri horiek eta ingurunean duten esanahia kontuan hartuta, eratorritako larritasuna adierazten da, aurreko atalean erabilitako kalifikazio-eskala bera baliatuz: Bateragarria, neurritsua, larria, kritikoa.

IIT honen 1.6 atalean deskribatu dugun inpaktuak identifikatzeko matrizea gidoi gisa hartuta, ekintzen eta ingurumen-faktoreen arteko elkarreragin negatiboak eta/edo positiboak deskribatzen dira.

5.3.2.1. Inpaktua lurzoruan

Sektore-jarduerek lurzoruan duten inpaktu negatiboen artean, basogintza-sektorekoak dira nagusi; ondoren, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorekoak daude.

Basogintza-sektorean, baso-masa finkatzeko fasea, masa ateratzeko edo erauzteko fasea eta baso-bide berriak egitea identifikatzen dira inpaktu-faktore gisa.

Foru Aldundiek legedi propioa dute, mendiaren prestakuntza mekanizatua, zurgaietarako aprobetxamendua eta pistak egitea mugatzeko. Honako taula honetan, muga horiek laburbildu dira.

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Prestakuntza mekanizatua		
<p><u>11/2007 Foru Araua</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Makineria astunik, gurpildunik eta katedunik ez m>% 35 denean. ▪ Debekatuta dago lur-lantzeak egitea, hala nola desugerketak, aldapa handietan lurpea sakon lantzea edo antzekoak egitea. 	<p><u>52/1995 Foru Dekretua</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Makineriarik ez m>% 60 denean ▪ Sastraka-kentzerik ez m>% 50 denean ▪ Zulaketa mekanikorik ez m>% 60 denean ▪ Lurpea lantzerik ez 30<m<% 45 denean <p><u>1152/2009 Foru Agindua</u> (Laguntza-planaren baldintzatzaileak)</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hondakin-bilketa mekanizatua eta azpizoladura lineala m>% 30 denean ▪ Hondakin-bilketa mekanizatua eta zulaketa mekanizatua 30<m<% 45 denean ▪ Atzerakako hondeamakinak soilik m>% 45 bada 	<p><u>30/2003 Foru Araua</u> <u>18/2007 Foru Araua</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Lurpea lantzerik ez m>% 30 denean ▪ Makineria autopropultsatuturik ez (atzerakako hondeamakina izan ezik) m>% 60 denean
Zurgaietarako aprobetxamenduak		
<p><u>Mendiei buruzko 11/2007 Foru Araua.</u></p> <p>Egoera meteorologiko txarretan, aprobetxamendua eta zura baso-bideetan barrena ateratzeko jarduera geldiarazi daiteke, lurzorua eta pisten trinkotasuna eta higadura gutxitzeko.</p>	<p><u>Mendiei buruzko 3/94 Foru Araua eta hura aldatzen duen 3/2007 Foru Araua</u></p> <p>Baso-aprobetxamenduak orain dauden pista, bide edo narra-bideetan barrena aterako dira</p>	<p><u>Mendiei buruzko 7/06 Foru Araua</u></p> <p>Lehendik dauden bideak eta pistak erabiliko dira, eta garraiolariak egoera onean eduki beharko dituzte.</p>

Pista berriak egitea		
<u>112/2008 Foru Dekretua</u> Pista berriak egiteko laguntzak eskuratzeko, trazadurak batez beste % 12tik beherako malda eduki behar du eta gehienez ere % 16tik beherakoa lurzoru sendotu gabeak irekitzeko.	<u>2/2009 Foru Dekretua</u> Pista berriak egiteko laguntzak eskuratzeko, trazadurak batez beste % 12tik beherako malda eduki behar du eta gehienez ere % 16tik beherakoa edozein tartetan.	<u>77/2008 Foru Dekretua</u> Bide berriak egiteko laguntzak eskuratzeko, trazadurak batez beste % 12tik beherako malda eduki behar du eta gehienez ere % 16tik beherakoa.

Horrez gain, LAPak gune higagarriak hartzen ditu gainjarritako baldintzatzailatzat eta, dioenez, arrisku handikoetan zuhaitz- eta zuhaixka-estaldurari eutsiko zaio eta zona horietan jardunak egiteko hidrologia- eta baso-kudeaketarako planak egin beharko dira.

Sektoreak indarrean dagoen araudia zorrotz aplikatuz inpaktu hori minimizatzeko erantzuna ematen duen arren, erabiltzen den teknikaren eta makineriaren arabera **lurzoru-galera** handia gerta daiteke zenbait kasutan. Hortaz, inpaktua honela kalifikatzen da: negatiboa, garrantzi ertain-handikoa (kasuaren arabera), hedatua, aldi baterakoa, itzulezina, leheneraezina eta sinergikoa. Eta balorazioari dagokionez, **neurritsua**.

Nekazaritza-sektorean, lurzoru-ean inpaktua duen faktore gisa luberritzeak eta ureztatze-nekazaritzako obra eta instalazioak (ureztatze-putzuak barne) identifikatu dira.

Malda handietan lurzorua luberritzeak eta lantzeak lurzoru-galera handia eragiten dute. Lurzorua higaduraren kontra babesteko neurriak hartu behar dira, egitura organo eta fisikoari eutsiz.

Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak ingurumen-inpaktuko ebaluazio sinplifikatuko prozeduraren pean jarritako jardueren artean (IC eranskina) lurzati-kontzentrazioko proiektuak eta nekazaritzarako baliabide hidrikoen kudeaketakoak, lurra ureztatzea eta drainatzea barne.

Hortaz, nahikoa bide daude (inpaktuaren ebaluazioa) jarduera horien inpaktua baloratzeko eta lurzorua higaduraren kontra babesteko eta lurzoruaren egitura organikoari eusteko neurriak hartzeko.

Nekazaritza-sektorean **lurzorua galtzea** inpaktu negatiboa da, garrantzi ertain-handikoa (kasuaren arabera), hedatua, epe ertainekoa, aldi baterakoa, itzulezina, leheneraezina eta sinergikoa, eta, balorazioari dagokionez, **neurritsua**.

Abeltzaintza-sektorean, simaurtegiak, txiza-putzuak eta uraskak identifikatzen dira lurzoru-ean inpaktua duten faktore gisa. Azken horiek lurzoru-galera eragindako inpaktuak sor ditzakete, azken horien behin eta berriz zapaltzearen ondorioz. Horrek higadura-fenomenoak eragiten ditu, batez ere uraskak egokiak ez diren tokietan jartzen badira.

Abeltzaintza-jarduerak eragindako **lurzoru-galeragatiko** inpaktua honela kalifikatu da: negatiboa, garrantzi ertainekoa, puntuala, epe ertainekoa, aldi baterakoa, itzulgarria, leheneragarria eta ez-sinergikoa; eta, balorazioari dagokionez, **bateragarria**.

Simaurtegiek eta txiza-putzuek lurzorua kutsatuko dute eta lixibiatuak geruza sakonetaraino iritsiko dira eta agian baita lur azpiko akuiferoetaraino ere.

EAEko Nekazaritzako Jokabide Egokien Kodea kontuan hartuta —akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren zonetan eta LGPko nekazaritza- eta ingurumen-neurriei heltzen dieten ustiategietan soilik bete behar dute nahitaez—, inpaktuak proportzio txikian murriztuko dira, baina ustiategi ugarian eutsiko zaie oraindik.

Kodea legez urrakortzat emandako zonetan bakarrik da nahitaezkoa; dena den, NBALAPak jokabide egokien kodea akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren gainerako zonetara hedatzea proposatzen du, babesean beste urrats bat eginez.

Simaurrak eta txizak **lurzorua kutsatzea** honela kalifikatu da: inpaktu negatiboa, garrantzi ertain-handikoa, partziala, epe luzerakoa, iraunkorra, epe luzera itzulgarria, epe luzera lehengoragarria, sinergikoa eta metagarria. Eta balorazioari dagokionez, **neurritsua** da.

5.3.2.2. Inpaktua uretan

Sektore-jarduerak uretan dituzten inpaktu negatiboen artean, nekazaritza-sektorekoak nabarmentzen dira; ondoren, abeltzaintza-sektorekoak; eta, azkenik, nekazaritza-industrietatik eratorritakoak.

Nekazaritza-sektorean, honako hauek identifikatzen dira inpaktu-faktore gisa: ongarritzea, pestizidak eta produktu fitosanitarioak erabiltzea, drainatzeak eta lehorketak, eta ureztatze-nekazaritzarako obrak eta instalazioak.

Ongarritzeak eta pestizidak eta produktu fitosanitarioak erabiltzeak lurpeko urak kutsatzea eragin dezakete. Akuiferoak kutsatzeko aukera handienak kutsadurarekiko urrakorrak diren zonetan izaten dira. EAEn, Gasteizko Unitate Hidrogeologikoa —ekialdeko sektorea— halakotzat definitu da. Zona honetan 390/1998 Dekretua aplikatu behar da. Hortaz, nekazaritza-jardueratik eratorritako nitratoek eragindako ur-kutsadurarekiko urrakorrak diren zonen deklaraziorako arauak eman dira. Halaber, dekretu horretan EAEko Nekazaritzako Jokabide Egokien Kodea onartu da.

Aurreko puntuan esan denez, kodea legez urrakortzat emandako zonetan bakarrik da nahitaezkoa; dena den, NBALAPak jokabide egokien kodea akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren gainerako zonetara hedatzea proposatzen du, babesean beste urrats bat eginez.

Aurreko guztia gorabehera, **lur azpiko uren kutsadura** honela kalifikatu da: inpaktu negatiboa, garrantzi ertain-handikoa, partziala, epe luzerakoa, iraunkorra,

itzulgarria epe luzera, leheneragarria epe luzera, sinergikoa eta metagarria. Eta balorazioari dagokionez, **neurritsua** da.

Bestalde, nekazaritzarako obra eta instalazioek gehiegizko **ur-eskariei** lotutako inpaktuak eragin ditzakete. Eta horiek behar bezala dimentsionatuta ez badaude, litekeena da azpiegitura gehiago egin behar izatea (urtegia, eroanbideak, kanalak, lurzati-kontzentrazioa, etab.).

Azpiegitura berrien kasuan, ingurumen-inpaktuko ebaluazio sinplifikatuaren pean jartzen diren proiektuak izan ohi dira, eta proiektu horietan, hala badagokio, neurri zuzentzailea aplikatu behar ote diren baloratzen da.

Oro har, inpaktua negatiboa da, garrantzi ertainekoa, puntuala, epe luzerakoa, iraunkorra, itzulgarria, leheneragarria eta sinergikoa, eta, balorazioari dagokionez, **bateragarria**. Hala ere, inpaktu neurritsuko kasuak ere izan daitezke.

Abeltzaintza-sektorean, honako hauek identifikatu dira inpaktu-faktore gisa: produktu fitosanitarioak erabiltzea, ongarritzea, simaurtegiak eta txiza-putzuak, eta uraska eta haien hartzeak.

Inpaktuen artean, kontrolatu gabeko hartzeetan gehiegizko eskariak eta lurpeko uren kutsadura nabarmentzen dira. Lehen inpaktua Uraren Legeak eta hori garatzen duen Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak arautzen dute. Erregelamendu horrek hartzeak arautzen ditu (3. kapitulua. Baimenak eta emakidak), eta, hortaz, inpaktu ez-esanguratsua sortuko duela irizten zaio.

Lurpeko uren kutsadurari dagokionez, aditzera eman behar da produktu fitosanitarioak eta ongarririk erabiltzea Nekazaritzako Jokabide Egokien Kodea onartzen duen 390/1998 Dekretuan arautzen dela. Era berean, simaurtegiak eta txiza-putzuak 114/2004 Dekretuaren eraginpeko sailkatutako jarduera bat da (dekretu horrek abeltzaintza-ustiategietako arau teknikoak, higiene- eta osasun-arlokoak eta ingurumenekoak ezartzen ditu).

Aplikatzekoa den sektoreko araudi zabalak inpaktuari maila onargarrian eusten dioten estandar jakin batzuk betetzea ziurtatzen du.

Oro har, **lurpeko uren kutsadura** inpaktu negatiboa da, garrantzi ertainekoa, hedapen partzialekoa, epe luzerakoa, iraunkorra, itzulgarria, leheneragarria eta sinergikoa. Eta balorazioari dagokionez, **bateragarria**.

Azkenik, nekazaritzako eta basogintzako industria-sektorean, nekazaritzako elikagaien lehen eta bigarren eraldaketako industriak identifikatu dira inpaktu-faktore gisa.

Kontserbagintzatik eta nekazaritza- eta basogintza-sektoreari lotutako industrietatik eratorritako inpaktuek ur-eskariakin eta isurketen kudeaketarekin zerikusia dute bereziki.

Azpiegituren, industrien, eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako edo nekazaritzako elikagaietako instalazioen edo jardueren proiektuak 3/98 Legearen IB

eranskinean sartu dira (ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozeduraren eraginpeko jarduerak). Hortaz, pentsatzen da nekazaritza- eta basogintza-erabilera horiek eragin litzaketan inpaktuak behar adina kontrastatu eta saihestuko direla IEA horren bitartez.

Ingurumen-inpaktuaren murrizketak uretara isurketa gutxiago egitea hartuko du barnean. Dena den, prebentzioari lotutako aukerak dira ezartzen merkeenak eta kutsadura kontrolatzeko neurriak merkatzen dituzte. Hala ere, ohikoa da isurketak tratatu behar izatea. Teknika erabilgarri onenak aplikatuz, ingurunean inpakturik txikiena eragitea ziurtatzen da.

Teknologia garbiak edo teknika erabilgarri onenak (TEO) industrian erabiltzen diren teknologiak dira, instalazioa diseinatuta, eraikia, mantendua, ustiatua eta geldiarazia dagoen moduarekin batera. Eraginkorrenak izan behar dute oro har ingurumenaren babes-maila handia lortzeko, eta ekonomikoki nahiz teknikoki bideragarriak diren baldintzetan aplikatzeko modukoak izan behar dute.

Hainbat araudi garrantzitsuk airerako edo uretarako isurien mugak betetzeko eskatzen diete hainbat enpresa-profilari, teknika erabilgarri onenak beren instalazioetan txertatzeko betebeharrean oinarrituta. Guri dagokigunez, hauek dira garrantzitsuenak: Kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko legea (IPPC) eta Uraren legea. Lege hori garatzen duen Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak hartzeak arautzen ditu, horiek beharrezkoak diren kasuetarako (3. kapitulua. Baimenak eta emakidak).

Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020) bere jomugen artean "aire, ur eta lurzoru garbi eta osasungarriak bermatzea" biltzen du. Horregatik, "produkzio-sistema garbiak sustatzeko" helburua ezartzen du, eta, horretarako, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda egin da.

Horrekin guztiarekin, **ur-eskariak eta isurketen kudeaketak** inpaktu negatiboak sortuko ditu, garrantzi ertainekoak, puntualak, epe laburrerakoak, aldi baterakoak, itzulgarriak, leheneragarriak eta ez-sinergikoak. Balorazioari dagokionez, **bateragarriak** izango dira.

5.3.2.3. Inpaktua floran eta landaredian

Planeko sektore-jarduerak floran eta landaredian duten inpaktu negatiboen artean, nekazaritza-sektoretik eratorritakoak nabarmentzen dira, eta, ondoren, abeltzaintzako eta basogintzako sektorekoak daude.

Nekazaritza-sektorean, honako hauek identifikatu dira inpaktu-faktore edo afektazioa izan dezaketen ekintza gisa: ongarritzea, pestizidak eta produktu fitosanitarioak erabiltzea, luberritzeak, drainatzeak eta lehorketak, eta ureztatze-nekazaritzarako obrak eta instalazioak, eta azkenik, terrazak eta zapaldak.

Kasu guztietan, litekeena da dagoen flora eta landaredia galtzea edo narriatzea. Ongarritzeak eta pestizidak erabiltzeak habitat jakin bateko lore-osaera alda

dezake; are gehiago, AEEZn babestuta dauden espezieak desagerraraz ditzake. Luberritzeek, drainatzeek eta lehorketek landaredia are azkarrago eta nabarmenago galtzea eta narriatzea dakarten inpaktuak eragin ditzakete. Azkenik, landa- eta natura-inguruneke olgeta- eta hedapen-jarduerek jendeak, zer kalte egiten duen jakin gabe, babestutako espezieak biltzera joatea ekar dezakete.

Ongarriak eta pestizidak gehiegi erabiltzearen eraginez **flora- eta habitat-dibertsitatea galtzeak** dakarren inpaktua honela kalifikatu da: negatiboa, garrantzi ertainekoa, puntuala, epe ertainerakoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria. Eta balorazioari dagokionez, **bateragarria**.

Luberritzeek, drainatzeek eta lehorketek landaredia galtzea eta narriatzea eragin dezakete. Dena den, ekintza horiek besteak beste IEA prozedura arautzen duen 3/98 Legeak arautzen ditu. Ekintza horiek IC eranskineko 3. puntuan daude: Azpiegiturei, industriei eta nekazaritza-, akuikultura- edo basogintza-instalazio edo jardueri buruzko proiektuak. Ondoren, proiektu gisa ebaluatuko dira IEAren esparruan.

Abeltzaintza-sektorean, honako hauek identifikatzen dira inpaktu-faktore gisa: sastraka-kentzeak, produktu fitosanitarioak erabiltzeak, goldatzea eta larre-espezieak ereitea eta ongarriak erabiltzea. Ekintza horietako bakar bat ere ez dago bilduta 3/98 Legearen eranskinetan.

Ekintza horiek **flora- eta habitat-dibertsitatea galtzea** dakarten inpaktuak sor litzakete. Dena den, hori erabilitako ongarri eta pestiziden bolumenaren edo sastraka-kentzea egin den azaleraren arabera gertatuko da batez ere. Inpaktu hori honela baloratu da: negatiboa, garrantzi ertainekoa, puntuala, epe ertainerakoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria. Kasuak banan-banan baloratu beharko liratekeen arren, inpaktu orokorraren balorazioari dagokionez, inpaktua **bateragarria** da.

Basogintza-sektorean, honako hauek identifikatu dira inpaktu-faktore edo afektazioa izan dezaketen ekintza gisa: baso-masa kudeatzeko eta hobetzeko fasea, zura ateratzea, suebakiak irekitzea eta baso-bide berriak irekitzea. Azken hori soilik dago 3/98 Legean sartua.

Kontuan hartu behar da, batetik, basogintza-jarduerak baso-kudeaketa iraunkorraren printzipioen barnean sartzen direla, eta baso-ekosistemen dibertsitate ekologikoaren mantentze, kontserbazio eta hobekuntza egokia printzipio horien irizpideetako bat dela. Eta bestetik, LAPak printzipio horiek bere egiten dituela.

Hortaz, eragin daitekeen **landaredi-galera eta/edo -narriadura** (azalera-galera, egitura-konplexutasunarena, etab.) honela kalifikatzen da: inpaktu negatiboa, garrantzi ertainekoa, puntuala, epe ertainerakoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria. Kasuak banan-banan baloratu beharko liratekeen arren, inpaktu orokorraren balorazioari dagokionez, inpaktua **bateragarria** da.

Nekazaritza- eta basogintza-erabileren **inpaktu positibo** gisa baloratzen da **prebentzioaren** bitartez —hau da, suteak zaintzeko instalazioen bitartez— landarediari eustea ahalbidetzen duen inpaktua.

5.3.2.4. Inpaktua faunan

Nekazaritza- eta basogintza-erabilerek faunan duten inpaktu negatiboen artean, nekazaritza- eta basogintza-sektoretik eratorritakoak dira nagusi.

Nekazaritza-sektorean, honako hauek identifikatu dira inpaktu-faktore gisa: ongarritzea eta pestizidak erabiltzea, produktu fitosanitarioak erabiltzea, luberritzeak, drainatzeak eta lehorketak, eta, azkenik, landa-inguruneko aisiari eta hedapenari lotutako olgeta-jarduerak.

Nekazaritza ekologikoari edo ekoizpen integratuari heldutako nekazaritza-ustategietan, produktu fitosanitarioen erabilera araututa dago. Ez dira ustiategi asko, baina LAPak, LGParen artezpideak bere eginez, ahalik eta ustiategi gehienek ekoizpen-eremu horri heltzea sustatzen du.

Luberritze, drainatze eta lehorketatik eratorritako inpaktuak 3/98 Legean, besteak beste IEAko prozedura arautzen duenean, arautu dira. Ekintza horiek IC eranskinen 3. puntuan daude: Azpiegiturei, industriei eta nekazaritza-, akuikultura- edo basogintza-instalazio edo jardueri buruzko proiektuak.

Basogintza-sektorean, inpaktu nagusiak zura ateratzeko baso-bide berriak egiten direnean gertatzen dira, baita lan horiek egiteko unean ere, ustiatu beharreko unadan fauna-espezie mehatxatuak badaude.

Ildo horretan, aditzera eman behar da gero eta ustiategi gehiagok heltzen diotela Basogintza Iraunkorraren Ziurtagiriari. Halaber, ustiategi horietan baso-antolamenduak eta ondorengo zur-erauzketak eraginpean har ditzaketen fauna-espeziak aztertzen dira, eta espezie mehatxatuei ez eragiteko moduan programatzen dira lanak. LAPak baso-kudeaketa iraunkorraren irizpideak bere egin eta garatzen ditu.

Abeltzaintza-sektorean, antzemandako inpaktuak sastraka-kentzeak eta itxiturak egiten direnean sortzen dira. Ez dira oso handiak izaten, baina garrantzizkoa da kontuan hartzea, agian, kasuaren arabera, prebentzio-neurriak eta/edo neurri zuzentzaileak aplikatu beharko baitira.

Aurreko ekintzetatik eratorritako inpaktuak askotarikoak dira: zenbait kasutan, espezie baten habitat bereizgarria galdu edo narriatu egin daiteke, adibidez, sastraka kentzearen eta zuhaitzak moztearen ondorioz. Beste batzuetan, espezie-dibertsitatea gal daiteke, hala nola produktu fitosanitarioak erabiltzen direnean, produktu horiekiko sentikorra den ornogabe-espezieren bat suntsi baitezakete. Eta azkenik, espezie baten portaerarekiko afektazioa ere gerta daiteke horren ziklo biologikoko (ugalketa, larreratzea, etab.) une jakin batzuetan traba egiten bazaie, hala nola baso-unada bat moztea espezie mehatxatu bat umetzen ari den tokian.

Habitat egokia galtzea (basokoa, landazabalekoa, etab.) honela kalifikatu da: inpaktu negatiboa, garrantzi ertainekoa, puntuala, epe ertainerakoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria. Eta balorazioari dagokionez, **bateragarria**.

Ongarriak eta pestizidak gehiegi erabiltzearen eraginez **fauna-espezieen dibertsitatea galtzeak** dakarren inpaktua honela kalifikatu da: negatiboa, garrantzi ertainekoa, puntuala, epe ertainerakoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria. Eta balorazioari dagokionez, **bateragarria**.

Ugalketa-fasean traba egitea honela kalifikatu da: inpaktu negatiboa, garrantzi ertainekoa, puntuala, epe ertainerakoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria. Eta balorazioari dagokionez, **bateragarria**.

5.3.2.5. Inpaktua Natura 2000n

Nekazaritza- eta basogintza-erabilerak Natura 2000 Sarean sartutako espazioetan dituzten eraginak analizatzeko, espazio horietan kontserbazio-helburu gisa definitutako habitatak eta fauna analizatu dira, baita sare horren koherentzian duten eragina ere.

Habitatetan afektazioa eragingo duten nekazaritza- eta basogintza-erabileretako ekintzak lehen aztertu dira, landarediari buruzko atalean, baita inpaktuak ere: habitaten dibertsitatea galtzea, azalera galtzea eta egitura-komplexutasuna galtzea.

Espezieetan afektazioa eragingo duten nekazaritza- eta basogintza-erabileretako ekintzak lehen aztertu dira, florari eta faunari buruzko atalean, baita inpaktuak ere: espezie-dibertsitatea galtzea, habitat egokia galtzea eta trabak ugalketa-fasean.

Nabarmendu behar da nekazaritza- eta basogintza-erabilerak kasu askotan erabakigarriak izan direla espazio horietako kontserbazio-xede diren habitatak egoteko. Askotan, kontserbazio-egoera onean egoteko esku-hartze antropikoa behar duten habitat erdi-naturalak izaten dira.

Bestalde, nekazaritza- eta basogintza-erabilerak Natura 2000 Sarearen (habitatak eta espezieak) kontserbazioaren helburuetan duten inpaktuak, aurreko ataletan azaldu denez, espazioei buruzko araudiak eta indarrean dagoen legediak mugatuko dute. Horri dagokionez, 92/43/EE Zuzentarauaren 6.3 artikulua ebaluazio egokia egiteko premia ezartzen du plan edo proiekturen batek toki hori izendatzeko aintzat hartutako balioei nabarmen eragiten dien kasuetarako.

Dena den, espazio horiek kudeatzeko planak onartuta ez dauden bitartean, Natura 2000 espazioak gainjarritako baldintzatzailetzat hartzen dira LAP honetan, eta LAPean kartografiatuta geratu dira, maila txikieneko lurralde-antolamenduko tresnak kontuan har ditzaten eta espazio horiek kudeatzeko planak onartzen ez diren bitartean, Habitategi buruzko Zuzentzauren 6.3 artikulua aplikatuko da, lehen esan denez.

Sarearen koherentziari dagokionez, Europar Batasuneko habitat naturalak eta basoko flora eta fauna kontserbatzeari buruzko 92/43/EE Zuzentarauaren 10.

artikuluak gomendio bat ezartzen du Natura 2000 Sareari lotura ekarriz koherentzia ematen dioten paisaia-elementuak sare horretan aintzat hartzeko. Artezpide hori Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeak ere bildu da.

Bere baldintzatzaile gainjarrien artean korridore ekologikoen sarea eta irizpide oroko gisa hesiak iragazkortzea eta korridore bateragarri gisa sailkatutako zonetan erabilerak arautzea barnean hartzen duen LAParen izaera aintzat hartuta, pentsatzen da nekazaritza- eta basogintza-erabilerak korridoreen sarean sartzeak **Natura 2000 Sarean koherentzia** hobetzea ekarriko duela. Hortaz, pentsatzen da inpaktu **positiboa** dela.

Horrela, beraz, **garrantzi komunitarioko habitatekiko afektazioa** inpaktu negatiboa dela uste da, garrantzi ertainekoa, puntuala, epe ertainerakoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria. Eta balorazioari dagokionez, **bateragarria**.

Garrantzi komunitarioko espezieekiko afektazioa inpaktu negatiboa dela uste da, garrantzi ertainekoa, puntuala, epe ertainerakoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria. Eta balorazioari dagokionez, **bateragarria**.

5.3.2.6. Inpaktua paisaian

Nekazaritza- eta basogintza-erabilerak paisaian duten inpaktu negatibo nagusiak nekazaritza- eta basogintza-sektoreetatik datoz.

Nekazaritza-sektorean, honako hauek identifikatu dira inpaktu-faktore gisa: luberritzeak, drainatzeak edo lehorketak, ureztatze-obrak, eta terrazak eta negutegiak egitea.

Aurreikus daitekeen paisaiaren gaineko inpaktua obra egiten den inguruneko paisaia-ezaugarrien narriadura da.

Ekintza horiek 3/98 Legearen IC eranskineko 3. puntuan arautu dira: Azpiegituri, industriei eta nekazaritza-, akuikultura- edo basogintza-instalazio edo jardueri buruzko proiektuak.

Abeltzaintza-sektorean, inpaktu-faktore gisa soilik identifikatu dira bordak, itxiturak eta hesiak, uraskak, hartzeak eta osasun- eta maneiu-instalazioak egitea. Oro har, instalazio txikiak dira eta abeltzaintza-parajeetan oso lokalizatuta daude; hortaz, ondo integratuta daude, salbuespenak salbuespen.

Basogintza-sektorean, afektaziorako ahalmena duten ekintzak ugari dira berriz: baso-masa ateratzea, baso-bideak, zura pilatzeko parkeak, suebakiak eta lehen eraldaketako baso-industriak.

Inpaktu nagusia, nekazaritza-sektorean bezala, jarduna egiten den inguruneko paisaia-ezaugarrien narriadura da. Sektore honetan, inpaktu honek balio handiagoa du; izan ere, oso lotuta dago lurzorua galerari, eta inpaktu hori larritzat hartzen da.

Aditzera eman behar da LAPak "Gutxi aldatutako paisaia duten gunek" ezartzen dituela gainjarritako baldintzatzaile berri gisa. Horren irizpide orokorra, berriz, jarduerak, obrak, instalazioak eta eraikuntzak paisaia motara egokitzea da, paisaiaren funtsezko ezaugarriari eusteko.

Hortaz, **paisaiaren narriadura** honela baloratu da: inpaktu negatiboa, garrantzi ertainekoa, partziala, epe ertainerakoa, aldi baterakoa, epe ertainean itzulgarria eta leheneragarria. Kasuak banan-banan baloratu beharko liratekeen arren, inpaktu orokorraren balorazioari dagokionez, inpaktua **bateragarria** da.

5.3.2.7. Klima-aldaketaren inpaktua

Nekazaritzako eta basogintzako erabilerek eta jarduerak inpaktu positiboak eta negatiboak eragiten dituzte. Positiboak landare-estaldura handia egiten den eta, beraz, karbono-hustulekua den nekazaritza- eta basogintza-lurzorua babesteko helburua duen planaren filosofiatik eratorriak dira.

LAP honek araututako erabilera eta aprobetxamenduek sortutako sei inpaktu positibo eta zazpi negatibo identifikatu dira. Horietatik, hiru nekazaritza-industriako sektoretik datoz.

Nekazaritza- eta basogintza-erabileren **inpaktu positiboak** honako hauei lotuta daude: landare-estaldura mantentzea, fruta-arbolak landatzea, mozketa eta inausketa, energia berriztagarria ekoizteko azpiegiturak, batik bat nekazaritza- eta abeltzaintza-instalazioetako autohornikuntzarako, baso-masa finkatzeko fasea eta masa horiek hobetzeko eta kudeatzeko fasea.

Inpaktu negatiboak honako hauei lotuta daude: ongarriak eta pestizidak, produktu fitosanitarioen erabilera, landare-kontserben, marmeladen eta konfituren produkzioa, baso-masako produktuak ateratzeko edo erauzteko fasea, lehen eraldaketako nekazaritzako elikagaien industria eta lehen eraldaketako basogintza-industriak eta bigarren eraldaketako nekazaritzako elikagaien industriak.

Kontserbagintzatik eta nekazaritza- eta basogintza-sektoreari lotutako eta klima-aldaketarekin zerikusia duten industrietatik eratorritako inpaktuek industria-makineria abian jartzeko energia erabiltzearekin dute zerikusia bereziki.

Azpiegituren, industrien, eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako edo nekazaritzako elikagaietako instalazioen edo jardueren proiektuak 3/98 Legearen arabera IEAren mende dauden jardueren artean biltzen dira. Hortaz, nekazaritza- eta basogintza-erabilera horiek eragin litzaketen inpaktuak behar adina kontrastatu eta saihestuko dira IEA horren bitartez.

Ingurumen-inpaktuaren murrizketak airerako isuriak eta substantzia toxikoen barreriadura minimizatzea hartuko du barnean. Prebentzioari lotutako aukerak dira ezartzen merkeenak, eta kutsadura kontrolatzeko neurriak merkatzen dituzte. Dena den, ohikoa da isuriak tratatu behar izatea. Teknika erabilgarri onenak aplikatuta, inguruneari inpakturik txikiena eragitea ziurtatzen da, eta hondakinak baliotuta,

klima-aldaketaren gaineko inpaktua ere murrizten da. Teknologia Garbien Euskal Zerrenda ingurumen-inpaktua gutxitzea errazten du.

Teknologia garbiak edo teknika erabilgarri onenak (TEO) industrian erabiltzen diren teknologiak dira, instalazioa diseinatuta, eraikia, mantendua, ustiatua eta geldiarazia dagoen moduarekin batera, betiere ingurumenaren babes-maila handia lortzeko eraginkorrenak badira eta ekonomikoki nahiz teknikoki bideragarriak diren baldintzetan aplikatu badaitezke.

Hainbat araudi garrantzitsuk ainerako isuriaren mugak betetzeko eskatzen diete hainbat enpresa-profilari, teknika erabilgarri onenak beren instalazioetan txertatzeko betebeharrean oinarrituta.

Kasu honetan, Kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko legea (IPPC) eta Atmosfera babesteko legea dira garrantzitsuenak.

Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020) bere jomugan artean "aire, ur eta lurzoru garbi eta osasungarriak bermatzea" biltzen du. Horregatik, "produktzio-sistema garbiak sustatzeko" helburua ezartzen du, eta, horretarako, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda egin da.

Hortaz, indarrean dagoen legedia nahiz abian jarritako estrategiak nahikoak direla uste da jarduera horren inpaktu negatiboak murrizteko.

Basogintza-produktuak atera edo erauzteko faseak klima-aldaketarekiko inpaktu negatiboa ekar dezake, CO₂-ko hustuleku gisa jokatzen duten azalerak desagertzea baitakar. Dena den, kontuan hartu behar da masa horiek ekoizpen-plantazio berriekin leheneratzen direla eta denbora-tarte labur samarra igarotakoan CO₂ atmosferikoa finkatzen hasten direla berriz. Hortaz, inpaktu hori negatiboa da, garrantzi ertainekoa, puntuala, epe ertainerakoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria. Sinergia neurritsuko inpaktua da, sinplea, zuzena eta aldizkakoa. Eta balorazioari dagokionez, **bateragarria**.

Ongarriak erabiltzeak klima-aldaketarekiko inpaktu negatibo handia eragin dezake. Lurzoruei aplikatutako ongarri guztien % 50 baino gehiago airean barreiatzen da edo ur-ibilguetan amaitzen du. Negutegi-efektuko gas (NEG) indartsuenetako bat oxido nitrosoa (N₂O) da. Hain zuzen ere, horrek berotze globala eragiteko duen ahalmena CO₂-arena baino 296 aldiz handiagoa da. **Ongarri gehiegi erabiltzea** eta horren ondoriozko N₂O isuriak dira nekazaritzak klima-aldaketan duen eraginaren faktorerik handiena.

Azkenik, nabarmendu behar da Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Planak (2008-2012) honako ekintza hauek planteatzen dituela nekazaritza- eta basogintza-sektoreari loturik:

- Karrantzako haranean txiza kudeatzeko instalazioaren eraikuntza sustatzea eta laguntzea (urtean 90.000 tona CO₂e BEG murriztea).

- o Gipuzkoan txizaren kudeaketa-eredua definitzea, eta digestio anaerobioa egiteko instalazioa sortzea sustatzea eta laguntzea.
- o Araban txizaren kudeaketa-eredua definitzea, eta digestio anaerobioa egiteko instalazioa sortzea sustatzea eta laguntzea.
- o Txizaren eta nekazaritzan eta hirietan jatorria duten bestelako hondakin organikoen kudeaketa bateratua sustatzea.

Hortaz, **ongarri gehiegi erabiltzea** honela kalifikatu da: negatiboa, garrantzi ertainekoa, hedatua, epe luzerakoa, aldi baterakoa, itzulgarria epe ertainera, leheneragarria eta balio sinergikoa. Eta balorazioari dagokionez, **neurritsua** da.

5.3.2.8. Inpaktua ondare historiko eta kulturalean

Nekazaritza- eta basogintza-erabilerek paisaian duten inpaktu negatibo nagusiak nekazaritza- eta basogintza-sektoreetatik datoz.

Nekazaritza-sektorean, honako hauek identifikatu dira inpaktu-faktore gisa: luberritzeak, ureztatze-obrak, zapaldak egitea eta energia berriztagarriak ekoizteko azpiegiturak.

Ekintza horiek 3/98 Legearen IC eranskineko 3. puntuari arautu dira: Azpiegiturei, industriari eta nekazaritza-, akuikultura- edo basogintza-instalazio edo jardueri buruzko proiektuak.

Basogintza-sektorean, soilik bi ekintza posible identifikatu dira afektazioa izan dezaketen ekintza gisa: masa finkatzeko fasea eta baso-bideak eta erantsitako instalazioak.

Eta azkenik, abeltzaintza-sektorean ez da identifikatu ondare historiko eta kulturalean inpaktuak eragin ditzakeen ekintzarik.

Aurreikus daitekeen ondarearen gaineko inpaktua izan litezkeen hobi arkeologikoen edo paisaia kulturalaren elementuen (harrizko murruei, artzain-borden, otso-zuloen eta abarren) suntsiketa edo narriadura da.

Kontuan izanik EAEko monumentuei, multzo monumentalei eta hobiei buruzko datu-base bat eta legedi propioa dagoela, besteak beste: Euskal Kultura Ondareari buruzko Legea (7/1990 Legea) eta Balizko Arkeologia Zonak (234/1996 Dekretua), pentsatzen da **elementu historiko eta kulturalak suntsitzeko eta/edo narriatzeko** aukera nekez gerta daitekeen inpaktua da, eta inpaktua gertatzen bada, honela kalifikatuko da: negatiboa, garrantzi txikikoa, puntuala, epe laburrerakoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria. Eta balorazioari dagokionez, **bateragarria**.

5.3.2.9. Inpaktuen laburpen-taula

Hona hemen atal honetan deskribatutako inpaktuen laburpen-taula.

NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA ERABILERA NAGUSIAK

INGURUMEN FAKTOREAK	DESKRIBAPENA	BALORAZIOA
LURZORUAK	Lurzoru-galera basogintza-jardueren ondorioz	Neurritzkoa
	Lurzoru-galera nekazaritza-jardueren ondorioz	Neurritzkoa
	Lurzoru-galera abeltzaintza-jardueren ondorioz	Bateragarria
	Lurzoru-kutsadura abeltzaintza-jardueren ondorioz	Bateragarria
	Ureztatze-nekazaritzarako obrak eta instalazioak	Negatiboa (IEAren esparruan proiektu-mailan ebaluatzeko)
URAK	Nekazaritza-sektoreak lurpeko urak kutsatzea	Neurritzkoa
	Abeltzaintza-sektoreak lurpeko urak kutsatzea	Bateragarria
	Ur-eskaria eta isurien kudeaketa	Bateragarria
FLORA LANDAREDIA ETA	Ongarritzea eta pestizidak erabiltzea	Bateragarria
	Flora- eta habitat-dibertsitatea galtzea	Bateragarria
	Landaredia galtzea eta/edo narriatzea	Bateragarria
	Suteen kontrako prebentzioa zaintza-dorreen bitartez	Positiboa
FAUNA	Habitat egokia galtzea	Bateragarria
	Fauna-espezieen dibertsitatea galtzea	Bateragarria
	Inpaktua fauna ornitikoaren ugalketan	Bateragarria
NATURA 2000 SAREA	Inpaktua 92/43/EEE Zuzentarauko habitatetan	Bateragarria
	Inpaktua 92/43/EEE Zuzentarauko espezieetan	Bateragarria
	Sarearen koherentzia	Positiboa
PAISAIA	Paisaiaren narriadura	Bateragarria
KLIMA ALDAKETA	Landare-estaldura mantentzea	Positiboa
	Energia berriztagarria ekoizteko azpiegiturak	Positiboa
	Baso-masa finkatzeko, hobetzeko eta kudeatzeko fasea	Positiboa
	Kontserbagintza eta nekazaritza- eta basogintza-sektorearekin zerikusia duten industriek eragindako inpaktuak	Negatiboa (IEAren esparruan proiektu-mailan ebaluatzeko)
	Basoko produktuak ateratzea edo erauztea	Bateragarria
	Ongarri gehiegi erabiltzea	Neurritzkoa
ONDARE HISTORIKO ETA KULTURALA	Elementu historiko eta kulturalak suntsitzea eta/edo narriatzea	Bateragarria

6. Neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak

6.1. Goragoko mailetako ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren ondoriozko neurriak

5. atalean —“Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa: metodologia”— aditzera ematen denez, ez da ingurumen-ebaluazio estrategikorik edo ingurumen-inpaktuko ebaluazio bateraturik egin NBALAParen goragoko hierarkia-mailako plangintzaren (4/90 Legea, indarrean dauden LAAk...) inguruan.

Gaur egun, ordea, LAParen zenbait helbururentzat —LAAen aldaketa eta III. IEPa— oinarriak ematen dituzten hainbat dokumentu jarriak dira prozedura horren eraginpean. IIT honi dagokion atalean, LAPak tresna horiekin (gaur egun izapidetzen ari dira eta zirriborroak sortu dira) duen koherentzia analizatzen da. Eta koherentzia hori justifikatu egin denez gero, uler daiteke lotutako NBALAParen edukiei alde zuzenetik ingurumen-ebaluazioa egin zaiela.

6.2. Neurrien irismena

IIT honen 5. atalean egindako inpaktu-analisia hiru mailatan egituratu da:

- Helburuak
- Lurralde-ereduaren proposamena
- Nekazaritza- eta basogintza-erabilerak

NBALAParen **helburuen** eta estrategien artean funtsezko helburuak (nekazaritza-lurzorua babesa, esaterako) nahiz ingurumenekoak daude. Ingurumeneko helburuei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- *“Nekazaritza- eta basogintza-jarduerak txertatzen direla finkatzea ingurumenaren kontserbazioa bermatzeko*
- *Nekazaritzaren babesa ingurumenekoarekin bateratzea”*

Nolanahi ere, 5. atalean, helburu horien nahiz LAParen beste zenbait sektore-helburuen eta erreferentziazko ingurumen-arloko helburu eta estrategien arteko bateragarritasuna analizatzen da. Bateragarriak direla egiaztatu eta EAEko ingurumen-konpromisoak lortzeko lagungarriak diren NBALAParen edukiak identifikatu direnez gero, ez da beharrezkotzat jotzen LAParen helburuak eta estrategiak egokitzea beren ingurumen-integrazioa gehitzeko.

Lurralde-ereduaren proposamenari dagokionez, antzemandako inpaktu guztiak positibo gisa edo bateragarri gisa kalifikatu dira. Behin-behinean onartutako

NBALAPeko dokumentuari buruz onartutako ingurumen-analisan alderdi jakin batzuk nabarmendu ziren; izan ere, alderdi horiek LAPean aldatzeak horren ingurumen-portaera hobetzen eta proposatutako lurralde-eredua ezartzea errazten lagunduko luke. Alderdi horiek, laburbilduta ondoren azaltzen direnak, NBALAPa behin betiko onartzeko bertsioan bildu dira; hortaz, LAPak bere ingurumen-integrazioa hobetu duela pentsatzen da:

- LAPekiko koordinazioa argitzea, bereziki haien babestutako gunetan: LAPak, bere Araudian, argi eta garbi jasotzen du LAPen lehentasun juridikoa, baita tresna horien babes bereziko gunetan ere.
- Ingurumen-hobekuntzako gunek eta Itsasertza Antolatzeko hiri-hondartzak ateratzea, tresna horrek zona horiek eta babes berezikoak lotzen baititu: zona horiek NBALAPetik atera dira, horren Araudiaren 5. artikuluan jasotakoari jarraiki.
- Espresuki jaso da NBALAPean —Araudiaren 46.2 artikuluan— planeamenduak, LAAen arabera, honako ezaugarri hauek dituzten zonak barnean hartzen dituen babes bereziko kategoria bat bildu behar duela:
 - a) Funtsezko prozesu ekologikoak mantentzean zeregin garrantzitsua dutenak, hala nola lurzoruen babesa, akuiferoen karga, etab.
 - b) Kontserbazio-egoera oneko habitat naturalen laginak, desagertzeko arriskuan daudenak edo, nazioarteko hitzarmenen edo berariazko xedapenen ondorioz, babes berezia behar dutenak.
 - c) Espezie mehatxatu gisa katalogatutako animalia edo landareen populazioak dituzten gunek, elementu endemikoen kontzentrazio handiak edo, nazioarteko hitzarmenen edo berariazko xedapenen ondorioz, babes berezia behar dutenak.
 - d) Landa-paisaiak edo malkartsu harmoniatsuak, edertasun edo kultura-balio bikainekoak, hala nola aztarnategi paleontologikoak, hobi mineralak, etab.
 - e) Bitxitasunagatik edo berezitasunagatik nabarmentzen diren elementu naturalak dituzten gunek, edo interes zientifiko berezia dutenak.

Era berean, hau ematen da aditzera:

- o Zona horiek errazago mugatzeko, NBALAPak IV. kapituluaren deskribatzen diren gainjarritako baldintzatzaileak biltzen ditu.
- o Aprobetxamendu bat duten babes bereziko zonetan, LAAen arabera, irizpide hau erabili behar da: aprobetxamendu hori modu iraunkorrean bultzatzea, erabilitako baliabidea berrituko dela ziurtatuta.

Horren bidez, ziurtatu nahi da, NBALAPean babes bereziko kategoria sartu ez den arren (tresna horri ez dagokiola erabakita), udal-planeamenduak kategoria

hori mugatzen duela, LAAen aginduak betez. Eta gainera, erabilera-araubideak gaur egun zona horietan egiten diren jarduerak —nekazaritza- eta basogintza-arlokoak barne— bildu behar dituela kontuan hartuta mugatzen du.

Nolanahi ere, IIT honek proposatzen du natura- eta/edo paisaia-balio handia dutela-eta udal-planeamenduaren arabera babestu behar diren zonak, betiere NBALAParen balio estrategiko handiko lurzoruaren zati badira, **Natura Balio Handiko Nekazaritza Zona** gisa²² bil daitezela.

Azkenik, 5.3.1.8 atalean adierazita dagoenez, Araudiaren 75. artikuluan planteatu du komenigarria dela udal-planeamenduak bere tokiko lotura ekologikoko sare propioa definitzeko analisi xehea egitea.

Nekazaritza- eta basogintza-erabilerak hobetzeko hartu beharreko neurriei dagokienez, aditzera eman behar da IITaren hurrengo puntuan zehatuta daudela.

6.3. Neurri babesleen, zuzentzaileen eta/edo konpentsatzaileen proposamena

NBALAPa behin-behinean onartzeko dokumentuaren ingurumen-ebaluazioa egiten zen bitartean, Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txosten honek hainbat proposamen egin zituen: LAPean edo hori garatuko duen udal-planeamenduan sartu beharreko jarraibideak, nekazaritza- eta basogintza-erabileren portaera hobetzeko eta aurreko kapituluan antzemandako inpaktuak minimizatzeko.

Proposamenak eta LAPean sartu diren modua honako azpiatal hauetan bildu dira:

6.3.1. Lurzoruaren babesa

(1) Gune higagarriak gainjarritako baldintzatzailearentzako irizpide orokorretan honako hau sartzea:

"LAP honi atxikitako kartografiaren arabera 50 Tm/ha/urte baino higadura potentzial handiagoa duten zonetan, babes- eta leheneratze-irizpidea aintzat hartuta mantenduko da zuhaitz- eta zuhaixka-estaldura horrelakorik badago une honetan, eta ez da egingo lurzoruaren egonkortasunean eragina duen jarduerarik; era berean, zona horietan beharrezkoak diren nekazaritza- eta basogintza-jarduerak ahalik eta gehien zainduko dira".

(2) I. kapituluan —Artezpide Orokorrak—, 19. artikuluan, honako paragrafo hau sartzea:

²² Batez ere nekazaritzakoak diren Europako zonak, non nekazaritzak espezie- eta habitat-dibertsitate handiari eusten baitio edo horri loturik baitago, edo kontserbazio-arazoak dituzten espezieak baitaude. Andersen, E., Baldock, D., Bennet, H., Beaufoy, G., Bignal, E., Brouwer, F., Elbersen, B., Eiden, G., Godeschalk, G., Jones, G., McCracken, D.I., Nieuwenhuizen, W., van Eupen, M., Hennekens, S. & Zervas, G., 2003. Developing a high nature indicator. Report for the European Environment Agency, Kopenhage.

"Nekazaritza-arloko Administrazioak lurzorua babesteaz arduratuko dira, indarrean dauden baldintzazkotasunari buruzko dekretuen esparruan (gaur egun 79/2010 Dekretua dago indarrean) definitutako neurriak aplikatuz; era berean, ardura hori NPBaren laguntza-dinamikaren barruan hartu ez diren laboreetara —hala nola, mahastietara— zabaltzea sustatuko dute"

(3) Honako paragrafo hau txertatzea 13. artikuluan:

"Nekazaritza-arloko Administrazioak lurzorua babesteaz arduratuko dira, Nekazaritzako Jokabide Egokien Dekretua EAEko akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-mapetan (Eusko Jaurl., 1995) definitutako akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrek diren zona guztietan Nekazaritzako Jokabide Egokien Dekretua aplika dadin sustatuz".

Proposatutako hiru paragrafoak NBALAParen adierazitako artikuluetan txertatu dira.

6.3.2. Uren babesa

LAParen I. kapituluaren —Artezpide Orokorrak—, 19. artikuluan, honako paragrafo hau sartzea:

Nekazaritza-arloko Administrazioek ekoizpen ekologikoa eta ekoizpen integratua bultzatuko dituzte nekazaritza iraunkorraren oinarri tekniko gisa. Lehenengoa sintesi-produktuen debekuan eta jatorri naturaleko substantzien erabileran oinarrituko da. Ekoizpen integratua sintesi-produktu kimikoen erabilera mugatuan oinarrituko da, erabiltzen den produktu horien kantitatea minimizatuz, betiere eragin kaltegarriak minimizatzeke

Dena den, aditzera eman behar da ekoizpen integratuko neurria II. LGPearen (2007-2013) bildu dela. Horri dagokionez, LAP honek plan horren irizpideak eta helburuak bere egin eta garatzen ditu, eta, hortaz, LAParen jardun-tresnatzat har litezke.

NBALAPak honako hau sartu du adierazitako artikuluan: *"Nekazaritza-arloko Administrazioek ekoizpen ekologikoa eta ekoizpen integratua bultzatuko dituzte nekazaritza iraunkorraren oinarri tekniko gisa"*. Ondorengo esaldiak, nekazaritza ekologiko eta iraunkorraren deskribapenari buruzkoak, ez dira sartu, beste hainbat sektore-dokumentutan biltzen diren era horretako ekoizpenen deskribapen-datuak soilik ematen baitituzte.

6.3.3. Klima-aldaketatik babestea

Ongarri gutxiago erabiltzea: laboreak behar duen kantitatea soilik eta doitasunez eta behar den unean erabiliz, BEGen isuri ugari saihestuko litzateke.

LAParen I. kapituluaren —Artezpide Orokorrak—, 19. artikuluan, honako paragrafo hau sartzea iradoki zen:

Nekazaritza-arloko Administrazioek ekoizpen ekologikoa eta ekoizpen integratua bultzatuko dituzte nekazaritza iraunkorraren oinarri tekniko gisa.

Lehenengoa sintesi-produktuen debekuan eta jatorri naturaleko substantzien erabileran oinarrituko da. Ekoizpen integratua sintesi-produktu kimikoen erabilera mugatuan oinarrituko da, erabiltzen den produktu horien kantitatea minimizatuz, betiere eragin kaltegarriak minimizatzeke

Dena den, aditzera eman behar da ekoizpen integratuko neurria II. LGPea (2007-2013) bildu dela. Horri dagokionez, LAP honek plan horren irizpideak eta helburuak bere egin eta garatzen ditu, eta, hortaz, LAParen jardun-tresnatzat har litezke.

NBALAPak honako hau sartu du adierazitako artikuluan: "*Nekazaritza-arloko Administrazioek ekoizpen ekologikoa eta ekoizpen integratua bultzatuko dituzte nekazaritza iraunkorraren oinarri tekniko gisa*". Ondorengo esaldiak, nekazaritza ekologiko eta iraunkorraren deskribapeneri buruzkoak, ez dira sartu, beste hainbat sektore-dokumentutan biltzen diren era horretako ekoizpenen deskribapen-datuak soilik ematen baitituzte.

7. NBALAParen eraginak gainbegiratzea

7.1. Kontrol-helburuen definizioa

LAParen indarraldia mugagabetzat jotzen da, hori aztertu arte. Jarraipena egitea ezinbestekoa da:

- LAPa egoki aplikatzen dela egiaztatzeko.
- Proposatutako neurri babesle eta zuzentzaileak egoki ezartzen direla ziurtatzeko.
- Aurreikusi eta onartu ez diren balizko ingurumen-inpaktu esanguratsuak zaintzeko eta, hala badagokio, zuzentzeko.

LAPak biltzen dituen "Landa Lurra Kudeatzeko Erakundeak" edukitzea funtsezkoa da kontrol hori antolatzeko; izan ere, tresna horrek, besteak beste, lurraldea kudeatzeko funtzioa du (lurralde-antolamenduaren jarraipena; LAParen kartografia eguneratzea, lurralde- eta ingurumen-plangintzako prozesuak direla-eta egin behar diren aldaketak biltzeko; etab.).

Inpaktuak identifikatzeko eta baloratzeko atala egituratu den bezala (IIT honen 5. atala), jarraipena ere 3 mailatan egin behar dela pentsatzen da:

- LAParen ingurumen-helburuen jarraipena.
- Proposatutako lurralde-ereduaren ezarpenaren jarraipena.
- Nekazaritza- eta basogintza-erabileren garapenaren jarraipena: Nahiz eta berez ez diren LAParen proposamena, erabilera horien ingurumen-integrazioa hobetzen laguntzeko neurriak proposatu baitira, horiek betetzea eta horien ondorioak zaintzea ere proposatzen da.

7.2. Adierazleen identifikazioa

7.2.1. LAParen ingurumen-helburuen jarraipenerako adierazleak

5. atalean, deskribatzen da NBALAPak nola lagun dezakeen III. IEPak ezarritako ingurumen-helburuak lortzen. Hortaz, jarraipena III. IEPak helburu horietarako ematen dituen adierazleetan oinarritu behar da. III. IEPean egindako aurrerapenen kontrola jardun-ildoan ezarpenaren urteko jarraipenean oinarritzen da (EAEko Aurrekontu Orokorren urteko memorietan txertatzen da), baita hartutako konpromisoen aurrerapen- eta betetze-mailaren urteko jarraipenean ere (horri baliatuz, Euskadiren Ingurumen Profila eta IEParen jarraipen- eta ebaluazio-txostena landuko dira).

Pentsatu da NBALAPa lagungarria izan daitekeela III. IEPko helburu jakin batzuk lortzeko eta konpromiso jakin batzuk betetzeko. Ondoren, helburu eta konpromiso horiek bildu dira, baita esparru-programak ezarritako adierazleak ere:

III. IEParen helburuak	Lotutako LAParen edukiak	III. IEP-AREN ADIERAZLEAK
1. helburu estrategikoa: Berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea eta klima-aldaketaren eraginak minimizatzea EAEn.	Basogintza kategoria: irizpideak. CO ₂ -ko hustuleku gisa jokatzeko.	- EAeko BEGen isurien urteko bilakaera - Proposatutako sektoreko egokitzapen-neurrien kopurua
2. helburu estrategikoa: Dibertsitate biologikoaren galera gelditzea; ekosistemak leheneratzea eta lurra artifizialtzea mugatzea.	Ingurumenaren Hobekuntza kategoria. Ingurumenaren babesaren eta hobekuntzaren erabilera, kategoria guztietan ahalbidetu dena edo onar daitekeena.	- EAEn babestutako azalera (babes-araubide guztiak) - Izendatutako KBEen %-a - Proposatutako itsasoko GKLen %-a - Artifizialdutako lurzoru-azaleraren %-a
3. helburu estrategikoa: Baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea.	Lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioa eta erabilera-araudia: lurzoru naturalak okupatzeko mugak.	- Guztizko material-premia - Guztizko hondakin-sorkuntza, tipologiaren arabera xehatua (hirikoak, arriskutsuak, EEH, lehen sektorekoak). - Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen baliozko materialaren %a
III. IEPko konpromisoak	Lotutako LAParen edukiak	III. IEP-AREN ADIERAZLEAK
EAeko jardura/sektore giltzarrien klima-aldaketaren inpaktuen aurrean urrakortasunaren analisia sustatzea.	Nekazaritza-/basogintza-sistemako azalerei buruzko datuak, Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Plana analizatzeko (KABEParen jardun-programa).	- Egokitzeko irizpideak lantzen eta ematen dituzten politiken kopurua.
Lurraldean habitat naturalek, erdinaturalek edo naturalizatuek okupatzeko azalera handitzea, eta horien kontserbazio-egoera etengabe hobetzea.	Lurraldearen zonifikazioa (azalera kuantifikatzeko lagungarria da). Ingurumenaren Hobekuntza kategoria. Ingurumenaren babesaren eta hobekuntzaren erabilera, kategoria guztietan ahalbidetu dena edo onar daitekeena.	- EAEn habitat naturalek, erdinaturalek eta naturalizatuek okupatzen duten azaleraaren %-a
Lurraren artifizialtzea mugatzea.	Lurzoru natural berriak okupatzeko mugak (erabilera-araudia).	- Artifizialdutako azaleraaren %-a
Euskal ekonomiaren guztizko produktibitate materiala % 4 hobetzea.	Nekazaritzako jokabide egokiak sustatzeari buruzko edukiak, nekazaritza- eta ingurumen-neurriak eta nekazaritzako sektore-ebaluazioko protokoloan bildutako beste hainbat neurri.	- Produktibitate materialaren urteko guztizkoa. - Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen baliozko materialaren %a
Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen baliozko materialaren tasa % 5 handitzea hurrenez hurren		- Jardun-ildoan bitartez baliozkoa bultzatzen diren hondakinen tona kopurua urtean
Lurraldeko birziklapenean eta hiri-, industria- eta azpiegitura-espazioen berritzean laguntzea lurzoru berriak okupatzearen ordezko aukera gisa	Lurzoru natural berriak okupatzeko mugak (erabilera-araudia).	- Artifizialdutako lurzoru-azaleraaren %-a
EAeko administrazioen politika eta jardun	LAPA adostutako eta EAEn	- ILPNASak parte-hartze aktiboa izandako plangintzen kopurua

esanguratsuak prestatzen parte hartzea	erreferentziazkoak diren ingurumen-irizpideak bere egiten dituen tresna gisa	- Erosketa eta kontratazio publiko berdearen ehunekoa guztizkoarekiko, bolumen ekonomikoan eta kontratu kopuruan
Erosketa eta kontratazio publiko berdeko irizpideak txertatzea Eusko Jaurlaritzaren sailetan eta atxikitako sozietate eta erakunde publikoetan, erosketa publiko "esanguratsuen" % 100ean, horientzat ingurumen-irizpide definituak badaude		

Hona hemen NBALAParen ingurumen-helburuak betetzeko proposatzen diren beste hainbat adierazle, urteko jarraipena egin behar litzaikeena:

- Ingurumen-neurriei heldutako azalera.
- Nekazaritza- eta ingurumen-neurrietara eta nekazaritza-ustategien iraunkortasun-diagnostikoetara bideratutako inbertsioa.
- Zuzeneko errentagarritasun ekonomikorik edo jarduera ekonomikorik ez duten baso autoktonoentzako konpentsazio-primetarako bideratutako inbertsioa, beren funtzio sozial eta ekologikoa aintzat hartuta.
- Baso-kudeaketa iraunkorraren ziurtagiria jaso duten mendien azalera.

7.2.2. Lurralde-ereduaren ezarpenaren jarraipenerako adierazleak

Ez da antzeman LAParen lurralde-eredua aplikatzearen ondoriozko inpaktu negatibo esanguratsurik. Alabaina, ezar litezkeen hainbat hobekuntza-ildo aurreratu dira, eta jarraipena egitea proposatzen da. Jarraipena, berriz, LAPa egoki ezartzen dela eta espero ez den ingurumen-eragin esanguratsurik sortzen ez dela zaintzera ere bideratu behar da.

A) Lurralde-ereduaren ezarpenaren jarraipenerako adierazleak:

Ingurumen-aldagaia	LAParen inpaktuaren aurreikuspena	LAPa egoki ezarriko dela ziurtatzeko proposatutako adierazleak	Gainbegiratzea dagokion organoa ²³
Natura 2000 Sarea	Bateragarria/Positiboa	- Natura 2000 espazioak automatikoki aterako dira LAParen antolamendu-esparrutik kudeaketa-planak onartzen direnean. Ez da beharrezkoa izango LAPa aldatzerik. Udal-planeamenduan espazio horiek egoki ezarri direla gainbegiratu beharko da.	Ingurumen Sailburuordetza. Foru Aldundietako Ingurumen Departamentuak.
Hezeguneetako LAParen III. multzoa	Positiboa	- Hezegune horiek udalerrietako hirigintza-planeamenduan sartzea Hezeguneetako LAParen jarraibidea kaintzat hartuta, planeamendua berraztertzen denetan.	Ingurumen Sailburuordetza. Foru Aldundietako Ingurumen Departamentuak.
ING (LAA) eta LZPek babestutako gunek	Bateragarria/Positiboa	- Udal-planeamenduan LZPek babestutako gunek ezartzea.	Ingurumen Sailburuordetza. Foru Aldundietako Ingurumen Departamentuak.
Landaredia eta habitatak	Bateragarria/Positiboa	- Udal-planeamenduan LAPak proposatutako antolamendu-kategoriak, erabilera-araudiak eta nekazaritza- eta basogintza-erabileretarako ñabardurak erabiltzea, garrantzi berezia emanez zonen heterogeneotasuna onartzeari eta natura-intereseko elementuak baliotzeari. - Udal-planeamenduan natura-balio handieneko gunek txertatzea, babes bereziko kategorian.	Ingurumen Sailburuordetza. Nekazaritza eta Landa Garapeneko Sailburuordetza. Foru Aldundietako Ingurumen eta Nekazaritza Departamentuak.
Flora- eta fauna-espezieak	Bateragarria	- Udal-planeamenduan Natura 2000 Sarea eta Korridore Ekologikoen Sarea ezartzea gainjarritako baldintzatzaile gisa.	Ingurumen Sailburuordetza.
Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak	Positiboa	- Udal-planeamenduan onura publikoko mendiak eta mendi babesleak ezartzea gainjarritako baldintzatzaile gisa.	Foru-aldundiak.
JHPa eta zortasun-zonak	Bateragarria	- Udal-planeamenduan Azaleko uren babeska kategoria txertatzea eta kategoria hori Ibai eta erreken LAParen informaziorik eguneratuenera egokitzea. - Proposamenak (zonak edo erabilerak) debekatzen dituzten ur-arloko agintaritza eskudunaren txostenen kopurua. Debekuak NBALAPean oinarrituta ezarri dira, UEZrekiko edo plan hidrologikoekiko	URA, Uraren Euskal Agentzia

²³ Izen generikoez aipatzen dira aldundietako departamentuetarako: hain zuzen ere, "Ingurumen Departamentua" edo "Nekazaritza Departamentua" esaten zaie adierazle bakoitzean adierazitako alderdiei buruzko eskumena duten departamentuei.

		bateraezintasunagatik.	
ILJPa eta zortasun-zonak	Bateragarria	- Proposamenak (zonak edo erabilerak) debekatzen dituzten kostalde-arloko agintaritza eskudunaren txostenen kopurua. Debekuak NBALAPean oinarrituta ezarri dira, Kostaldee buruzko Legearekiko bateraezintasunagatik.	Kosta-mugaketa, MARM-Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurune Ministerioa
Akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren zonak	Positiboa	- Udal-araudian nekazaritzako jokabide egokien kodea udalerraren esparru osora hedatzea sartzea. - Udal-planeamenduan "akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren zonak" gainjarritako baldintzatzailetzat hartzea.	Nekazaritza eta Landa Garapeneko Sailburuordetza. Foru Aldundietako Nekazaritza Departamentuak.
Korridore ekologikoen sarea	Positiboa	- Udal-planeamendua EAEko edo ALHko korridore ekologikoen sarea txertatzea gainjarritako baldintzatzaile gisa. - Lotura ekologikoari buruzko xehetasun-azterketak egiteko eta korridore ekologikoen tokiko sare bat diseinatzeko udal-ekimeneen kopurua.	Ingurumen Sailburuordetza. Foru Aldundietako Ingurumen Departamentuak.
Paisaia bereziak eta apartak	Positiboa	- Udal-planeamenduan paisaia-interes handieneko zonak txertatzea (LAParen proposamenaren arabera edo ALHko paisaia berezi eta aparten katalogoaren arabera) gainjarritako baldintzatzaile gisa.	Ingurumen Sailburuordetza. Foru Aldundietako Ingurumen Departamentuak.
Gune urperagarriak	Bateragarria	- Ibaietan azpiegitura "gogorak" (harri-lubetak, etab.) instalatzeko eskabide kopurua, nekazaritza- eta basogintza-zonetako afektazioan justifikatuak.	URA, Uraren Euskal Agentzia
Gune higagarriak	Positiboa	- Udal-planeamenduan zona higagarriak txertatzea, LAPeko ereduaren arabera, gainjarritako baldintzatzaile gisa. - EAEen egindako hidrologia- eta baso-kudeaketako planen kopurua, urteko.	Nekazaritza eta Landa Garapeneko Sailburuordetza. Foru Aldundietako Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak.

B) Hobetzeko proposamenen ezarpenaren jarraipena

Arestian esan denez, NBALAPa behin betiko onartzeko dokumentuko ingurumen-ebaluazioaren ondoriozko hobekuntza-proposamenak plan horren aldaketan bere ingurumen-portaera hobetzeko izan dira.

7.2.3. Nekazaritza- eta basogintza-erabileren jarraipenerako adierazleak

Nekazaritza- eta basogintza-erabileren jarraipena jarduera bakoitzaren garapenaren sektore-esparruan egin behar da, aplikatzekoak diren araudiek ezarritakoaren arabera. Ez dagokio LAPari (adierazi denez, ez du inoiz erabiler-aldaketarik sustatzen) erabiler horien jarraipena egitea.

7.3. Muga- edo erreferentzia-mailak

LAP guztiak duen nekazaritza-lurzorua babesteko filosofiaren ondorioz, balio estrategiko handikotzat jotako zonen gutxieneko erreferentzia-maila uneko azalera da. Hortik aurrera, era horretako lurzoruko nekazaritza-erabileretarako edozein galera balio txikiagoko lurzoruen hobekuntzen eta birkalifikazioen bidez konpentsatu behar da.

Ingurumen-helburuak betetzeko erreferentzia-mailak IEPak bere adierazleen jarraipenerako markatzen ditu.

Lurralde-eredua egoki ezartzea ziurtatzeko proposatutako adierazleak, hein handi batean, kualitatiboak dira, "betetzea"/"ez betetzea" dikotomian oinarrituak, eta, hortaz, ez dago mugako atalaserik. Zenbait adierazle kuantitatiboak proposatu dira, hala nola:

1. Proposamenak (zonak edo erabilerak) debekatzen dituzten ur-arloko agintaritza eskudunaren txostenen kopurua. Debekuak NBALAPean oinarrituta ezarri dira, UEZrekiko edo plan hidrologikoekiko bateraezintasunagatik.
2. Proposamenak (zonak edo erabilerak) debekatzen dituzten kostalde-arloko agintaritza eskudunaren txostenen kopurua. Debekuak NBALAPean oinarrituta ezarri dira, Kostaldee buruzko Legearekiko bateraezintasunagatik.
3. Lotura ekologikoari buruzko xehetasun-azterketak egiteko eta korridore ekologikoen tokiko sare bat diseinatzeko udal-ekimeneen kopurua.
4. Ibaietan azpiegitura "gogorak" (harri-lubetak, etab.) instalatzeko eskabide kopurua, nekazaritza- eta basogintza-zonetako afektazioan justifikatuak.
5. EAEn egindako hidrologia- eta baso-kudeaketako planen kopurua, urteko.

Ez dago adierazle horiek neurtzeko abiapuntu-daturik. Nolanahi ere, honako joera hau espero da:

- beheranzkoa gaur egungo egoerari dagokionez 1., 2. eta 4. adierazleentzat, egiten diren proposamen berriak dagoen araudiarekin bateragarriak izan daitezen hasieratik, eta ibai-ibilguetan azpiegitura "gogor" berririk susta ez dadin.
- goranzkoa egungo egoerarako, 3. eta 5. adierazleentzat, ingurumenari dagokionez plangintza integratuan aurrerapena direlako.

7.4. Gainbegiratzea

III. IEParen (eta ondoren idazten direnen) helburuak eta konpromisoak bete ote diren urtero gainbegiratuta NBALAPak laguntza eman dien ingurumen-helburuetan nola egin den aurrera egiaztatuko da.

Bestalde, IIT honen 7.2.2 ataleko taulak bildutako erakundeei dagokie lurralde-eredua ezartzearen inguruan proposatutako adierazle guztiak gainbegiratzea.

Hobekuntza-proposamenak NBALAPean sartzearen jarraipenari dagokionez, IITa idatzi duen lantaldeak baloratuko du LAPa behin betiko onartzeko dokumentuan ezarri diren ala ez, eta emaitzak IIT honen eranskin batean bildu ahal izango dira.

I. eranskina. Edozein kontsultatan adierazitako iritziak eta kontsultaren emaitzak

2001/42/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, IITak edozein kontsultatan adierazitako iritziak eta kontsultaren emaitzak bildu behar ditu berariazko atal batean. Hona hemen LAPa aurrerapen-fasean eta hasierako onespenerako fasean jendaurrean jarrita egotearen emaitzak.

1) AURRERAPEN FASEKO JENDAURREKO ERAKUSTALDIA

2001eko irailaren 18an, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Administrazioako erakunde interesdunei, hots, udalei, lurralde-antolamenduan inplikaturako hiru aldundietako sailei eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuei, sindikatuei eta EAeko nekazaritza- eta basogintza-arloko gainerako erakundeei, "Nekazaritza eta basogintza eta natura-ingurunea antolatzeko lurraldearen arloko planaren aurrerapena" (aurreranzkoan NBALAP esango zaio planari) igorri zien, bi hileko epean (gero hirura zabaldu zen) egoki zeritzoten alegazioak, iradokizunak, aukerak edo proposamenak formula zitzaten, EAeko Lurralde Antolamenduari buruzko Legearen 13.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Lurraldeko administrazio interesdunei informazioa emateko fase horretan, 35 alegazio jaso ziren Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailean, honela banatuta:

Administrazioak: 29

Udalak: 22

Arabako LH: 4

Bizkaiko LH: 6

Gipuzkoako LH: 12

Foru-aldundiak: 2

Arabako Foru Aldundia: 1

Bizkaiko Foru Aldundia: 1

Eusko Jaurlaritza: 3

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila (Uren Zuzendaritza, Lurralde Antolamendurako Zuzendaritza eta Biodibertsitaterako Zuzendaritza)

Administrazio-batzarrak: 2

Bestelakoak: 6

Arabako Kontzeju Elkartea: 1

Debagoieneko Mankomunitatea: 1

ENBA nekazaritza-sindikatuak: 1

Talde kontserbazionistak: 2

Partikularrak: 1

1.1) Aurkeztutako iradokizunen artean behin eta berriz ageri diren alderdi orokorrak

Dokumentuari egindako iradokizun zehatz eta unean unekoak alde batera utzita, aurkeztu ziren alegazioen artean hainbat alderdi orokor antzeman dira, eta horietako batzuk behin eta berriz agertzen dira. Hona hemen nabarmenenak:

1. Lehen eskakizuna dokumentuaren izenari dagokio; izan ere, LAParen izenburuan "eta natura-ingurunea" agertzen da eta horren eskumena Nekazaritza eta Arrantza Sailak Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren esku utzia du; hortaz, "Nekazaritza eta basogintza antolatzeko lurraldearen arloko plana" izena proposatu zen. Beste kasu batean, planari izena aldatzeko eta "Landa-arloko LAP" jartzeko eskatu zen, eta hori justifikatzeko, aditzera eman zen nekazaritza- eta basogintza-arloko alderdiak gainditzen dituzten landa-garapeneko alderdiak direla.
2. Zenbait iradokizunek aditzera eman zuten beharrezkoa dela landa-mundua babesteko NBALAParen moduko dokumentu bat idaztea. Euskal Nekazarien Batasunak (ENBA) eta Arabako Kontzeju Elkarteak hiri-interesak geldiarazteko neurriak gogortzea edo nekazaritza babesteko orientabide eta proposamenak, gomendio hutsak izan beharrean, gainerako sektoreentzat lotesleak izatea proposatu zuten.
3. Hainbatek zalantzan jarri zituen NBALAParen inguruko hainbat alderdi: NBALAParen oinarri juridikoa; horren irismena, lurraldea antolatzeko tresna den aldetik; eta horren elkarreragina eta posizio hierarkikoa lurralde-antolamenduko beste elementu batzuei dagokienez, batez ere udal-planeamenduetako arau subsidiarioei eta LZPei dagokienez. Era berean, eskatu zen NBALAPak, dagoeneko onartuta dauden arauak ez ezik, berraztertzeko, aurrerapeneko edo behin-behinean onartzeko fasean daudenak ere aintzat hartzeko, haiekiko bateragarria izan dadin eta haiekin koordinatua dadin. Udalek, oro har, ondo baloratu zituzten beren arlo funtzionalei buruz idazteko prozesuan dauden LZPak, eta NBALAPak dokumentu horietako hirigintza-hazkuntzako proposamenei men egiteko eskatu zuten.

4. Aurreko puntuari eutsiz, izapideak aurreratuta dituzten eta landa-ingurunean eragin nabarmena duten beste LAP batzuekin (hala nola Hezeguneetako LAParekin eta Itsasertza Antolatzeko LAParekin) koordinazio handiagoa ezartzeko eskatzen zen. Ildo horretan, lehendik zeuden hiriguneak eta babestutako natura-guneak NBALAPetik kanpo utzi diren bezalaxe, dagokien LAPean zehazki antolatutako hezeguneak haren aplikazio-esparrutik kanpo uztea proposatu zen.
5. Gehiegizkotzat jo zen sektoreko planteamendu batean oinarrituta NBALAPa landa-espazio guztia oso-osorik antolatzen saiatzea eta EAEko ia lurzoru urbanizaezin guztia lurzoru babestu bihurtzea, horrek etorkizuneko hirigintza-garapenak hipotekatuko baititu. Lurralde Antolamendu Sailaren iritziz, dokumentuak garrantzi handiegia ematen zion lurzoruaren plangintza fisikoari, eta zeregin hori beste dokumentu batzuetan bildu behar da (LAAei, LZPei edo udal-planeamenduetan).
6. Gehiengo zabal baten (batez ere udalen) esanetan, NBALAPa etorkizuneko hirigintza-, industria- eta azpiegitura-garapenerako muga bat da, arlo horren hazkuntza arriskuan jartzen duena; eta, horren ondorioz, betiere haien iritziz, udalerrien garapen sozioekonomikoa ere jartzen du arriskuan.

Arrisku horren arrazoia, haien esanetan, LAPak lurzoru urbanizagarri guztia kategorietan eta sektore-irizpide baztergarrien bidez aukeratutako erabileretan kalifikatzea da, kategoria eta erabilera horiek ez baitatoz bat arlo horretako udal-araudiekin (arau subsidiarioekin), ezta lurralde-antolamenduko beste hainbat planeamendurekin ere, hala nola lurraldearen zatikako planekin, defentsako eta beste erabilera batzuk baztertzeko jarreran oinarrituta.

7. Erabilerak arautzeko matrizea, berriz, berraztertu beharreko tresna mugatzailetzat hartu zen, batez ere azpiegiturei eta eraikuntza-erabilerei dagokienez. Matrizea gehiago malgutzea proposatu zen, hots, kategoria bakoitzean berez debekatuta zeuden erabilerak onar litzakeen mekanismo bat ezartzea.

Bestalde, aditzera eman zen matrizearen ñabardurak eta salbuespenak aplikatzeko irizpideak zehaztu gabeak zirela.

8. NBALAPak kategoriak LAAetan definituta dauden modu berean hartu beharko litzukeela aintzat iritzi zitzaion: babes bereziko kategoria, LAParen aurrerapen-planteamendu honetan kendu dena, kontuan hartu beharko litzateke; eta baso autoktonoak, haitzak eta LAAetan halakotzat hartutako elementu guztiak kategoria honetan sartu beharko lirateke; eta ez litzateke kategoria berririk sortu beharko (Mendia "gainkategoria").

- Gainera, NBALAPak erabilera eta jardueren definizioei, gainjarritako baldintzatzaileei eta LAAEn gainerako irizpideei eustea eskatu zen.
9. Sektore-testuinguruari dagokionez, aditzera eman zen NBALAPean sektore-jarraibideen zehaztapen handiagoa eta aurreko dokumentuen —hala nola EAEko Landarako Plan Estrategikoaren— artezpideak biltzea falta zela.
 10. Kasu gehienetan Arloko Afektazioaren Ebaluazio Protokoloa (AAEP) beharrezkoa ez den elementutzat hartu zen, beste tresna batzuk bazeudelako, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa esaterako. Zenbait udalek onartezintzat eman zuten planeamendua izapidetzeko eta onartzeko prozesu luzearekiko izapide gehigarria baita. Beste administrazio batzuen iritziz, hala nola Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako Zuzendaritzaren iritziz, AAEPa tresna egokia da baliabide urria eta ez-berriztagarria den nekazaritza-lurzorua galera baliotzeko.
 11. Bestalde, NBALAPa ez zen egokitzat hartu izapide, prozedura, figura edo kontrol-organo berriak biltzeko, betiere nekazaritza- eta basogintza-erabileretarako nekazaritza-sailek eman beharreko baimen jakin batzuei dagokienez (AAEPak eta landa-lurrak kudeatzeko erakundeak). Lurralde Antolamenduko Zuzendaritzaren arabera, zeregin hori legedian arautu behar da.
 12. Landa-lurrak kudeatzeko erakundeen osaeran definizio eskasa eta zehaztapenik eza kritikatu ziren. Zenbait kasutan, tresna hori kentzeko eskatu zuten; beste batzuetan, bertan administrazio eskatzaileak ordezkatzeko.
 13. Aditzera eman zen korridore ekologikoak ez zeudela behar bezain identifikatuta eta mugatuta. Natura-baliabideen ardura duten zenbait administrazio, baita talde ekologistak ere, guztiz ados agertu ziren kontzeptu hau gainjarritako baldintzatzaile gisa jasotzea, eta NBALAPean, planteatutako gomendio hutsen orde, espazio horiek babesteko neurri mugatzaileagoak ezartzeko eskatu zuten. Antzeko zerbait proposatu zen gutxi aldatutako paisaia duten guneen gainjarritako baldintzatzailearentzat, ez baitziren kartografiatuta agertzen. Halaber, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak eskatu zuen paisaia-irizpideak, nekazaritza-erabileretarako ez ezik, industriako eta bide-komunikazioko erabileretarako ere ezarri eta definitzeko.
 14. Berez "Nekazaritza eta basogintza eta natura-ingurunea antolatzeko LAP" izena zuen arren, hainbaten iritziz dokumentuak ez die ekarpen handirik egiten natura, ekosistemak eta natura-baliabideak babesteari buruz dauden xedapenei. Horri dagokionez, zenbaitek kontserbazio-neurri murriztaileagoak proposatu zituzten natura-intereseko gunetarako eta baso-kudeaketako irizpideetarako.

Era berean, hainbaten ustez, bultzada handiagoa eman behar zen nekazaritza- eta basogintza-jardunak eta ingurumenarekiko errespetua bateragarri egiteko. Bereziki, nekazaritza- eta ingurumen-laguntzak aipatu ziren.

15. Aditzera eman zen kartografia arlo funtzionalen arabera aurkeztu beharko zela eta ez eskualdeka. Eta nolnahi ere, haren eskala hedatu beharko litzateke.
16. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak aditzera eman zuen NBALAPa aldatzeko prozedura sail horri dagokiola eta ez Nekazaritza eta Arrantza Sailari. Iradokizunen batean, aldaketa zehatza zer den zehazteko eta aldatzeko baldintzak ezartzeko eskatu zuten.
17. Uren Zuzendaritzak beharrezkotzat jo zuen Uraren Legea barnean hartzea eta horren baldintzatzaileak LAParen esparru juridikoaren barnean aintzat hartzea, garrantzi handia baitu nekazaritza- eta basogintza-jardueran oinarritzko baliabide horren erabileran eta lurraldeko erabileren antolamenduan.

1.2) Alegazioen ondorioz NBALAParen dokumentuan egindako aldaketa nagusiak

1.2.1) I. KAPITULUA: EAEko landa-ingurunea

Kapitulu honetan, labor deskribatzen dira ingurune fisikoaren alderdiak eta EAEko egungo landa-panorama osatzen duten baldintzatzaile sozioekonomikoak.

NBALAPean, hasierako onespenerako:

- ❑ Lurraldeko nekazaritza-erabileren banaketaren azalpen zabalagoa egiten da.
- ❑ Datu sozioekonomikoei buruzko edukiak eguneratzen dira.
- ❑ EAEko landa-ingurunearen diagnostikoa eguneratzen da.

1.2.2) II. KAPITULUA: Justifikazioa

Kapitulu honetan, NBALAParen esparru globala ematen saiatuko gara, nola legegintzaren ikuspegitik hala lurralde-antolamenduaren esparruan eta sektorearen testuinguruan. Gainera, kapitulu honetan LAPa idaztea komenigarria eta egokia dela nabarmentzen da, LAPerako lortu nahi diren helburuak ezartzeaz gain.

Hasierako onespenerako LAPean:

- ❑ Sektore-testuingurua askoz sakonago azaltzen da: aldez aurreko sektore-dokumentuen artezpideak, nekazaritza- eta ingurumen-laguntzak, artezpideak azpisektoreen arabera, etab.
- ❑ Legegintza-testuingurua osatzeko, LAAetan proposatutako alderdietan sakondu da eta LAParen esparru juridikoan Uraren Legea eta sektore-araurik esanguratsuenak txertatzen dira.

1.2.3) III. KAPITULUA: Antolamendurako oinarriak.

Kapitulu honetan, lurzoru urbanizaezina antolatzeko funtsezko hiru elementuak deskribatzen dira: Lurzoru horretan koka daitezkeen jarduerak eta erabilerak, espazioa antolamendu-kategorietan zonifikatzea, eta, azkenik, jarduera horiek ezartzean kontuan hartu behar diren gainjarritako baldintzatzaile batzuen deskribapena.

Hasierako onespenerako LAPean:

- Nekazaritza- eta basogintza-erabilerei lotutako jarduerak zehatz-mehatz berraztertzen dira
- Proposatutako antolamendu-kategoriei eusten zaie eta hiri-inguruetako parkeei buruzko beste bat gehitzen zaie.
- Gainjarritako baldintzatzaileei eusten zaie.

1.2.4) IV. KAPITULUA: Artezpideak eta araudiak

Kapitulu honetan, LAParen araudi-alderdiak biltzen dira hiru jarraibideetan oinarrituta: Nekazaritza- eta basogintza-erabilerak LAParen aplikazio-esparru osoan ezartzeko irizpide orokorrak; erabilerei buruzko berariazko arauak, antolamendu-kategorien eta gainjarritako baldintzatzaileak dituzten zonetan aplikatzeko irizpideak.

Hasierako onespenerako LAPean:

- Itxiturak eta hesiak, landa-bideak eta agroaldeak ezartzeko irizpide berriak ezartzen dira.
- Erabilerak antolamendu-kategorien arabera arautzea antolamendu-matrizean oinarrituta egiten jarraitzen da. Hala ere, funtsezko aldaketak egingo dira horren inguruan, dokumentu honen I. eranskinean xedatutakoari jarraiki.
- Nekazaritza- eta basogintza-erabilerekiko zenbait ñabardura aldatu dira, baita gainjarritako baldintzatzaileen arauak ere.

1.2.5) V. KAPITULUA: Jardun-tresnak

NBALAPa aplikatzeko, hainbat tresna sortzea proposatzen da: landa-lurzorua kudeatzeko erakundeak eta arloko afektazioaren ebaluazio prozedura (AAEP).

Hasierako onespenerako LAPean:

- AAEPa ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduran sartzea proposatzen da (Ikus I. eranskina)
- Landa-lurzorua kudeatzeko erakundeen funtzioak eta helburuak sakonago garatzen dira (Ikus I. eranskina)
- Natura-intereseko espazioen antolamenduan natura-baliabideak antolatzeko plan baten (NBAP) ordez plan berezi bat egitea komeni dela onartzen da, betiere babes berezikotzat jo beharreko espazioa tokiko interesekoa bada.

1.2.6) VI. KAPITULUA: NBALAParen aplikazio-arauak

Kapitulu honetan, NBALAParen dokumentuan jasotako araudien lotespen-maila zehazten da, baita indarraldiak eta LAP hau berraztertzeke baldintzak.

Hasierako onespenerako LAPean:

- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak LAPak aldatzek prozeduran eskumena duela onartzen da.
- NBALAParen eta idazketa-fasean dauden beste LAP batzuen arteko lotura doitu da.

1.2.7) VII. KAPITULUA: Memoria Kartografikoa

Azken kapitulu honetan, antolamendu-kartografia egiteko erabilitako metodologia-oinarriak ezartzen dira eta horren eskalan etorkizunean egiten diren gehikuntzetarako erabili behar diren irizpideak zehazten dira. Eskualde-mailako antolamendu-kartografia txertatuta osatzen da kapitulua.

Hasierako onespenerako LAPean:

- Kartografia arlo funtzionalen arabera aurkezten da.
- Kartografia berrian, Azaleko uren babeska kategoria, onura publikoko mendiak eta Hezeguneetako LAPak eta Itsasertza Antolatzeko LAPak antolatzen dituzten zonen muga aurkezten dira.
- Hiri-guneen eta gune urbanizagarrien muga erabilgarri dagoen azken Udalplanaren bitartez eguneratzen da.

2) LAP-AREN HASIERAKO ONESPENAREN ONDORENGO JENDAURREKO ERAKUSTALDIA

Ezarritako prozedurari jarraituz, 2005eko urtarrilaren 10eko Aginduaren bidez NBALAPari hasierako onspena eman ondoren, dokumentua jendaurrean jarri eta entzunaldia egin zen. Guztira 45 alegazio egin ziren epe barruan (eta beste bat epez kanpo), erakunde hauetatik:

Lurraldeko Herri Administrazioak:

1. Herrilan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.
2. Uren Zuzendaritza. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Eusko Jaurlaritza.
3. Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Eusko Jaurlaritza.
4. Herrizaingo Saila. Eusko Jaurlaritza.
5. Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
6. Nekazaritza Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
7. Hirigintza eta Udal Harremanen Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.

8. Nekazaritza Sails. Arabako Foru Aldundia.
9. Hirigintza eta Ingurumen Sails. Arabako Foru Aldundia.
10. Kultura, Gazteria eta Kirol Sails. Arabako Foru Aldundia.
11. Debagoieneko Mankomunitatea.
12. Vitoria-Gasteizko Udala.
13. Donemiliagako Udala.
14. Gobiarango Udala.
15. Amurrioko Udala eta Lezamako eta Larrinbeko Kontzejuak.
16. Legutianoko Udala.
17. Tolosako Udala.
18. Alzagako Udala.
19. Azpeitiko Udala.
20. Oñatiko Udala.
21. Elgetako Udala.
22. Bergarako Udala.
23. Zarauzko Udala.
24. Irungo Udala.
25. Eskoriatzako Udala.
26. Areatzako Udala.
27. Zallako Udala.
28. Portugaleteko Udala.
29. Balmasedako Udala.
30. Etxebarriko Udala.
31. Iurretako Udala.
32. Derioko Udala.
33. Sopuertako Udala.
34. Erandioko Udala.
35. Ortuellako Udala.
36. Loiuko Udala.
37. Hondarribiko Udala.
38. Donostiako Udala.
39. Ezkio-Itsasoko Udala.
40. Ibarrao Udala.
41. Lezoko Udala (epeo kanpo).

Erakundeak eta partikularrak:

8. EHNE – Euskal Herriko Nekazarien Elkarteo
9. ENBA – Euskal Nekazarien Batasuna

10. Bizkaiko Espeleologia Federazioa.
11. Gipuzkoako Baso Elkarte – Asociación de propietarios forestales de Gipuzkoa.
12. Javier Loidi jn. doktorea, Landareen Biologia eta Ekologia, UPV/EHU.

2.1) Aurkeztutako iradokizunen artean behin eta berriz ageri diren alderdi orokorrak

Dokumentuari egindako iradokizun zehatz eta unean unekoez gain, alegazioetan bildutako alderdi orokor gehienek honako hau eskatzen zuten:

- Legeei buruzko erreferentziak eguneratzea (Uraren Legea, Natura Ondareari buruzkoa...)
 - Kartografia eguneratzea, lehendik sailkatuta dauden hiri-zonak aterata.
 - Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako erabilerei lotutako jarduerak gehiago xehatzea, zonen araberako erabilera-araudi zehatzagoa ematearren. Zehazki, gutxienez jardueren eta erabilerei lotutako eraikuntzen artean bereizteko eskatu zen.
 - Argiago azaltzea nola koordinatzen den NBALAPa beste LAP batzuekin, bereziki Hezeguneen LAParekin, Itsasertza Antolatzekoarekin eta Ibai eta erreken LAParekin (eta erreferentziak eguneratzea).
 - NBALAPak onartu diren eta izapidetze-fasean dauden LZPekin duen koordinazioa argitzea (eta erreferentziak eguneratzea).
 - LAPak udalerrientzat duen lotespen-maila argitzea.
 - NBALAParen lotespen-maila nekazaritza-lurzorua ardatz hartuta zehazteko premia.
 - Gune higagarrietan hidrologia- eta baso-planak aintzat hartzea.
 - Erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizearen hainbat alderdi berraztertzea: Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu Zuzendaritzak egindako eskaria nabarmendu behar da; hain zuzen ere, antolamendu-kategoria guztietan loturarik gabeko hirigintza-hazkunderen debeku orokorrari eusteari dagokionez LAPean EHLABak adierazitakoarekin bat ez datorrena zuzentzeko eskatu zuen, zenbait kasutan ezinezkotzat ematen baitzuten (industrialde berrietan, eta abarretan).
- Nabarmendu behar da, halaber, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak egindako eskaria (alegazio-epearen ondoren, hainbat bilera egin dira erakunde horrekin); hain zuzen ere, eskatu zuen Mendia gainkategorian eta Ingurumen-hobekuntza kategorian muga-maila gehitzeko, Nekazaritza-abeltzaintza eta Landazabala kategorian oso erabilera-araudi mugatzailea ezartzea natura-balio handiagoa izan lezaketen beste zona batzuetarako kaltegarria ez izateko.
- NBALAParen edukiak zabaltzea, honako alderdi hauei dagokienez:

- o 43/2003 Legea, Mendiei buruzkoa.
- o Landa Garapenerako Eskualdeko Planak (LGEP).
- o Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak.

Dokumentu horien irismenari eta edukiei, lotespen-mailari, txostenen premiari eta beste hainbat alderdiri buruzko argibideak txertatzek eskatu zen, baita mendiei buruzko foru-arauak eguneratzeko ere.

- Natura 2000 Sarea gainjarritako baldintzatzaile gisa biltzea.
- Nekazaritza-jarduerari lotutako etxebizitzak eraikitzeko mugak gehitzea. Lurzoruari buruzko Legeko xedapenak eta Gipuzkoako foru-araudiak bildutakoa txertatzea.

2.2) Alegazioen ondorioz NBALAParen dokumentuan egindako aldaketa nagusiak

Aipatutako alegazio guztiak eta aurkeztutako dokumentazioa plana idazten ari zen taldeak eta horren jarraipen-batzordeak analizatu zituzten, eta banakako erantzuna eman zitzaion. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren kasuan, haren ekarpena ez zen alegazio hutsa izan; gero zenbait proposamen eta ekarpen egin ditu, eta kontuan izan dira dokumentua prestatzean.

Halaber, LAP idatzi duen taldeak eta horren jarraipen-batzordeak egindako bileretan, alegazio-idazki horietan aipatu ez ziren alderdi batzuk azaldu ziren. Alderdi horietako batzuk kontuan izan dira planaren behin-behineko onespenerako.

Aurreko guztiaren ondorioz LAPan egin diren aldaketak NBALAPa behin-behinean onartzen duen 2010eko azaroaren 8ko Aginduan bildu dira²⁴.

3) LAP-AREN INGURUMEN EBALUAZIOAREN ONDORIOZ DOKUMENTUAN EGINDAKO ALDAKETAK

NBALAParen ingurumen-ebaluazio estrategikoa (IEE) prozesu dinamikoa bat izan da: ingurumen-organoarekin bilerak egin dira LAParen hasierako onespeneratik aurrera, eta etengabeko ingurumen-ebaluazioak berak dokumentua aldatzeko aukera eman du.

Hala, ingurumen-organoak eskatutakoaren ondorioz, behin betiko onartzeko aurkeztu den LAPean eduki osagarriak sartu dira LAAen babes bereziko kategoriari buruz, hori udal-planeamenduan modu egokian identifikatzen eta ezartzen dela ziurtatzeko.

²⁴

http://www.nasdap.ejgv.euskadi.net/r50-7393/es/contenidos/plan_programa_proyecto/pts_agroforestal/es_6394/adjuntos/OrdenAprovisionalCas.pdf

Bestetik, LAParen behin betiko onespenerari buruzko dokumentuan egin zen ingurumen-ebaluazio zorrotzaren ondorioz, planari aldaketa batzuk egiteko proposamena egin zen, eta planak bere edukietan txertatu ditu, bere proposamenen ingurumen-portaera hobetzeko.

NBALAPa izapidetze-fase guztietan sartu diren ingurumen-arloko aldaketak IIT honen 4. atalean zehazten dira: “4. Aukeren ingurumen-azterketa”. Era berean, “6. Neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak” atalean, espresuki biltzen dira LAParen behin-behinean onartzeko dokumentuaren ebaluazioaren ondorioz sortutako proposamenak.

II Eranskina: Kartografia. Ingurumen-unitateen mapa

III Eranskina: Laburpen-dokumentua

1. NBALAParen helburu estrategikoak

1.1. Jardun-esparrua eta denbora-irismena

Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak garatzen eta zehazten ditu ingurune fisikoaren antolamenduari buruzko kapituluko "5.2" eta 6.8" atalei dagozkien Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako irizpideak, hainbat epigrafe bereziki garatu arren natura-ingurunearen alde zehatzei buruzko bestelako LAPetan.

Arloei dagokienez, Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAPak nekazaritza- eta basogintza-erabilerak arautzen ditu bereziki; dena den, kautelak ezar ditzake nekazaritza- eta basogintza-balio handiagoa duten lurren biziraupena arriskuan jar dezaketen bestelako erabileretarako.

Oro har, LAP honen antolamendu-esparruak EAE osoa hartzen du, lehendik dauden hiriguneak kanpo utzita; hala, hirigunetzat jotzen dira dokumentu hau behin betiko onartzen den unean udal-planeamendu orokorrean hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen direnak.

Era berean, NBALAParen antolamendu-esparrutik kanpo geratzen dira tresna hau ingurumeneko edo lurraldeko plangintzarekin koordinatzearen ondoriozko beste zona batzuk: Parke naturalak eta babestutako biotopoak (deklaratutakoak eta tramitazioan daudenak), Urdaibaiko Biosfera Erreserba, zona hezeetako II. multzoko hezeguneak, babes bereziko zonak, ingurumen-hobekuntzakoak eta Itsasertza Antolatzeko LAPeko hiri-hondartzak.

LAParen indarraldia mugagabea izango dela aurreikusi da, noizbait berraztertzen den arte. Nolanahi ere, lau urtetik behin memoria bat egingo da betetzen ote den baloratzeko.

1.2. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAParen helburuak

- Nekazaritza-lurra definitzea eta babestea, nekazaritza- eta basogintza-jarduera orekatu baterako ezinbesteko baliabide gisa.
- Egungo landa-egoera zehaztea.
- Plangintza landa-irizpideetatik planteatzen duen lurralde-antolamendu bat bultzatzea.
- Jardun-tresna baliozko eta aplikagarriak planteatzea, arloa eta haren inguruneak nekazaritzakoak eta basogintzakoak ez diren erabileretatik

babestuko dituztenak, eta elkargune-zonetan planeamenduen arteko koordinazioa ziurtatzen dutenak.

- Landako eta Basogintzarako Plan Estrategikoak, Lurraldea Antolatzeko Artezpideak eta aurretiko antzeko dokumentuetan lurraldea antolatzeko eta planifikatzeko bildutako artezpideak eta irizpideak biltzea.
- Udal-plangintzak lurzoru urbanizaezinean egindako zonifikazioan irizpideak eta kontzeptuak bateratzea.
- Nekazaritzaren babesaren ingurumenekoarekin bateratzea.
- LAP honen emaitzen hedapena segurtatzea, lurraldea kudeatzeko eta planeamenduko bestelako dokumentuetan kontuan har dadin.

Ingurumen-arloko helburu gisa argi eta garbi identifikatu dira honako hauek:

- Nekazaritza- eta basogintza-jarduerak finkatzea ingurumenaren kontserbazioa bermatzeko
- Nekazaritzaren babesaren ingurumenekoarekin bateratzea.

1.3. Aukeren analisisa

NBALAParen hasiera 90eko hamarkadaren amaierakoa da, duela 10 urtetik gorakoa, eta historia luze horrek baldintzatu du aukera ugari kontuan izatea LAParen edukiak eta irismena definitzean; izan ere, faktore ugari eragindako aldaketa-prozesu etengabe gisa soilik uler daitezke horiek.

LAP prestatzeko prozesuan "aukera" gisa uler daitezke LAParen fase guztietan orain arte aurkeztutako dokumentuak —lurralde-ereduari buruz dagozkion proposamenekin batera—. Aurrerapena, hasierako onespenera, behin-behineko onespenera eta behin betiko onartzeko dokumentua.

Fase horiek guztiek ekarpen batzuk dituzte aurrekoen aldean, eta ingurumenean izan ditzaketan ondorioengatik, hauek nabarmen daitezke:

- Aurrerapena (2001eko iraila):
 - Lurzoru urbanizaezin guztia hartzen duen lurralde-ereduaren proposamena.
 - Erabileren araubide loteslea oro har.
 - Eduki zabalak natura-inguruneari buruz: espazio babestuak sartzeko, etab. (Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko eta Natura Inguruneko LAPa)
 - Kategoriak proposatzea LAAk garatuz.
 - Gainjarritako baldintzatzaileen proposamena LAAen osagarri.

- Erabilerak identifikatzea/banatzea LAAak garatuz, arloa hobeto islatzeko.
- Hasierako onespena (2005eko urtarrila):
 - Natura-inguruneari buruzko edukiak murriztea (NBALAP), baina hala ere gainjarritako baldintzatzaile berriei (ING, higadura, paisaia) eutsi egiten zaie.
 - Baso-kudeaketa iraunkorrari buruzko kontzeptuak sartzeari (sektore-testuingurua).
 - NBALAPetik babestutako beste zona batzuk ateratzea.
 - Erabileren araubide loteslea oro har, baina aurrerapenarekiko aldaketekin.
- Behin-behineko onespena (2010eko azaroa):
 - LAPetik beste zona babestu batzuk ateratzea: hezeguneak, etab.
 - Kategoriak aldatzea.
 - Erabilera-araudia berraztertzea. Aldaketak matrizean, ñabarduretan eta LAParen lotespen-mailan.
 - Natura 2000ri buruzko arau-erreferentziak sartzeari.
 - Kartografia berraztertzea, Arabako Mendia gainkategoriaz azalera neurri handi batean handituta, eta lekututako ia guztiak ezabatuta.
 - Basogintza-sektoreari buruzko edukiak gehitzea: Mendiei buruzko Legea, erabilera publikoko mendiak, Baso Baliabideak Antolatzeko Planak (BBAP). Horrela oreka bat lortzen da nekazaritzako eta mendiko zonen artean.
 - Argitzea LAP beste LZP eta LAP batzuekin nola koordinatu behar den eta nola egokitu behar den udal-planeamendua.
- Behin betiko onespenerari buruzko dokumentua (2012ko ekaina): praktikan eutsi egiten zaio LAParen behin-behineko onespenerari, aldaketa bat soilik egin da dokumentuaren egiturari eta ezabatu egin dira (1) aplikatzekoa den beste araudi batean jasotakoa errepikatzen duten edukiak, ez delako beharrezkoa NBALAPean berriz jasotzea; eta (2) NBALAPak proposatzen zituen txosten batzuk, nahiz eta hori ez den tresna egokia hori egiteko. Era berean, natura-ingurunea zaintzeari buruzko eduki batzuk zabaldu egin dira. Dokumentuaren aldaketa ez-garrantzitsuak direla pentsatzen da, NBALAParen helburuak eta lurralde-ereduaren proposamen orokorra ez direlako aldatu.

Erabakitze-prozesuak NBALAParen egungo proposamenera eraman du, hori behin betiko onartzeko aurkeztu den dokumentuan jaso da eta "aukeratuta" jotzen da.

1.4. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAParen proposamen edo helburu operatiboak

1.4.1. Funtsezko proposamen edo helburu operatiboak

Lehenago azaldutako helburu orokorren arabera, NBALAParen ondorioz sortzen diren helburu operatibo nagusiak edo proposamenak, dokumentu osoan zehar islatzen direnak (batzuetan ez dira modu esplizituan adierazten baina), hauek dira:

- Nekazaritza-lurra definitzea eta babestea, natura-ingurunea eta paisaia zaintzeari estu lotutako baliabide gisa (larreak, heskaiak, etab. mantentzeko lagungarri delako).
- Nekazaritza Arloko Afektazioaren Ebaluazio Protokolo bat (AAEP) sortzea eta planak eta proiektuak tramitzeko prozesuan inkardinatzea; horrela, nekazaritza-lurzoruko eta ustiapenetako afektazioa kontuan hartuko da aukeren analisia egitean, eta inpaktu handiagoa duten soluzioak saihestuko dira.
- EAEko landa-ingurunearen egoeraren diagnosi bat egitea. Hor nabarmentzen da zer zeregin garrantzitsu duen natura-, paisaia- eta kultura-ondareak haren espektatiba ekonomikoen barruan, nekazaritza-jardueraren euskarri gisa duen interesaz gain. Nekazaritza-sektorearen indargune eta ahulgune handienak kontuan izatea ingurumenaren ikuspegitik.
- Nekazaritza Administrazioek aldizkako plangintzako dokumentu estrategikoak (Euskal Landa Plan Estrategikoak) idaztea. Indarrean dago EAEko Landa Garapenaren Plana 2007-2013, eta hor iraunkortasunaren aldeko apustua egiten da nekazaritza-baliabideen kudeaketan eta barnean hartzen ditu egitura-politikan eta landa-garapenean garatu beharreko jardunak. LAPak bere gain hartzen ditu dokumentu horretan nabarmendutako nekazaritza- eta ingurumen-laguntzak nekazaritza-garapena eta ingurumen-kontserbazioa bateratzeko.
- Euskal Basogintza Planaren (1994-2030) helburuak bere gain hartzea: horien artean agertzen da *"zuhaiztutako mendien dibertsitatea eta iraunkortasuna bermatzea, basoak eta ekologia- eta paisaia-segizioa mugatuta, antolatuta eta artikulatuta"*.
- Natura Baliabideak Antolatzeko Planen (NBAP) barruti hierarkikorik handiena bere gain hartzea Babestutako Natura Guneen plangintzan. Hortaz, tresna horietan eskuordetzen ditu natura-ingurunearen babesa eta nekazaritza- eta basogintza-erabileren antolamendua gaur egun NBAP idatzi bat duten espazioetan (Urdaibaiko Biosfera Erreserban, parke naturaletan, biotopo babestuetan...). Espazio horiek NBALAParen antolamendu-esparrutik kanpokotzat jotzen dira.
- Oro har, lurzoru urbanizaezin guztiaren antolamendu xehatua egiten da LAAen lurralde-eredua egokituta. Antolamendu hori antolamendu-matrize batean oinarritzen da eta bideratuta dago batik bat nekazaritza-lurzorua baliabide ez-

berriztagarri gisa babestera, baina balio handieneko kategoriak zaintzea ere azpimarratzen du haien natura-interesengatik.

Ildo horretan, lehen zatiketa handi bat proposatzen da lurraldean: "mendia" eta "landazabala".

- LAAen antolamendu-kategoriak banatu egiten dira, egungo erabilerek eta lurraldearen erabilera-ahalmenak unitate homogeneoetan bat egiteko.
- Bereziki, balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintzako guneen kartografia egiten da, nekazaritza-jardueraren bideragarritasunerako funtsezko kontserbazio-gune gisa. Horrekin LAAen hutsuneak bete nahi dira "*nekazaritza-ustiapenerako egungo edo balizko egokitasunagatik babestu egin behar diren lurzoruen definizioari*" dagokionez.
- LAAen babes bereziko kategoria ez da berariaz mugatzen NBALAPean, zona horiek LZPek eta udal-planeamenduak identifikatu behar dituztela jotzen baita. Baina LAPak "Natura Intereseko Guneak" (neurri batean LAAetatik datorrena), "Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak", "Korridore ekologikoak" eta "Gutxi aldatutako paisaia duten guneak" gainjarritako baldintzatzaileak gehitzen ditu kategoria hori definitzeko oinarri gisa, eta gainera udal-planeamenduak babes bereziko gisa izendatzeko, zonek zer ezaugarri izan behar dituzten biltzen du —LAAei jarraituz—.
- Natura 2000 Sarearen zati izateko proposatu diren guneak "Natura-intereseko guneak" gainjarritako baldintzatzailearen barruan daude. Hor, LAPak onartzen eta adierazten du aplikatzekoa dela 92/43/EE Zuzentarauak ezarritako prebentzio-erregimena eta, gune horiek kontserbazio bereziko zona deklaraturakoan eta/edo dagozkien kontserbazio-neurriak dituztenean, tresna horiek arduratuko direla horiek antolatzeaz eta kudeatzeaz.
- Nekazaritza- eta basogintza-erabilera eta -jardueren definizioa arretaz berraztertzen eta xehatzen da, horien ingurumen-inpaktua ahalik eta zehaztasun handienaz kontrolatzeko.
- Araudian "basogintza-erabileretarako ñabardurak" ezartzen dira jarduera batzuek gune jakin batzuetan duten ingurumen-inpaktua minimizatzeko, batik bat nekazaritza- eta basogintza-jarduerari lotutako eraikin eta azpiegituren kasuan.
- Bestetik, nekazaritza- eta basogintza-erabilerak ezartzeko irizpide orokorrak ezartzen dira, parte hartzen duten erakunde publiko guztiak orientatzera bideratuak, nekazaritza-jardueraren ondoriozko ingurumen-inpaktuak minimizatzeko.
- NBALAPak LAAetan proposatutako natura-intereseko guneen kartografia bat egiten du, baina Natura 2000 Sareari, parke naturalei, babestutako biotopoei, onura publikoko mendiei, zona hezeak eta itsasertza antolatzeke LAPek

babestutako guneei eta abarrei buruzko beste informazio batzuen ere bai. Kartografia hori funtsezkoa da natura-ingurunea zaintzeko lurralde-antolamenduko tresnetan eta, modu bateratuan eskaintzean, errazagoa da hori erabiltzea.

- Baldintzatzailatzat jotzen dira akuiferoen urrakortasuna eta higadura. Azken kasu horretarako, kartografia nahi den eskalan egiteko aukera ematen duen eredu bat egiten da, eta horrekin batera doazen artezpideak erabiltzen dira zona horietako basogintza- eta abeltzaintza-jarduerekin sor daitezkeen ingurumen-arriskuak neurri handi batean arintzeko.
- Korridore ekologikoen sarea gainjarritako baldintzatzailatzat jotzea. Ingurumen-izaerako proposamen bat da hau, natura-ingurunearen kontserbazioa Babestutako Natura Guneeen Saretik kanpoko zonetara estrapolatu nahi dituen, eta proposamen horren artezpideen helburua da gunen horien arteko lotura areagotzea.
- Paisaia-balio handieneko zonak gainjarritako baldintzatzailatzat jotzea.
- Lurzorua kudeatzeko tresnak ezartzea, nekazaritza-sektorearen interesak lurraldeko jardun eta proiektuen aurrean babesten eta defendatzen dituztenak: Landa Lurra Kudeatzeko Erakundeak eta planak aplikatzearen eta obrak edo jarduerak egitearen ondorioz nekazaritza-sektorean sortutako afektazioaren ebaluazioa (IIEaren barruan sartua).
- Honelako zona babestuen LAPak erauzteak: parke naturalak, babestutako biotopoak, Urdaibaiko Biosfera Erreserba, zona hezeetako (II. multzoa) eta babes bereziko zonetako LAPak antolatutako hezeguneak, ingurumen-hobekuntzakoak eta Itsasertza Antolatzeko LAPeko hiri-hondartzak.

LAParen proposamen nagusia da LAAk garatu eta lurralde-eredu bat bultzatzea, baina horien aldean aldaketa batzuk egiten ditu. Proposamenen xedea hau da:

- Lurraren erabilerak eta jarduerak.
- Antolamendu-kategoriak.
- Baldintzatzaille gainjarriak.

	Deskribapena	NBALAParen ekarpen nagusiak LAAei dagokienez
Lurraren erabilerak eta jarduerak	Lurzoru urbanizaezinean izan daitezkeen uneko eta balizko erabilera-proposamena.	<ul style="list-style-type: none"> - "Kontserbazioa" erabilera bereizi gisa ezabatzen da, ez delako berez erabileratzat jotzen, baizik aurreikusitako gainerako erabilerak baldintzatzen dituen helburu gisa. - "Negutegiak" erabilera "Nekazaritza" erabileraren barruan integratzen da. - "Landa bideak eta pistak" erabilera bereizi berria gehitzen da.
Antolamendu kategoriak	Lurraldea sektore	<ul style="list-style-type: none"> - "Babes berezia" kategorian kontuan ez izatea, LZPri eta udal-planeamenduari dagokiela ulertzen delako.

	homogeneoetan zonifikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - "Erabilera zehatzik gabeko" kategoria kontuan ez izatea, ulertzen delako lurralde guztiek dutela neurri handiagoan edo txikiagoan nekazaritza- eta basogintza-erabilera bat. - "Basoa", "Basoa-Mendi meatsa", "Larre menditarrak" eta "Larre menditarrak-Haitzak" kategoriak Mendia galkategorian elkartzea, Eusko Jaurlaritzaren LA Zuzendaritzaren artezpideei jarraituz.
Baldintzatzaile gainjarriak	Antolamendu-kategoriei gainjartzen zaizkie, eta jarduera jakin batzuk garatzeko modua murrizten da.	<ul style="list-style-type: none"> - "Babestutako Natura Guneak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba" gainjarritako baldintzatzailea (GB) ez da GBtzat jotzen berez, espazio horiek araubide propioa dutelako eta, hortaz, NBALAParen antolamendutik ateratzen dira. - LAAetako "Gune urperagarriak" GB ez dago zuzenean NBALAPan, baizik horretarako EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPean ezartzen duenaren mende dago. - Gainjarritako baldintzatzaile berriak: LAAek ezarritakoei (akuifero eta gune higagarrien kutsadurarekiko gune urrakorrak) hauek gehitzen zaizkie, LAPak proposatuta: <ul style="list-style-type: none"> o Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak o Natura-intereseko guneak (N2000 eta Ramsar barne) o Korridore ekologikoak o Gutxi aldatutako paisaia duten guneak

1.4.2. Ingurumeneko proposamenak edo helburu operatiboak

NBALAPko dokumentuak prestatzeko egindako analisisian eta lurralde-diagnosian inspiratuta, LAP hau ingurumeneko helburu operatibo hauekin formulatu da:

- o Nekazaritza-lurra babestea natura-ingurunearen zaintzari estu lotutako baliabide gisa.
- o Natura Baliabideak Antolatzeko Planen (NBAPen) barruti hierarkikorik handiena bere gain hartzea Babestutako Natura Guneen plangintzan, eta NBALAParen antolamendu-esparrutik kanpokotzat jotzea.
- o LAAen babes bereziko guneetarako natura-baliabideak antolatzeko plan bat egitea komeni den erabakitzea.
- o Modu bateratuan eskaintzea LAAetan proposatutako natura-intereseko guneen kartografia eta hauei buruzko beste informazio batzuk: Natura 2000 Sarea, parke naturalak, babestutako biotopoak, onura publikoko mendiak, etab.
- o Gainjarritako baldintzatzailetzat jotzea hauek: Natura 2000 Sarea eta haren kudeaketa-planak, akuiferoen urrakortasuna, higadura, korridore ekologikoen sarea eta paisaia.
- o Indarrean den udal-planeamenduak hartu behar dituen oinarrizko arauak ezartzea LAPera egokitzeke, ekarpen guztien lotespen-mailak argituta.
- o Planak bere aplikazio-eremuan proposatutako antolamendua indarrean den beste legeria batek ezarritako erabilera-araubidearekin bateratzea: jabari

hidrauliko publikoa eta itsasoko eta lurrekoa eta babeseko zortasun-zonak, etab.

- o Plana LAParen antolamendu-esparruko lurraldearen, ingurumenaren edo antolamendu naturalaren planeamenduko gainerako tresnekin koordinatzea.

1.4.3. Erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizea

Aurreko bi ataletan jasotako funtsezko eta ingurumeneko helburu operatiboak lortzeko, LAPak antolamendu-kategorietan aplikatzekoak diren arau berezi batzuk proposatzen ditu (araudiaren V. kapitulua), erabilerak eta jarduerak arautzeko matrize batean laburtzen direnak. Matrize hori, berriz, loteslea da balio estrategiko handiko lurzoruari dagokionez eta gomendio-mailakoa gainerako kategorietan, LAParen III. tituluan xedatu denez.

Matrize horretan lurraldean garatzen diren erabilera potentzialak (ilaretan) adierazten dira, horiek antolamendu-kategorietan (zutabeetan) ezartzea arautzeko.

Gelaxka bakoitzean erabilerak arautzen dira, proposatutako karakterizazioaren arabera, taularen azken ilaran agertzen den sinbologiari jarraituz:

ERABILERAK	ANTOLAMENDU KATEGORIAK							INGURUMEN HOBEKUNTZA	AZALEK O UREN BABESA
	NEKAZARITZA ETA ABELTZAINNTZA ETA LANDAZABALA		MENDIA						
	Estrategik oa	Trantsiziok o paisaia	Basoa- mendi meatsa	Basoak	Larre menditarra k	Larre menditarrak- Haitzak			
INGURUMEN BABESA									
Ingurumen-hobekuntza	2	2	1	2	2	2	1*	1	
AISIALDIA ETA ATSEDENA									
Aisia estentsiboa	2	2	2	2	2	2	2	-	
Aisia intentsiboa	2a	2a	2a	2a	2a	3	2a	-	
Ehiza- eta arrantza-jarduerak	2	2	2	2	2	2	2	2	
LEHEN MAILAKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDUA									
Nekazaritza-jarduerak	1	1*	2*	2a*	3	3	3	2*	
Nekazaritza-ustiapenera lotutako eraikinak	3a*	2a*	3a*	3a*	3	3	3	3	
Abeltzaintza-jarduerak	2	2	2*	2*	1*	2*	2*	2*	
Abeltzaintza-ustiapenera lotutako eraikinak	3a*	2a*	3a*	3a*	3a*	3	3	3	
Basogintza-jarduerak	2a*	2*	1*	1*	2*	2*	1*	2*	
Basogintza-ustiapenera lotutako eraikinak	3a	2a	3a	3a	3	3	3	3	
Nekazaritza-industriak	3a	2a	3a	3a	3	3	3	3	
Ateratze-jarduerak	-	-	-	-	-	-	-	-	
AZPIEGITURAK									
Garraio-bideak ²⁵	-	-	-	-	-	-	-	-	
Landa-bideak eta pistak	2a	2a	2a	2a	2a*	3	2a	-	
Aireko linea elektrikoak	2a	2a	2a	2a	3a	3	2a	-	
Lurpeko lineak	2a	2a	2a	2a	3a	3a	2a	-	
A motako zerbitzuen inst. teknikoak	3a	2a	2a	3a	3	3	3	-	
B motako zerbitzuen inst. teknikoak	2a	2a	2a	2a	2a	3a	2a	-	
Hondakin solidoen obra-hondakindegia eta zabortegeak	3a	3a	3a	3a	3	3	3a	-	
ERAIKUNTZA ERABILERAK									
Lehendik diren nukleoetan babestutako	3a	2a	2a	3a	3a	3	2a	-	

hazk.								
Lehendik diren nukleoetan babestu gabeko hazk.	3a	3a	3a	3a	3	3	3a	-
Onura publiko eta giz. inter. eraikinak	3a	3a	3a	3a	3a	3	3a	-
Ustiategiari loturiko bizitegi bakana	2a*	2a*	3a	3a	3a	3	3	3
Ustiategiari lotu gabeko bizitegi bakana	3	3	3	3	3	3	3	-
Instalazio arriskutsuak	3a	3a	3a	3a	3a	3	3a	-

1. Faboratua: Faboratutako erabilera, zona batean nagusi dena eta ikuspegi funtzional eta fisikotik karakterizatzen duena da. **2. Onargarria**, **3. Debeakua**
a. Letra honekin adierazitako kasuetan, plan edo proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedurek berariaz hartuko dituzte kontuan ebaluazio horretan nekazaritza- eta basogintza-jardueraren gaineko afektazioa eta neurri zuzentzaileen aplikazioa AAEPan jasotako baldintzetan (D dokumentua, NBALAParen I. eranskina). Balio estrategiko handiko azpikategoriari buruzko proiektuetarako, nekazaritza-arloan eskuduna den foru-organoak dagokion txostena egitea eskatuko da.

3a horiek nahi ez den erabilera dira, baina onargarria LZPek bermatzen badituzte, edo aurreko prozeduran oinarrituta onargarria dela ziurtatzen bada”.

* = Nekazaritza- eta basogintza-erabilera hauek ñabardurak dituzte LAP honetan edo foru-antolamenduak zehaztu behar ditu
- : Bestelako planeamendu-dokumentuekin arautu beharreko erabilerak

Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak kategorien kasuan, eragin guztiek basogintza-administrazio eskudunaren txosten lotesle bat beharko dute Natura 2000 Sarean sartutako zonen kasuan, horietan onar daitezkeen erabilerek habitatei buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren 3. eta 4. ataletan ezarritako ebaluazioak jarraitu behar dituzte. Zuzentzarau hori antolamendu juridiko espainolera eraman zuen 42/2007 Legeak, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoak:

6.3. Tokiko kudeaketarekin harreman zuzena izan gabe edo horretarako beharrezkoa izan gabe, leku horietan eragin nabarmena izan dezakeen –bakarrik edo beste plan eta proiektu batzuekin elkartuta– edozein plan edo proiektu toki horren eraginaren ebaluazio egoki baten mende egongo da, leku horren kontserbaziorako helburuak kontuan izanda. Lekuko eraginaren ebaluazioaren ondorioak ikusirik eta 4. atalean xedatutakoari lotuta, eskumena duten agintari nazionalak plan edo proiektu horrekin ados daudela adieraziko dute, planak edo proiektuak leku horren integritatean kalterik eragingo ez duela ziurtatu ondoren soilik, eta, bidezkoa bada, jendaurrean jarri ostean

6.4. Lekuaren gaineko ondorioen ebaluazioak ondorio negatiboak adierazi arren, eta ordeko hautabiderik ezean, interes publikoko garrantzi handiko arrazoiengatik –arrazoi sozialengatik edo ekonomikoengatik barne– plana edo proiektua gauzatu beharko bada, Natura 2000 Sarearen koherentzia orokorra babesten dela bermatzeko beharrezko neurri konpentsatzaile guztiak hartu beharko ditu Europar Batasuneko Estatuak. Estatu horrek hartutako neurri konpentsatzaileen berri eman beharko dio Batzordeari. Leku horrek habitat natural bat eta/edo lehentasunezko espezieren bat badu, giza osasunarekin eta segurtasun publikoarekin lotutako arrazoiak soilik alega daitezke, edo ingurumenerako funtsezko garrantzia duten ondorioei buruzkoak, edo, aurrez Batzordeari kontsultatuta, interes publikoko edo lehen mailako premiazko beste arrazoi batzuk.

² Lurralde Antolamenduaren Legearen laugarren xedapen gehigarriari jarraituz, EAEko Errepideen Plan Orokorra onartzeko, Lurraldearen Zatik Planak eta Lurraldearen Arloko Planak egokitu egin beharko dira. Halaber, EAEko lurralde-antolamenduko artezpideetan, 13. kapituluko 5.2 atalean hau adierazten da: Errepide-arloko politika sektoriala lurraldean txertatzeko, lurralde-arloko planen izaera izango dute Eusko Jaurlaritzaren Herrilan eta Garraio Sailak idazten duen errepideen plan orokorraren bertsioek eta foru-aldundiek bere lurralde historikoei buruz prestatzen dituzten errepide-planek.

Matrizearen proposamenak azpimarratzen du kategoria hauetan baimendutako erabilerak gehiago murriztea: Balio Estrategiko Handia (NBALAParen helburu-zona balio handieneko nekazaritza-lurzoruak babesteko); Basogintza-Mendi meatsa, Basogintza, Larre menditarrak, Larre menditarrak-Haitzak (balio natural bereziko nekazaritza-lurzoruak babesteko NBALAParen helburu-zona) eta Ingurumen Hobekuntza (zona degradatuen ingurumena berreskuratzea ez eragozteko).

Horrela, LAParen helburua nekazaritza-balioko lurzoria babestea da, baina araubideak koherentea eta bateragarria izan nahi du EAEko natura-baliabideen babesarekin, LAParen helburuei jarraituz, bai funtsezkoen, bai ingurumenekoen.

2. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAPak beste plan edo programa batzuekin dituen elkarrekintzak

2.1. Hierarkikoki goragokoak diren beste plan batzuen artezpideak eta irizpideak

EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko Legeari jarraituz, NBALAPak **LAAen Ingurune Fisikoari buruzko Artezpidea** jaso behar du, eta hierarkikoki **Lurraldearen Zatiko Planak** baino beheragokoa da. Hots, dokumentuen artean kontraesanik bada, LAP aldatu egin behar da LZParen edukiak bere egiteko.

2.2. Ingurumen-izaerako helburuak eta konpromisoak

Erkidego- eta estatu-mailan ezarritako ingurumen-konpromisoak eta irizpideak autonomia-erkidegoaren maila jaso eta garatu dira zenbait dokumentutan, eta horien artean hauek nabarmen daitezke:

- Garapen Iraunkorrari buruzko EAEko Ingurumen Estrategia (GIIE) 2002-2020.
- Ingurumen Esparru Programa (IEP): GIIE denboraldi mugatuagoetan zehazten du. NBALAParen tramitazioaren hasieratik I. IEP (2002-2006) eta II. IEP (2007-2010) izan dira indarrean, eta gaur egun III. IEP (2011-2014) prestatzen ari da.
- Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Plana 2008-2014
- EAEko Landa Garapen Iraunkorraren Plana (PDRS) 2000-2006 eta EAEko Landa Garapenerako Programa (PDR) 2007-2013.
- EAEko Basogintza Plana 1994-2030 eta basogintza-kudeaketa iraunkorra

NBALAPa dokumentu horietan guztietan ezarritako helburu eta konpromisoetarako lagungarria da modu batean edo bestean.

2.3. Aztergai den esparruan eragina duten beste plan batzuk

- EAeko Biodibertsitate Estrategia 2009-2014
- Espezie mehatxatuak kudeatzeko planak
- KBE kudeatzeko planak
- Plan hidrologikoak
- Arloko beste plan batzuk

Horren ondorioz, NBALAPa bat dator plan horiekin eta horien helburuetara egokitzen da; hortaz, ez da kontraesanik sortzen antolamendu-tresnen artean.

3. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAParen eraginpeko esparruaren ingurumeneko analisia, diagnosis eta balorazioa

Atal honen helburua da elkarrekintza ekologiko eta ingurumeneko elkarrekintza nagusien deskribapena egitea. Gainera, kontuan izan dira lurraldearen kontserbazioaren eta garapen iraunkorraren lehentasunak.

3.1. Aztergai den esparruaren definizioa

IIT honen esparrua laburpen-dokumentu honen 1.1. atalean deskribatutako LAParen jardun-esparru bera da.

Lurralde mugakideetan eragina izan dezaketen inpaktuak egoteko aukera oso txikia da LAParen ezaugarriengatik.

3.2. Natura-baliabideak eta lurzorua aprobetxamendua

EAeko azaleran nagusi den erabilera basokoa da, guztizko azaleraren erdia baino gehiago hartzen duena. Nekazaritza-jarduerak sega-belardiak dira isurialde atlantikoan eta labore estentsiboak isurialde mediterraneoan, eta Arabako Lautadan eta, batik bat, Arabako Errioxan iristen dira azalera-portzentaje handienetara. Bi

isurialdeetako paisaien arteko aldeak bi lurraldeen dibertsitate fisikoaren eta sozialaren kausa eta ondorioa dira aldi berean.

Joera negatiboa egiazta daiteke; izan ere, 10 urtetan (1999tik), ustiategi kopurua nabarmen jaitsi da: erroldatutako 40.000 ustiategietatik 16.000 baino gehixeagora igaro da. Jaitsiera handia izan da probintzia guztietan: Bizkaian (13.244 ustiategi gutxiago), Gipuzkoan (6.595 ustiategi desagertu dira) eta Araban (3.672 ustiategi gutxiago).

Oro har, NBALAPak definitutako balio estrategiko handiko lurzoruek nekazaritza-edo abeltzaintza-ustiategietarako zonak hartzen dituzte barnean, baina askotariko erabilerak batzen dira hor: interes naturaleko zonak nabarmentzen dira, hala nola heskaiak, baso txikiak edo errekek, LAPak egindako "urban handiak" proposamenaren ondorioz, eta tokian tokiko udalek berraztertu behar dute hori.

NBALAPak haran-hondoko lurzoruak babesten ditu, egungo hiriguneak inguratuz, hirigintza-tentsio handieneko zonetan. Lurralde-eredu koherente bat, nekazaritza-lurzoruaren babesa eta natura-ingurunearen eta biodibertsitatearen kontserbazioa bateratu nahi dituen bultzatzeko, LAPak proposamen malgu bat egiten du, eta nekazaritza-lurzoruaren galerak onartzen ditu, baldin eta horiek minimizatzen badira eta, gainera, behar bezala baloratzen badira konpentsazio zuzenago bat lortzeko.

3.3. Eraginpeko ingurumen-aldagaiak

NBALAParen xedapenen eraginpekoak izan daitezkeen ingurumen-aldagaiak lurzoru-baliabideari eta horretan oinarritzen diren natura-baliabideei bereziki lotutakoak dira: biodibertsitatea, ura eta paisaia.

Inpaktuen identifikazioak eta balorazioak (IITaren 5. atala) aurrekoan ari da aurreratzen, eta afektazio-ahalmena duten inguruneke 8 elementu jasotzen ditu: Elementu horiek izan ditzaketen afektazio nagusiak hauek dira:

- Lurzorua: Lurzoru-galera, higaduragatik eta artifizialtzeagatik. Kutsadura isurketengatik
- Ura: Kutsadura isurketengatik, emariak kentzea
- Flora: Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoko espezieen²⁶ eta/edo garrantzi komunitarioko espezieen aleak galtzea.
- 92/43/EEE Zuzentarauko landaredia eta habitatak: Komunitate horien azalera galtzea eta/edo narriatzea

²⁶ 167/96 Dekretua, uztailaren 9koa, Basoko eta Itsasoko Fauna eta Florako Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoa arautzen duena. (EHAA, 140. zk., 1996ko uztailaren 22koa) (Eta horren ondorengo zabaltzeak eta aldaketak)

- Fauna: Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoko espezieen eta/edo garrantzi komunitarioko espezieen aleak galtzea eta/edo horien habitata aldatzea.
- Natura 2000 Sarea: Lekuaren integritatea zalantzan jartzen duten inpaktuak
- Paisaia: Paisaia-kalitatea narriatzea
- Ondarea: Zuzeneko afektazioa ondare-elementuak suntsitzeagatik edo narriatzeagatik

3.4. Ingurumen-baliabideak identifikatzea

LAParen esparruko ingurumen-baliabide baliotsuak, kontserbazioa, ahultasuna, berezitasuna edo babes berezia kontuan izanda, hauek dira:

- Babestutako natura-guneak
- EAEko zuhaitz bereziak.
- Urdaibaiko Biosferaren Erreserba
- Natura 2000 Sarea
- RAMSAR nazioarteko garrantzia duten hezeguneak
- Hezeguneetako LAParen hezeguneak
- Landaredia²⁷ eta habitata²⁸
- Flora- eta fauna-espezieak (garrantzi komunitariokoak, AEEZn bilduak, kudeaketa-planak onartuta dituztenak)
- Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak
- Jabari hidrauliko publikoa eta itsasoko eta lehorreko jabari publikoa
- Akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren zonak
- Korridore ekologikoen sarea
- Paisaia bereziak eta apartak
- Arrisku naturalak dituzten guneak²⁹

²⁷ EAEko habitaten, egungo landarediaren eta lurzuaren erabileren kartografia. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Eusko Jaurlaritza, 2007.

²⁸ Garrantzi komunitarioko espezieak: 92/43/EE Zuzentarauaren (Habitaten Zuzentarauaren) I. eranskinean eta 42/2007 Legea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoaren I. eranskinean jasotakoak. Estatu kideek habitat horien ordezkapenak babestu behar dituzte kontserbazio bereziko zona izendatuta. Natura 2000 Sarean sartu ez diren garrantzi komunitarioko habitatentzat, Zuzentarauak zaintza bat ezartzen du, eta 42/2007 Legeak dio organo eskudunek neurriak hartu behar dituztela horiek narriatzea edo kutsatzea ekiditeko.

²⁹ 153/1997 Dekretuaren bitartez onartutako Euskadiko Herri Babeseko Planaren (Larrialdiei Aurregiteko Bidea-LABI) barruan, "arrisku naturalzat" hartzen da giza presentzia edo jarduerarekin zuzeneko lotura ez duen abiarazlea duena. Aurrekoa kontuan izanik, arrisku naturalzat hartzen dira uholde-arriskua eta lurzuaren higadura.

3.5. Ingurumen-unitateak. Kalitatea eta erabiltzeko ahalmena

NBALAParen esparruan adierazitako ingurumen-unitateak eta azaleren banaketa honako taula honetan bildu dira:

INGURUMEN UNITATEA	Azalera (ha)	Ehunekoa
Nekazaritza	212266.63	33.7
Basoak	325974.15	51.9
Sastraka/azpibasoa	33759.43	5.3
Larre menditarrak	4388.61	0.7
Haitzak	1437.75	0.2
Gune degradatuak	4537.89	0.7
Ur kontinentalak: Ibaiak eta urtegiak	3842.07	0.6
Itsasertzak: labarrak, hondartzak...	1069.70	0.2
Hiriguneak	40292.81	6.4

Unitate horiek EAEko lurzoru urbanizaezin guztia hartzen dute barnean. NBALAPak egin beharreko jardueretarako eta erabileretarako muga bat gainjartzen die, gainjarritako baldintzatzaileetan biltzen dena, betiere natura-interes handiko zonei dagokienez (OPMak eta mendi babesleak, natura-intereseko guneak, korridore ekologikoak, gutxi aldatutako paisaia duten guneak) edo arrisku naturalak dituzten zonei dagokienez (akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren guneak).

Horren ondorioz, ingurumen-unitateak erabiltzeko ahalmena beste baldintzatzaile batzuk—arriskuak prebenitzera eta minimizatzaera bideratuak edo zonen ingurumen-kontserbaziora bideratuak— mugatzen dute, eta, beraz, kontserbazio-irizpideei ematen zaie lehentasuna produkzioaren aldean.

3.6. Ingurumen-diagnostikoa

EAE osoko ingurumen-diagnostikoari aldiro heltzen zaio Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak argitaratzen dituen "EAEko ingurumenaren egoera" izeneko dokumentuetan. Argitaratutako azken dokumentuan (EAEko INGURUMENAREN EGOERA 2009) idazketa-fasean dagoen III. Ingurumen Esparru Programa (2011-2014) definitzeko egindako diagnostikoa biltzen da.

Dokumentu honetan behin eta berriz azaltzen da presiorik handienak honako esparru hauetan egiten ari direla EAEn: lurzoru- eta ur-kontsumoa, hondakinen sorrera, airearen kalitatea, hiri-ingurumena, ur kontinentalak, eta itsasoko eta itsasertzeko ingurumena. Gainera, etorkizuneko aurreikuspenen arabera, jarduera ekonomikoetarako eta bizitegi-erabileretarako lurzoruaren kontsumoa modu desorekatuan igoko da eta horrek EAEko ingurumenean nahi ez diren eraginak

izango ditu. Horregatik, lurzorua baliabide ez-berriztagarri gisa babestea lehentasun bat da ingurumenaren babesean eta kontserbazioan eta garapen iraunkorrean.

NBALAPak EAeko landa-eremuaren egoeraren sektore-diagnostikoa egiten du. Bertan, nekazaritza-transakzioetan lur-mugikortasunik eza (lurrarekiko atxikimendua) eta hirigintza-presioa nabarmentzen dira, sektoreak bizirauteko dituen zailtasun nagusietako bat direla azalduta.

4. Aukeren ingurumen-analisia

1.3. atalean adierazi denez, "aukera" gisa uler daitezke LAParen fase guztietan orain arte aurkeztutako dokumentuak: Aurrerapena, hasierako onspena, behin-behineko onspena eta behin betiko onartzeko dokumentua.

Honako taula honetan, laburbilduta jaso dira fase horiek, ekarpen nagusiak (zuzeneko edo zeharkako ingurumen-inplikazioa izan ditzaketela iritzi den kasuetan) eta bakoitzak izan litzakeen ingurumen-ondorioei buruzko iruzkinak, ondoren egin beharreko aukeraren ingurumen-analisiari heltzearen.

Aukeren ingurumen-analisisirako taula horretan bildutako eskema erabiltzen da, nahiz eta —azaldu dugunez— ez diren 9/2006 Legean aurreikusitako moduko aldi bereko aukerak, baizik eta segidako aukerak, ingurumen- nahiz sektore-alderdiak kontuan izanik LAParen oraingo proposamena osatu duen etengabeko erabaki-prozesutik sortuak.

LAParen fasea	Ekarpen/aldaketa nagusiak	Izan litezkeen ingurumen-ondorioei buruzko oharpenak
Aurrerapena	<ul style="list-style-type: none"> - Lurzoru urbanizaezin guztia hartzen duen lurralde-ereduaren proposamena. - Erabileren araubide loteslea oro har. - Eduki zabalak natura-inguruneari buruz: espazio babestuak sartzea, etab. (Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko eta Natura Ingurunekeo LAPa) - Kategoriari proposatzea LAAak garatuz. 	<p>LAPak argi uzten du hasieratik definizio kartografikoak "urban handiak" aipatzen dituela eta egiaz bakoitzaren barruan erabilera heterogeneoak daudela (adib.: Arabako etzeak baso-zonetan, heskaiak nekazaritza-zonetan, etab.).</p> <p>Kategoria bakoitzeko definizioak eta nekazaritzako eta basogintzako erabilerei egindako ñabardurak elementu horiek baliaraztera bideratuta dira, ez baitira jaso 1:25.000 eskalan egindako kartografian.</p> <p>Erabilera-araudia loteslea da oro har (matrizea loteslea da osorik, baita nekazaritzako eta basogintzako erabilerei egindako ñabardurak ere), eta LAAek ezartzen dituen muga berberak edo muga gehiago ezartzen ditu. Batzuetan, balio estrategiko handiko lurzuari zenbait baso-kategoriari baino babes-maila handiagoa ematen zaio, eta horrek zeharkako inpaktuak sor litzake.</p> <p>LAParen antolamendu-kategorien proposamenak LAAen babes berezia kanpoan uzten du; izan ere, horren arabera, LZPek eta udal-planeamenduak definituko dute categoria hori zona bakoitzaren balioen arabera (hots: ez da zalantzan jartzen adierazitako kategoriaren premia; aldiz, LAAk ez duela definituko ematen da aditzera). Bestalde, LAAetako Erabilera zehatzik gabea izeneko categoria aintzat ez hartzea positibotzat hartzen da; izan ere, garapen berrietarako xede-zonatzat har litezkeen "lurralde-hutsuneak" sortzeko aukera ezabatzen du eta lurralde osoaren nekazaritzako eta basogintzako erabilera hartzen du aintzat hein batean edo bestean.</p>
Hasierako onesp.	<ul style="list-style-type: none"> - Natura-inguruneari buruzko edukiak murriztea (NBALAP). - Baso-kudeaketa iraunkorrari buruzko kontzeptuak sartzea (sektore-testuingurua). - NBALAPetik babestutako beste zona batzuk ateratzea: aurreikuspena. - Erabileren araubide loteslea oro har, baina 	<p>Natura-inguruneari buruzko edukiak murriztea eskumen-aldaketaren eta Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko eta Natura Ingurunekeo LAPa NBALAP bihurtu izanaren ondorioa da, besterik gabe. Nolanahi ere, beste tresna batzuek (ingurumen-arloko legediak eta plangintzek) araututako alderdiak dira eta NBALAPak koordinazio-mekanismoak ezartzen ditu haien artean (babestutako natura-guneak ateratzea, Natura 2000 gainjarritako baldintzatzaile gisa sartzea kudeaketa-planak onartu arte, etab.).</p> <p>Sektore-testuinguruaren analisisian gehiago zehazten dira NBALAPerako esparru-dokumentuetan bildutako ingurumen-irizpideak, hala nola baso-kudeaketa iraunkorra, eta horien iraunkortasuna ziurtatzeko sektore-politikan aintzat hartu beharreko eta NBALAPak barne hartutakotzat ematen diren irizpideak identifikatzen dira.</p> <p>LAParen eskumen-esparruan aditzera ematen da hezeguneei eta itsasertzari buruzko LAPek antolatutako zonak planetik aterako direla tresna horiek behin betiko onartzen direnean. Hortaz, gune horiek ingurumen-arloko araudi propioa dutela onartzen da —babestutako natura-guneentzat eta Urdaibairerentzat onartu zuen bezalaxe—.</p> <p>LAParen lotespen-mailari dagokionez, matrizeak eta nekazaritzako nahiz basogintzako erabilerekiko ñabardurak oro</p>

	<p>aurrerapenarekiko aldatetekin.</p>	<p>har lotesleak izateko aurreikuspenari eutsi zaio, eta, horrez gain, honako hau erantsi da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - LAPa Kostaldee buruzko Legearekin, aireportu-zonekin eta LZPekin koordinatzeko aurreikuspenak, NBALAParen aldean lehentasuna izango dutenak. - LAPa LZPekin koordinatzea: aurrerapen-fasean bezala, LZPek LAParen balio estrategiko handia barnean hartzeko eskatzen da. Dena den, aurrerapenean jasota geratu zenez, aditzera ematen da LZPetako lurzoru babestua NBALAPak hartuko duela bere gain planak behin betiko onartzen direnean. <p>Nekazaritza-kategoriari garrantzi handiagoa emanda basogintzakoak babes eskasa izan dezakete, eta hori nabarmendu egiten da jasotako alegazioetan.</p> <p>Bestalde, LAParen edukietatik natura-inguruneari buruzko zatia ateratzeak tresnaren sektorializazio-maila gehitzen du. Bestalde, NBALAPetik atera dira araudi propioa duten espazioak (parke naturalak, Urdaibai...), eta beste espazio batzuk gainjarritako baldintzatzaile gisa biltzen dira, hala nola Natura 2000 Sarea. Horren bidez, espazio horietan indarrean dauden araudia eta plangintzak errespetatzea ziurtatu nahi da.</p>
<p>Behin-beh. on.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - LAPetik beste zona babestu batzuk ateratzea: hezeguneak, etab. - Kategoriari aldatzea. - Erabilera-araudia berraztertzea. Aldaketak matrizean, ñabarduretan eta LAParen lotespen-mailan. - Basogintza-sektoreari buruzko edukiak gehitzea: Mendiei buruzko Legea, erabilera publikoko mendiak, Baso Baliabideak Antolatzeko Planak (BBAP). - Argitzea LAP beste LZP eta LAP batzuekin nola koordinatu behar den eta 	<p>LAPetik atera dira beste tresna batzuek babestutako guneak eta argi utzi da NBALAP honek beste LZP eta LAP batzuekin duen lotura. Hain zuzen ere, hezeguneei buruzko LAPak araututako hezeguneak, Itsasertzaren LAPak definitutako babes bereziko eremuak atera dira... Horren bidez, espazio horien antolamendua eta erabilera-araudia ingurumen-arloko plangintzara eraman dira. Natura 2000 Sareari gainjarritako baldintzatzaile gisa eutsi zaio ("Natura-intereseko guneak", beste hainbat enklaberekin batera), eta argi utzi da espazio horiek kudeatzeko planak onartzen direnean NBALAPA automatikoki egokituko dela.</p> <p>"Mendia" gainkategoria barnean hartutako kategoriari dagokienez, hainbati izena aldatu zaie barnean hartzen dituzten erabilera heterogeneoak hobeto islatzeko, informazio publikoko fasean jasotako hainbat alegaziotan eskatutakoari jarraiki. Esaterako, "Meatsa" zenari "Basoa-Mendi mehatza" izena eman zaio eta "Haitzak" zenari "Larre menditarrak-Haitzak". Hori eginda, kategorien heterogeneotasuna eta aniztasuna onartzen da eta udalerriek errazago identifikatzea, mugatzea eta kudeatzea ahalbidetzen da.</p> <p>Erabilerak arautzeko matrizea berrikusita hainbat gauza lortu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - "Nekazaritza", "abeltzaintza" eta "basoak" kategorietan barne hartutako erabilerak zehaztu ditu eta nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-lanak erabilera horiei lotutako eraikuntzetatik bereizi ditu. Horrek matrize zehatzagoa egitea eta erabilerak garatzeko baldintza murriztaileagoak esleitzea ahalbidetzen du kategoriaz guztietarako. - Ingurumen-hobekuntza izeneko kategoria murriztaileagoa egin da, eta, horri esker, kategoria horren barnean hartutako zonetako ingurumena leheneratzea arriskuan jar lezaketan erabilerak sortzea saihestu da. - Oro har, erabilera-araubide murriztaileagoa egin da Basoa-Mendi mehatza, Basoak eta Larre menditarrak

	<p>nola egokitu behar den udal-planeamendua.</p>	<p>kategorietan. Horren bidez, saihestu nahi da nekazaritza-kategorietan muga gehiegi jartzea erabilerak mendi-zonetara bideratzearen kalterako izatea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Balio estrategiko handiari murrizketa edo muga handiagoak jarri zaizkio. Dena den, maila hau sartu eta orokortu da: "3a: nahi ez den erabilera, baina onargarria goragoko mailako antolamendu-tresna batzuk bermatzen badute edo nekazaritza-sektoreko ebaluazio-protokolo baten arabera bada". Horren helburua da sektorerako baliorik handiena duen lurzoruaren babes-maila gehitzea, zorrotzegi mugatu gabe, askotariko erabileretarako xedelekutat hartuta (hirigintza-garapenetarako...), betiere kontuan hartuta horiek babestek ez diela inola ere kalterik eragin behar balio ekologiko handiagoko zonei. <p>Bestalde, nekazaritzako eta basogintzako erabileretarako ñabardurak osatu dira, ingurumen-arloko ñabardura berriak sartuta: lehentasuna ematea abeltzaintza-erabilera izan eta utzi ondoren sortutako baso-zonak berritzeko zuhaitzak erabiltzeko; zona horietan berritze naturala eta masen hobekuntza ziurtatzen duten tratamenduak baliatzea; landaredi-estaldura babeslea sortzeko egokienak diren zuhaitz-espezieak erabiltzea; bertako zuhaitzia arriskuan ez jartzea edo baso-artzaintzaren bidez berritzea; egungo zuhaitzi-azalera mantentzea eta sustatzea, baldin eta katalogatutako natura-intereseko ezein elementuri eragiten ez bazaio; etab.</p> <p>"Natura-intereseko guneak" gainjarritako baldintzatzailea zabaldu egin da nazioarteko garrantzia duten hezeguneak (Ramsar) sartuta, eta, hortaz, udalerriek aintzat hartzea erraztu da. Nolanahi ere, enklabe horien azalera gehiena Natura 2000 espazioek teilakatzen dute.</p> <p>Basogintza-sektoreari buruzko edukia gehitzeak baliabidearen aprobetxamendu iraunkorrerako tresna berriak (BBAP) nabarmentzea ahalbidetzen du. "Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak" gainjarritako baldintzatzaileari buruzko edukia ere gehitu da eta horrek udal-planeamenduetan aintzat hartzea errazten du; era berean, ziurtatzen du eskumeneko administrazioak egoki kontrolatuko dituela mendi horiek katalogatzean aintzat hartutako helburuak betetzen dituztela: lurzorua babestea, dibertsitate biologikorako ekarpena egitea, etab.</p> <p>NBALAParen erabakien lotespen-mailari dagokionez, askoz gehiago zehaztu da erabaki horiek ezartzea errazteko modu gisa eta, gainera, lotespen-maila berrikusi da: behin-behineko onespeneraren bertsioak balio estrategiko handiko lurzoruekin bat ez datozen irizpideen, arauen eta kartografiaren lotespen-maila gutxitzen du. Horrela, beraz, honako hauek mantendu dira lotesle gisa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erabilerak ezartzeko irizpide nagusiak: A, B eta C atalak; gainerakoak lagungarriak dira. - Antolamendu-kategorietan aplikatu beharreko arau bereziak: balio estrategiko handia azpikategoriari dagokion guztia. Gainerako kategoriak eta azpikategoriak lagungarriak dira, nola matrizeak biltzen duena, hala matrizea garatzeko atalak. - Gainjarritako baldintzatzaileetako gidalerroak: loteslea onura publikoko mendi eta mendi babesleetan, eta gomendioa gainerakoan.
--	--	--

		<ul style="list-style-type: none"> - Kartografia: aldaketak eta doikuntzak egin dakizkioke (eskala, etab.) LAPean bildutako kasuetan. Nolanahi ere eta oro har, balio estrategiko handia kategoriatan eta onura publikoko mendiak eta mendi babesleak lotesleak dira; eta kartografiaren gainerakoa, lagungarria. <p>Balio estrategiko handiaren izaera lotesleak Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko 17/2008 Legea du oinarri, eta onura publikoko mendiak eta mendi babesleak kategoriarenak Mendiei buruzko 43/2003 Legea eta dagozkion foru-arauak.</p> <p>hasierako onespeneratik behin-behineko onespenerako urrats horretan, eta jasotako alegazioak nahiz Lurralde Antolamendukoekin egindako hainbat bilera aintzat hartuta, erabaki da NBALAParen helburuak espaziorik garrantzitsuenetan jarri behar dutela arreta, bi ikuspegietatik: nekazaritzakoa eta basogintzakoa. Horren ondorioz, kategoriatan horiei arreta handiagoa ematen zaie, gainerako zonak babestea beste instantzia batzuei dagokiela iritzita. Nolanahi ere, lurzoru urbanizaezinaren gainerakoan proposamenari eutsi zaio —gomendio gisa, dena den—; izan ere, udalerriei beren funtzioak betetzen gidatzeko tresna baliagarria dela egiaztatu da eta azken batean lurzoru urbanizaezinaren tratamendu koherenterako proposamen bat da.</p>
Behin bet. on.	<ul style="list-style-type: none"> - Edukiak kentzea, lex repetitae dela-eta. - LAPa hainbat dokumentutan berregituratzea eta araudia testu artikulatu bihurtzea. - LAPetik sortutako txosten-proposamenak kentzea. - LAAk babes bereziko kategoriatan handitzea. - Ingurumen-baldintzatzaileak gehitzea nekazaritza- eta basogintza-jardueretarako. 	<p>Oro har, esan daiteke NBALAPari ez zaiola funtsezko aldaketarik egin, behin-behineko onspenera-proposamenari dagokionez: LAParen helburuei eta lurralde-ereduaren proposamenei eutsi zaie, eta haren egitura aldatu egin da araudia artikuluen bidez biltzeko eta dokumentuaren antolaketa hobetzeko. LAPetik ateratako edukiak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko zerbitzu juridikoek egindako iradokizunetatik hartu dira, eta honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> c. Aplikatzekoa zen beste sektore- edo ingurumen-araudi baten edukiak NBALAPetik kentzea, errepikapenik gerta ez dadin eta araudi berriren bat onartzen bada edukiak zaharkituta gera ez daitezten. d. LAPak egiten zuen txosten berrien proposamena kentzea, hori ez baita proposamen horiek egiteko legezko tresna. <p>Bestalde, eta ingurumen-organoaren eskaeran oinarrituta, babes bereziko kategoriaren inguruko LAPeko edukiak gehitu handitu dira, eta esplizituki adierazi dira LAAen arabera udalerriek halakotzat hartu behar dituzten zonak. Horren bidez, NBALAParen babes bereziko kategoriatan aintzat ez hartzea justifikatu eta konpentsatu nahi izan da, eta udalaren betebeharra ez betetzeagatik ingurumen-inpaktu gehigarriak sortzea saihestu da.</p> <p>Era berean, behin-behinean onartutako LAPren ingurumen-ebaluazioaren emaitzat aintzat hartuta, ingurumen-arloko beste eduki batzuk sartu dira nekazaritzako eta basogintzako erabileren garapenerako.</p>

4.1. 0 aukera edo "esku-hartzerik eza"

Egia esan, ez dago 0 aukerarik, NBALAPa egin ez balitz aplikatuko zatekeena: LAParen aurrerapen-dokumentua argitaratu zenetik, emandako kartografia eta proposatutako erabileren araudia erabili izan dute udalerriek beren lurralde-planeamendua egiteko. Hortaz, dagoeneko ez dago "0 agertokirik" (LAParik gabea).

Nolanahi ere, eta egungo egoera aintzat hartuta, ondoriozta daiteke NBALAPean proposatutako neurrian behin betiko onartzen ez badira, egungo joerari eutsiko zaiola bai landa-eremuan bai hirigintza-antolamenduan. Hirigintza- eta azpiegitura-interesak, lurraldearen zatikako planean aurreikusitako garapenkeria neurrigabeak bultzatzen dituenak, nagusitu egingo lirateke natura-baliabideen —eta batez ere nekazaritza-baliabideen— babesaren aldean. Lurzorurik onenak, nekazaritzako interesgarrienak eta landa-eremuan nekazaritza-jarduerari eusteko ezinbestekoak direnak, galdu egingo lirateke ezinbestean.

Ingurumeneko Esparru Programak egindako diagnostikoaren arabera, 1990. urtetik 2000. urtera bitartean 52 km²-ko azalera artifizialdu zen, batez ere nekazaritza-lurzorua kontsumituz. Hortaz, urtero gutxi gorabehera 500 ha lurzoru artifizialtzen dira EAEn.

Nekazaritzak landazabal atlantikoko paisaia tipikoa osatzeko egiten duen ekarpena, lurzoru horietan natura-interes handiko egiturak biltzea (hesiak eta baso txikiak, etab.), lurzoru horiek fauna-espezieen banaketan (gehienetan, askotariko lurralde-mosaikoa behar izaten da) funtsezkoak izatea eta kasu askotan nekazaritza-habitaten berezko garrantzia (horietako batzuk garrantzi komunitarioko habitatak dira, Habitategi buruzko 92/43/EE zuzentarauaren eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen arabera) kontuan hartuta, beharrezkoa da lurzoru horiek eraginkor babesteko neurriak hartzea, betiere natura-baliabideak zainduz. Eta horri dagokionez, NBALAPak alderdi hori nabarmentzen du.

4.2. Aukera guztiak baloratzeko erabilitako ingurumen-irizpideen deskribapena

Funtsean, honako ingurumen-irizpide nagusi hauen arabera definitu dira bertsioko guztiak (aurrerapena, hasierako onespena, behin-behineko onespena):

- Nekazaritza-lurzorua natura-baliabideak eta bereziki nekazaritza-kategorietan eta basogintza-kategorietan sartutako natura-balio handiko zonak zaintzeko moduan babestea.
- NBALAPean indarrean dagoen ingurumen-arloko araudia eta plangintza egoki aintzat hartzea.

- Nekazaritza-lurzoria baliaraztea ingurumen-zerbitzuen beste hornitzaile bat izan daitekeela aintzat hartuta.
- Xede diren lurzoruak erabilera-gatazkarik handiena dutenak direla onartzea, eta garrantzi berezia ematea lurzoru horiek natura-interes elementurik kaltetu gabe babesteari.

4.3. Egindako aukeraren justifikazioa

EAEko landa-inguruneak etorkizuna jokoan du bere lurralde-osagaia defendatzeko gaitasunean. Bitxiak dira, ordea, landa-eremua babestu eta antolatzeko beharrak landa-irizpideetan oinarrituta garatzen dituzten lurralde-antolamenduari buruzko udaleko eta udalaz gaindiko txostenak: "lurra baliabidearen" kontserbazioa, ustiatzearen ekoizpen-gaitasunaren mantentzea eta garapena, eta abar.

NBALAPak bultzatzen duen lurralde-ereduan, nekazaritza- eta basogintza-erabileren eta antolamendu-kategoria nahiz gainjarritako baldintzatzaileen definizioa berraztertu da, lurraldean landa-ingurunea eta natura-ingurunea ahalik eta gehien errespetatzen duten erabilerak ezartzea aurreikusteko.

Informazio ugari finkatzea ez da garrantzitsua hirigintza-planeamendua landa-irizpideak kontuan hartuta egin nahi bada. Horretarako, funtsezkotzat jotzen diren gaietan gainerako planeamendu-dokumentuak kontuan hartuko dituen lurralde-antolamenduari eredia da beharrezkoa, eta lurraldeari buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan sartu behar dira.

Horrekin bat, NBALAPak, EAEko landa-eremu pluriaktibo eta multifuntzionalaren bideragarritasuna ziurtatuko duen lurralde-eredua bultzatzeaz gain, lurralde-gaiei buruzko erabakitze-prozesuetan eredu hori sartzeko bidea zabaltzea ezarri behar du. Sartze-bide horrek tresna arautzaileak hartu behar ditu barnean, baita, informazioan nahiz irizpide-ezarpenetan oinarrituta, EAEko lurralde- eta sektore-antolamenduan inplikaturik dauden erakundeen jardura bideratuko dituzten beste tresna batzuk ere.

Bestalde, aurrera egin behar da, halaber, EAEko administrazioek ingurumenari, biodibertsitateari eta klima-aldaketari dagokionez hartutako konpromisoekin bat datorren antolamendu-eredu baten proposamenean.

Horri dagokionez, NBALAParen behin betiko onespenerako dokumentuak, atal honetan aukera gisa tratatu denak, ildo horretan aurrera egin duela irizten zaio, eta, izaera sektorial handiagoa hartu duen arren (hori, ordea, logikoa da, garatu behar dituen eskumenen ondorioz), gehiago inplikatzeko da EAEko baliabide naturalak zaintzea sustatzen duen proposamen batean, bai LAParen helburu-zonei, bai lurzoru urbanizaezinen gainerakoan.

Nolanahi ere, IITaren inpaktuak identifikatzeko eta baloratzeko atalaren helburua da ingurumen-inplikazioen bat izan lezaketen LAParen alderdiak antzematea eta,

horren arabera, LAPak berak (behin betiko onartu baino lehen aldatuta) edo hura garatuz udal-planeamenduak bere egin ditzaketen prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak ezartzea.

Puntu honetan, aditzera eman behar da behin-behinean onartutako LAParen ingurumen-ebaluazioa dela-eta bildu da planean neurri zuzentzaileen proposamena, neurri horiek LAParen eduki gisa, horren ingurune-portaera hobetzeko.

5. Inpaktuak identifikatzea eta baloratzea

5.1. Metodologia

NBALAPa lurraldea antolatzeko dokumentu konplexua da, oso sektoriala baita, eta, hortaz, atal hau hiru analisi-mailatan oinarrituta jorratzea erabaki da:

- helburuei dagokienez
- proposatutako lurralde-ereduari dagokionez
- nekazaritza- eta basogintza-erabilerei dagokienez

5.2. Planaren helburuen ingurumen-eraginak

LAParen helburuen ingurumen-eraginak identifikatzeko, foro, biltzar eta hitzarmenetatik sortutako nazioarteko oinarritzko ingurumen-alderdiak berrikusi dira. Era berean, berriz aztertu dira sektorearen kudeaketarekin edo lurralde-kudeaketarekin, naturaren kontserbazioarekin eta garapen iraunkorrarekin nolabaiteko lotura duten nazioarte-, nazio- eta eskualde-esparruko estrategia, plan eta arauak.

Gertueneko estrategiak analizatuta, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia (GIIE) eta ingurumen-esparruko programak (IEP), denbora-tarte mugatuagoetan hura zehazten dutenak, dira EAEn aplikatu beharreko oinarritzko ingurumen-helburuak barnean hartzen dituzten tresnak.

I. IEPari dagokionez:

I. IEParen helburuak	Helburu horiek lortzeko lagungarriak diren NBALAParen edukiak
Ingurumenera isurtzen diren gai arriskutsuen eta poluitzaileen emisioak eta isurketak murriztea.	I. kapitulua, Artezpide orokorrak (10.-22. artikulua) eta Araudiaren 63.-70. artikulua (nekazaritza- eta basogintza-erabilereko ñabardurak).
Ingurumen-inguruneen kalitatea hobetzea.	“Ingurumen-hobekuntza” erabilera eta antolamendu-kategoriaren definizioa, balio natural handiagoko beste egoera batzuetara birbideratzea dakarrena (Araudiaren 24., 52. eta 70. artikulua).
Baliabide-kontsumoak eta horren ondorioek ingurumenaren karga- eta leheneratze-	LAPean proposatutako neurrietako batzuek berriztatze naturalaren tasa ziurtatzeko eta nekazaritza- eta

ahalmena gaindi ez dezaten lortzea eta hazkunde ekonomikoa eta baliabide-erabilera bereiztea.	basogintza-jarduerek paisaian eta biodibertsitatean duten inpaktua minimizatzeko konpromisoa dakarte. Halaber, lurzorua baliabidea degradazio itzulezineko prozesuekiko kontserbatzea ziurtatzen du.
Ekosistemak, espezieak eta paisaia kontserbatzea eta babestea.	Natura-intereseko gunetako, korridore ekologikoetako eta gutxi aldatutako paisaien gainjarritako baldintzatzaileak (Araudiaren IV. eta VI. kapituluak).
Biodibertsitateari buruz ikertzea eta sentsibilizatzea.	Nekazaritza-erabilera hainbat ingurumen-proposamenetara baldintzatzea.
Karbono-hustulekuak gehitzea.	Baso-masa mantentzea, Basoak kategoriako oinarritzko irizpidea (50., 51. eta 56. artikulua).
I. IEPko konpromisoak	Konpromiso horiek betetzea errazten duten NBALAParen edukiak
Baso-azalerari eustea eta/edo hori gehitzea, oso onuragarria baita airea garbitzeko, uraren araubide hidrogikoa neurrian eramateko eta higadura kontrolatzeko.	Basoak kategoria aplikatzea (50., 51. eta 66. artikulua).
Nekazaritza- eta ingurumen-neurriak indartzea eta berariazko lurralde-politikak sartzeko 2006rako 55.000 ha arteko nekazaritza- eta ingurumen-konpromisoak dituen azalerara iristeko.	Garai hartan (2000-2006) indarrean zegoen LAPean landa-garapenerako planeko (LGP) lurralde- eta sektore-plangintzako artezpideak eta irizpideak txertatzea (A dokumentua, Sektore-testuingurua eta esparru juridikoa).
2004rako higadurak lurralde osorako zer garrantzi zehatz duen jakitea.	Higadura-eredua, higadura potentzialaren hainbat maila bereizten dituen (D dokumentua, higadura).
2006rako, EAEko higaduraren kontrol- eta prebentzio-plan bat prestatzea, baita higadura-fenomenoen eragin handia duten zonak leheneratzeko plan bat ere.	Higadura-arriskua duten gunetako erabilerak arautzeko artezpideak (Araudiaren 56. eta 72. artikulua).
Lurzoru-kontsumoa saihestea dentsitate txikiko garapenen bidez, lurraldea antolatzeko tresnen arabera lurzoru egokienetan eraikuntza-dentsitate handiagoak sartuta.	Udal-planeamenduak bere egin behar duen lurzoruaren kalifikazioko irizpideak eta kontzeptuak bateratzea eta dentsitate txikiko garapen horiek kategoria jakin batzuetara mugatzea.
Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoak ezartzea 2006. urterako.	Korridore ekologikoak gainjarritako baldintzatzaile berritatu hartu dira, LAAetan jasota daudenez gain (Araudiaren IV. kapituluak eta 75. artikulua).
Baso-antolamenduko planak ezartzea, onura publikoko mendien iraunkortasunerako, 2006. urterako.	Mendiei buruzko 43/2003 Legeko baso-baliabideak antolatzeko planak (BBAP) NBALAParen jardun-ildoekin bat datorren baso-plangintzarako tresna berri gisa ezarri dira, eta, horri dagokionez, NBALAPa BBAP horiei lotuko zaie onartzen direnean (D dokumentua, Jardun-tresnak).
EAEko Paisaia Berezi eta Aparten Katalogoa lantzea 2003. urterako.	NBALAPak gainjarritako baldintzatzaile berritatu hartzen ditu gutxi aldatutako paisaia duten zonak, LAAetan dagoeneko bilduta daudenez gain (Araudiaren IV. kapituluak eta 76. artikulua).
Euskal Autonomia Erkidegoko paisaia berezien eta bikainen zerrendan dauden espazioak babesteko eta leheneratzeko plan bereziak ezartzea 2006. urterako. Lurralde-antolamenduan egoki barne har daitezten bideratu behar da.	NBALAPeko paisaia-eredua (VI. eranskina) eta "Gutxi aldatutako paisaia duten gunek" gainjarritako baldintzatzailea (Araudiaren 60. eta 76. artikulua).
NBALAPa onartzea 2005. urterako, helburu gisa nekazaritza-azalerari eustea txertatuta.	Egiteke
2006rako euskal basogintza- eta zur-arloaren analisi bat prestatzea ahalik eta karbono-helburu egonkor maximoa hobetoan errazten duen basogintza zehazteko eta zuraren erabilera iraunkorrak sustatzeko.	Baso-baliabideak antolatzeko planak, LAParen D dokumentuan jasoak; jardun-tresnak; eta basokudeaketa iraunkorrari buruzko arauak onartzeari buruzko aipamenak (A dokumentua, Sektore-testuingurua).

II. IEPari dagokionez (2007-2010):

II. IEParen helburuak	Helburu horiek lortzeko lagungarriak diren NBALAParen edukiak
Uraren kalitate ona	Kategoria hau sortu da: Azaleko uren babesa (Araudiaren 53. artikulua).
Natura-baliabideen kontsumo arduratsua	LAPak planteatutako helburuen artean, hauek aipa daitezke: nekazaritza-lurra definitzea eta babestea, nekazaritza- eta basogintza-jarduera orekatu baterako ezinbesteko baliabide gisa, eta lurralde-antolamendu bat bultzatzea (Araudiaren 1. artikulua).
Lurraldearen erabilera orekatua lortzea	
Energia-kontsumo eta -ekoizpen iraunkor bat sustatzea	Teknika erabilgarri onenak baliatzea nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako erabilerak garatzeko: baliabide-optimizazioa (Araudiaren I., V. eta VI. kapituluak).
Gure dibertsitate biologikoari eustea	LAPak, gainjarritako baldintzatzaileen irismenez, LAAetan babes bereziko kategoria duten gunek mugatzen ditu, hain zuzen ere "Natura-intereseko gunek eta espazioen zerrenda irekia". Gainera, LAPak GKL eta HBBE espazioetara eta RAMSAR hezeguneetara hedatzen du (Araudiaren IV. eta VI. kapituluak).
Klima-aldaketara egokitzea	LAPak, bere edukien artean, zuhaitz-masak babesteko eta sustatzeko premia biltzen du, baita baso-kudeaketa iraunkorraren arauak onartzekoa ere. Hori klima-aldaketara egokitzeko printzipioekin bat datorrela irizten zaio (Araudiaren I., III., IV, V. eta VI. kapituluak).
II. IEPko konpromisoak	Konpromiso horiek betetzea errazten duten NBALAParen edukiak
Azaleko ur-masak babestea, hobetzea eta leheneratzea, horien % 80an egoera ekologiko on bat lortzeko.	LAPak, antolamendu-kategorien artean, azaleko uren babesa biltzen du. Zona horiei dagokionez, jardun-irizpidea uren kalitatea zaintzea sustatzera bideratuta dago besteak beste (Araudiaren 53. eta 62. artikulua).
Industria- eta nekazaritza-jardueren berezko hartuneen eskaria % 20 murriztea 2001 urtearekiko.	Nekazaritza- eta ingurumen-neurriak sustatzea (PDRSaren irizpideak onartzea) eta nekazaritza- eta basogintza-baliabideak optimizatzea (A dokumentua, Sektore-testuingurua eta esparru juridikoa; eta B dokumentua, Araudia).
Kontsumo elektrikoaren % 29 energia berriztagarriaren eta baterako sorkuntzaren bidez egitea lortzea.	Nekazaritza-ustategiak modernizatzeko neurriak sustatzea: nekazaritza-arloko afektazioaren ebaluazio-protokoloan neurri konpentsatzaileak ematea (D dokumentua, Jardun-tresnak).
Baso autoktonoaren azalera 10.000 ha handitzea 2006an zegoenarekiko.	Basogintza-erabilerak ezartzeko irizpide orokorren artean, hostozabal-plantazioak sustatzea dago (Araudiaren I. V. eta VI. kapituluak).
Biodibertsitatearen babesarekin lotutako nekazaritza- eta ingurumen-neurrietara bideratutako azalera handitzea.	LGPak NBALAPA garatzen den sektore-esparruetako bat bezala hartuta, EAE osoan nekazaritza- eta ingurumen-neurriak hartzeko apustua egin da inplizituki (A dokumentua, Sektore-testuingurua eta esparru juridikoa).
Nekazaritza ekologikora eskainitako azalera handitzea 1.200 ha-tara iritsi arte.	
Baso-ustiapen ziurtatuen 50.000 ha-tara iristea.	NBALAPak baso-kudeaketa iraunkorraren irizpideak barnean hartzea eta BBAPA idaztea (D dokumentua, Jardun-tresnak).
Urtez urte hirigintza-jarduerak artifizialtzen duen ha kopurua murriztea.	Eraikuntza-erabilera debekatu da balio estrategiko handiko landazabalean eta nekazaritzako eta abeltzaintzako antolamendu-kategorian (Araudiaren 62. eta 64. artikulua).
Urtez urte azpiegitura berriak eraikitzeagatik artifizialtzen den ha kopurua murriztea.	Azpiegiturak eraikitzea onartuta dago ia kategoria guztietan, baina AAEPa hartu behar da kontuan (Araudiaren 61. eta 62. artikulua; eta D dokumentua, Jardun-tresnak).
EAEk klima-aldaketaren aurrean duen urrakortasuna murriztea	LAPak, bere edukien artean, zuhaitz-masak babesteko eta sustatzeko premia biltzen du, baita baso-kudeaketa iraunkorraren arauak onartzekoa ere. Hori klima-

	aldaketara egokitzeko printzipioekin bat datorrela irizten zaio (Araudiaren II. eta III. tituluak).
--	---

III. IEPari dagokionez (2010-2013):

III. IEParen helburuak	Helburu horiek lortzeko lagungarriak diren NBALAParen edukiak
Berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea eta klima-aldaketaren eraginak minimizatzea EAEn.	LAPak helburu horretarako ekarpena egiten du basomasari eutsiz (hori oinarritzko irizpidea da basoetako kategorian). EAEko baso-azalera 396.701 ha-koa da, eta CO ₂ -ko hustuleku gisa jokatzen dutela eta urtean 1,5 Tm inguru hartzen dutela kalkulatu da. (Araudiaren 50., 51. eta 66. artikulua).
Dibertsitate biologikoaren galera gelditzea; ekosistemak leheneratzea eta lurra artifizialtzea mugatzea.	Ingurumen-hobekuntzako kategoriaz gain, LAPak Ingurumen-babesaren erabilera biltzen du besteak beste. Hain zuzen ere, honako jarduera hauen bidezko babes-hobekuntza: hautazko inausketak; kontrolpeko artzaintza; garbiketa, landare-diaren hautazko suntsiketak; plaga eta gaixotasunen tratamendua; bertsitate-itxierak; ezpondak birmoldatzea, betiere hobekuntza ekologikoa eta paisaia hobetzeko prozesuak sustatzeko egiten bada; ereite hidraulikoak; hautazko kimatuak; etab. (Araudiaren 24., 52. eta 70. artikulua).
Baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea.	NBALAP udal-planeamenduak bere egin behar duen lurzoruaren kalifikazioko irizpideak eta kontzeptuak bideratzen ditu eta dentsitate txikiko garapen horiek kategoriatan jakin batzuetara mugatzen ditu. Hortaz, aurrerapena egiten du helburu hori lortzeko prozesuan.
III. IEPko konpromisoak	Konpromiso horiek betetzea errazten duten NBALAParen edukiak
EAEko jardura/sektore giltzarrien klima-aldaketaren inpaktuen aurrean urrakortasunaren analisia sustatzea.	KABEPak nekazaritza-sektorerako jardun-programa bat biltzen du. Nekazaritza- eta basogintza-sistemetara bideratutako azalerei buruz LAPak ematen dituen datuak lagungarriak dira urrakortasunaren analisi hori egiteko.
Lurraldean habitat naturalek, erdinaturalek edo naturalizatuek okupatutako azalera handitzea, eta horien kontserbazio-egoera etengabe hobetzea.	LAPak emandako lurralde-zonifikazioa lagungarria da azalera hori kuantifikatzeko, eta ingurumen-hobekuntzako kategoriatan esleitzea eta ingurumen-hobekuntzako erabilerekin proposamena ere bai (onargarriak ia kategoriatan).
Lurraren artifizialtzea mugatzea.	NBALAPak ematen duen erabilera-araubidea (Araudiaren I., V. eta VI. kapituluak) lurzoru naturalak babestera bideratuta dago, batez ere nekazaritza- eta basogintza-lurzoruak babestera, eta bereziki mugatzailea da zona horietan erabilerak onartzeari dagokionez.
Euskal ekonomiaren gutzizko produktibitate materiala % 4 hobetzea.	NBALAPak nekazaritzan jardunbide egokiak erabiltzearen premia, nekazaritza- eta ingurumen-neurriak eta nekazaritza-sektoreko ebaluazio-protokoloan bildutako beste neurri batzuk aipatzea, hala nola instalazioen modernizazioa, produktibitate hori hobetzeko lagungarriak izan daitezkeen (hainbat: Araudiaren 55. eta 71. artikulua; D dokumentua, Jardun-tresnak;...)
Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen baliozko materialaren tasa % 5 handitzea hurrenez hurren	
Lurraldeko birziklapenean eta hiri-, industria- eta azpiegitura-espazioen berritzean laguntzea lurzoru berriak okupatzearen ordezkari gisa	LAPak ezartzen dituen lurzoru natural berriak okupatzeko mugak horretara bideratuta daude.
EAEko administrazioen politika eta jardun esanguratsuak prestatzen parte hartzea	NBALAPa EAEko administrazioekin adostasuna bilatuz idatzi izanak, nekazaritzako eskumenak dituzten sailen jardunen ardatz diren politiken barnean funtsezko pieza gisa hartzeak (politika horien osagarri) eta EAEn onartutako ingurumen-irizpideak bere egiteak konpromiso horiek betetzeko bidean aurrera egitea ahalbidetzen du.
Erosketa eta kontratazio publiko berdeko irizpideak txertatzea Eusko Jaurlaritzaren sailetan eta atxikitako sozietate eta erakunde publikoetan, erosketa publiko "esanguratsuen" % 100ean, horientzat	

ingurumen-irizpide definituak badaude	
---------------------------------------	--

5.3. Lurralde-ereduaren eta nekazaritza- eta basogintza-erabileren ingurumen-eraginak

5.3.1. Lurralde-ereduaren definizioaren ingurumen-eraginak

LAParen proposamen nagusiak, EAEn lurraldean kokatzen diren **antolamendu-kategoria eta gainjarritako baldintzatzaile** batzuk definitzean eta mugatzean datzanak, ingurumen-aldagai ia guztietan afektazioa izan dezake, bereziki lurzorua baliabidera eta horretan oinarritzen diren natura-baliabideetara lotutakoetan: biodibertsitatea, ura eta paisaia.

IITaren diagnostikoaren 3.7. atalean, LAPak aldagai horietan dituen eraginak aurreratzen dira eta 5.31. atalean zehatzago analizatzen dira.

Honako taula honetan, NBALAPak proposatutako lurralde-eredutik eratorritako inpaktuak ageri dira laburtuta:

		LURRALDE EREDUAREN LOTUTAKO OSAGIAK					ESPERO DEN INPAKTUA	Oharrak
		Antolamendu kategoriak	Gainjarritako baldintzatzaileak	Kategorietako erabilerak arautzea eta baldintzatzaileen artezpideak	Nekazaritza- eta basogintza-erabileretarako ñabardurak	Beste batzuk		
Babestutako naturaguneak	Parke naturalak							
	Babestutako biotopoak							
	Zuhaitz bereziak							
	Natura 2000 Sarea		x	x			Bateragarria/Positiboa	
	Hezeguneetako LAParen I. eta II. multzoak							
	Hezeguneetako LAParen III. multzoa					x	Positiboa	NBALAParen eta Hezeguneetako LAParen arteko koordinazioan bildua.
	Ramsar hezeguneak							Beste babes-figura batzuen eraginpeko hezeguneak, beren zaintza arautzen dutenak.
	Itsasertza Antolatzeko LAPak babestutako guneak							(1) NBALAPetik Itsasertza Antolatzeko LAPeko ingurumen-hobekuntzako zonak ateratzeko premia eta (2) Itsasertza Antolatzeko LAPak babeste ez dituen guneetan harekiko koordinazioa berrikustekoa.
	ING (LAA) eta LZPek babestutako zonak		x				Bateragarria/Positiboa	LZPetako gune babestuak biltzeko zailtasunak: interpretazio kartografikoa tratatzea, heterogeneotasuna "babestutako guneak" kontzeptuan.
	Urdaibai BE							
Txingudi (Plan berezia)								
Landaredia eta habitatak	Landaredia eta IKH ³⁰ interesgarriak: baso txikiak, heskaiak, etab.	x		x	x		Bateragarria	NBALAPean natura-balio handieneko elementuak aukeratzeko artezpideak sar litezke eta udal-planeamenduak babes bereziko kategorian txertatzea.
	Nekazaritza- eta basogintza-jarduerari zuzenean lotutako landaredia eta IKHak	x		x	x		Positiboa	Larretako habitatak nabarmentzen dira, baita, hala ere, jarduera tradizionalen mende dauden sastrakadiak eta basoak ere
Flora- eta fauna-espezieak	Garrantzi komunitariokoak	x	x	x			Bateragarria	Kudeaketa-planak LAParen erabilera-araudia kategoriatan guztietan betetzeko gehigarri bat dira.
	AEEZ ³¹	x	x	x			Bateragarria	
	Kudeaketa-planak onartuta dituzten espezieak	x	x	x			Bateragarria	
Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak			x	x	x	x	Positiboa	LAPak lotutako edukiak biltzen ditu: Mendiei buruzko Legea eta BBAPa
JHPa eta zortasun-zonak		x	x	x		x	Bateragarria	NBALAParen eta Ibai eta Erreken LAParen arteko koordinazioan eta esparru juridikoan sartua.
ILJPa eta zortasun-zonak			x	x		x	Bateragarria	NBALAParen eta Itsasertza Antolatzeko LAParen arteko koordinazioan eta esparru juridikoan partzialki sartua.
Akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren zonak			x	x			Positiboa	LAPak zona horietan babes-araudia zabaltzea proposatzen du.
Korridore ekologikoen sarea			x	x		x	Positiboa	Korridore ekologikoen sarearen eranskina. Lotura-eredua NBALAParen lehen bertsioetataik.
Paisaia bereziak eta apartak			x	x		x	Positiboa	Gutxi aldatutako paisaia duten zonen ereduaren eranskina. EAeko eta Arabako paisaiaren katalogoak aintzat hartzea.
Arriskuk	Gune urperagarriak		x	x		x	Bateragarria	Ibai eta Erreken LAPera jotzea, NBALAParen aldaketa automatikoa zona urperagarrietan.
	Gune higagarriak		x	x		x	Positiboa	Higadura-eredua.

Oharra: grisez ilunduta bildu dira inpakturik antzeman ez zaien elementuak.

³⁰ GKH: Garrantzi komunitarioko habitatak (92/43/EE Zuzentarauaren I. eranskina eta 42/2007 Legearen I. eranskina).

³¹ AEEZ: Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa.

5.3.2. LAPean bildutako nekazaritza- eta basogintza-erabileren ingurumen-eraginak

NBALAPak ez ditu definitzen nekazaritza- eta basogintza-jarduerak garatzeko modua eta mugak, berariazko bere tresnek (dekretuek, foru-arauek, etab.) arautzen dituztenak. Nolanahi ere, eta **NBALAPak lurzorua egungo erabileren aldaketak inoiz sustatzen ez dituen arren**, IITak interesgarritzat jo du sektoreko ingurumen-ondorio edo -arazoen aurretiazko identifikazio bati heltzea.

Helburu nagusia da, batetik, LAPak inpaktu orokor horiek minimizatzea bultzatzeko proposamenen bat egiten ote duen identifikatzea, eta bestetik, IIT honek, edo hala badagokio LAPak, beren ingurumen-portaera hobetzeko gomendio gehigarriak zer kasutan eman litzaketen antzematea.

Lan-eskalak zehaztaperen-falta dakar ekintzen proiektuaren mailak; era berean, inpaktuak zorrotz eta zehatz ebaluatzea eragozten du; eta gainera, ebaluazio orokorra egitera behartzen du.

Kontuan hartu behar da hemen adierazitako erabileretako batzuei ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaiela, banakakoa edo sinplifikatua, eta, hortaz, dagokion ebaluazio-proiektua egin behar dela.

Inpaktuak identifikatzeko matrizea gidoi gisa hartuta, ekintzen eta ingurumen-faktoreen arteko elkarreragin negatiboak eta/edo positiboak deskribatzen dira, eta inpaktua baloratzen da.

		AFEKTAZIOA IZAN DEZAKETEN INGURUNeko ELEMENTUAK							
		LURZORUA	URA	FLORA ETA LANDAREDIA	FAUNA	N2000S	PAISAIA	KLIMA ALDAKETA	ONDAREA
Nekazaritza	Ureztaketetarako ura ateratzea		-			-			
	Landare-estaldura mantentzea	+		+			+	+	
	Ongarritzea eta pestizidak		-	-	-	-		-	
	Fruta-arbolen landaketa, mozketa eta inausketa						+	+	
	Produktu fitosanitarioen erabilera		-	-	-			-	
	Luberritzeak	-		-			-		-
	Drainadurak edo lehorketa		-	-	-	-	-		
	Tresna eta produktuen bilketa eta kontserbazioa		-						
	Nekazaritza-produktuen lehortze, ateratze eta sailkatzea								
	Ureztatze-nekazaritzarako lan eta instalazioak (ureztatze-putzuak barne)	-	-	-	-		-		-
	Terrazak: zapaldak eraikitzea, horiek	+					-		-

	AFEKTAZIOA IZAN DEZAKETEN INGURUNeko ELEMENTUAK							
	LURZORUA	URA	FLORA ETA LANDAREDIA	FAUNA	N2000S	PAISAIA	KLIMA ALDAKETA	ONDAREA
higatze-prozesuak saihesteko edo minimizatzeko egiten badira eta landaredia naturalak estalitako zonetan eraginik ez badute.								
Nekazaritza-produktuak biltzeko hondartzak								
Barazki, marmelada eta konfitura-kontserben ekoizpena		-						-
Sagardoa egiteko dolareak eta ardoa eta txakolina ekoizteko upeltegiak.		-						
Ustiategiko produktuen transformazioa eta zuzeneko salmenta.								
Ustiategian bertan ekoiztutako nekazaritza-produktuen dastatzea.								
Lurraldeko ohiko produktuen artisautza-tailerrak.								

		AFEKTAZIOA IZAN DEZAKETEN INGURUNEO ELEMENTUAK						
		LURZORUA	URA	FLORA ETA LANDAREDIA	FAUNA	N2000S	PAISAIA	KLIMA ALDAKETA
	Nekazaritza-turismoa							
	Aisia, gozamina eta naturaren eta landa-ingurunearen hedapenarekin loturiko jarduerak				EE			
	Energia berriztagarria ekoizteko azpiegiturak, batik bat autohornikuntzarako						+	-
	Ustiategiarekin loturiko etxebizitza							
	Negutegiak		-				-	
	Basogintza, nekazaritza eta dekorazio-landare eta lore-ekoizpenak egiteko hazitegiak							
	Boilurgintza							
	Onddogintza							
	Zizare-hazkuntza							
	Abeltzaintza	Belar-sastrakak garbitzea			-	-	-	
Produktu fitosanitarioak aplikatzea			-	-				
Lurra goldatzea eta belardiko espezieak				-	EE			

	AFEKTAZIOA IZAN DEZAKETEN INGURUNeko ELEMENTUAK							
	LURZORUA	URA	FLORA ETA LANDAREDIA	FAUNA	N2000S	PAISAIA	KLIMA ALDAKETA	ONDAREA
ereitea								
Ongarritzeak		-	-					
Bilketak eta eskuzko edo mekanizazio bidezko moztea								
Siloratzeak								
Ukuiluak								
Jetzitegiak eta esnea kontserbatzeko lokalak								
Simaurtegiak eta txiza-putzuak	-	-	-					
Tresna eta produktuen biltegiak								
Pentsu eta bazken siloak								
Aterpeak eta bordak						-		
Itxiturak eta hesiak				-		-		
Askak eta horien hartzeak	-	-	EE			-		-
Janontziak						-		
Osasun- eta erabilera-instalazioak						-		
Gaztagintza eta gainerako esnekigintza		-						
Haragi-produktu, hestebete eta		-						

	AFEKTAZIOA IZAN DEZAKETEN INGURUNeko ELEMENTUAK							
	LURZORUA	URA	FLORA ETA LANDAREDIA	FAUNA	N2000S	PAISAIA	KLIMA ALDAKETA	ONDAREA
eratorritako bestelako produktuen ekoizpena								
Eztiaren eta bestelako erle- produktuen ontziratzea								
Ustiatzeko produktuen transformazioa eta zuzeneko salmenta.								
Lurraldeko ohiko produktuen artisautza-tailerrak.								
Nekazaritza-turismoa								
Aisia, gozamina eta naturaren eta landa- ingurunearen hedapenarekin loturiko jarduerak						-		
Energia berriztagarria ekoizteko azpiegiturak, batik bat autohornikuntzarako						-	+	
Erlategiak								
Abeltzaintza-ustiatzeko alternatiboak								
Abeletxe zinegetikoak				-				

		AFEKTAZIOA IZAN DEZAKETEN INGURUNeko ELEMENTUAK							
		LURZORUA	URA	FLORA ETA LANDAREDIA	FAUNA	N2000S	PAISAIA	KLIMA ALDAKETA	ONDAREA
	Arrain-haztegiak		-						
Basoak	Basoaren finkatze-aldia	-						+	-
	Basoa kudeatzeko eta hobetzeko aldia							+	
	Basoko produktuak ateratzeko edo erauzteko aldia	-		-			-	-	
	Tresna, makinaria eta produktuen bilketa.								
	Baso-bideak eta atxikitako instalazioak: mugak, ur-bideak				-	-	-		-
	Zura prozesatzeko eta pilatzeko parke edo biltegiak						-		
	Suteak zaintzeko instalazioak			+		+			
	Suaren kontrako guneak eta suebakiak			-		+	-		
	Ur-guneak								
	Itxitura eta hesiak				-				
	Basogintza-etxeak								
	Perretxikoak biltzeko zonak mugatzea								
	Ne ka	Lehen transformazioko		-					-

		AFEKTAZIOA IZAN DEZAKETEN INGURUNeko ELEMENTUAK							
		LURZORUA	URA	FLORA ETA LANDAREDIA	FAUNA	N2000S	PAISAIA	KLIMA ALDAKETA	ONDAREA
	nekazaritza- elikagaien industriak								
	Lehen transformazioko baso-industriak:		-				-	-	
	Bigarren transformazioko nekazaritza- eta basogintza-elikagaien industriak		-					-	

(+) : Inpaktu positiboa, (-): inpaktu negatiboa, N.S. Inpaktu ez-esanguratsua. Gelaxka zuria: ez da inpakturik sortzen.

NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA ERABILERA NAGUSIAK

INGURUMEN FAKTOREAK	DESKRIBAPENA	BALORAZIOA
LURZORUAK	Lurzoru-galera basogintza-jardueren ondorioz	Neurrizkoa
	Lurzoru-galera nekazaritza-jardueren ondorioz	Neurrizkoa
	Lurzoru-galera abeltzaintza-jardueren ondorioz	Bateragarria
	Lurzoru-kutsadura abeltzaintza-jardueren ondorioz	Bateragarria
	Ureztatze-nekazaritzarako obrak eta instalazioak	Negatiboa (IEAren esparruan proiektu-mailan ebaluatzeko)
URAK	Nekazaritza-sektoreak lurpeko urak kutsatzea	Neurrizkoa
	Abeltzaintza-sektoreak lurpeko urak kutsatzea	Bateragarria
	Ur-eskaria eta isurien kudeaketa	Bateragarria
FLORA LANDAREDIA	ETA Ongarritzea eta pestizidak erabiltzea	Bateragarria
	Flora- eta habitat-dibertsitatea galtzea	Bateragarria
	Landaredia galtzea eta/edo narriatzea	Bateragarria
	Suteen kontrako prebentzioa zaintza-dorreen bitartez	Positiboa
FAUNA	Habitat egokia galtzea	Bateragarria
	Fauna-espezieen dibertsitatea galtzea	Bateragarria
	Inpaktua fauna ornitikoaren ugalketan	Bateragarria
NATURA 2000 SAREA	Inpaktua 92/43/EEE Zuzentarauko habitatetan	Bateragarria
	Inpaktua 92/43/EEE Zuzentarauko espezieetan	Bateragarria
	Sarearen koherentzia	Positiboa
PAISAIA	Paisaiaren narriadura	Bateragarria
KLIMA ALDAKETA	Landare-estaldura mantentzea	Positiboa
	Energia berriztagarria ekoizteko azpiegiturak	Positiboa
	Baso-masa finkatzeko, hobetzeko eta kudeatzeko fasea	Positiboa
	Kontserbagintza eta nekazaritza- eta basogintza-sektorearekin zerikusia duten industriek eragindako inpaktuak	Negatiboa (IEAren esparruan proiektu-mailan ebaluatzeko)
	Basoko produktuak ateratzea edo erauztea	Bateragarria
	Ongarri gehiegi erabiltzea	Neurrizkoa
ONDARE HISTORIKO ETA KULTURALA	Elementu historiko eta kulturalak suntsitzea eta/edo narriatzea	Bateragarria

6. Neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak

6.1. Neurrien irismena

IITaren 5. atalean egindako inpaktu-analisia hiru mailatan egituratu da:

- Helburuak
- Lurralde-ereduaren proposamena
- Nekazaritza- eta basogintza-erabilerak

NBALAParen **helburuen** eta estrategien artean funtsezko helburuak (nekazaritza-lurzorua babesa, esaterako) nahiz ingurumenekoak daude. Ingurumeneko helburuei dagokionez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- o *“Nekazaritza- eta basogintza-jarduerak txertatzen direla finkatzea ingurumenaren kontserbazioa bermatzeko*
- o *Nekazaritzaren babesa ingurumenekoarekin bateratzea”*

Nolanahi ere, 5. atalean, helburu horien nahiz LAParen beste zenbait sektore-helburuen eta erreferentziazko ingurumen-arloko helburu eta estrategien arteko bateragarritasuna analizatzen da. Bateragarriak direla egiaztatu eta EAEko ingurumen-konpromisoak lortzeko lagungarriak diren NBALAParen edukiak identifikatu direnez gero, ez da beharrezkotzat jotzen LAParen helburuak eta estrategiak egokitzea beren ingurumen-integrazioa gehitzeko.

Lurralde-ereduaren proposamenari dagokionez, antzemandako inpaktu guztiak positibo gisa edo bateragarri gisa kalifikatu dira. Behin-behinean onartutako NBALAPeko dokumentuari buruz onartutako ingurumen-analisan alderdi jakin batzuk nabarmendu ziren; izan ere, alderdi horiek LAPean aldatzeak horren ingurumen-portaera hobetzen eta proposatutako lurralde-eredua ezartzea errazten lagunduko luke. Alderdi horiek, laburbilduta ondoren azaltzen direnak, NBALAPa behin betiko onartzeko bertsioan bildu dira; hortaz, LAPak bere ingurumen-integrazioa hobetu duela pentsatzen da:

- LAPekiko koordinazioa argitzea, bereziki haien babestutako guneetan: LAPak, bere Araudian, argi eta garbi jasotzen du LAPen lehentasun juridikoa, baita tresna horien babes bereziko guneetan ere.
- Ingurumen-hobekuntzako guneak eta Itsasertza Antolatzeko hiri-hondartzak ateratzea, tresna horrek zona horiek eta babes berezikoak lotzen baititu: zona horiek NBALAPetik atera dira, horren Araudiaren 5. artikuluan jasotakoari jarraiki.

- Espresuki jaso da NBALAPean —Araudiaren 46.2 artikuluan— planeamenduak, LAAen arabera, honako ezaugarri hauek dituzten zonak barnean hartzen dituen babes bereziko kategoria bat bildu behar duela:
- f) Funtsezko prozesu ekologikoak mantentzean zeregin garrantzitsua dutenak, hala nola lurzoruen babesa, akuiferoen karga, etab.
- g) Kontserbazio-egoera oneko habitat naturalen laginak, desagertzeko arriskuan daudenak edo, nazioarteko hitzarmenen edo berariazko xedapenen ondorioz, babes berezia behar dutenak.
- h) Espezie mehatxatu gisa katalogatutako animalia edo landareen populazioak dituzten gunek, elementu endemikoen kontzentrazio handiak edo, nazioarteko hitzarmenen edo berariazko xedapenen ondorioz, babes berezia behar dutenak.
- i) Landa-paisaiak edo malkartsu harmoniatsuak, edertasun edo kultura-balio bikainekoak, hala nola aztarnategi paleontologikoak, hobi mineralak, etab.
- j) Bitxitasunagatik edo berezitasunagatik nabarmentzen diren elementu naturalak dituzten gunek, edo interes zientifiko berezia dutenak.

Era berean, hau ematen da aditzera:

- o Zona horiek errazago mugatzeko, NBALAPak IV. kapituluaren deskribatzen diren gainjarritako baldintzatzaileak biltzen ditu.
- o Aprobetxamendu bat duten babes bereziko zonetan, LAAen arabera, irizpide hau erabili behar da: aprobetxamendu hori modu iraunkorrean bultzatzea, erabilitako baliabidea berrituko dela ziurtatuta.

Horren bidez, ziurtatu nahi da, NBALAPean babes bereziko kategoria sartu ez den arren (tresna horri ez dagokiola erabakita), udal-planeamenduak kategoria hori mugatzen duela, LAAen aginduak betez. Eta gainera, erabilera-araubideak gaur egun zona horietan egiten diren jarduerak —nekazaritza- eta basogintza-arlokoak barne— bildu behar dituela kontuan hartuta mugatzen du.

Nolanahi ere, IIT honek proposatzen du natura- eta/edo paisaia-balio handia dutela-eta udal-planeamenduaren arabera babestu behar diren zonak, betiere NBALAParen balio estrategiko handiko lurzoruen zati badira, **Natura Balio Handiko Nekazaritza Zona** gisa bil daitezela³².

³² Batez ere nekazaritzakoak diren Europako zonak, non nekazaritzak espezie- eta habitat-dibertsitate handiari eusten baitio edo horri loturik baitago, edo kontserbazio-arazoak dituzten espezieak baitaude. Andersen, E., Baldock, D., Bennet, H., Beaufoy, G., Bignal, E., Brouwer, F., Elbersen, B., Eiden, G., Godeschalk, G., Jones, G., McCracken, D.I., Nieuwenhuizen, W., van Eupen, M., Hennekens, S. & Zervas, G., 2003. Developing a high nature indicator. Report for the European Environment Agency, Kopenhage.

Azkenik, 5.3.1.8 atalean adierazita dagoenez, Araudiaren 75. artikuluan planteatu du komenigarria dela udal-planeamenduak bere tokiko lotura ekologikoko sare propioa definitzeko analisi xehea egitea.

Nekazaritza- eta basogintza-erabilerak hobetzeko hartu beharreko neurriak dagokienez, aditzera eman behar da hurrengo puntuan zehatuta daudela.

6.2. Neurri babesleen, zuzentzaileen eta/edo konpentsatzaileen proposamena

NBALAPa behin-behinean onartzeko dokumentuaren ingurumen-ebaluazioa egiten zen bitartean, Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txosten honek hainbat proposamen egin zituen: LAPean edo hori garatuko duen udal-planeamenduan sartu beharreko jarraibideak, nekazaritza- eta basogintza-erabileren portaera hobetzeko eta aurreko kapituluan antzemandako inpaktuak minimizatzeko.

Proposamenak eta LAPean sartu diren modua honako azpiatal hauetan bildu dira:

6.2.1. Lurzoruaren babesa

(1) Gune higagarriak gainjarritako baldintzatzailearentzako irizpide orokorretan honako hau sartzea:

"LAP honi atxikitako kartografiaren arabera 50 Tm/ha/urte baino higadura potentzial handiagoa duten zonetan, babes- eta leheneratze-irizpidea aintzat hartuta mantenduko da zuhaitz- eta zuhaixka-estaldura horrelakorik badago une honetan, eta ez da egingo lurzoruaren egonkortasunean eragina duen jarduerarik; era berean, zona horietan beharrezkoak diren nekazaritza- eta basogintza-jarduerak ahalik eta gehien zainduko dira".

(2) I. kapituluan —Artezpide Orokorrak—, 19. artikuluan, honako paragrafo hau sartzea:

"Nekazaritza-arloko Administrazioak lurzoria babesteaz arduratuko dira, indarrean dauden baldintzazkotasunari buruzko dekretuen esparruan (gaur egun 79/2010 Dekretua dago indarrean) definitutako neurriak aplikatuz; era berean, ardura hori NPbaren laguntza-dinamikaren barruan hartu ez diren laboreetara —hala nola, mahastietara— zabaltzea sustatuko dute"

(3) Honako paragrafo hau txertatzea 1. artikuluan:

"Nekazaritza-arloko Administrazioak lurzoria babesteaz arduratuko dira, Nekazaritzako Jokabide Egokien Dekretua EAEko akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-mapetan (Eusko Jaurl., 1995) definitutako akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren zona guztietan Nekazaritzako Jokabide Egokien Dekretua aplikatu dadin sustatuz".

Proposatutako hiru paragrafoak NBALAParen adierazitako artikuluetan txertatu dira.

6.2.2. Uren babesa

LAParen I. kapituluan —Artezpide Orokorrak—, 19. artikuluan, honako paragrafo hau sartzea:

Nekazaritza-arloko Administrazioek ekoizpen ekologikoa eta ekoizpen integratua bultzatuko dituzte nekazaritza iraunkorraren oinarri tekniko gisa. Lehenengoa sintesi-produktuen debekuan eta jatorri naturaleko substantzien erabileran oinarrituko da. Ekoizpen integratua sintesi-produktu kimikoen erabilera mugatuan oinarrituko da, erabiltzen den produktu horien kantitatea minimizatuz, betiere eragin kaltegarriak minimizatzeke

Dena den, aditzera eman behar da ekoizpen integratuko neurria II. LGPea (2007-2013) bildu dela. Horri dagokionez, LAP honek plan horren irizpideak eta helburuak bere egin eta garatzen ditu, eta, hortaz, LAParen jardun-tresnatzat har litezke.

NBALAPak honako hau sartu du adierazitako artikuluan: “*Nekazaritza-arloko Administrazioek ekoizpen ekologikoa eta ekoizpen integratua bultzatuko dituzte nekazaritza iraunkorraren oinarri tekniko gisa*”. Ondorengo esaldiak, nekazaritza ekologiko eta iraunkorraren deskribapenari buruzkoak, ez dira sartu, beste hainbat sektore-dokumentutan biltzen diren era horretako ekoizpenen deskribapen-datuak soilik ematen baitituzte.

6.2.3. Klima-aldaketatik babestea

Ongarri gutxiago erabiltzea: laboreak behar duen kantitatea soilik eta doitasunez eta behar den unean erabiliz, BEGen isuri ugari saihestuko litzateke.

LAParen I. kapituluan —Artezpide Orokorrak—, 19. artikuluan, honako paragrafo hau sartzea iradoki zen:

Nekazaritza-arloko Administrazioek ekoizpen ekologikoa eta ekoizpen integratua bultzatuko dituzte nekazaritza iraunkorraren oinarri tekniko gisa. Lehenengoa sintesi-produktuen debekuan eta jatorri naturaleko substantzien erabileran oinarrituko da. Ekoizpen integratua sintesi-produktu kimikoen erabilera mugatuan oinarrituko da, erabiltzen den produktu horien kantitatea minimizatuz, betiere eragin kaltegarriak minimizatzeke

Dena den, aditzera eman behar da ekoizpen integratuko neurria II. LGPea (2007-2013) bildu dela. Horri dagokionez, LAP honek plan horren irizpideak eta helburuak bere egin eta garatzen ditu, eta, hortaz, LAParen jardun-tresnatzat har litezke.

NBALAPak honako hau sartu du adierazitako artikuluan: “*Nekazaritza-arloko Administrazioek ekoizpen ekologikoa eta ekoizpen integratua bultzatuko dituzte nekazaritza iraunkorraren oinarri tekniko gisa*”. Ondorengo esaldiak, nekazaritza ekologiko eta iraunkorraren deskribapenari buruzkoak, ez dira sartu, beste hainbat sektore-dokumentutan biltzen diren era horretako ekoizpenen deskribapen-datuak soilik ematen baitituzte.

7. NBALAParen eraginak gainbegiratzea

7.1. Kontrol-helburuen definizioa

LAParen indarraldia mugagabetzat jotzen da, hori aztertu arte. Jarraipena egitea ezinbestekoa da:

- LAPa egoki aplikatzen dela egiaztatzeko.
- Proposatutako neurri babesle eta zuzentzaileak egoki ezartzen direla ziurtatzeko.
- Aurreikusi eta onartu ez diren balizko ingurumen-inpaktu esanguratsuak zaintzeko eta, hala badagokio, zuzentzeko.

LAPak biltzen dituen “Landa Lurra Kudeatzeko Erakundeak” edukitzea funtsezkoa da kontrol hori antolatzeko; izan ere, tresna horrek, besteak beste, lurraldea kudeatzeko funtzioa du (lurralde-antolamenduaren jarraipena; LAParen kartografia eguneratzea, lurralde- eta ingurumen-plangintzako prozesuak direla-eta egin behar diren aldaketak biltzeko; etab.).

Inpaktuak identifikatzeko eta baloratzeko atala egituratu den bezala (IITaren 5. atala), jarraipena ere 3 mailatan egin behar dela pentsatzen da:

- LAParen ingurumen-helburuen jarraipena.
- Proposatutako lurralde-ereduaren ezarpenaren jarraipena.
- Nekazaritza- eta basogintza-erabileren garapenaren jarraipena: Berez ez diren arrear LAParen proposamena, erabilera horien ingurumen-integrazioa hobetzen laguntzeko neurriak proposatu baitira, horiek betetzea eta horien ondorioak zaintzea ere proposatzen da.

7.2. Adierazleen identifikazioa

7.2.1. LAParen ingurumen-helburuen jarraipenerako adierazleak

III. IEParen helburuak	Lotutako LAParen edukiak	III. IEP-AREN ADIERAZLEAK
1. helburu estrategikoa: Berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea eta klima-aldaketaren eraginak minimizatzea EAEn.	Basogintza kategoria: irizpideak. CO ₂ -ko hustuleku gisa jokatzeko.	- EAeko BEGen isurien urteko bilakaera - Proposatutako sektoreko egokitzapen-neurrien kopurua
2. helburu estrategikoa: Dibertsitate biologikoaren galera gelditzea; ekosistemak leheneratzea eta lurra artifizialtzea mugatzea.	Ingurumenaren Hobekuntza kategoria. Ingurumenaren babesaren eta hobekuntzaren erabilera, kategoria guztietan ahalbidetu dena edo onar daitekeena.	- EAEn babestutako azalera (babes-araubide guztiak) - Izendatutako KBEen %-a - Proposatutako itsasoko GKLen %-a - Artifizialdutako lurzoru-azaleraren %-a
3. helburu estrategikoa: Baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea.	Lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioa eta erabilera-araudia: lurzoru naturalak okupatzeko mugak.	- Guztizko material-premia - Guztizko hondakin-sorkuntza, tipologiaren arabera xehatua (hirikoak, arriskutsuak, EEH, lehen sektorekoak). - Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen balioztze materialaren %a
III. IEPko konpromisoak	Lotutako LAParen edukiak	III. IEP-AREN ADIERAZLEAK
EAeko jarduera/sektore giltzarrien klima-aldaketaren inpaktuen aurrean urrakortasunaren analisia sustatzea.	Nekazaritza-/basogintza-sistemako azalerei buruzko datuak, Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Plana analizatzeko (KABEParen jardun-programa).	- Egokitzeko irizpideak lantzen eta ematen dituzten politiken kopurua.
Lurraldean habitat naturalek, erdinaturalek edo naturalizatuek okupatzeko azalera handitzea, eta horien kontserbazio-egoera etengabe hobetzea.	Lurraldearen zonifikazioa (azalera kuantifikatzeko lagungarria da). Ingurumenaren Hobekuntza kategoria. Ingurumenaren babesaren eta hobekuntzaren erabilera, kategoria guztietan ahalbidetu dena edo onar daitekeena.	- EAEn habitat naturalek, erdinaturalek eta naturalizatuek okupatzen duten azaleraren %-a
Lurraren artifizialtzea mugatzea.	Lurzoru natural berriak okupatzeko mugak (erabilera-araudia).	- Artifizialdutako azaleraren %-a
Euskal ekonomiaren guztizko produktibitate materiala % 4 hobetzea.	Nekazaritzako jokabide egokiak sustatzeari buruzko edukiak, nekazaritza- eta ingurumen-neurriak eta nekazaritzako sektore-ebaluzio protokoloan bildutako beste hainbat neurri.	- Produktibitate materialaren urteko guztizkoa. - Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen balioztze materialaren %a
Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen balioztze materialaren tasa % 5 handitzea hurrenez hurren		- Jardun-ildoan bitartez balioztzea bultzatzen diren hondakinen tona kopurua urtean
Lurraldeko birziklapenean eta hiri-, industria- eta azpiegitura-espazioen berritzean laguntzea lurzoru berriak okupatzearen ordezko aukera gisa	Lurzoru natural berriak okupatzeko mugak (erabilera-araudia).	- Artifizialdutako lurzoru-azaleraren %-a
EAeko administrazioen politika eta jardun	LAPA adostutako eta EAEn	- ILPNASak parte-hartze aktiboa izandako plangintzen kopurua

esanguratsuak prestatzen parte hartzea	erreferentziak diren ingurumen-irizpideak bere egiten dituen tresna gisa	- Erosketa eta kontratazio publiko berdearen ehuneko guztizkoarekiko, bolumen ekonomikoan eta kontratu kopuruan
Erosketa eta kontratazio publiko berdeko irizpideak txertatzea Eusko Jaurlaritzaren sailetan eta atxikitako sozietate eta erakunde publikoetan, erosketa publiko "esanguratsuen" % 100ean, horientzat ingurumen-irizpide definituak badaude		

7.2.2. Lurralde-ereduaren ezarpenaren jarraipenerako adierazleak

A) Lurralde-ereduaren ezarpenaren jarraipenerako adierazleak:

Ingurumen-aldagaia	LAParen inpaktuaren aurreikuspena	LAPa egoki ezarriko dela ziurtatzeko proposatutako adierazleak	Gainbegiratzea dagokion organoa ³³
Natura 2000 Sarea	Bateragarria/Positiboa	- Natura 2000 espazioak automatikoki aterako dira LAParen antolamendu-esparrutik kudeaketa-planak onartzen direnean. Ez da beharrezkoa izango LAPa aldatzerik. Udal-planeamenduan espazio horiek egoki ezarri direla gainbegiratu beharko da.	Ingurumen Sailburuordetza. Foru Aldundietako Ingurumen Departamentuak.
Hezeguneetako LAParen III. multzoa	Positiboa	- Hezegune horiek udalerrietako hirigintza-planeamenduan sartzea Hezeguneetako LAParen jarraibidea kaintzat hartuta, planeamendua berraztertzen denetan.	Ingurumen Sailburuordetza. Foru Aldundietako Ingurumen Departamentuak.
ING (LAA) eta LZPek babestutako guneak	Bateragarria/Positiboa	- Udal-planeamenduan LZPek babestutako guneak ezartzea.	Ingurumen Sailburuordetza. Foru Aldundietako Ingurumen Departamentuak.

³³ Izen generikoez aipatzen dira aldundietako departamentuetarako: hain zuzen ere, "Ingurumen Departamentua" edo "Nekazaritza Departamentua" esaten zaie adierazle bakoitzean adierazitako alderdiei buruzko eskumena duten departamentuei.

Landaredia eta habitatak	Bateragarria/Positiboa	<ul style="list-style-type: none"> - Udal-planeamenduan LAPak proposatutako antolamendu-kategoriak, erabileraraudiak eta nekazaritza- eta basogintza-erabileretarako ñabardurak erabiltzea, garrantzi berezia emanez zonen heterogeneotasuna onartzeari eta natura-intereseko elementuak baliotzeari. - Udal-planeamenduan natura-balio handieneko guneak txertatzea, babes bereziko kategorian. 	Ingurumen Sailburuordetza. Nekazaritza eta Landa Garapeneko Sailburuordetza. Foru Aldundietako Ingurumen eta Nekazaritza Departamentuak.
Flora- eta fauna-espezieak	Bateragarria	<ul style="list-style-type: none"> - Udal-planeamenduan Natura 2000 Sarea eta Korridore Ekologikoen Sarea ezartzea gainjarritako baldintzatzaile gisa. 	Ingurumen Sailburuordetza.
Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak	Positiboa	<ul style="list-style-type: none"> - Udal-planeamenduan onura publikoko mendiak eta mendi babesleak ezartzea gainjarritako baldintzatzaile gisa. 	Foru-aldundiak.
JHPa eta zortasun-zonak	Bateragarria	<ul style="list-style-type: none"> - Udal-planeamenduan Azaleko uren babeska kategoria txertatzea eta kategoria hori Ibai eta erreken LAParen informaziorik eguneratuenera egokitzea. - Proposamenak (zonak edo erabilerak) debekatzen dituzten ur-arloko agintaritza eskudunaren txostenen kopurua. Debekuak NBALAPean oinarrituta ezarri dira, UEZrekiko edo plan hidrologikoekiko bateraezintasunagatik. 	URA, Uraren Euskal Agentzia
ILJPa eta zortasun-zonak	Bateragarria	<ul style="list-style-type: none"> - Proposamenak (zonak edo erabilerak) debekatzen dituzten kostalde-arloko agintaritza eskudunaren txostenen kopurua. Debekuak NBALAPean oinarrituta ezarri dira, Kostaldee buruzko Legearekiko bateraezintasunagatik. 	Kosta-mugaketa, MARM-Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurune Ministerioa
Akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren zonak	Positiboa	<ul style="list-style-type: none"> - Udal-araudian nekazaritzako jokabide egokien kodea udalerraren esparru osora hedatzea sartzea. - Udal-planeamenduan "akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren zonak" gainjarritako baldintzatzaile hartzea. 	Nekazaritza eta Landa Garapeneko Sailburuordetza. Foru Aldundietako Nekazaritza Departamentuak.
Korridore ekologikoen sarea	Positiboa	<ul style="list-style-type: none"> - Udal-planeamendua EAEko edo ALHko korridore ekologikoen sarea txertatzea gainjarritako baldintzatzaile gisa. - Lotura ekologikoari buruzko xehetasun-azterketak egiteko eta korridore ekologikoen tokiko sare bat diseinatzeko udal-ekimene kopurua. 	Ingurumen Sailburuordetza. Foru Aldundietako Ingurumen Departamentuak.
Paisaia bereziak eta apartak	Positiboa	<ul style="list-style-type: none"> - Udal-planeamenduan paisaia-interes handieneko zonak txertatzea (LAParen proposamenaren arabera edo ALHko paisaia berezi eta aparten katalogoaren arabera) gainjarritako baldintzatzaile gisa. 	Ingurumen Sailburuordetza. Foru Aldundietako Ingurumen Departamentuak.

Gune urperagarriak	Bateragarria	- Ibaietan azpiegitura "gogorak" (harri-lubetak, etab.) instalatzeko eskabide kopurua, nekazaritza- eta basogintza-zonetako afektazioan justifikatuak.	URA, Uraren Euskal Agentzia
Gune higagarriak	Positiboa	- Udal-planeamenduan zona higagarriak txertatzea, LAPeko ereduaren arabera, gainjarritako baldintzatzaile gisa. - EAEn egindako hidrologia- eta baso-kudeaketako planen kopurua, urteko.	Nekazaritza eta Landa Garapeneko Sailburuordetza. Foru Aldundietako Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak.

B) Hobetzeko proposamenen ezarpenaren jarraipena

Arestian esanenez, NBALAPA behin betiko onartzeko dokumentuko ingurumen-ebaluazioaren ondoriozko hobekuntza-proposamenak plan horren aldaketan bere ingurumen-portaera hobetzeko izan dira.

7.2.3. Nekazaritza- eta basogintza-erabileren jarraipenerako adierazleak

Nekazaritza- eta basogintza-erabileren jarraipena jardura bakoitzaren garapeneraren sektore-esparruan egin behar da, aplikatzekoak diren araudiek ezarritakoaren arabera. Ez dagokio LAPari (adierazienez, ez du inoiz erabileren aldaketarik sustatzen) erabileren horien jarraipena egitea.

7.3. Muga- edo erreferentzia-mailak

Ingurumen-helburuak betetzeko erreferentzia-mailak IEPak bere adierazleen jarraipenerako markatzen ditu.

Lurralde-eredua egoki ezartzea ziurtatzeko proposatutako adierazleak, hein handi batean, kualitatiboak dira, "betetzea"/"ez betetzea" dikotomian oinarrituak, eta, hortaz, ez dago mugako atalaserik. Zenbait adierazle kuantitatiboak proposatu dira, hala nola:

6. Proposamenak (zonak edo erabilerak) debekatzen dituzten ur-arloko agintaritzaren eskudunaren txostenen kopurua. Debekuak NBALAPean oinarrituta ezarri dira, UEZreko edo plan hidrologikoekiko bateraezintasunagatik.
7. Proposamenak (zonak edo erabilerak) debekatzen dituzten kostalde-arloko agintaritzaren eskudunaren txostenen kopurua. Debekuak NBALAPean oinarrituta ezarri dira, Kostaldee buruzko Legearekiko bateraezintasunagatik.
8. Lotura ekologikoari buruzko xehetasun-azterketak egiteko eta korridore ekologikoen tokiko sare bat diseinatzeko udal-ekimenen kopurua.
9. Ibaietan azpiegitura "gogorak" (harri-lubetak, etab.) instalatzeko eskabide kopurua, nekazaritza- eta basogintza-zonetako afektazioan justifikatuak.
10. EAEn egindako hidrologia- eta baso-kudeaketako planen kopurua, urteko.

Ez dago adierazle horiek neurtzeko abiapuntu-daturik. Nolanahi ere, honako joera hau espero da:

- beheranzkoa gaur egungo egoerari dagokionez 1., 2. eta 4. adierazleentzat, egiten diren proposamen berriak dagoen araudiarekin bateragarriak izan daitezen hasieratik, eta ibai-ibilguetan azpiegitura "gogor" berririk susta ez dadin.
- goranzkoa egungo egoerarako, 3. eta 5. adierazleentzat, ingurumenari dagokionez plangintza integratuan aurrerapena direlako.

7.4. Gainbegiratzea

III. IEParen (eta ondoren idazten direnen) helburuak eta konpromisoak bete ote diren urtero gainbegiratuta NBALAPak laguntza eman dien ingurumen-helburuetan nola egin den aurrera egiaztatuko da.

Bestalde, IITaren 7.2.2 ataleko taulak bildutako erakundeei dagokie lurralde-eredua ezartzearen inguruan proposatutako adierazle guztiak gainbegiratzea.

Hobekuntza-proposamenak NBALAPean sartzearen jarraipenari dagokionez, IITa idatzi duen lantaldeak baloratuko du LAPa behin betiko onartzeko dokumentuan ezarri diren ala ez, eta emaitzak IIT honen eranskin batean bildu ahal izango dira.

1. addenda. LAPean egindako aldaketen ingurumen-analisia. 2011ko abendua

NBALAParen Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena 2011ko uztailekoa da. Orduan, LAPa behin-behinean onartuta zegoen, eta, ondoren, hainbat doikuntza egin zitzaizkion, ITEan laburtuta bildu direnak. Hauexek dira:

- Edukiak kentzea, *lex repetitae* dela-eta.
- LAPa hainbat dokumentutan berregituratzea eta araudia testu artikulatu bihurtzea.
- LAPetik sortutako txosten-proposamenak kentzea.
- LAAk babes bereziko kategoria handitzea.
- Ingurumen-baldintzatzaileak gehitzea nekazaritza- eta basogintza-jardueretarako.

Gehienbat oinarri juridikoko gaiak dira eta/edo planaren ingurumen-integrazio handiagoa sustatzeko, ingurumen-organoak egindako proposamenak. Nolanahi ere, etsi egin zaie LAParen helburuei eta lurralde-ereduaren proposamenari.

2011ko uztailetik aurtengo abendura arte, NBALAPa behin betiko onartzeari begira, hainbat bilera egin dira ingurumen-arloko organoarekin (ardura hori Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Lurralde Antolamendu Zuzendaritzak du) nahiz proposamenaren lurralde- eta hirigintza-koherentzia zaintzea dagokion organoarekin (sail horretako Lurralde Antolamendu Zuzendaritzarekin), baita saileko zerbitzu juridikoekin ere.

Aurrekoaren emaitza gisa, hainbat egokitzapen egin zaizkie NBALAParen dokumentuari eta kartografiari:

- Kartografia-eguneratzea.
- LAAetara egokitzea, kanpinei eta erabilera publiko intentsiboari lotutako bestelako instalazio handiei dagokienez.
- Araudiari buruzko argibideak, lehendik ziren nukleoei lotutako eta lotu gabeko garapen berriei dagokienez.
- Esplizituki adieraztea lurralde-planeamenduak (LZPak) eta udal-planeamenduak LAAekin bat datorren babes bereziko kategoria bat hartzeko premia, NBALAParen babesik gabe, arrazoi justifikatuak tarteko kategoria hori ez baitu aintzat hartzen.
- etab.

Nolanahi ere, aldaketa horiek ez diote eragiten NBALAParen jatorrizko planteamenduari; aldiz, horren lurralde- eta ingurumen-doikuntza hobea

ahalbidetzen dute, bere aplikazioaren ondorioz sor litezkeen ziurgabatesunak minimizatuta.

Aurreko guztiarengatik, pentsatzen da 2011ko uztailean idatzitako IITa guztiz baliozkoa dela NBALAPa behin betiko onartzeko eta ondoren egin zaizkion aldaketa txikiak plan honen ingurumen-integrazio hobeko sartu direla.

2. addenda. Ingurumen-alderdiak aintzat hartzea. 2012ko urria

1. Aurrekariak

Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren hasiera 90eko hamarkadaren amaierakoa da. Orduan, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten "Lurraldearen Arloko Plana nekazaritzako eta basogintzako eta natura-ingurunearen sektorean prestatzeko" (1998ko martxoa). Hitzarmen hartan, hauxe bildu zen:

"Natura-ingurunean duten eraginagatik nekazaritza- eta basogintza-arloek ingurumen-arloan duten garrantziak eta horien garapena natura-baliabideen errespetuarekin, kontserbazioarekin eta leheneratzearekin bateratzeko premiak berekin dakarte, garapen iraunkor baten barruan, lurralde-antolamendua ez zatitzea eta lurraldearen arloko plan bat prestatzera eramango duen koordinazio-konpromiso bat bilatzea (...)".

Horrek agerian uzten du LAPak hasieratik ingurumenaren aldeko joera nabarmena izan zuela, eta LAPa idazteko batzorde teknikoan ingurumen-eragileak txertatzea da horren seinale.

Bestalde, NBALAPa izapidetzen zen bitartean, ingurumen-arloko araudiak bilakaera handia izan du: LAParen hasieran EAEko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorra onartzeaz gain, plan eta programetako ingurumen-ebaluazioari buruzko honako araudi hau onartu da (ordena kronologikoan):

- Europako Parlamentuaren 2001/42/EE eta 2001eko ekainaren 27ko Kontseiluaren Zuzentaraua, plan eta programa jakin batzuk ingurumenean duten eraginen ebaluazioari buruzkoa (Ingurumen Ebaluazio Estrategikoari buruzko Zuzentarau" esaten zaio).
- 183/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duena.
- 9/2006 Legea, apirilaren 28koa, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eraginari buruzkoa.

LAParen lehen administrazio-onespenak tresna horiek onartu aurrekoak diren arren, izapidetze-aldi bakoitzean baliatu diren epe zabalen ondorioz, plan horri plan eta programen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioko prozedura normalizatua ezarri zaio (ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratua, IIEB edo IIEEko ingurumen-ebaluazio estrategikoa³⁴).

³⁴ Dokumentu honetan, "ingurumen-ebaluazio estrategikoa" (IEE) izendapena erabiliko da "ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratua" (IIEB) izendapenaren ordez, hobeto egokitzen baita Europako eta estatuko legedira zein 183/2003

Prozedura horrek ez du inondik ere murriztu NBALAParen helburuen eta edukien baliozkotasuna; aldiz, lagungarria izan da horiek sendotzeko eta batez ere landa-ingurunea babestera bideratutako dokumentu baten integrazioa gehitzeko.

Ondorengo ataletan, planaren ingurumen-ebaluazioko prozesuan sortu diren ingurumen-arloko alderdiak nola txertatu diren NBALAPean azaltzen da. Gai horietako gehienak LAParen Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenean (aurreranzkoan IIT) biltzen dira, eta dokumentu honetan ere aipatzen dira.

2. LAPean ingurumen-alderdiak esplizituki aintzat hartzea

2.1. Ingurumen-helburuak

2.1.1. Oinarrizko helburuak

IITaren 1.2 atalean, LAPak oinarrizko hainbat helburu planteatzen ditu, eta horietako bi gutxienez ingurumen-arlokoak dira:

- Nekazaritza- eta basogintza-jarduerak txertatzen direla finkatzea ingurumenaren kontserbazioa bermatzeko.
- Nekazaritzaren babesa ingurumenekoarekin bateratzea.

Helburu hauek planaren politika-esparrua ezartzen dute eta, horrela, argi ematen du egoeraren analisia eta diagnosis egiteko, ingurumeneko arazo eta gaien irismena erakusten baitu, eta planak horietaz arduratu behar du garapena modu iraunkorrean kudeatzeko.

2.1.2. Helburu operatiboak

IITaren 1.4 atalak oinarrizko helburuak aintzat hartuta NBALAPa formulatzeko oinarriztat hartu diren proposamen edo helburu operatiboak biltzen ditu. Helburu horiek plan guztian agertzen dira, batzuetan esplizituki adierazten ez badira ere. Funtsezko helburu operatiboez gain, inguru-arloko helburuak identifikatzen dira (IITaren 1.4.2. azpiatala):

- Nekazaritza-lurra babestea, natura-ingurunearen zaintzari estu lotutako baliabide gisa.
- Natura Baliabideak Antolatzeko Planen (NBAPen) barruti hierarkikorik handiena bere gain hartzea Babestutako Natura Guneen plangintzan, eta NBALAParen antolamendu-esparrutik kanpokotzat jotzea.

- LAAen babes bereziko guneetarako natura-baliabideak antolatzeko plan bat egitea komeni den erabakitzea.
- Modu bateratuan eskaintzea LAAetan proposatutako natura-intereseko guneen kartografia eta hauei buruzko beste informazio batzuk: Natura 2000 Sarea, parke naturalak, babestutako biotopoak, onura publikoko mendiak, etab.
- Gainjarritako baldintzatzailatzat jotzea hauek: Natura 2000 Sarea eta haren kudeaketa-planak, akuiferoen urrakortasuna, higadura, korridore ekologikoen sarea eta paisaia.
- Planak bere aplikazio-eremuan proposatutako antolamendua indarrean den beste legeria batek ezarritako erabilera-araubidearekin bateratzea: jabari hidrauliko publikoa eta itsasoko eta lurrekoa eta babeseko zortasun-zonak, etab.
- Plana LAParen antolamendu-esparruko lurraldearen, ingurumenaren edo antolamendu naturalaren planeamenduko gainerako tresnekin koordinatzea.

2.2. Aukera-analisirako ingurumen-irizpideak

IITaren 4.3 atalean bilduta dagoenez, NBALAParen hasierako onarpenaren baino lehentxeago arte ez ziren aipatu aukerak eta horien ingurumen-analisia. Ordura arte, esan liteke plana erabakiak hartzeko prozesu luze eta jarraituari esker egituratu zela, aukerak analizatzea planteatu gabe; aldiz, ingurumen-irizpideak erabili ziren proposatutako lurralde-eredua osatzeko.

Honako ingurumen-irizpide nagusi hauen arabera definitu dira bertsio guztiak (aurrerapena, hasierako onespenera, behin-behineko onespenera):

- Nekazaritza-lurzorua natura-baliabideak eta bereziki nekazaritza-kategorietan eta basogintza-kategorietan sartutako natura-balio handiko zonak zaintzeko moduan babestea.
- NBALAPean indarrean dagoen ingurumen-arloko araudia eta plangintza egoki aintzat hartzea.
- Nekazaritza-lurzorua baliaraztea ingurumen-zerbitzuen beste hornitzaile bat izan daitekeela aintzat hartuta.
- Xede diren lurzoruak erabilera-gatazkarik handiena dutenak direla onartzea, eta garrantzi berezia ematea lurzoru horiek natura-interes elementurik kaltetu gabe babesteari.

IITan egin den aukeren ingurumen-analisirako, halakotzat hartu dira proposatutako lurralde-ereduetan desberdintasun txikiak dituzten NBALAParen faseak. Fase edo "aukera" horietako bakoitzean honako ekarpen hauek izan dute ingurumen-inplikaziorik handiena:

- Aurrerapena (2001eko iraila):

- Lurzoru urbanizaezin guztia hartzen duen lurralde-ereduaren proposamena.
- Erabileren araubide loteslea oro har.
- Eduki zabalak natura-inguruneari buruz: espazio babestuak sartzeari, etab. (Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko eta Natura Inguruneako LAPa)
- Kategoriak proposatzea LAAak garatuz.
- Gainjarritako baldintzatzaileen proposamena LAAen osagarri.
- Erabilera identifikatzea/banatzea LAAak garatuz, arloa hobeto islatzeko.
- Hasierako onespenera (2005eko urtarrila):
 - Natura-inguruneari buruzko edukiak murriztea (NBALAP), baina hala ere gainjarritako baldintzatzaile berriei (ING, higadura, paisaia) eutsi egiten zaie.
 - Baso-kudeaketa iraunkorrari buruzko kontzeptuak sartzeari (sektore-testuingurua).
 - NBALAPetik babestutako beste zona batzuk ateratzea.
 - Erabileren araubide loteslea oro har, baina aurrerapenarekiko aldaketekin.
- Behin-behineko onespenera (2010eko azaroa):
 - LAPetik beste zona babestu batzuk ateratzea: hezeguneak, etab.
 - Kategoriak aldatzea.
 - Erabilera-araudia berraztertzea. Aldaketak matrizean, ñabarduretan eta LAParen lotespen-mailan.
 - Natura 2000ri buruzko arau-erreferentziak sartzeari.
 - Kartografia berraztertzea, Arabako Mendia gaitzategiaren azalera neurri handi batean handituta, eta lekututako ia guztiak ezabatuta.
 - Basogintza-sektoreari buruzko edukiak gehitzea: Mendiei buruzko Legea, erabilera publikoko mendiak, Baso Baliabideak Antolatzeko Planak (BBAP). Horrela oreka bat lortzen da nekazaritzako eta mendiko zonen artean.
 - Argitzea LAP beste LZO eta LAP batzuekin nola koordinatu behar den eta nola egokitu behar den udal-planeamendua.
- Behin betiko onespenerari buruzko dokumentua: azken fase hori LAParen behin-behineko onarpeneran hasi zen eta behin betiko onarpenerako dokumentua argitaratzeko prestatzen den arte iraun zuen, eta aldi horretan Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak aztertu zuen

(2012ko urriaren 11ko bileran). Aldi horretan, askotariko akordioak lortu dira foru-aldundiekin. Nabarmenena plana idatzi zuen taldearen eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren arteko koordinazio-lan eskerga da, bere ingurumen-inplikazioen arabera LAParen alderdirik esanguratsuena zuzentzeko eta biribiltzeko egindakoa, hurrengo atalean garatzen denez.

Oro har eta IITak deskribatzen duenez, NBALAPak izaera sektorialagoa hartu du bere izapidetze-prozesu guztian garatu behar dituen eskumenen ondorioz; baina neurri handiagoan inplikatu da EAEko natura-baliabideen zaintza indartzen duen proposamen batean ere, bai LAParen helburu-zonetan (nekazaritza- eta basogintza-arlorako balio handieneko lurzoruetan), bai lurzoru urbanizaezinaren gainerakoan.

2.3. Kontsulten eta parte-hartzearen ondoriozko ingurumen-alderdi nagusiak

Aurrerapeneko nahiz hasierako onarpeneko faseetan jasotako zenbait alegazio ingurumen-arlokoak ziren. Honako taula honetan laburtu diren hauek nabarmendu behar dira. Taulan, nork aipatu dituen eta NBALAPean nola erantzun zaien adierazten da.

Erakundea/alegazioa egin duen pertsona	Alegazioa	Erantzuna
Uren Zuzendaritza, ILPNAS, EJ	Basogintza-erabilari lotutako jarduerak xehatzea eta arautzea, jabari hidrauliko publikoan izan dezaketan inaktuagatik.	Xehatzea basogintza-erebileraren matrizean (62. art.) eta Ibaien LAParekiko koordinazio-argibideak (5. art.).
	Gune higagarrietan hidrologia- eta basogintza-planak ezartzeko eskatu zuten.	LAPean premia horri buruzko aipamena txertatu da (56. art.).
	Zuhaitz-espezie autoktonoentzat aloktonoentzat baino babesneurri handiagoak eskatu zituzten.	ELPE, PDRS eta beste plan batzuk bere egiteaz gain (hortaz, landaredia autoktonoa exitokoaren aldean lehenenestea inplizituki hartzen da aintzat), LAPak honako alderdi hauek biltzen ditu: - OPMak eta mendi babesleak gainjarritako baldintzatzailea, modu loteslean, BBAPak aipatuz (57. eta 73. art.). - Babes bereziko kategoria: udal-planeamenduak horiek mugatzeko jarraibideak, baso autoktonoak barnean hartuta (46. art.).
	Hezeguneetako LAParen III. multzoko hezeguneen babesa sustatzea.	Hezeguneetako LAParekiko koordinazioa argitzea (5. art.). III. multzoak LAP horretako gomendioak aplikatu behar direla zehazten da.
Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentua, GFA	Onura publikoko mendiak kartografian biltzeko eskatu zuten.	Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak gainjarritako baldintzatzaile bihurtu dira eta hala bildu dira LAParen kartografian (57. eta 73. artikulua).
Nekazaritza Saila, BFA	Mendiei buruzko 43/2003 Legea sartzea eta onura publikoko mendiak eta mendi babesleak gainjarritako baldintzatzailetzat hartzea.	Mendiei buruzko Legea "Esparru juridikoa" atalean txertatu da (BBAPei eta Mendi Zuzendaritzaren txostenaren premiak aipatuta), baita "Legedia" atalean ere. Gainera, onura publikoko mendiak eta mendi babesleak gainjarritako baldintzatzaile bihurtu dira eta hala bildu dira LAParen kartografian (57. eta 73. artikulua).
Arabako Foru Aldundia: hirigintzako, ingurumeneko eta nekazaritzako eskumenak dituzten departamentuak	Hainbat txosten eta lan-bileratan bildutako zenbait alegazio. Hauek nabarmendu behar dira: Onura publikoko mendiei dagokienez, dokumentuan garrantzi erlatiboa gehitzeko eskatu zuten.	Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak gainjarritako baldintzatzaile gisa bildu dira, eta hori, gainera, loteslea da (57. eta 73. art.).
	Erabilera-matrizean nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin zerikusia duten erabilerak hobeto bereizteko eskatu zuten, eta zehazki gutxienez laborearen edo eraikuntza-jardueren nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueraren berariazko jarduerak bereizteko.	Lotutako eraikuntzen nekazaritzako/abeltzaizako/basogintzako erabilerak bereizi dira (28.-30. eta 62. artikulua). Hala, erabilerak eraginkorrago bereiztea eta ingurumena gehiago babestea ahalbidetzen da.

	NBALAPean LAAetako babes berezko zonak edo Arabako Arau Subsidiarioetako aparteko balio zientifikoko eta/edo naturaleko zonak txertatzeko eskatu zuten, planeamendu horren berariazko araubidearekin eta babesarekin.	Ez dira sartu. Hala ere, gehiago aurreratu da alderdi horretarako justifikazioan eta argiago deskribatu da LAAeak udal-planeamenduari lotu beharra udalerrietako natura-baliorik handieneako guneak babes bereziko kategoria honetan biltzeko (46.-47. artikulua).
	“Basogintzako” kategorien babes-maila gehitzea (Mendia gainkategoriena), nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala kategoriari dagokionez.	Nekazaritzako kategorietan debekatuta dauden edo nahi ez diren natura-balio handiko zonetara bideratzeko saihesteko helburua dute. Hori saihesteko, LAPak lotespen-maila murriztu du bakarrik balio estrategiko handia azpikategoriara eta onura publikoko mendiak eta mendi babesleak gainjarritako baldintzatzaileira. Gainera, nekazaritza-kategorietan erabilera jakin batzuetarako permisibitatea gehitu da (batez ere trantsizioko landa-eremuan) eta aldi berean basogintza-kategorietan jaitsi egin da. Dena den, LAParen zati hori ez litzateke loteslea izango (62. art.).
	Arabako baso-zona guztiak egokiro babesteko premia, baita txiki-txikiak ere.	Arabako Foru Aldundiak probintzia horretarako emandako kartografia onartu da. Kartografia horrek justifikaziorik gabe kanpoan utzitako balio estrategiko handiko zona zabalak berreskuratu dira. SIGPAC delakoan oinarrituta eginda dagoenez, aldundiak basoa eta basoa-mendi meatsa kategorietan sartu dituen zona txiki guztiak identifikatu dira (ez paperezko planoetan, eskala dela-eta; bai, ordea GISekin bateragarria den formatuan). Gainera, LAParen testuan ondoen kontserbatutako zonak babesteko premia bildu da (46. art.).
	Isurialde atlantikoa eta mediterranea garbi bereizteko premia, eta aintzat hartzea isurialde atlantikoan nekazaritza-lurzoruaren urritasuna handiagoa dela eta isurialde mediterraneoan nekazaritza-lurzoru erabilgarri gehiago daudela eta, beraz, erabilera jakin batzuetarako permisibitate handiagoa har daiteke.	Matrize bereizia ezarri da Guardiako eta Araba Erdialdeko arlo funtzional jakin batzuetarako (61.-62. art.).
Bizkaiko Espeleologia Federazioa.	Karsterako kategoria bereizia eskatu eta hartarako berariazko artezpideak eskatu zituzten.	Ez da kategoria bereizirik bildu karsterako, baina aipatu egiten da Akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren guneak gainjarritako baldintzatzailean, Federazioak iradokitako zenbati artezpide biltzen direnean (71. art.).
Javier Loidi	Gune higagarriak gainjarritako baldintzatzailea: aditzera eman zuen zuhaitz-estaldura babes- eta leheneratze-irizpidean oinarrituta sartu eta zabaldu behar dela.	Ekarpen hori bildu egin da (56. art.); izan ere, pentsatu da egokia dela beren higagarritasun-baldintzak direla-eta bereziki urrakorrak diren zonen ingurumen-babeserako.
Gasteizko Udala eta beste hainbat	Uste dute EAEn debekatu egin beharko liratekeela espezie exotiko inbaditzaileak dituzten abeltzaintza-ustategiak, batez ere bisoi amerikarra, koipua eta Floridako galapagoa dutenak, maila loteslean (erabilera eta jardueren definizioan).	Ekarpen hori 13. artikuluan idatzitakoaren arabera bildu da, espezie horien inbasio-prozesuen arriskuak saihesteko.
	Itxitura eta hesiak ezartzeko, itxituren ezaugarriak eta altuera zerbitzu emango dioten azienda-espezieek baldintzatzeko eskatu zuten, eta, oro har, basoko faunaren	Ekarpen hori lotura ekologikoa sustatzeko premia aintzat hartuta bildu da (20. art.).

	banaketari eragin liezaiokeen sare "zinegetikorik" ez erabiltzeko.	
	Araban baso-masak nekazaritza-erabilerekin txandakatzearen desegokitasuna adierazi du.	Isurialde mediterraneorako baieztapen hori desegokia dela onartu da eta, beraz, isurialde atlantikoari buruzko aipamena sartu da (50. art.).
Etxebarriko Udala (Bizkaia)	Hondakindegietarako: permisibitate-maila gehitzea trantsizioko landa-eremuetan.	Ekarpen hori bildu da (62. art.). Hondakindegia eta hondakin solidoen zabortegietarako permisibitate-maila gehitzearen (onargarria trantsizioko landa-eremua, basoa-mendi meatsa, basoa eta ingurumen hobekuntza kategorietan) helburua da erabilera hori nekazaritza-balio handiagoko (balio estrategiko handia) eta natura-balio handiagoko (larre menditarrak, larre menditarrak-haitzak) beste kategoria batzuetan saihestea.

2.4. Ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduraren ondoriozko alderdi nagusiak

2.4.1. Ingurumen-organoaren txostenen alderdirik nabarmengarrienak

Ingurumen-organoak honako txosten hauek egin ditu dokumentuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuko prozeduraren esparruan:

- Ingurumen-inpaktuari buruzko aurreiazko txostena (IIAT), 2004ko Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitate Sailburuordetzaren maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez egina.
- Ingurumen-inpaktuari buruzko behin betiko txostena, Ingurumen Sailburuordetzaren 2012ko martxoaren 5eko Ebazpenaren bidez egina.

Ez da erreferentziazko dokumenturik egin, ez baita kontsulta-faserik izan (183/2003 Dekretuaren 6. art.); izan ere, dekretua NBALAPa hasieran onartzear zegoela jarri zen indarrean. Hasierako onspena aurreikusitakoa baino geroago egin zen, besteak beste LAPa IEEko prozeduraren pean jartzeko premiagatik, eta aukera hori ez zen ordura arte aintzat hartu.

Hona hemen ingurumen-organoak bere txostenetan edo talde idazlearekiko bileretan egindako ekarpen nagusien laburpen-taula. Bertan, halaber, alderdi horiek behin betiko onartzeko aurkezteko NBALAPean nola erantzun zaien biltzen da.

Aditzera eman behar da IIBTak NBALAParen izapidetzea eta izapidetzean zenbait ingurumen-alderdi nola hartu diren aintzat laburtzen du eta ingurumen-ebaluazioko prozesuaren ondoriozko aldaketak adierazten ditu.

IIATan bildutako alderdiak	LAParen erantzuna
IIATak IIEBari buruzko azterlanaren gabeziak nabarmentzen ditu, hainbat alderdiri dagokienez: plan eta programekiko elkarreraginaren analisia, ingurumen-diagnostikoa, aukeren azterketa, sektoreko inpaktuei buruzko balorazioa, GIIEarekin eta IEParekin testuinguruan kokatzea, etab. Guztietan, beharrezkotzat jotzen du osatzea.	Beste azterlan bat idatzi zen —Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena (IIT)— 2011ko uztailean, IIATek adierazitako gabeziak osatuta.
Laburpen-dokumenturik ez IIEBeko azterlanean.	IITak (2011ko uztailean) laburpen-dokumentua bildu zuen, 183/2003n Dekretuak ezartzen duenaren arabera.
Legedia IIATak ematen duen ingurumen-araudiarekin osatzea.	Legediari buruzko atala kendu egin da, zaharkitutako legerik atera ez dadin, ingurumen-araudi eguneratua LAParen eta IITaren dokumentuetan barrena sartu da.
LAPak planteatzen dituen ingurumen-helburuak esplizituki aipatzea.	IITan (2011ko uztailean) bildu da, LAPean txertatutako dokumentu bat da.
Nekazaritzaren eta ingurumenaren babesaren arteko bateragarritasuna txertatzea LAParen helburu gisa.	Hala biltzen da, IITaren 1.2 atalean nabarmentzen denez, eta hori LAParen helburu nagusietako bat da.
Mendiei buruzko 43/2003 Legea aipatzea.	Lege horren xedapenetako batzuk LAParen 57. eta

	73. artikuluetan sartu dira, onura publikoko mendiak eta mendi babesleak gainjarritako baldintzatzailean (loteslea). Esplizituki aipatzen da baliabidearen aprobetxamendu iraunkor baten premia.
Hezeguneetako eta Itsasertzak Antolatzeko LAParekiko koordinazioa hobetzea.	Koordinazioa argitu da (5. art.), tresna horiek hobeto bateratzea ziurtatzeko.
IIBTan bildutako alderdiak	LAParen erantzuna
Aditza eman da babes bereziko kategoria ez mugatzeak lurzoru urbanizaezinaren kalifikazio desegokiak esleitzea ekar lezakeela eta horrek ingurumen-eragintza negatiboak izan litzakeela.	LAParen 46. artikuluan garbi adierazten da udal-planeamenduak, LAAeak garatuz babes bereziko kategoria hori mugatu behar duela. Gainera, kategoria horretan sartu beharreko espazioak aipatzen dira. IIBTak onartzen duenez, <i>"garapeneko hirigintza-planeamendua eta horren ingurumen-ebaluazioak zaindu beharko dituzte babes bereziaren kategorizazio egokia"</i> .
Ingurumen-planifikazioarekiko koordinazioari dagokionez, komenigarritzat jotzen du LAParen 3. artikuluko c) atalean Natura 2000 Sareko espazioak aipatzea, kontserbazio-neurri onartuak dituzten ala ez kontuan hartu gabe. Ingurumen-organoren arabera, bestela neurri horiek onartzea zail daiteke.	NBALAParen 3. artikuluko c) atala honela idatzita dago behin betiko onespenerako dokumentuan: <i>"c) Natura 2000 Europako Sare Ekologikoko espazioetan"</i> .
Erabilerak eta jarduerak arautzen dituen matrizean, IITak komenigarritzat jotzen du argitzea "3a" letraz markatutako erabilera bat beti modu mugatzailean interpretatu behar dela, kasu horietan erabilera bat onartuko balitz hori salbuespena izango litzatekeela bil dadin.	LAPA behin betiko onartzeko dokumentuak alderdi hori argitzen du. Zehazki, 61. artikuluko honako hau biltzen du debekatutako erabileretarako: "3. Debekatua. <i>3a. Erabilera ez da egokia antolamendu-kategorian. Salbuespen gisa, onargarria izango da baldin eta nekazaritza-arloan eskumena duen organoren txosten batek eta plan eta programen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura batek bermatzen badute. Prozedura horrek berariaz hartu behar du aintzat nekazaritza- eta basogintza-jardueraren gaineko afektazioa eta neurri zuzentzaileak AAEPan jasotako baldintzetan biltzea (D dokumentua, NBALAParen I. eranskina, "Jardun-tresnak")"</i> .
Lurralde-garapeneko tresnen ingurumen-ebaluaziorako artezpideak.	IIBTak LAParen garapen-planeamenduan kontuan hartu beharreko zenbait artezpide eta neurri proposatzen ditu. Addenda honetan espresuki adierazita, gomendio horiek onartzen dira aintzat hartu eta nekazaritza- eta basogintza-jarduera gauzatzeko sektore-arloko plangintza- eta kudeaketa-tresnei adierazitako alderdiak kontuan hartzeko eskatzen zaie.
Ingurumen-eraginak minimizatzeko neurriak sektore-plangintzaren garapenean	

2.4.2. IITak proposatutako alderdi gehigarriak

IITaren 6.3 atalean bilduta dagoenez, IITak hainbat proposamen propio ditu: LAPean edo hori garatuko duen udal-planeamenduan sartu beharreko jarraibideak, nekazaritza- eta basogintza-erabileren portaera hobetzeko eta antzemandako inpaktuak minimizatzeko.

Proposamenak eta LAPean sartu diren modua honako azpialal hauetan bildu dira:

2.4.2.1. Lurzoruaren babesa

(1) Gune higagarriak gainjarritako baldintzatzailearentzako irizpide orokorretan honako hau sartzeko eskatzen zen:

“LAP honi atxikitako kartografiaren arabera 50 Tm/ha/urte baino higadura potentzial handiagoa duten zonetan, babes- eta leheneratze-irizpidea aintzat hartuta mantenduko da zuhaitz- eta zuhaixka-estaldura horrelakorik badago une honetan, eta ez da egingo lurzoruaren egonkortasunean eragina duen jarduerarik; era berean, zona horietan beharrezkoak diren nekazaritza- eta basogintza-jarduerak ahalik eta gehien zainduko dira”.

Paragrafo hau 72. artikuluko 7. atalean txertatu da.

(2) I. kapituluan —Artezpide Orokorrak—, 19. artikuluan, honako paragrafo hau sartzeko eskatzen zen:

“Nekazaritza-arloko Administrazioak lurzoria babesteaz arduratuko dira, indarrean dauden baldintzazkotasunari buruzko dekretuen esparruan (gaur egun 79/2010 Dekretua dago indarrean) definitutako neurriak aplikatuz; era berean, arduraren hori NPbaren laguntza-dinamikaren barruan hartu ez diren laboreetara —hala nola, mahastietara— zabaltzea sustatuko dute”.

Azkenik, honako paragrafo hau sartu da LAPean, lortu nahi diren helburuak betetzen dituela uste baita:

“Nekazaritza-arloko administrazioak lurzoria babesteaz arduratuko dira dagokion sektore-araudiaren barruan hartarako ezarritako neurriak aplikatuz”.

(3) 13. artikuluan honako paragrafo hau txertatzea gomendatzen zen:

“Nekazaritza-arloko Administrazioak lurzoria babesteaz arduratuko dira, Nekazaritzako Jokabide Egokien Dekretua EAEko akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-mapetan (Eusko Jaur., 1995) definitutako akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren zona guztietan Nekazaritzako Jokabide Egokien Dekretua aplikatzea dadin sustatuz”.

Arabako Foru Aldundiak eskatuta, paragrafo honen idazketa berraztertu da eta LAParen 14. artikuluko —Hondakin organikoaren kontrola— 4. atalean sartu da, honela:

“Nekazaritza-arloko Administrazioak lurzoria babesteaz arduratuko dira, EAEko akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-mapetan (Eusko Jaur., 1995) definitutako akuiferoen kutsadurarekiko urrakorrak diren zonak beren urrakortasun-mailaren arabera babesteko neurriak aplikatzea sustatuz”.

2.4.2.2. Uren babesa

LAParen I. kapituluan —Artezpide Orokorrak—, 19. artikuluan, honako paragrafo hau sartzeko iradoki zen:

“Nekazaritza-arloko Administrazioek ekoizpen ekologikoa eta ekoizpen integratua bultzatuko dituzte nekazaritza iraunkorraren oinarri tekniko gisa. Lehenengoa sintesi-produktuen debekuan eta jatorri naturaleko substantzien erabileran oinarrituko da. Ekoizpen integratua sintesi-produktu kimikoen erabilera mugatuan oinarrituko da, erabiltzen den produktu horien kantitatea minimizatuz, betiere eragin kaltegarriak minimizatzeko”.

Dena den, aditzera eman behar da ekoizpen integratuko neurria II. LGPea (2007-2013) bildu dela. Horri dagokionez, NBALAPak plan horren irizpideak eta helburuak bere egin eta garatzen ditu, eta, hortaz, LAParen jardun-tresnatzat har litezke.

NBALAPak honako hau sartu du 19. artikuluko 6. atalean: *“Nekazaritza-arloko Administrazioek ekoizpen ekologikoa eta ekoizpen integratua bultzatuko dituzte nekazaritza iraunkorraren oinarri tekniko gisa”.* Ondorengo esaldiak, nekazaritza ekologiko eta iraunkorraren deskribapenari buruzkoak, ez dira sartu, beste hainbat sektore-dokumentutan biltzen diren era horretako ekoizpenen deskribapen-datuak soilik ematen baitituzte.

2.4.2.3. Klima-aldaketatik babestea

Ongarri gutxiago erabiltzea: laboreak behar duen kantitatea soilik eta doitasunez eta behar den unean erabiliz, BEGen isuri ugari saihestuko litzateke.

LAParen I. kapituluaren —Artezpide Orokorrak—, 19. artikuluan, honako paragrafo hau sartzea iradoki zen:

“Nekazaritza-arloko Administrazioek ekoizpen ekologikoa eta ekoizpen integratua bultzatuko dituzte nekazaritza iraunkorraren oinarri tekniko gisa. Lehenengoa sintesi-produktuen debekuan eta jatorri naturaleko substantzien erabileran oinarrituko da. Ekoizpen integratua sintesi-produktu kimikoen erabilera mugatuan oinarrituko da, erabiltzen den produktu horien kantitatea minimizatuz, betiere eragin kaltegarriak minimizatzeko”.

Dena den, aditzera eman behar da ekoizpen integratuko neurria II. LGPea (2007-2013) bildu dela. Horri dagokionez, LAP honek plan horren irizpideak eta helburuak bere egin eta garatzen ditu, eta, hortaz, LAParen jardun-tresnatzat har litezke.

NBALAPak honako hau sartu du adierazitako artikuluan: *“Nekazaritza-arloko Administrazioek ekoizpen ekologikoa eta ekoizpen integratua bultzatuko dituzte nekazaritza iraunkorraren oinarri tekniko gisa”.* Ondorengo esaldiak, nekazaritza ekologiko eta iraunkorraren deskribapenari buruzkoak, ez dira sartu, beste hainbat sektore-dokumentutan biltzen diren era horretako ekoizpenen deskribapen-datuak soilik ematen baitituzte.

2.5. Behin betiko onespenerako dokumentuko aldaketak: justifikazioa

NBALAPa behin betiko onartu aurreko aldiaren plan hori termino jakin batzuetan egokitu da, ingurumeneko, lurralde-plangintzako eta uren sailburuordetzek, foru-aldundiek eta Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordean ordezkaturik dauden beste hainbat erakundek egindako ekarpenak aintzat hartuta.

Hauexek dira NBALAPa behin betiko onartzeko dokumentuan sartu diren aldaketa nagusiak:

- 1) LAParen memoria berraztertzea, datu estatistiko eguneratuak emanaz eta lurraldeari zein natura-inguruneari buruzko planeamenduaren inguruko aipamenak eguneratuz.
- 2) Kartografia zuzentzea EHLABaren txostenean adierazitako alderdietan.
- 3) Araudian:
 - a) 3. artikulua zuzentzea, Natura 2000 Sareari dagokionez, ingurumen-organok bere IIBTan eskatutakoaren arabera.
 - b) Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena LAParen zati gisa onartzea gainerako dokumentuekin batera (7. art.).
 - c) Ingurumen-alderdi arauemaileei buruzko aipamena txertatzea (espezie babestuei buruzko kudeaketa-planak, espezie inbaditzaileei buruzko araudia, abeltzaintza-ustiatzei buruzko arau teknikoak, etab. Hainbat artikulua).
 - d) Garrantzi komunitarioko habitatak eta erabilera jakin batzuen garapenean katalogatutako espezieak babesteko premiari buruzko aipamena (28.2.g artikulua, etab.).
 - e) Guardiako LZParen 1. aldaketari buruzko aipamena sartzea upeltegien erabilera arautzeko oinarri gisa.
 - f) Hirigintza-hazkunderen araudian Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeari buruzko aipamenak sartzea (40. art.).
 - g) Arabako nekazaritza-ingurunearen bereizgarriak identifikatzea, honako hauen bidez:
 - i) Nekazaritza-matrizean sartutako heskaiak, ezpondak eta antzeko elementuak berariaz aipatzea (50.4.12.a art.).
 - ii) Guardiako eta Araba Erdialdeko arlo funtzionalak bereiztea matrizearen erabilera jakin batzuetarako (61.4 eta 62. art.): aisia intentsibora lotutako instalazio handiak eta eraikuntzak eta onura publikoko eta gizarte-intereseko eraikinak. Helburua da Arabako nekazaritza-lurzoruaren —beste arlo funtzional batzuetan baino askoz zabalagoa da— erabilera jakin batzuk hartzeko gaitasuna onartzea da.

- h) Flora exotiko inbaditzailea duten guneak leheneratu beharreko ingurumen-hobekuntzako gune gisa aitortzea, espezie horiek errotik kenduta (52. art.).
 - i) Matrizearen erabilera-araudiaren interpretazioa argitzea (61.3 art.).
 - j) Natura-intereseko guneetan zona horietan "*espazio horiek dituzten natura-balioetan eragina duten baso-jardun agresiborik*" ez egiteko premia espresuki txertatzea (74. art.).
- 4) Berriki onartutako urriaren 2ko 193/2012 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-lurra kontserbatzeari eta lur horren erabilpena sustatzeari buruzkoaren) aipamena sartzeari, AAEPa aplikatzearen emaitzaren ondorioz ezar litezkeen neurri konpentsatzaileetan inplikazioak baititu (I. eranskineko D dokumentua, Jardun-tresnak).

Nolanahi ere, ingurumenean inplikazio esanguratsurik ez duten egokitzapenak dira. Izan dezaketen eragin positiboak direla-eta honako aipamen hauek nabarmendu behar dira: 3 a), b), c), g.i) h) eta i). Bestalde, Araba Erdialdeko eta Guardiako arlo funtzionalen matrizean bereizteari dagokionez, 3 g.ii) aipamenak ahalbidetzen duen nekazaritza-lurzoruen okupazioaren helburua da ingurumen-aldetik baliotsuagoak diren kategoriak babestea (basokoak) inplikaturako bi arlo funtzionaletan behar bezain ugaria den nekazaritza-lurzoru baten okupazioaren kaltetan. Hots, LAPak bere baliabide babestua kentzea onartzen du lurraldearen ingurumen-babes handiagoa ahalbidetzeko.

3. Ondorioak


IITan adierazita dagoenez, NBALAParen ingurumen-ebaluazio estrategikoa (IEE) prozesu dinamiko bat izan da: ingurumen-organoarekin bilerak egin dira LAParen hasierako onespentik aurrera, eta etengabeko ingurumen-ebaluazioak berak dokumentua aldatzeko aukera eman du.

Hala, ingurumen-organoak eskatutakoaren ondorioz, behin betiko onartzeko aurkeztu den LAPean eduki osagarriak sartu dira LAAen babes bereziko kategoriari buruz, hori udal-planeamenduan modu egokian identifikatzen eta ezartzen dela ziurtatzeko. Bestetik, LAParen behin betiko onespenari buruzko dokumentuan egin zen ingurumen-ebaluazio zorrotzaren ondorioz, planari aldaketa batzuk egiteko proposamena egin zen, eta planak bere edukietan txertatu ditu, bere proposamenean ingurumen-portaera hobetzeko.

NBALAParen izapidetze-fase guztietan sartu diren ingurumen-arloko aldaketak IITaren 4. eta 6. ataletan garatzen dira eta osatu eta laburbilduta jaso dira dokumentu honetan.

Ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostenak (IIBTak) berak III. atalean adierazitakoa errepika daiteke hemen: *“IIEBaren azterlanean egindako ebaluazioa ingurumen-afektazio nagusien identifikazioa egokitzen da eta gauzatutako prozesuak berekin ekarri du, gainera, LAPak zehaztapen batzuk aldatzea eta bere garapenak berriz definitzea, afektazioak ekiditeko edo minimizatzeko, ezarrita dauden neurriak txertatu eta planean jasoak dauden ingurumen-arloko gogoetak zabaltzeko”*.

Hala, baliozkotu egin da NBALAPean ingurumen-alderdiak kontuan hartzea. Alabaina, zenbait artezpide eta ingurumen-eraginak minimizatzeko neurri aipatzen dira sektore-plangintzaren garapenean; dokumentu honetan, horiek beharrezkotzat jotzen dira garapen-planeamendua definitzeko eta ebaluatzeko.



ANEXO II
Mapa de Unidades Ambientales
II. ERANSKINA
Ingurumen-Unitateen mapa

- Unidades ambientales / Ingurumen unitateak**
- Agraria / Nekazaritza
 - Forestal / Basoa
 - Matorral-subforestal / Sastrakadi-zuhaixkak
 - Pasto Montano / Larre menditarra
 - Roquedos / Harkaitzak
 - Areas degradadas / Zona degradatuak
 - Aguas superficiales continentales / Lurrazaleko ur-kontinentalak
 - Zonas costeras / Kostaldeko zonak
 - ENP / BNG
 - Zonas urbanas / Hiriguneak